

Annuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Gehigarriak XLII

EUSKARAREN AZENTUERAK

JOSE IGNACIO HUALDE



Gipuzkoako Foru Aldundia Euskal Herriko Unibertsitatea
Donostia Bilbo
1997

ASJU-REN GEHIGARRIAK
ANEJOS ASJU
SUPPLEMENTS OF ASJU

- V. NILS M. HOLMER, *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*, 1964, 1991. 2.000 pta. (1.600).
- VI. LUIS VILLASANTE, *Fr. Pedro A. de Añibarro. Gramática vascongada*, 1970. 1.000 pta. (800).
- VII. CÁNDIDO IZAGUIRRE, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*, 1971. Segunda edición con índice inverso de Gerardo Markuleta, 1994. 2.000 pta. (1.600).
- VIII. *Papers from the Basque Linguistics Seminar. University of Nevada. Summer 1972, 1974.* 1.200 pta. (1.000).
- IX. JULIEN VINSON, *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Con las anotaciones del ejemplar de Julio de Urquijo*, 1984. 3.000 pta. (2.500).
- X. LUIS MICHELENA, *Sobre historia de la lengua vasca*, 1988. Agotado.
- XI. LUIS MICHELENA - IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 2.000 pta. (1.500).
- XII. HUGO SCHUCHARDT, *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*, 1989. 1.000 pta. (800).
- XIII. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agotado.
- XIV. JOSEBA A. LAKARRA (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 6.000 pta. (5.000).
- XV. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I: XVI-XIX. mendeak*, 1992. 2.500 pta. (2.000).
- XVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *La pastorale souletine: édition critique de «Charlemagne»*, 1990. 2.500 pta. (2.000).
- XVII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz II: XIX-XX. mendeak*. Prestatzen.
- XVIII. JOSEBA A. LAKARRA, *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, 1994. 1.500 pta. (1.200).
- XIX. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, II. Arduin-Beuden*, 1990. Agotado.
- XX. LUIS MICHELENA, *Lenguas y protolenguas*, 1963, 1986, 1990. 1.000 pta. (800).
- XXI. ARENE GARAMENDI, *El teatro popular vasco. (Semiótica de la representación)*, 1991. 2.000 pta. (1.600).
- XXII. LASZLÓ K. MARÁCZ, *Asymmetries in Hungarian*. 1991. 2.500 pta. (2.000).
- XXIII. PETER BAKKER, GIDOR BILBAO, NICOLAAS G. H. DEEN, JOSÉ I. HUALDE, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, 1991. 1.500 pta. (1.200).

EUSKARAREN AZENTUERAK

Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Gehigarriak XLII

EUSKARAREN AZENTUERAK

JOSE IGNACIO HUALDE

Gipuzkoako Foru Aldundia Euskal Herriko Unibertsitatea
Donostia Bilbo
1997

- © Jose Ignacio Hualde
- © «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia
- © Euskal Herriko Unibertsitatea

I.S.B.N.: 84-7585-971-2

Lege-Gordailua: 114/98

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimategia: Itxaropena, S.A.
Araba Kalca, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

AURKIBIDEA

Aurkibidea.....	v
Aitzin-solasa.....	ix

LEHEN ZATIA. AZENTUAZ

Lehen kapitulua: Hastapenak.....	3
1.1. Sarrera.....	3
1.2. Azentuaren izaera fonologikoa.....	5
1.3. Azentu ezarketa.....	6
1.4. Zenbait kontzeptu.....	6
Bigarren kapitulua: Azentu sistemen teoria eta tipologia.....	9
2. 1. Azentu ezarketa arauen tipologia: Ertzeko azentua eta azentu morfologikoa.....	9
2. 2. Azentu ezarketa sanskrito vedikoan.....	11
2. 3. Kuantitatezko sistema mugagabeak (<i>unbounded</i>).....	13
2. 4. [+ertz] sistemetako «leihoak» azaltzeko proposamen teoriko bat.....	13
2. 5. [+ertz, +kuant] azentu sistemak.....	15
2. 6. Beste proposamen bat: van der Hulst (1996).....	17
2. 7. Azentuaren teoriaren helburuak.....	19
2. 8. Laburpena: [+ertz, ±kuant] sailkapena eta analisiak.....	21
2. 9. Azentu arauak eta salbuespenak.....	22
2.10. Azentu bereizgarria.....	23
2.11. Azentu sistemen konplexutasunaz.....	23
Hirugarren kapitulua: azentua, tonua, intonazioa.....	25
3. 1. Sarrera.....	25
3. 2. Indar-azentuzko hizkuntzak: gaztelania.....	26
3.2.1. Azentu ezarketa gaztelaniaz: leihoak eta beste murriztapen batzuk.....	26
3.2.2. Azentua eta kuantitatea gaztelaniaz.....	29
3.2.3. Hitz eratorri eta elkartuak.....	29
3.2.4. Aditzen azentua.....	30
3.2.5. Azentu bigarrenkaria.....	31

3.2.6. Laburpena eta zenbait gogoeta.....	31
3.2.7. Azentuaren ezaugarri fisikoak gaztelaniaz eta indar-azentuzko beste hizkuntza batzuetan.....	32
3.2.8. Azentua eta intonazioa gaztelaniaz.....	45
3. 3. Stockholmeko suediera.....	48
3. 4. Serbo-kroaziera.....	53
3. 5. Tokyoko japoniera.....	55
3.5.1. Azentu patroiak.....	55
3.5.2. Azentuen banaketa lexikoa eta azentu ezarketa arauak.....	57
3. 6. Osaka-ko japoniera.....	59
3. 7. Tonu hizkuntza prototipiko bat: shona.....	61
3. 8. Tonu banaketa murriztuko tonu hizkuntza bat: jita.....	64
3. 9. Txinera (mandarinera).....	67
3.10. Galderak tonu hizkuntzetan.....	69

BIGARREN ZATIA. EUSKAL AZENTUAZ

Laugarren kapitulua: sarrera eta Ekialdeko azentubidea.....	73
4. 1. Sarrera.....	73
4. 2. Ekialdeko azentubidea: ezaugarriak eta hedadura.....	74
4. 3. Zuberera.....	75
4.3.1. Azentu patroiak flexiogabeko oinarrietan.....	75
4.3.2. Hitz elkartuen azentuera.....	77
4.3.3. Izenki flexiodunak.....	78
4.3.4. Azentu oxitonoa /-a/-z bukatutako oinarriekin.....	82
4.3.5. Oinarri proparoxitonoak.....	83
4.3.6. Laburpena.....	84
4. 4. Erronkaria.....	85
4.4.1. Oinarri motak.....	85
4.4.2. Izenki flexiodunak.....	90
4.4.3. /-a/-z bukatutako oinarriak.....	93
4.4.4. Hitz eratorri eta elkartuen azentuera.....	95
4.4.5. Azentu bigarrenkaria.....	96
4.4.6. Azentua eta beste bilakaera fonologiko batzuk.....	97
4.4.7. Ohar diakroniko bat.....	97
4. 5. Zaraitzuera.....	98
4. 6. Erro eta Esteribar haranak (Mezkiritz, Usetxi, Eugi).....	99
4. 7. Luzaide.....	101
4. 8. Baztan.....	102
4. 9. Ultzama.....	102
4.10. Lapurdi eta Nafarroa Beherea.....	106
4.11. Laburbilduz.....	108

Bostgarren kapitulua: Erdialdeko azentubidea	109
5.1. Erdialdeko azentueraren ezaugarriak eta hedadura	109
5.2. Bortziriak (Bidasoa harana)	110
5.2.1. Azentu patrioiak eta arauak	110
5.2.2. Sinkopa Arantzako hizkeran	114
5.3. Hondarribia	120
5.4. Pierre d'Urteren lapurtera zaharra	125
5.5. Oñati	127
5.6. Beasain	130
5.6.1. Azentu patrioiak eta arauak	130
5.6.2. Hitz eratorriak eta elkartuak	135
5.6.3. Maileguak egokitzeko azentu arauak	136
5.6.4. Beste salbuespen lexiko batzuk	140
5.7. Hego-mendebaldeko Goi-Nafarrera	140
5.8. Euskara batua	142
Seigarren kapitulua: Mendebaldeko zenbait sistema berezi	149
6.1. Sarrera	149
6.2. Antzuola eta Bergara	150
6.2. 1. Azentuera orokorra	150
6.2. 2. Pluralaren azentuera	151
6.2. 3. Azentu algoritmoa	152
6.2. 4. Azentu unitateak aditzaren forma jokatugabeetan	153
6.2. 5. Genitiboaren azentua	154
6.2. 6. Oinarri markatuak	155
6.2. 7. Hitz elkartuak	156
6.2. 8. Hitz eratorriak	157
6.2. 9. Azentu oxitonoa aditz forma jokatueta	157
6.2.10. Laburpena	157
6.3. Azkoitia (Urolaldea)	158
6.3.1. Azentuera orokorra	158
6.3.2. Azentueren konparaketa	160
6.3.3. Pluralaren azentua	161
6.3.4. Azpeitia/Urrestillako plurala	164
6.3.5. Hitz markatuak	165
6.3.6. Aditz partizipioen azentuera	166
6.4. Zeberio eta Arratia	167
6.4.1. Singularren eta pluralaren azentuera	167
6.4.2. Lekuzko formak	170
6.4.3. Oinarri markatuak	170
6.4.4. Aditz partizipioak	171
6.4.5. Hitz azentudunak eta azentugabeak	172

Zazpigarren kapitulua: Bizkaiko kostaldeko doinu-azentu sistemak	173
7.1. Ezaugarriak eta hedadura	173
7.2. Gernikaldea	173
7.2.1. Azentu patroiak: morfema azentudun eta azentugabeak	173
7.2.2. Hitz eratorriak eta elkartuak	179
7.2.3. Azentu ezabaketa: atzizki bortitzak	180
7.2.4. Ezkerralderako eta eskuinalderako azentu lerraketak zenbait hizkeratan	181
7.2.5. Galdegaiaren azentua	186
7.2.6. Prominentzia mailak	187
7.2.7. Esaldien melodiak	191
7.3. Lekeitio	193
7.3.1. Hitz markatu eta markatugabeen azentuera	193
7.3.2. Hitz elkartuak	196
7.3.3. Azentu 'sintaktikoa'	197
7.3.4. Hitz eratorriak	197
7.3.5. Azentu lexikoaren arau orokorrerako salbuespenak	199
7.3.5.1. Zeharkako aginduak	199
7.3.5.2. Postposizioen azentuera	200
7.3.6. Hitz prosodiko eta morfologikoak	200
7.4. Ondarroa	201
7.4.1. Hitz markatu eta markatugabeak	201
7.4.2. Talde markatugabeen azentua	206
7.4.3. Azentu oxitonoa	207
7.4.4. Beheko bokalaren asimilazioa eta isilpeko bokalak	209
7.4.5. Azentu lexikoa	210
7.4.6. Morfema markatu eta markatugabeak	213
7.4.7. Galdegaiaren azentua	214
7.4.8. Hitz prosodikoak	215
7.5. Markinaldea (Markina, Etxebarria)	216
7.5.1. Azentuera nagusiak	216
7.5.2. Azentu lexikoan eskuinalderanzko lerraketa	219
7.6. Akabukoa	220
Zortzigarren kapitulua: Bizkai-Gipuzkoetako azentubideen bilakaera diakroni- koa	223
8.1. Sarrera gisa	223
8.2. [+am] markaren jatorri historikoa Bizkaiko kostaldeko azentu sisteman	224
8.3. Bizkai-Gipuzkoetako beste azentubideen garapen historikoa	228
8.4. Mitxelenaren Errenteriako azentua	231
Aipamenak	235

AITZIN-SOLASA

Nik oso lagun onak ditut euskalarien artean; nigan betidanik sinistu dutenak. Lagun hauek bultzatu naute eskuetan duzun liburu hau idaztera. Nire lagun euskalari-ekin daukadan zorra ezin dut kitatu; baina, behintzat, aipatu egin dezaket.

Azentuari buruzko nire lantxoak argitaratzen hasi nintzenetik, Joseba Lakarrak gai honetaz liburu bat idatzi behar nuela esan dit behin eta berriz; eta azkenean, idatzi egin dut. Agian orain bakean utziko nau. Urteetan zehar Josebak mota askotako laguntza eman dit liburu hau argitaratzeko bidean jartzeko. Josebaren bitartekotasunaz, bi aldiz, 1994an eta 1996an, Gasteizko Fakultatean doktorego ikastaro bat ematera konbidatu ninduten. Bigarrena euskal azentuari buruzko ikastaro monografiko bat izan zen. Ikastaro horretarako prestatu nituen ikasgaiak erabili ditut liburu hau idazteko abiapuntutzat. Jon Ortiz de Urbinari esker, gai honetaz beste ikastaro bat eman nuen Deustuko Unibertsitatean duela zenbait urte. Liburu honen hazia orduan erein zela esan daiteke. Eskerrik asko nire Deustuko eta Gasteizko ikasle guztiei.

Hasiera batean, liburua erdaraz idaztekotan nintzen, baina Koldo Zuazok hurrengo liburua euskaraz idatzi behar nuela hainbeste aldiz esanda gero, euskaraz idazteko konbentzitu ninduen. Koldok izkribu osoa irakurri du birritan. Bere eskuetatik pasatu ondoren erdarakada gordinenak behintzat ez dira argitaratzen den testuan agertuko eta nire *lapsus mentis atque calami*-ak askoz guttiago izango dira. Gorka Elordietak ere irakurri du testua eta ohar zehatzak bezain zorrotzak egin dizkit. Arantza-zu Elordietarekin ere zorretan nago testuari azken irakurketa eta niri irazkin garrantzitsu asko emateagatik.

Hemen erabiltzen ditudan euskarazko datu gehienak neuk egindako inkestetatik jaso ditut; hau da, ingelesez *fieldwork* deitzen denaren bidez. Nire esker ona bihoakie nire berri-emaile guztiei. Batzuen izenak dagokien lekuan aipatzen baditut ere, beste asko izenez aipatu gabe gelditu dira, halabeharrez. Hau gertatu da batez ere datuak nire lan zaharragoren batetik hartu ditudanean. Han hor hemengo hitzuneekin kontaktuan jartzeagatik, Ricardo Gómez, Orreaga Ibarra, Joseba Lakarra, Jon Ortiz de Urbina eta Koldo Zuazori eskerturik nago. Iñaki Gaminde ezin eskuzabalagoa izan da nirekin, bere herriz-herriko ibilaldietan jasotako datu altxorra nire eskuetan jarriz.

Mila esker Lourdes Oñederra, Endrike Knörr, Xabier Artiagoitia, Xabier Bilbao, Patxi Goenaga eta Gasteizko Euskal Filologia Saileko beste kide guztiei beren artean pasatutako denboran hain harrera ona emateagatik. Ingeles Sailean, María Luisa García Lecumberri, Inma Urteaga eta Vidal Valmala aipatu nahiko nituzke hemen; Filo-

logia Klasikoan Gidor Bilbao, Joaquín Gorrochategui, Iñigo Ruiz Arzalluz eta Koldo Sainz; eta Linguistika Sailean, Andolin Eguzkitza, Mari Jose Ezeizabarrena eta Itziar Laka.

Alfontso Irigoien zenak niretzat hitz onak izan zituen beti eta gogoan daukat.

Euskal azentuaz arduratu direnen artean, Iñaki Gamindek, Patxi Altunak, Txillardegik eta Manu Etxebarriak laguntza eta babesa eman didate. Karmele Rotaetxerekin ez naiz beti ados egon azentu kontuetan; baina desadostasun hauek nire ideiak zehazteko lagundu didate. Eskerrik asko denei.

Azken urte hauetan European Science Foundation delakoak antolatutako Hizkuntz Tipologia Ikerketa Taldean parte hartzeko ohorea izan dut. Mila esker Word Prosody azpi-taldearen zuzendaria izan den Harry van der Hulst-i eta taldeko beste kide guztiei. Lan talde honetan parte hartzeak oso garrantzi handia izan du nire ikerketa lanaren garapenean.

Hemen, Illinoisko Unibertsitatean, bi izen aipatu nahi ditut: Jennifer Cole eta Chuck Kisseberth, fonologilari bikainak eta lagun onak. Beraiekin edozein momentuan fonologiak aritzeko eman didaten aukera bihotzez eskertzen diet.

Aipatutakoez gainera, Myriam Uribeetxebarriak, Javi Ormazabalek, Alazne Landak eta Jon Francok adiskidetasunaren oparia egin didate eta laguntza logistikoa eman.

Humanum est errare eta ni gizaki humanoa naiz. Agian irakurleak barkatuko nau behar baino akats eta hutsegite gehiago aurkitzen baditu liburu honetako orrietan.

J.I.H, University of Illinois at Urbana-Champaign,
1997ko ekaina

j-hualde@uiuc.edu

LEHEN ZATIA
AZENTUAZ

LEHEN KAPITULUA

HASTAPENAK

Et quid est ipse accentus? ita definitus est 'accentus est quasi anima voci'.

(Pompeius, *Commentum artis Donati*)

1.1. Sarrera

Liburu honen helburu nagusia euskal azentueraren berri ematea da. Baina euskal azentuera ez da bat eta bakarra. Euskal azentuerak esan behar dugu, beraz, pluralean. Euskal Herri guztietako azentuera ez dela berdina aspaldidanik da gauza ezaguna. Adibidez, Zuberoako azentuerari nortasun berezia ezagutu izan zaio ia betidanik. Hori horrela bada ere, garai bateko euskalariet uste zuten bazegoela euskal azentuera orokor bat. Gauza aipagarri bat gertatu zen mende honen hasieran: gai honetaz arduratu zen euskalari bakoitzak hobekien ezagutzen zuen azentuera, bere herrikoa hain zuzen, azentuera orokortzat hartu zuen. Orixek «acento vasco» izena duen lanean (Ormaetxea 1919), batez ere bere Nafarroako jaioterriko azentuera deskribatu zuen. Azkuek (1923, 1931-32), berriz, Lekeitiokoa hartu zuen euskal azentubide orokortzat. Eta Altubek (1934) Azkueren deskribapenarekin bere desadostasuna erakutsiz esan ziguna Arrasateko hizkerari dagokio, baina ez Lekeitiokoari. Harrigarria bada ere, ikerlari hauek ez omen zuten ikusi begibistakoa dena; hots, bakoitza azentu sistema desberdin bat deskribatzen ari zela. Beste euskalari batzuek, Rollok (1925) bere Markinako hizkeraren azterketan esate baterako, azentuzko fenomenoak alhora uztea erabaki zuten, garrantzi ttikikoak izango balira bezala. Egia esan, bai euskalari eta baita jende arruntaren artean ere, euskaraz azenturik ez dagoen ustea aski zabal-duta dago oraindik ere.

Gaurregun, ordea, argi dago euskal hizkeretan aniztasun handia aurkitzen dugula azentu kontuetan, fonologia eta morfologiazko beste gauza askotan bezala. Aniztasun honetaz asko irakatsi digute Gamindek azken urteotan burututako datu bilketa lanek (1993, 1995a, 1995b, 1995c, 1996b, etab.), cf. Gaminde & Hualde (1995) ere. Beste aldetik, lan monografikoan bidez, zenbait euskal hizkeren sistema prosodikoez konplexutasun handia dutela ikasi dugu (adibide bat emateko, ikus Hualde, Elordieta & Elordieta 1994, Elordieta 1996, Lekeitioko hizkerarako). Gauzak horrela, eskuan duzun liburu hau ezin daitekeela osoa izan argi egon beharko luke. Euskal azentuera guzti-guztiak ezin ditut kontuan hartu «zeren anhitx moldez eta diferentki minzaten baitira euskal herrian». Aldi berean, hau hizkera jakin bati buruzko azterketa monografikoa ez denez gero, azentu sistema bat edo bi sakonki ikertzea ez litzateke ego-kia. Gelditzen den aukera euskal azentu molde nagusiak aurkeztea da, beraien ezau-garri garrantzitsuenak azalduz. Zein dira, baina, euskal azentu molde nagusiak?

Mitxelenak (1972), klasiko bihurtu den sailkapen batean, hurrengo azentu motak bereizi zituen: Mendebalde-Erdialdekoa (edo bizkaiera eta gipuzkerarena), Bidasoakoa, Nafarroa Garaikoa eta Zubero-Erronkarietakoa. Artikulu berean, Pierre d'Urte idazle lapurtarrak erabilitako azentuera aztertu eta bostgarren azentu-mota nagusitzat hartu zuen. Mitxelenak, hala ere, ez zuen sailkapen hori behin-betikotzat jo. Hain zuzen, ondoko hitz hauekin bukatzen du bere artikulua: «Almost everything remains to be done».

Nik neuk, duela urte mordoska, «acentos vizcaínos» lanarekin (Hualde 1989), euskal azentuaren azterketari hasiera eman nionean, laster ikasi nuen bizkaieraren eremuan oso azentubide desberdinak erabiltzen direla. Ordutik hona, ezagutza gehitu eta ulermena sakondu ahala, euskal azentu moldeen sailkapenik egokienari buruzko iritzia aldatu dut, cf. Hualde (1995a, 1996b). Noski, azentuerak sailkatzeko erabiltzen ditugun irizpideen arabera, sailkapen desberdinak izango ditugu. Adibidez, ikuspegi diakronikotik egindako sailkapena eta azentuaren izari edo ezaugarri fonetikoak irizpide nagusitzat hartzen dituena ez dira, nahitaez, berdinak izango.

Liburu honetan, gehien ardura diguna azentu arau sistemen deskribapena denez gero, erabiliko dudan irizpide nagusia azentu arau orokorra izango da. Irizpide honen bidez, azentu mota zabal batzuk bereiz ditzakegu. Horien arabera eginik dago liburu honetako bigarren partearen kapitulu banaketa.

Ekialdeko eskualde handi batean, azentua azkenurreko silaban kokatzen da kasu orokor edo normalean. Hau da, Txillardegiren (1985) laburpena erabiliz, arau nagusia [-2] da. Euskal azentuera mota hau laugarren kapituluaren miatuko dugu. Noski, Zuberoako eta Ultzamako azentuerak, adibidez, ez dira berdinak, nahiz eta bietan arau nagusia [-2] izan. Kapitulu honetan ekialdeko hizkera multzo bat ikusiko dugu, desberdintasun aipagarrienak azalduz.

Nafarroako ipar-mendebaldean, Gipuzkoako parte handiengan, Araban eta Bizkaiko eskualde batzuetan, aldiz, araua [+2] da; hau da, azentua bigarren silaban kasu orokorrean. Azentuera mota hau bostgarren kapituluaren gaia da. Bostgarren kapituluaren Sakana, Imotz eta Nafarroako beste zenbait eskualdetan erabiltzen den azentu-era ere aztertuko dugu, nahiz eta hemen arau nagusia [+2] ez izan.

Gipuzkoako mendebaldean, azentu arau desberdinak aurkitzen ditugu: Urolaldean, arau nagusia [+3] da. Bergaran eta Antzuolan, aldiz, [-2]. Baina ingurune morfologiko batzuetan, beste azentu patroiz batzuk agertzen zaizkigu eta kasu batzuetan azentua azkenurreko silaba baino askoz ezkeralderago kokatzen da. Sistema hauek eta hauekin antzekotasun handia duen Arratia eta Zeberioakoa seigarren kapituluaren kontsideratuko ditugu.

Bizkaiko iparraldean azentuera berezi bat dugu; besteak baino konplexuagoa. Hemen azentua hitz taldearen azken edo azkenurreko silaban kokatzen da kasu orokorrean, baina morfologiaren arabera patroiz desberdinak aurkitzen ditugu. Azentuaren gauzatze fonetikoak ere berezia da, eta askotan silaba andana bat goiko tonu maila batean ahozkatzen da. Eskualde honen barnean ere, desberdintasun nabariak aurkitzen ditugu eta batzuk behintzat kontuan hartuko ditugu zazpigarren kapituluaren.

Nahiz eta gaurregun oso azentu arau desberdinak izan, zazpigarren kapituluaren aztertutako Bizkaiko kostaldeko sistemak eta [+2] sistema batzuek lotura diakroniko garbiak dituzte, seigarren kapituluaren ikusitakoak zubia direlarik. Ikuspegi historikotik

egindako sailkapena, beraz, desberdina izango litzateke. Zortzigarren eta azken kapituluak, bilakaera historikoari buruzko hipotesi batzuk plazaratuko ditut.

Aipatu ditugun kapituluak liburu honetako bigarren partea osatzen dutenak dira. Baina liburu honek lehen parte bat dauka, iruditu baitzait euskal azentuerak aztertu baino lehen azentua zer den argitu behar dela, alderdi teoriko eta tipologikoak kontuan hartuz. Lehen kapitulu honetan, gero erabiliko ditugun zenbait kontzeptu azaltzen dira. Bigarrenean, azentu ezarketa arauen tipologiaz arituko gara. Eta, hirugarrenean, azentua eta tonua hizkuntzen arabera nola elkartzen diren ikusiko dugu.

1.2. Azentuaren izaera fonologikoa

Zenbaitetan segmentuen beste tasun bereizgarri bat izango balitz bezala hartua izan bada ere (Chomsky & Halle 1968), azentua oso bestelako ezaugarri fonologikoa da. Azentua eremu edo unitate bateko silaba bati ematen zaion prominentzia edo nagusitasun fonologikoa dela esan dezakegu. Azentua ez da zerbait absolutua, erlatiboa baizik. Edo beste hitz batzuekin esateko, ez dago silaba azentudunik azentugaberik gabe. Silaba bat azentuduna den jakiteko, eremu bereko beste silabekin konparatu behar dugu. Silaba bakarreko esaldi batean, ezin dugu galdetu silaba hori azentuduna edo azentugabea den. Guttierrez bi silaba behar ditugu. Aldiz, silaba isolatu horrek bokal sudurkaria duen, dardarkari bat duen, edo, tonu hizkuntza batean, zein tonu mota duen egin ditzakegun galderak dira, beste ezaugarri fonologiko hauek guztiok paradigmaticoak baitira, azentua ez bezala (ikus, adibidez, Garde 1968, Hyman 1978, Beckman & Edwards 1994). Normalean azentuaren eremua hitza da, baina talde fonologikoa edo beste unitate bat ere izan daiteke. Frantsesez, adibidez, ez dago hitz-mailako azenturik; aldiz, azentua hitz andana edo talde prosodikoaren azken silaban jartzen da. Printzipioz, hitz edo unitate jakin batean silaba bakar batek eraman dezake lehen mailako azentua. Gehienetan ere, baina ez beti, silaba azentudunaren kokagunea eremuaren ezker edo eskuinaldeko mugatik kontatuz erabakitzen da; edo beste modu batean esateko, silaba azentuduna ezin egon daiteke kontuan hartzen den mugatik oso urrun. Gaztelaniaz eta beste zenbait hizkuntzatan, adibidez, azentuak hitzaren azken hiru silabetariko batean egon behar du eta ezin daiteke egon beste inongo silabatan. Honetan, argi eta garbi, azentu eta tasun bereizgarrien artean oinarritzko diferentzia bat dugu. [+sudurk], [+goi] eta beste tasun bereizgarriak segmentuei dagozkie eta, oro har, haien banaketak ez du murriztapen berezirik hitzaren eremuan. Hau da, hitz batean segmentu batek, bik edo gehiagok [+sudurk] edo [+goi] tasuna eraman dezake eta tasun jakin bat duten segmentuak edozein kokagunetan egon daitezke. Horretan ez dago murriztapenik, asimilazio edo disimilazio arau berezirik ez badago hizkuntzan. Azentua beste tasun bereizgarri bat izango balitz ([+azentu]), gauza bera espero genuke: segmentu azentudunak edozein lekutan aurkitzea. Baina, esan bezala, hori ez da gertatzen.

Azentua tasun bereizgarritzat ez hartzeko beste arrazoi bat bere gauzatze fonetiko da. Ikusiko dugunez, hizkuntza askotan ez dago erlazio zuzenik azentuaren eta parametro artikulatorio edo akustiko bakar baten artean. Egia esan, gauza bera gertatzen da beste tasun fonologiko batzuekin ere, baina azentuaren kasuan askoz nabarmenagoa da. Hitz batean silaba jakin batek azentua daramala esaten dugunean, si-

laba horrek gorentasun prosodikoa eramateko ahalmena duela esan nahi dugu. Baina gorentasun edo nagusitasun prosodiko horrek ez du nahitaez propietate fisiko jakin bati loturik egon behar (adibidez, intentsitaterik gorena edo F \emptyset -ko gailur bat). Hain zuzen, fonetistentzat azentuaren gauzatze fonetikoa hizkuntza desberdinetan interes handiko gaia da. Itzuliko gara gai honetara.

Hizkuntza baten azentua aztertzerakoan azentuaren kokagunea eta azentuaren gauzatze fonetikoa bereizi behar ditugun gauzak dira. Azentuaren banaketa berdintsua izan daiteke bi hizkuntzatan nahiz eta azentuaren gauzatze fonetikoa desberdina izan, eta alderantziz. Bi gai hauek, beraz, atal berezietan aztertuko ditugu.

1.3. Azentu ezarketa

Lehenengo eta behin, hizkuntza ezberdinetan azentuaren kokagunea erabakitzeke erabiltzen diren erregelak eta aurkitzen diren murrizpenak kontsideratuko ditugu. Hizkuntza batzuetan erregela hauek oso sinpleak dira. Adibidez, txekeraz eta hungarieraz azentua hitzaren lehen silabak darama; swahiliz hitzaren azkenaurrekoak; frantsesez talde prosodikoaren azkenak. Hizkuntza hauetan ez dago inolako salbuespenik: hitz guztiak modu berean azentuatzen dira.

Latinez, gauzak zertxobait konplikatukoak dira, baina ez asko: azentua azkenaurreko edo hirugarrenaurreko silaban doa. Azkenaurreko silaba astuna bada, azentua silaba horretan doa; eta arina baldin bada, hirugarrenaurrekoan: *formí:ca*, *perféctum*, *tá-bula*. Latinez ere ez dago salbuespenik: araua jakinez gero, hitz guztien azentuera aurrean dezakegu.

Gaztelaniaz latinak zuen lekuan mantendu da azentua ia beti, baina konplikazio asko sortu dira hizkuntza honen bilakaera historikoan. Latinez ez bezala, gaztelaniaz ez dago hitz guztiei aplikatzen zaien erregela orokorrik. Badira, hala ere, murriztapen garbiak silaba azentudunaren kokaguneaz, azken urte hauetan burutu diren gaztelaniaren azentuari buruzko ikerketa lan ugariak erakutsi dutenez (ikus Harris 1983, 1995, Roca 1990, beste batzuen artean). Beste hizkuntza batzuetan, suedieraz esate baterako, azentu arau nagusia zein den erabakitzea ez da batere gauza erraza. Itzuliko gara gai honetara hirugarren kapituluan.

1.4. Zenbait kontzeptu

Gogoan hartzeko:

- Azentua ez da segmentuei dagokien tasun bereizgarri bat, baizik eta eremu edo unitate batean silaba jakin bati ematen zaion prominentzia edo nagusitasun prosodikoa.
- Prominentzia ez da edozein silabatan kokatzen. Hizkuntzek arau zehatzak ohi dituzte azentuzko prominentzia ezartzeko.

Liburu honetan hurrengo definizioak darabiltzagu:

Erroa: Hitzaren muina, funtsezko esanahia daraman morfema. Adibidez, *txistuarekin* eta *txistularia* hitzetan erroa *txistu* da.

Oinarria: Erroa gehi eratorpen atzizkiak. Adibidez, *txistularia* hitzean, oinarria *txistulari* da (*txistu*, erroa + *lari*, eratorpen atzizkia). Oinarria morfema bakarrekoa bada (eratorpen atzizkirik ez badago) oinarria = erroa; adib. *txistuarekin* hitzean, *txistu* = erroa = oinarria. Hitz elkartu edo konposatuek bi oinarri (edo gehiago) dauzkate.

Azentu unitatea: Azentuaren eremua. Azentu unitate batean lehen mailako azentu bakar bat daukagu. Gehienetan azentu unitatea hitza da, baina hitz andana (talde prosodikoa) ere izan daiteke (adib. frantsesez edo Gernikaldeko euskaraz zenbait kasutan). Beste batzuetan hitza baino eremu tikiagoa izan daiteke (adib. konposatu batzuetan).

Oin metrikoa: Azentua ezartzeko kontuan hartzen den leihoa. Leiho honek gehienetan bi silaba edo bi mora hartzen ditu (burua eta menpekkoa), bi patroï nagusi emanaz: trokaikoa, burua – menpekkoa (x .), eta ianbikoa, menpekkoa – burua (. x).

Azentu oxitonoa = azken silaban, paroxitonoa = azkenurreko silaban, proparoxitonoa = azkenhirugarren silaban.

Azentu bigarrenkaria = bigarren mailako azentua.

Azentuera eta azentubide hitzak txandaka eta gauza bera adierazteko erabiliko dira, funtsezko bereizketarik gabe.

BIGARREN KAPITULUA

AZENTU SISTEMEN TEORIA ETA TIPOLOGIA

2.1. Azentu ezarketa arauen tipologia: Ertzeko azentua eta azentu morfologikoa

Azentua azentu unitatearen hasierako edo bukaerako ertzetik kontatuz ezar daiteke. Adibidez: fineraz (suomieraz) eta hungarieraz azentua lehen silaban jartzen da; frantsesez, azken silaban; polonieraz, zubereraz eta swahiliz azkenaurreko silaban; latinez azkenaurrekoan astuna bada, eta bestela azkenhirugarrean; mendebaldeko euskal hizkera askotan, bigarren silaban kasu normalean; mazedonieraz, azkenhirugarren silaban. Azentu ezarketa mota hau adierazteko *ertzeko azentu* deitura erabiliko dugu, azentua unitatearen ertz batetik kontatuz ezartzen baita. Beraz, azentua ezartzeko, unitatearen hasieratik edo bukaeratik kontatzen bada ertzeko edo [+ertz] sistema izango dugu. Hauetako sistema batzuetan, hasierako edo bukaerako ertzez gain, kuantitate silabikoa ere kontuan hartzen da (silabak astunak edo arinak diren), latinez bezala, beste batzuetan ez. Silaba astunen eta arinen arteko bereizketa egiten duten sistemak *kuantitatezko sistemak* deituko diegu, edo [+kuant]. Gogoan izan behar da honelako banaketa egiten duten hizkuntzetan silaba astunak ez direla beti modu berean definitzen. Adibidez, latinez bai (C)V: eta baita (C)VC silaba astunak dira. Beste hizkuntza batzuetan, aldiz, silaba astun bakarrak bokal luze bat daukatenak dira, kontsonantez itxiak arintzat hartzen direlarik. Beste bereizketa batzuk ere egin daitezke. Bestaldetik, azentuaren kokagunea erabakitzeke kuantitatezko bereizketarik ez bada egiten, [-kuant] sistema dugula esango dugu.

Liburu honetan azentu patroiak eskematizatzeke bi notazio mota erabiliko ditugu. Eskema mota batean, kontuan hartzen den mugatik, hasierakoa, [, edo bukaerakoa,], silaba azentugabeak, *o*, eta azentuduna, *ó*, adieraziko ditugu. Bestela, Txillardegik (1984) erabiltzen duen notazioa geure egirik, plus eta minus keinuz hasieratik edo bukaeratik kontatzen den adieraziko dugu. Beraz, [+ertz, -kuant] sistemak honelaxe laburbil ditzakegu:

(1) [+ertz, -kuant] sistemak

Azentua hasierako/bukaerako ertzetik kontatuz ezartzen da

[ó	finera (suomiera), hungariera, islandiera, txekera = [+1]
[o ó	erdialdeko euskal hizkera asko (adib. Oñati, Bortziriak) = [+2]
[o o ó	Urolaldeko euskal hizkerak = [+3]
ó]	frantsesa = [-1]
ó o]	poloniera, swahili, quechua, zuberera = [-2]
ó o o]	mazedoniera = [-3]

[+ertz, +kuant] sistemen adibide bezala, latinaren azentuera aipatu dugu. Sistema honetan garrantzia duen kuantitatea azkenaurreko silabarena da. Beraz, azentu patroiaren eskeman azkenaurreko silabaren kuantitatea baino ez dugu adierazi behar:

- (2) [+ertz, +kuant] sistemak
 [o], [o] latina

Beherago beste zenbait kuantitatezko sistema ikertuko ditugu.

Gerta daiteke, ertzetik dagoen silaba kopurua kontuan hartu gabe, beste irizpide bat erabiltzea azentua ezartzeko. *Azentu morfologikoa* dugu, azentua morfema jakin batzuekin elkarturik agertzen zaigunean. Azentu morfologikoa duten hizkuntzetan, morfema batzuek (azentudunek) azentu lexikoa daramate silaba jakin batean, besteak azentugabeak direlarik. Sistema batzuetan erroak azentudunak dira eta atzizkiak eta aurrizkiak neutralak edo azentugabeak. Hau da ingelesaren lexikoiaeren parte batean aurkitzen duguna. Adibidez, *unboundedness* bezalako hitz batean azentua bigarren silaban doa, ez silaba hau bigarrena delako, edo, beste ertzetik kontatuz, azkenhirugarrena, baizik eta erroa delako: *un+bound+ed+ness*.

Baina gauzak konplexuagoak izan daitezke. Adibidez, atzizki batzuk azentudunak edo markadunak ([+am] = [+azentu morfologikoa]) izan daitezke, baina ez guztiak; eta gauza bera gerta daiteke erroekin. Gernikako euskaraz, esate baterako, badira azentu morfologikoa duten eta ez duten erroak eta berdin atzizkiak. Azentu sistema honetan [+am] atzizki gehienak aurreazentuatzaileak dira; hau da, ezkerraldeko silaban jartzen dute azentua. Hona hemen adibide batzuk:

- (3) Gernikako euskara: [+am] eta [-am] erro eta atzizkien konbinaketak
- | | | |
|-----------------------------|-----------------|------------------------------------|
| erroa [-am], atzizkia [-am] | <i>laguneri</i> | 'sg' |
| erroa [-am], atzizkia [+am] | <i>lagúneri</i> | 'pl' (atzizki aurreazentuatzailea) |
| erroa [+am], atzizkia [-am] | <i>lékueri</i> | 'sg' |
| erroa [+am], atzizkia [+am] | <i>lékueri</i> | 'pl' |

Azentu morfologikozko sistemetan, azentu unitatean [+am] morfema bakar bat badago, morfema honek hartuko du azentua. Azentu unitate baten barnean marka lexiko bat baino gehiago ditugunean konplikatzen dira gauzak. Kasu honetan, arau bat izan behar dugu zein azentu lexikoez irabazten duen erabakitzeko. Hizkuntza batzuetan lehen azentu lexikoa azentu nagusi bezala gauzatzen da azalean; beste batzuetan, azkena.

Beste arau bat behar dugu azentu lexikorik gabeko unitateetan azentua ezartzeko. Orduan azentua unitatearen ertz batetik edo bestetik kontatuz ezarri ohi da. Aipatu-tako bi arauak batuz, gisa honetako sistema morfologikoak aurkitzen ditugu: Azentua lehen (edo azken) silaba markatuan ezartzen da eta, markaturik ez badago, unitatearen lehen (edo azken) silaban:

- (4) Azentu ezarketa arauak sistema morfologikoetan
- Azaleko azentua lehen/azken [+am] markak erabakitzen du
 - Morfema markaturik ez badago, azentua lehen/azken silaban ezartzen da
- Adib.: [o] = [+am])

	lehen	azken
/o _{oo} +o _{oo} +o _{oo} /	oóooooo	oooooóo
/ooo+ooo+oo/	óoooooo	ooooooó

Bi parametroak konbinatuz, lau sistema lortzen ditugu. Goian ikusitako datuak aztertuz, Gernikako sistemak hurrengo aukerak egiten dituela esan dezakegu:

(5) Gernikako azentu arauak

Arau orokorra: Azentu nagusia lehen [+am] morfemak erabakitzen du
 Beste kasuetarako araua: Markaturik ez badago, azentua azken silaban jartzen da

Ikusi dugunez, sistema morfologikoetan, morfema azentugabea, azentudun eta aurreazentuatzailak aurki ditzakegu. Hauek ez dira posibilitate bakarrak. Zenbait hizkuntzatan, morfema batzuek ondoan dagoen beste morfema baten azentu lexikoa ezabatzen dute (atzizki azentu-ezabatzaileak). Gernikako euskaraz ere badago horrelakorik. Adibidez *txistu* hitza azentuduna da, baina *txistulari* azentugabea, *-lari* atzizkiak erroaren azentua ezabatzen baitu.

Sistema morfologikoetan gauzak are konplexuagoak izan daitezke. Hurrengo atalean, adibide bezala, sanskrito vedikoaren azentuera aztertuko dugu.

2.2. Azentu morfologikoa sanskrito vedikoan

Sanskritoz, bai erroak eta baita atzizkiak ere azentudunak edo azentugabeak izan daitezke. Gainera, badago beste bereizkuntza bat atzizkien artean: atzizki batzuk bortitzak (*dominant*) dira, besteak ahulak (*recessive*).

(6) Sanskrito vedikoaren morfema motak

erroak	[+am] zein [-am]
atzizkiak	[+am] zein [-am]
	bortitzak zein ahulak

Morfemen sailkapen hau aintzat hartuz, hitzaren azentuaren kokagunea hurrengo erregelen bidez erabakitzen da (Halle & Vergnaud 1987: 84-85):

(7) Sanskrito vedikoaren azentu arauak

- Azken atzizki bortitza azentuduna bada, azaleko azentua morfema hone-tan doa.
- Azken atzizki bortitza azentugabea bada, azaleko azentua hitzaren lehen silaban doa.
- Atzizki bortitzik ez badago, azaleko azentua lehen morfema azentudunak hartzen du.
- Atzizki bortitzik ez badago eta morfema guztiak azentugabeak badira, azaleko azentua hitzaren lehen silaban doa.

Hurrengo adibideek erakusten dute emandako arauen jokabidea (atzizki bortitzak letra larriz notatzen ditugu azpiko egituran) (Kiparsky & Halle 1977, Halle & Vergnaud 1987: 85):

(8) Sanskrito vedikoa: adibideak

/ráth-ĪN-é/	<i>rathíne</i>	‘gurdi-gidariari’ (7a aplikatuz)
/mitr-ĪN-é/	<i>mitríne</i>	‘adiskidetuari’ (7a aplikatuz)
/áshv-ĪN-i-ná:m/	<i>ashvini:na:m</i>	‘zaldun’ (7a aplikatuz)
/pakṣ-ĪN-i-ná:m/	<i>pakṣini:na:m</i>	‘hegaldun’ (7a aplikatuz)
/ci-kar-ĀY-ISA-ti/	<i>cikaraysati</i>	‘eragin nahi du’ (7b aplikatuz)
/sar-AS-vat-i-vant/	<i>sarasvativant</i>	‘Sarasvatirekin’ (7b aplikatuz)
/prati-cyav-ĪYAS-i/	<i>praticyaviyasi</i>	‘zapalduago’ (7b aplikatuz)
/áshv-á-ná:m/	<i>ashva:na:m</i>	‘zaldi’ (7c aplikatuz)
/dev-á-ná:m/	<i>deva:na:m</i>	‘jainko’ (7c aplikatuz)
/áshv-á-vant-i-ná:m/	<i>ashvananti:na:m</i>	‘zaldun’ (7c aplikatuz)
/pad-vant-i-ná:m/	<i>padvanti:na:m</i>	‘oindun’ (7c aplikatuz)
/puma:ms-am/	<i>puma:msam</i>	‘gizonaren’ (7d aplikatuz)

Izen elkartuetan, lehen erro azentudunak hartzen du azentua. Bi erroak azentudunak badira, azentua lehen osagaiaren silaba azentudunean agertuko da:

(9) Sanskrito vedikoa: izen elkartuak

/sú:ra-cákṣas/	<i>sú:racakṣas</i>	‘eguzki-ikusle’
/vishvá-cákṣas/	<i>vishvacakṣas</i>	‘oro-ikusle’
/ur-cákṣas/	<i>urcakṣas</i>	‘giza-ikusle’

Lehen bi adibideetan hitz elkartuaren bi osagaiak azentudunak dira eta lehenak erabakitzen du hitz elkartuaren azentua. Hirugarrenean, aldiz, lehen osagaia azentugabea da eta bigarrena azentuduna eta azentua bigarren osagaien doa. Azentuera hauek (c) araua aplikatuz lortzen dira.

Kontsidera ditzagun orain hurrengo adibideak, datibo singularrean:

(10) Sanskrito vedikoa: datibo singularra

a. <i>dubitr-é</i>	‘alabari’	b. <i>bbrá:tr-e</i>	‘anaiari’
<i>pad-é</i>	‘oinari’	<i>marút-e</i>	‘haizeari’
		<i>gáv-e</i>	‘behiari’

(10a)-ko adibidetan, azentua atzizkian doa; (10b)-koetan, aldiz, erroan. (a)-ko adibideek erakusten dute datibo singularrean atzizkia azentuduna dela. Hau hola bada, zergatik ez darama azentua (10b)-ko adibideetan? Erantzunak izan behar du (10b)-n erroa ere azentuduna dela, eta (10a)-n, aldiz, azentugabea. Azentuera (7c) arauak ematen digu; hau da, lehen morfema azentudunak hartzen du azentua:

(11) Sanskrito vedikoa: datibo singularra [+am] eta [-am] erroekin

/duhitr-é/	duhitré	/marút-é/	marúte
------------	---------	-----------	--------

Ikusi dugunarekin, ez ditugu sanskritoz gertatzen diren azentuera guztiak aintzat hartu, baina ikusi duguna nahikoa da azentu morfologikozko sistema batek izan dezakeen konplexutasuna erakusteko.

2.3. Kuantitatezko sistema mugagabeak (*unbounded*)

Marka morfologikoak edo azentu lexikoak erabili beharrean, azentua ezartzeko kuantitate silabikoa kontuan hartzen duten antzeko sistemak ere aurkitzen ditugu. Arabiera klasikoa, adibidez, azentua azken silaba astunak darama, eta silaba astunik ez badago, hitzaren lehen silabak. Aguacateco izeneko hizkuntza mayan, azentua azken silaba astunean doa, eta astunik ez badago, azken silaban. Lehen/azken parametro aldatuz eman daitezkeen lau konbinaketak aurkitzen dira munduko hizkuntzetan (Hayes 1995: 296-299). Kuantitatezko sistema hauek eta morfologikoez amankomunean daukatena da ezaugarri berezi bat duen lehen edo azken silabak jasotzen duela azentu nagusia, ertzetik silaba kopurua aintzat hartu gabe (ikus van der Hulst 1996). Ezaugarri berezi hau marka lexiko bat izan daiteke, eta azentu morfologikozko sistema izango dugu, edo kuantitatea izan daiteke, arabiera klasikoa bezalako hizkuntzetan. Goian ikusi dugu ertzeko azentuzko sistemen artean ere kuantitatezkoak direnak eta ez direnak aurkitzen ditugula. Azentua kasu nagusian ertz batetik kontatuz jarzen den ala ez eta kuantitateak garrantzia duen ala ez kontuan hartuz, lau sistema mota bereiz ditzakegu:

(12) Parametroak azentu sistemen tipologian

	[+kuantitatezkoa]	[-kuantitatezkoa]
[+ertzekoa]	latina	poloniera, Oñatiko euskara, hungariera
[-ertzekoa]	arabiera klasikoa	sanskrito vedikoa, Gernikako euskara (marka morfologikoak)

Egia esan, lehen/azken silaba berezia bilatuz azentua ezartzen duten sistemak sistema nahasiak dira. Kontuan hartzen duen berezitasuna kuantitatea bada, bigarren arau bat izan beharko dugu silaba arinak besterik ez dituzten hitzetan azentua ezartzeko. Gauza bera gertatzen da sistema morfologikoetan, marka lexikorik gabeko hitzak edo azentu unitateak dituzten neurrian. Eta bigarren arau hau ertzekoa ohi da. Hau da, unitatean [+am] morfemarik ez badago [-ertz, -kuant] sistema batean edo silaba astunik ez badago [-ertz, +kuant] sistema batean, azentua ertz batetik zein bestetik kontatuz ezartzen da.

2.4. [+ertz] sistemetako «leihoak» azaltzeko proposamen teoriko bat

Erabat [+ertz, -kuant] diren hizkuntzetan, azentua lehen silaban (finera), bigarren silaban (Oñatiko euskara), azken silaban (frantsesa), edo azkenaurreko silaban (poloniera, zuberera) joan daiteke. Mazedonieraz, azentua azkenhirugarren silaban doa normalean, [-3]. Nik dakidanez, kasu normalean azentua hirugarren silaban jarzen duen azentu sistema bakarra Urolaldeko euskararena da. Ez dago beste posibilitaterik:

- (13) [+ertz, -kuant] ereduak:
 [ó Oso normala: finera, hungariera, islandiera, txekera
 [oó Arraroa: erdialdeko euskara, lakhota
 [ooó Oso arraroa: Urolaldeko euskara
 ó] frantsesa
 oo] Oso normala: poloniera, swahili, etab. luze bat
 ooo] Arraroa: mazedoniera

Ikus daitekeenez, aukerak oso mugatuak dira. Antza denez, «hiru silabako leihoa» unibertetsala da. Hau da, ertzetik kontatzen duten arauak ez dira inoiz hirugarren silabatik harantza joaten. Murriztapen hau teoria fonologikoak azaldu behar duen gauza da.

Gainera, (13)-n aipatutako tipo guztiak ez dira maiztasun berarekin agertzen munduko hizkuntzetan. Alderantziz, tipo batzuk beste batzuk baino askoz hedatua-goak daude. Ohikoena azentua lehen silaban [+1] eta azkenurrekoan [-2] dutenak dira. Euskarari hain zabaldua dagoen [+2] tipoa, beste hizkuntza batzuetan ere gertatzen da, hala nola lakhotan; baina nahiko hizkuntza guttitan. [-3] tipoa bitxia da, eta [+3] are bitxiagoa. Egia esan, van der Hulst-en (1996) ustez, [+3] tipoa hutsune tipologiko bat da. Hala ere, Urolaldeko zenbait hizkeratan patroia hau beratu dugu kasu orokorrean, hutsunea betez.

Azentu ereduaren banaketan aurkitzen ditugun murriztapenak eta joerak azaltzeko, [+ertz] sistemetan azentu ezarketa oin bitarren bidez egiten dela proposatu da (Halle & Vergnaud 1978, Hayes 1980, 1995, etab.). Oin bitarra bi silaba biltzen dituen unitate metriko burudun bat da. Burua oinaren lehen edo bigarren silaba izan daiteke. Lehen silaba burua bada, oin trokaikoa dugu, eta bigarrena bada, oin ianbikoa:

- (14) Oin bitarrak
 Oin trokaikoa: (x .)
 Oin ianbikoa: (. x)

Oinaren buruak hitzaren azentua jasotzen du. Teoria honen ondorio bat bi eredu erabilienak, [+1] eta [-2] modu berean lortzea da; hots, oin trokaiko bat ezarriz (Hayes 1995). Oin trokaikoa hasierako ertzarekin lerrotatzen badugu, azentua lehen silaban dugu; eta bukaerako ertzarekin lerrotatzen badugu, azentua azkenurreko silaban:

- (15) Oin trokaikoak:
 hasieran bukaeran
 (x .) (x .)
 [o ó o o o o] [o o o o ó o]

Oin ianbikoak, hasierako ertzarekin lerrotatua, azentua bigarren silaban emango liguke, eta bukaerako mugan jarrita, azentua azken silaban:

- (16) Oin ianbikoak:
 (. x) (. x)
 [o ó o o o o] [o o o o o ó]

Mazedonieraren eta Urolaldeko euskararen azentuera lortzeko, beste mekanismo bat erabili behar dugu, oin metrikoen gain: *estrametrikalitatea*. Ertz ondoan dagoen si-

laba bat estrametrikkoa izan daiteke. Honekin esan nahi dugu azentua ezartzeko ez dela ikusten. Notazio gisa, estrametrikalitatea adierazteko parentesi angularrak erabili ohi dira. Hitzaren azken silaba estrametrikkoa bada, oin trokaiko batek azentua hirugarren aurreko silaban ezarriko du:

- (17) [+3] eta [-3]: estrametrikalitatea
- a. Mazedoniera (oin trokaiko bukaerako ertzean + estrametrikalitatea)
- (x .)
- [o o o ó o <o>]
- b. Urolaldeko euskara (oin ianbiko hasierako ertzean + estrametrikalitatea)
- (. x)
- [<o> o ó o o o]

Estrametrikalitatearen motibazioaz zertxobait gehiago esango dugu geroago, latinaren azentuera aztertzen dugunean.

2.5. [+ertz, +kuant] azentu sistemak

[+ertz, +kuant] diren sistemak interesgarriagoak dira. Sistema hauetan, silaba jakin bat astuna ala arina izan, azentua silaba batean edo beste batean doa. Adibidez, hizkuntza askotan (rotuman, fijiera, hawaiera, Bergün-go romantxera, etab., ikus Hayes 1995: 181-82) azentua azken silaban doa silaba hau astuna denean, eta bestela azkenbigarren silaban. Azentuera hau azaltzeko, oin trokaiko bat erabiltzen dela proposa dezakegu (Hayes-ek 1995 egiten duen bezalaxe); baina kuantitatea kontuan hartzen duen oin trokaiko bat. Kuantitatezko oinaren ezaugarria hau da: silaba astun bat ezin daitekeela oinaren menpeko posizioan agertu. Silaba astuna oin metrikotan sartzen bada, oinaren burua izan behar du nahitaez. Azken bi silaben kuantitatea kontuan hartuz, hitzaren eskuinaldeko ertzarekin lerrotatzen den kuantitatezko oin trokaiko batek honelako azentuerak emango dizkigu (parentesi zuzenak hitzaren eskuinaldeko ertza markatzen du eta silaba astunak *O* larriaz adierazten ditugu):

- (18) Rotuman, fijiera, hawaiera, Bergün-go romantxera, etab. (Hayes 1995: 181-82) azentua azken silaban doa silaba hau astuna denean, eta bestela azkenaurreko silaban.
- Kuantitatezko oinak: silaba astun bat ezin daiteke oinaren menpeko posizioan agertu. Silaba astuna oin azentudunean sartzen bada, bere burua izan behar du:
- (19) Kuantitatezko oin trokaikoak bukaeratik (rotuman, fijiera, etab.)
- (x .) (x) (x .) (x)
- o o] o O] O o] O O]

Hauek dira aipatutako hizkuntzetan aurkitzen ditugun patroiak. Azentua azken silaban jartzen da silaba hau astuna denean, hurrengo konfigurazioa debekatuta baitago:

- (20) Debekua: silaba astuna menpeko posizioan
- (x .)
- * ... O]

Kasu honetan oina silababakarrekua izango da, (19)-n ikusten den bezala.

Kuantitatezko sistemetan ere estrametrikalitatea erabil daiteke. Honelako sistema batean azken silaba estrametrikua bada, hurrengo azentuerak izango ditugu:

(21) Kuantitatezko oin trokaikoak bukaeratik + estrametrikalitatea

(x .)	(x)	(x .)	(x)
o o <o>]	o O <o>]	O o <o>]	O O <o>]
(x .)	(x)	(x .)	(x)
o o <O>]	o O <O>]	O o <O>]	O O <O>]

Noski, patroï hauek latinarenak dira, hurrengo adibideek erakusten duten moduan:

(22) Latina

<i>tá bu la</i>	<i>a mí: ca</i>	<i>do mé:s ti ca</i>	<i>for mí: ca</i>
<i>i gi tur</i>	<i>a mí: cus</i>	<i>cón su les</i>	<i>can tá: mus</i>

Latinez, azken silabak ez du inoiz azentua jasotzen; han egongo ez balitz bezala portatzen da. Badira arrazoi onak, beraz, estrametrikaltzat hartzeko. Latinak eta rotumanek funtsean azentu sistema bera dute: kuantitatezko oin trokaikoa bukaeran. Diferentzia bakarra latinez hitzaren azken silaba estrametrikua izatea da.

Kuantitatezko sistema batean oin trokaikoa hitzaren ezkerreko ertzetik ezarriko bagenu, azentua bigarren silaban izango genuke silaba hau astuna denean eta lehenbizikoa arina; eta lehenbiziko silaban bestela. Eredu hau malayalam, Indiako hizkuntza dravidikoan, aurkitzen omen da (Hayes 1995: 92-93):

(23) Malayalam: kuantitatezko oin trokaikoak hasieratik:

(x .)	(x)	(x)	(x)
[o o	[o O	[O o	[O O

Yapesa izeneko hizkuntzan, azentua azkenurreko silaban doa, azkena arina eta azkenurrekoa astuna direnean; bestela, azken silaban doa. Sistema hau kuantitatezko oin ianbiko bat hitzaren bukaeran eraikiz lor dezakegu:

(24) Yapesa: kuantitatezko oin ianbikoak bukaeratik

(. x)	(. x)	(x)	(x)
o o]	o O]	O o]	O O]

Kuantitatezko oin ianbikoa ezkerrealdetik jartzen badugu, azentua lehen silaban izango dugu silaba hau astuna bada, eta bestela, bigarren silaban. Hau da Arizonako hopi hizkuntzak eta Kaukasoko hegoaldean hitzegiten den osetiko hizkuntza iranianrak erakusten duten eredu:

(25) Hopi, osetikoa: kuantitatezko oin ianbikoak hasieratik

(. x)	(. x)	(x)	(x)
[o o	[o O	[O o	[O O

Printzipioz, hauek dira teoriak sortzen dituen sistema posible guztiak. Teoria honen azentu sistema morfologikoak alboratu izan behar dugu gogoan. Georago ikusiko dugunez, Hayes-i azentu eta erritmoaren lotura interesatzen zaio. Berentzat sistema morfologikoak oso bestelakoak dira. Gainera, kuantitatezko sistema

mugagabeetan, hau da, [-ertz, +kuant] sistemetan, silaba astun guztiak oin-buruak izango lirateke eta buruetako bati emango litzaioke nagusitasuna.

2.6. Beste proposamen bat: Van der Hulst (1996)

Van der Hulst-ek (1996) ohartarazten du [+ertz, +kuant] sistemetan, oin trokaiko eta ianbikoen jokaerek ematen dizkiguten aukerak ez direla munduko hizkuntzetan aurkitzen diren eskema bakarrak. Azentua hasieratik ezartzen duten [+ertz, +kuant] sistemak sailkatzen baditugu, aurreko atalean ikusitako bi sistemez gain (rotuman eta yapesa) beste bi aurkitzen ditugu:

- (26) [+ertz, +kuant] sistemen tipologia
- | | | | | | |
|----|------|------|------|------|-----------|
| | x | x | x | x | |
| a. | o o] | o O] | O o] | O O] | (rotuman) |
| b. | o o] | o O] | O o] | O O] | (awadhi) |
| c. | o o] | o O] | O o] | O O] | (yapesa) |
| d. | o o] | o O] | O o] | O O] | (aklan) |

Aurreko atalean ikusitako eredu teorikoan, aklan eta awadhi (India eta Nepaleko hizkuntza indoeuroparra) hizkuntzen azentuerak ez dira zuzenean sortzen. Patroi hauek sortzeko arau berezi bat ezarri behar dugu bi silaba astun elkarren ondoan daudenean (atzerapen arau bat).

Van der Hulst-ek (1996) sistema hauetan ditugun lau aukerak [-ertz] sistema morfologiko edo kuantitatezkoetan aurkitzen ditugunak direla azpimarratzen du. Aldatzen dena azentuaren eremua da. [-ertz] sistemetan azentua ezartzeko eremua unitate osoa da; eskuarki, hitza. Aldiz, [+ertz] sistemetan azentu ezarketaren eremua azentu unitatearen hasierako edo bukaerako ertzean ipintzen den bi silabako leiho bat dugu (oin metrikoa). Azentua ezartzeko erabiltzen den eremua parametrotzat hartuz, [+ertz] eta [-ertz] sistemak batu ditzakegu tipologia bakar baten bidez. [+ertz, +kuant] sistemei dagozkien parametroak honako hauek izango lirateke:

- (27) Parametroak [+ertz, +kuant] sistemetan
- I. Azentu eremua: oin metrikoa: (a) hasieratik / (b) bukaeratik
 - II. Arau orokorra: azentu nagusia (a) lehen / (b) azken silaba berezian (= astunean) doa.
 - III. Beste kasuetarako araua:
azentua (a) lehen / (b) azken silaban jartzen da.

(27)-ko II. araua eremuan guttienez silaba astun bat dagoenean aplikatzen da. Aldiz, oineko bi silabak arinak direnean, III. araua aplikatzen da.

(27)an, I. (b) aukeratuz, eta II. eta III. arauak ematen dituzten aukerak konbinatuz (26)an ikusitako lau ereduak lortzen ditugu:

(28) Parametroen ezarketa

Azentu eremua: oin metrikoa

x x x x

I b, II a: o O], O o], O O] III a : o o] (awadhi)

x x x x

I b, II a: o O], O o], O O] III b: o o] (aklan)

x x x x

I b, II b: o O], O o], O O] III a: o o] (rotuman)

x x x x

I b, II b: o O], O o], O O] III b: o o] (yapesa)

Esan bezala, [-ertz] sistemen tipologia parametro berberen bidez lortzen dugu, azentu eremu bezala hitza aukeratuz. Lau [-ertz] eskema posibleak izango ditugu (kuantitatezkoak zein morfologikoak). Lehen ikusi bezala, funtsean arau berdinak ditugu [-ertz] sistema guztietan; hau da, azentu eremutzat hitza edo beste unitate morfologiko edo sintaktiko bat hartzen duten sistema guztietan. Hauetan, unitatearen lehen edo azken silaba bereziak hartzen du azentua. Silaba bereziak astunak dira [+kuant] sistemetan eta [+am] edo markadunak [-kuant] sistemetan:

(29) Parametroak [-ertz] sistemetan

I. Azentu eremua: hitza

II. Arau orokorra: azentu nagusia hasieratik (a) lehen / (b) azken silaba berezian (= astun edo markadunean) doa.

III. Beste kasuetarako araua:

azentua hasieratik (a) lehen / (b) azken silaban ezartzen da

Parametro hauen aukera desberdinek hurrengo sistemak sortzen dituzte:

(30) Parametroen ezarketa

Azentu eremua: hitza (edo beste unitate morfologiko edo sintaktiko bat)

x x

II a: [o o o O o o o O o o o] III a: [o o o o o o] (khalkha mongoliera)

x x

II a: [o o o O o o o O o o o] III b: [o o o o o o] (aguacateco [maya])

x x

II b: [o o o O o o o O o o o] III a: [o o o o o o] (arabiera klasikoa)

x x

II b: [o o o O o o o O o o o] III b: [o o o o o o] (komi [fino-ugrikoa])

Erakutsi bezala, aukera guztiak egiten dira mundu zabaleko hizkuntzetan. Estrametrikalitatea aplikatuz hasiera edo bukaerako mugan posibilitate gehiago sortzen dira. Laburbilduz, van der Hulst-ek (1996) proposatzen duen teorian, azentu eskema nagusien tipologia hurrengo parametroen ondorioa da:

- (31) Aukera parametrikoko guztiak eta azentu sistemen tipologia
- I. Azentu eremua: - unitate morfologikoa edo sintaktikoa (hitza, eskuarki)
- oin metrikoa:
(a) hasieratik / (b) bukaeratik
 - II. Arau orokorra: Azentu nagusia hasieratik
(a) lehen / (b) azken
(a) silaban / (b) silaba berezian (astun/markadun)
doa.
 - III. Silaba astun/markadunak bereizten badira, bestelako araua:
astun/markadunik ez dagoenean, azentua (a) lehen / (b) azken silaban
jartzen da
 - IV. Estrametrikalitatea: - Bai: (a) hasieran / (b) bukaeran
- Ez

Parametro hauen aukera bezala ikusitako sistema guztiak ditugu, [+ertz] zein [-ertz] eta [+kuant] zein [-kuant]. Dena den, munduko hizkuntzetan aurkitzen diren azentu eskema nagusiak parametro hauek sortzen badituzte ere, azentu sistema konkretuak aztertzen ditugunean, azentu patroia nagusiez gain beste konplexutasun asko aurkitzen ditugu askotan, hirugarren kapituluan eta liburu honen bigarren partean ikusiko dugunez. Era berean, emandako eskemak bortxatzen dituzten sistema berezi batzuk ere aurkitu dira, salbuespenezko kasu hauek oso bakanak badira ere. Adibidez, kashaya hizkuntzan (Ipar Kaliforniako hizkuntza pomaarra), [+ertz, +kuant] sistema bat aurkitzen dugu, baina azentua hasierako bost silabetariko batean ezar daiteke. Buckley-k (1994) kuantitatezko oin ianbikoa proposatzen du mekanismo nagusitzat, baina bi estrametrikalitate mota desberdin gehituz: silaba estrametrikoko eta oin estrametrikokoak. Beraz, kashayaren sistema neurri handi batean proposatutako tresnekin azal dezakegu, baina gure eskemak zabaldu egin behar ditugu, beste estrametrikalitate mota batzuk onartuz.

2.7. Azentuaren teoriaren helburuak

Munduko hizkuntzetan aurkitzen dugun azentuaren tipologia kontuan hartzen duen proposamen egoki batek honako galderak erantzun beharko lituzke:

- (32) Galderak
1. Hutsuneak: Zergatik munduko hizkuntzetan azentuera batzuk aurkitzen diren eta beste batzuk, aldiz, ez diren inon aurkitzen.
Hurrengo azentuerak, adibidez, ezinezkoak dira, dakigunez:
—Normalean, azentua laugarren silaban doa.
—Azentua bigarren morfema markatuak hartzen du.
—Azentua azkenurreko silaban ezartzen da silaba hau arina bada; bestela azkenhirugarrenean.
 2. Maiztasuna: Zergatik azentuera batzuk besteak baino askoz erabiliagoak diren.
Azentueratik erabiliak: azentua lehen/azkenbigarren silaban.

3. Oinarri fisiko edota psikologikoak: Zer nolako lotura dagoen azentuaren eta hizkuntzaren erritmoaren artean.

Galdera hauek guztiok nahiko orokorrak badirudite ere, teorilariak ez diete guztxi garrantzia bera eman. Hayes (1995) azentuaren eta hizkuntzaren erritmoaren arteko loturaz arduratzen da batik bat eta azentu morfologikoa albora uzten du erritmoarekin zerikusirik ez duelako. Aldiz, ertzeko azentu nagusia eta bigarrenkaria elkartzen ditu. Bere teoriaren bidez azaldu nahi duen datu bat Lege Iambiko-Trokaikoa deitzen duena da. Psikologiazko ebidentzia esperimentalak nahiko garbi erakusten du soinuak bikoiteetan batzeko joera garbiak daudela. Soinu andana batean soinu intentsoagoak eta intentsitate guttiagoak alternatzen badira, gizakiok oin trokaikoetan biltzen ditugu:

- (33) intentsitate txandaketak
 estimulua: ...ta TA ta TA ta TA ta TA ta TA ta TA ...
 erantzuna: ...ta) (TA ta) (TA ta) (TA ta) (TA ta) (TA ta) (TA ta) (TA ta)...

Aldiz, soinu bat aldamenekoa baino luzeagoa bada, sujetuek oin iambikoak biltzen dituzte egin diren esperimentuetan:

- (34) luzera txandaketak:
 estimulua: ...ta ta: ta ta: ta ta: ta ta: ta ta: ta ta: ta...
 erantzuna: ...(ta ta:) (ta ta:) (ta ta:) (ta ta:) (ta ta:) (ta ta:)...

Lege Iambiko-Trokaikoa honelaxe formulatzen du Hayes-ek:

- (35) Iambic/Trochaic Law
- Elements contrasting in intensity naturally form groupings with initial prominence.
 - Elements contrasting in duration naturally form groupings with final prominence.

Hayes-ek oso kontuan hartzen duen beste datu bat azentuaren banatze asimetrikoa da. Ikusi dugun bezala, [-kuant] sistemetan, [+1] eta [-2] azentuerak besteak baino askoz erabiliagoak dira. Datu tipologiko eta psikologiko hauek azaltzeko, oin metrikoen inbentario asimetriko bat proposatzen du. Munduko hizkuntzetan hiru oin moten artean aukeratzen dela asumitzen du:

- (36) Oin motak (Hayes 1995)
- | | | | |
|----------------------------|-------|-----|-----|
| | (x .) | | |
| a. Oin trokaiko silabikoa: | o o | | |
| | (x .) | | (x) |
| b. Oin trokaiko moraikoa: | ō ō | edo | ō |
| | (. x) | | (x) |
| c. Oin iambikoa: | ō ō | edo | ō |

Proposatutako oin inbentarioaren ondorio bat da azentu sistema [-kuant] bada (kuantitatezko bereizketarik ez bada egiten), oin trokaikoak erabiltzea. Lehen ere ikusi dugun bezala, oin trokaiko silabikoaren bidez, bi [-kuant] eredurik erabilienak (lehen / azkenbigarren silaban) lortzen ditugu, munduko hizkuntzetan aurkitzen dugun asimetria erakutsiz.

Ikuspegi funtzionalista batetik ere uler daiteke asimetria hau. Azentuaren funtzio garrantzitsu bat hitzaren mugak markatzea izan daiteke. Honen arabera, azentua lehen edo azken silaban espero genuke. Baina, beste alde batetik, joera fisiko batek esaldiaren bukaeran tonu beherakada izatera garamatza (Lieberman 1972: 27-31). Azentua tonu gorakada baten bidez gauzatzen bada, gehienetan gertatzen den bezala, hobe izango da azentua azken silaban izan ordez, azkenaurreko silabara mugitzea. Bi joera hauen ondorioz, beraz, azentua lehen edo azkenaurreko silaban izatea izango litzateke egoerarik onena.

Hayes-en teorian, hizkuntza batek oin ianbikoak erabiltzen baditu, silaba astunak eta arinak bereiztuko ditu. Teoria honetan, erdialdeko euskararen (edo-ta lakhotaren) azentuera (bigarren silaban, baina kuantitatezko bereizketarik gabe) kasu berezitat hartzen da.

Azentu nagusiaz gain, Hayes-en ereduak azentu bigarrenkariak ere sortzen ditu. Oinak errepikatuz azentu erritmikoak lortzen ditugu, hauetariko bati prominentzia nagusia ematen zaiolarik:

$$\begin{aligned}
 &(37) \text{ Azentu bigarrenkari erritmikoa} \\
 &\quad (x \quad \quad \quad) \\
 &\quad (x \cdot)(x \cdot)(x \cdot)(x \cdot)(x \cdot) (x \cdot) \\
 &\quad \circ \circ \circ \circ \circ \circ \circ \circ \quad \circ \circ = \acute{o} \acute{o} \grave{o} \grave{o} \grave{o} \grave{o} \grave{o} \grave{o} \circ
 \end{aligned}$$

Van der Hulst-en (1996) ikuspuntua nahiko desberdina da. Van der Hulst-entzat, Hayes-entzat ez bezala, ez dago funtsezko desberdintasunik sistema morfologikoen eta beste sistemen artean. Aldiz, azentu nagusia eta bigarrenkari erritmikoak prozesu ezberdinen bidez ezarriko lirateke.

Azentu sistema guztietan, morfologikoak zein ertzekoak, azentu nagusia lehen / azken azentugunean ezartzen da. Baina hizkuntzaren arabera, azentuguneak silabak, silaba astunak edo [+am] silabak izan daitezke.

Lehen ikusi bezala, azentuguneak bilatzeko eremua ere desberdina da hizkuntzen arabera, hitz osoa ala bi silabako leiho bat izan daitekeelarik.

Teoria honen helburua azentu nagusia ezartzeko erabiltzen diren arauak (eta aurkitzen ditugun murriztapenak) azaltzea da. Azentuaren eta erritmoaren arteko lotura alde batera uzten da. Bestaldetik, azentu morfologikoa eta ertzekoa lotzen dira.

Proposamen honek ez du ezer esaten erritmoari buruz. Van der Hulst-entzat azentu nagusiak ez du zerikusi esturik erritmoarekin. Alderantziz, hizkuntza askotan oso garbi ikus daiteke azentu bigarrenkari erritmikoa esaldi mailako fenomeno dela eta azentu nagusia, aldiz, hitz mailakoa (ikus Roca 1986 gaztelaniarako). Besteak beste, azentu nagusiaren arauak salbuespen lexikoak ditu hizkuntza askotan; azentu bigarrenkari erritmikoarenak, sekula ere ez.

Bestaldetik, teoria honek ez du munduko hizkuntzetan aurkitzen dugun asimetriari buruz ezer esaten.

2.8. Laburpena: [± ertz, ± kuant] sailkapena eta analisiak

Ikusi duguna laburbilduz, lau azentu sistema nagusi bereiz ditzakegu [±ertz], [±kuant] ezaugarrien arabera:

1. [-ertz, -kuant] sistema morfologikoak:
Sistema morfologikoetan morfema batzuk [+am] marka idiosinkratikoa daramate lexikoian. Morfema hauek azentua erakartzen dute. Sistema morfologikoetan hiru egoera hartu behar dira kontuan:
 - a) Azentu eremuan [+am] morfema bakar bat badago, azentua silaba markatuan joango da.
 - b) Zer gertatzen da morfema markadun bat baino gehiago daukagunean? Hizkuntzaren arabera, azentua lehen edo azken morfema markadunak erabakiko du, baina inoiz ez, adibidez, hirugarrenak.
 - c) Zer gertatzen da morfema markaturik gabeko eremuetan? Kasu honetan azentua ertz batetik kontatuz ezartzen da.

2. [-ertz, +kuant] sistemak; adib.: arabiera klasikoa:
Sistema hauetan badago bereizketa bat silaba astun eta arinen artean eta silaba astunek erakartzen dute azentua. Hemen ere hiru egoera desberdin aurki ditzakegu azentu eremuetan:
 - a) Silaba astun bakar bat badago, azentua silaba honetan joango da.
 - b) Zer gertatzen da silaba astun bat baino gehiago daukagunean? Sistema morfologikoetan bezala, lehen edo azken silaba astunak hartuko du azentu nagusia, hizkuntzaren arabera. Beste silaba astunek bigarren mailako prominentzia eraman ohi dute.
 - c) Zer gertatzen da silaba astunik gabeko eremuetan? Sistema morfologikoetan bezala, azentua hasierako edo bukaerako ertzetik kontatuz ezarri behar da kasu honetan.

3. [+ertz, -kuant] sistemak; adib.: finera, poloniera, Oñatiko euskara, zuberera, etab.:
Sistema hauen analisirako bi proposamen desberdin ikusi ditugu. Hayes-en teoriaran, mota honetako sistemetan oin trokaiko silabikoa ezartzen da kasu normalean, [+1] eta [-2] azentuerak emanez, oina zein ertzetatik ezartzen den. Van der Hulst-ek, berriz, sistema hauetan unitatearen hasieran edo bukaeran bi silabako leiho bat dagoela proposatzen du. Leiho honek lau aukera ematen dizkigu: azentua lehen, bigarren, azkenaurreko edo azken silaban (edo gehiago estrametrikalitatea erabiliz gero). Asimetriaren arazoa ez du azaltzen.

4. [+ertz, +kuant] sistemak:
Hizkuntza hauetan silaba astun bat ezin daiteke oinaren posizio ahulean agertu. Sistema hauen analisirako Hayes-ek bi tresna nagusi proposatzen ditu: oin trokai-ko moraikoa edo oin ianbikoa. Van der Hulst-entzat, berriz, sistema hauek [-ertz] diren kuantitatezko sistemak bezala azal daitezke, baina bi silabako leiho batekin.

2.9. Azentu arauak eta salbuespenak

Aurreko ataletan munduko hizkuntzek dituzten azentu arau nagusiak ikertu ditugu. Baina askotan hitz guztiak ez dira arau orokorraren arabera azentuatzen; hau da, salbuespenak ditugu. Salbuespenenganako tolerantzian desberdintasun handiak aurki-

tzen ditugu hizkuntzen artean. Hizkuntza batzuetan besteetan baino askoz salbuespen gehiago ditugu eta beste batzuetan ez dago salbuespenik. Frantsesez, esaterako, hitz guztiak modu berean azentuatzen dira, inolako salbuespenik gabe. Mailegu eta beste hizkuntzetiko izen propioak ere arau nagusiaren bidez azentuatzen dira. Latinean gauza bera aurkitzen dugu; ez dago azentuera irregularra duen hitzik.

Beste hizkuntza batzuetan salbuespenak badira ere, hauek oso bakanak dira. Polonieraz, esate baterako, ia hitz guztiak azkenaurreko silaban daramate azentua, baina hitz mailatu batzuek azkenhirugarren edo azken silaban daramate (*universitet, gramátika, rezim*).

Gaztelaniaz salbuespenak ugariak dira, patroio orokorrak badira ere. Baina salbuespenak ez dira edozein motatakoak. Adibidez **álbaricoquero* bezalako azentuera bat guztiz onartezina izango litzateke gaztelaniaz. Ingelesez ere salbuespenak ugariagoak dira eta are ugariagoak suedieraz. Beraz, salbuespenen ugaritasuna kontuan hartuz hurrengo hierarkia izango genuke aipatutako hizkuntzekin:

(38) frantsesa, latina << poloniera << gaztelania << ingelesa << suediera

Liburu honen bigarren partean ikusiko dugunez, euskal hizkeren artean desberdintasun nabariak ditugu salbuespenen maiztasunean.

2.10. Azentu bereizgarria

Salbuespenen arazoari lotuta, azentuaren bereizgarritasuna aurkitzen dugu. Argi ta garbi hitz guztiak azaleko arau baten arabera azentuatzen badira, azentua ez da bereizgarria izango; hau da, ezin da hitzak bereizteko erabili. Azentuaren kokagunea bereizgarria izan daiteke honako hiru egoera hauetan:

- Lehenengo eta behin, azentu bereizgarria izango dugu hizkuntzak salbuespenak onartzen baditu. Beraz, gaztelaniaz, adibidez, *sábana* dugu arau orokorra aplikatuz, baina arau honek *sábana* bezalako salbuespenak ditu. Edo, beste adibide bat ematearren, euskal hizkera batzuetan arau orokorrak *lau basó* 'lau oihan' bezalako azentuera ematen badu ere, haren ondoan *lau básó* 'lau edalontzi' salbuespen lexikoa dugu.
- Marka morfologikoak baldin badaude, azentua bereizgarria izango da. Ikusi dugun bezala, Gernikako sisteman singularrean *lagúneri* dugu, arau orokorra erabiliz; eta pluralean, aldiz, *lagúneri*, pluralaren atzizkiak azentu morfologikoa baitarama. Era berean, *termino* eta *terminó* kontrastatzen dira gaztelaniaz, lehen aldiko atzizkia markaduna baita.
- Azentu bereizgarria izango dugu, era berean, klase morfologiko desberdinetan arau desberdinak ezartzen badira. Ingelesez, adibidez, arau ezberdinak ezartzen dira izenetan eta aditzetan: *cónvert* (izena) eta *convért* (aditza).

2.11. Azentu sistemen konplexutasunaz

Esan bezala, ikusi ditugun parametroek munduko hizkuntzetan aurkitzen diren azentu eskema desberdin nagusiak sortzen dituzte. Dena den, hizkuntza bat zehazki aztertzen dugunean, gehienetan eskema nagusiaz gain, beste ñabardura, arau txiki eta

azpierreregularitate asko aurkitzen ditugu. Gainera, hizkuntza batean sistema bat baino gehiago aurki ditzakegu, hitz mota desberdinetan. Adibidez, sistema bat erabil daiteke izenen azentueran eta beste bat aditzen azentueran. Batzuetan atzizki batzuek portaera berezi bat erakusten dute, etab.

Beraz, ikusi dugun azentu ereduen sailkapena ez da dena, ez da egia osoa; bai, ordea, egiaren parte garrantzitsu bat. Munduko hizkuntzen azentubideak aztertzen ditugunean, eredu batzuk behin eta berriz agertzen zaizkigu eta, aldiz, beste eredu posible batzuk ez dira inoiz suertatzen. Adibidez, latinaren azentuera munduko beste hizkuntza askotan aurkitzen da. Printzipioz, aurkakoa ere aurkitzea espero genuke; alegia, azentua bigarrenurreko silaban, silaba hau arina bada, eta hirugarrenurrekoan, bigarrenurrekoa astuna bada. Hala ere, azentuera hipotetiko hau ez da posible munduko hizkuntzetan. Modu berean, inongo hizkuntzatan azentua ez da laugarren silaban ezartzen arau orokorrez, edo bigarren silaba markatuan, etabar, etabar. Murritzapenak benetakoak eta funtsezkoak dira. Munduko hizkuntzetan aurkitzen dugun azentubide aniztasuna arras mugatua da bere osotasunean hartzen dugunean. Hau guztiau teoria fonologikoak esplikatuko beharko lukeen gauza da. Eta arrazoi honegatik azentu sistema jakin bat aztertzen dugunean azentu sistemen tipologia orokorra eta teoria fonologikoa gogoan izan behar ditugu.

Hizkuntza bat ikasi nahi duenarentzat oso inportantea da salbuespenik ba ote dagoen jakitea. Aipatu bezala, hizkuntza batzuetan, hala nola latinez, frantsesez edo fineraz, azentu arauak ez dauka salbuespenik. Polonieraz, ia hitz guztiek azentua azkenurreko silaban daramate, baina hitz mailegatu batzuek azkenhirugarren edo azken silaban daramate (*uniwersitet, gramatyka, رژیم*). Beste puntan, ingelesez hainbeste salbuespen eta baldintza daudenez gero, gauzak oso kontuz aztertu behar dira arauak eta orokortasunak aurkitzeko. Gaztelaniaz, nahiz eta patroi nagusiak zeintzuk diren argi egon, badira salbuespen ugariak. Azentua eskuarki bigarren silaban duten euskal hizkerak aztertzen baditugu, batzuetan salbuespen anitz aurkitzen ditugu (Oñatin, adibidez), beste batzuetan oso salbuespen gutti, eta beste batzuetan ez dago bat ere (Arrasaten, esate baterako). Azentu arau berdina edo berdintsua da euskal hizkera hauetan guztiotan, baina salbuespenentzako tolerantzia maila desberdina da.

Normalean, salbuespenak ez dira nolanahikoak. Alderantziz, azpierreregularitateak aurkitu ohi dira. Adibidez, gaztelaniaz edo polonieraz azentua ez da inoiz azkenhirugarren silabatik ezkerretara kokatzen. Lehen ikusi dugun bezala, gaztelaniaz patroi nagusitik kanpo gelditzen diren hitzak oso talde espezifikoetan sartzen dira. Salbuespenen azterketa, beraz, garrantzitsua izan daiteke askotan azentu sistemak nola funtzionatzen duen jakiteko.

Egitura fonologiko berdineko hitzetan azentua silaba desberdinetan joan daitekeen neurrian azentua bereizgarria izango da; hau da, esanahiak bereizteko balioko du. Azentua bereizgarria izango da, (a) hizkuntzak salbuespenak onartzen baditu, hala nola, *sábana* eta *sabána* hitzen arteko kontrastean gaztelaniaz, edo *lau bása* eta *lau basó* zenbait euskalkitan; (b) marka morfologikoak baldin badaude, hala nola *termino* (orain aldia) eta *terminó* (lehen aldia) aditz formekin gaztelaniaz, edo *lagunerí* eta *lagúneri* Gernikako euskaraz; edo-ta (c) klase morfologiko desberdinetan arau desberdina ezartzen badira, *cóvert* (izena) eta *convért* (aditza) ingelesezko adibideek erakusten duten bezala.

HIRUGARREN KAPITULUA

AZENTUA, TONUA, INTONAZIOA

3.1. Sarrera

Kapitulu honetan, mundu zabaleko hizkuntzetan azentuaren eta tonuaren artean dagoen erlazioa aztertuko dugu. Alde honetatik, hiru hizkuntza mota nagusi bereiz ditzakegu lehen hurbilketa batean: indar-azentuzko hizkuntzak, tonu hizkuntzak eta doinu-azentuzko hizkuntzak.

Indar-azentuzko hizkuntzetan, tonuak esaldi mailako fenomenoak dira. Indar-azentuzko hizkuntzen adibidetzat hartuz, gaztelania aztertuko dugu kapitulu honetako hurrengo atalean. Hizkuntza honetan azentuaren kokagunea ezaugarri lexikoa da; hau da, lexikoian zehazten den eta hitzak bereizteko erabil daitekeen propietate bat da. Aldiz, tonua ez da sarrera lexikoetan zehazten; ez da bereizgarria hitz mailan. Tonuak esaldi mailako esanahiak bereizteko baizik ez dira erabiltzen; baieztapenak eta galderak bereizteko, esate baterako. Esaldi mailako tonuaren erabilera *intonazio* izenez ezagutzen da. Gaztelania bezalako hizkuntzetan, azentua eta tonua loturik daude, intonaziozko tonuak silaba azentudunekin lerrokatzen baitira. Beraz, silaba azentudunek tonuzko prominentzia daramate, edo eraman dezakete. Baina, esan bezala, tonu mota edo melodia ez da hitzaren ezaugarria, esaldi motarena baizik; hots, hitz jakin batek daraman tonua aldatu egin daiteke esaldi motaren arabera. Lehen azpiatal batean, gaztelaniaz azentua silaba batean edo bestean ezartzeko dauden arauak, orokorpenak edo-ta murriztapenak aztertuko ditugu zehatz-mehatz. Bigarren azpiatal batean, gaztelaniaz eta beste indar-azentu hizkuntzetan azentua gauzatzeko erabiltzen diren ezaugarri fisikoak hartuko ditugu kontuan, azentuaren eta intonazioaren arteko harremani begiraturaz. Garai batean pentsatzen zen indar-azentu hizkuntzetako azentuaren izari fisiko nagusia ahots-indarra edo intentsitatea zela. Arrazoi horregatik indar-azentu (*stress accent*, *acento de intensidad*) deitura erabiltzen da prosodia mota hau izendatzeko. Gaurregun badakigu intentsitatea ez dela oso izari fonetiko garbia edo zuzena gaztelania bezalako hizkuntzetan. Baina indar-azentu deiturak tradizio handia du eta guk ere erabili egingo dugu, nahiz eta kasu honetan izena izana ez izan.

Indar-azentuzko hizkuntzetan tonua esaldi-mailako kontua bada, tonu hizkuntzetan, aldiz, tonua hitz mailako fenomeno lexikoa da. Tonu hizkuntzetan, printzipioz, silaba bakoitzak tonu espezifikazio desberdin bat eraman dezake lexikoian. Azentuzko hizkuntzetan azentua zein silabatan dagoen jakin behar baduzu, tonu hizkuntzetan silaba bakoitzak zein tonu mota daukan jakin behar duzu. Azentua kulminatiboa

den bitartean, tonu hizkuntzetan tonua paradigmatikoa da; silaba bakoitzerako egiten den aukera da (ikus Hyman 1978). Azentua eremu edo unitate baten burua den silabari dagokion ezaugarria den bitartean (beste silaba guztiak azentugabeak direlarik), tonu hizkuntzetan silaba bakoitzaren eta guztien tonu mota espezifikatzen da.

Tonu hizkuntza batzuetan tonu bereizketa fonemikoak oso sinpleak dira: goiko tonua ala beheko tonua. Beste hizkuntza batzuetan, aldiz, gauzak konplexuagoak dira eta bi tonu maila baino gehiago edo-ta tonu kontorno desberdinak bereizten dira. Kapitulu honetan hiru adibide nahiko desberdin ikusiko ditugu: shona, Zimbabweko hizkuntza bantu bat, Afrikako tonu hizkuntzen eredutzat har dezakeguna; jita, bantu familiako beste hizkuntza bat (Tanzaniakoa), baina goiko tonuaren banaketa murriztua duena; eta txinera.

Printzipioz eta teoriaz azentu eta tonu sistemen arteko bereizketa garbia eta zehatza bada ere, munduko hizkuntzetan azentua eta hitz-mailako tonua neurri eta era desberdinetan konbinatzen dituzten sistemak aurkitzen ditugu. Hitz-mailako azentua daukaten hizkuntza batzuetan, suedieraz adibidez, hitz bakoitzaren azentua lexikoian espezifikatu behar den tonu melodia zehatz baten bidez gauzatzen da. Hau da, azentua non dagoen eta aukeran dagoen zein tonu motarekin gauzatzen den jakin behar duzu hizkuntza hauetan. Nola edo hala, hitz-mailako tonua eta azentua elkartzen dituzten hizkuntzak izendatzeko *doinu-azentu* deitura (*pitch-accent language*) erabiltzen da askotan eta guk ere horixe erabiliko dugu hemen. Sail honetan sar daitezkeen lau sistema aztertuko ditugu kapitulu honetan: Stockholmeko suediera, serbo-kroazieraren neo-xtokaviera delako dialektoa, Tokyoko japoniera eta Osakako japoniera. Ikusiko dugunez, doinu-azentuzko hizkuntzen taldea nahiko heterogeneoa da eta, bestaldetik, talde honetako hizkuntza batzuen eta tonu banaketa murriztutako tonu hizkuntzen artean dagoen aldea ez da hain handia. Talde bateko eta besteko hizkuntzen artean ez dago muga gaindiezinik; aldiz, continuum bat izango genuke. Prosodia mota guztiak kontuan hartuz, mutur batean hitz-mailako azentua eta esaldi mailako tonua dituzten hizkuntzak izango genituzke: gaztelania edo ingelesa, adibidez; beste muturrean, hitz-mailako tonua eta azentuzko fenomenorik ez dutenak edo bakarrik esaldi-mailako azentuzko fenomenoak dituztenak: shona edo txinera. Bi mutur hauen artean posibilitate asko daude, ikusiko dugun bezala.

3.2. Indar-azentuzko hizkuntzak: gaztelania

3.2.1. *Azentu ezarketa gaztelaniaz: leihoak eta beste murriztapen batzuk*

Beste hizkuntza batzuek bezala, gaztelaniak hiru silabako «leiho» bat dauka azentua jartzeko. Nahitaez, azentua hitzaren azken hiru silabetariko batean kokatu behar da. Gaztelaniaz baditugu hitz oxitonoak (*animál, jabalí*), paroxitonoak (*manzána, apóstol*) eta proparoxitonoak (*silaba, régimen*). Ez dago beste posibilitaterik. Adibidez, **álbaricoquero*, **albáricoquero* edo **albaricoquero* formak ezinezko ereduak dira gaztelaniaz. Patroi hauek ezgramatikalak dira, argi eta garbi, gaztelaniaren fonologian.

Hiru silabako leiho honek baditu ustezko salbuespenak, hala nola *cantándoselas* edo *regálenselo*. Baina ustezko salbuespen hauek ez dira benetako salbuespenak, azalpen garbi bat daukate eta: izenorde klitikoak ez dira sartzen hitz prosodikoan; leihotik

kanpo geratzen dira. Azentua aditzaren azken silabatik kontatuz ezartzen da, baina klitikoak kontuan hartu gabe. *Cantándo* formak jasotzen duen azentu paroxitonoa ez da aldatzen klitikoak eransten ditugunean *cantándo-me* edo *cantándo-melo* adibideetan. Beraz klitikoak azentu unitatetik at gelditzen dira eta ez dute eraginik azentu ezarke-tan.

Eratorpen atzizkiak eta klitikoak erkatzen baditugu, beren azentuzko ezaugarrietan klitikoak eta eratorpen atzizkiak guztiz desberdinak direla ikusten dugu. Eratorpen atzizkiak azentu unitatearen parte dira eta azentuaren aldaketa eragiten dute, hiru silabako leihoa errespetatuz beti; hurrengo adibideetan bezala: *silaba*, *silábico*, *silabicidad* edo-ta *úrbe*, *urbáno*, *urbanista*, pare bat adibide emateko. «Hiru silabako leihoa» hitz prosodiko edo azentu unitate mailako fenomeno bat da. Unitate honetan eratorpen atzizkiak sartzen dira, baina klitikoak ez.

Gaztelaniaren azentuaren azterketan, zenbait hitz mota bereiztu behar ditugu. Hasteko, hitz batzuk, hala nola artikuluek eta preposizioek normalean ez dute azenturik jasotzen. Horregatik *bajo la mésa* «mahaipean» sintagma *bájo la mésa* «mahaia beharatu du» eta *bájó la mésa* «mahaia beharatu zuen» esaldietatik bereizten da prosodikoki. Lehen adibidean azenturik gabeko preposizio bat dugu eta beste bi adibideetan, aldiz, aditz forma azentudun bat.

Azentua daramaten hitzen artean eta azentu erregelak direla eta, gaztelaniaz izen, adjektibo eta adberbioak modu batean portatzen dira eta aditzak beste modu batean. Bereizketa honek badu bere garrantzia.

Aditz ez diren hitz azentudunekin hasiz, hitz oxitono, paroxitono eta proparoxitonoak aurkitzen ditugu; baina erraz ikusten da azentu eredu posible guztiek ez dutela maiztasun berdina. Kasu normal edo markatugabeen, azentua azkenaurreko silaban doa hitza bokalez bukatzen bada (*calabáza*, *elefánte*), baina azkenean hitza kontsonantez amaitzen bada (*calabacín*, *aparadór*). Beste patroio bat, ez normalena, baina ezta ere arraroa, bokalez amaitutako hitz proparoxitonoek (*energúmeno*, *fábula*) eta kontsonantez amaitutako paroxitonoek (*árbol*, *lápiç*, *imbécil*) erakusten dutena da. Azkenik, bokalez bukatutako oxitonoak (*menú*, *jabalí*, *café*) eta kontsonantez bukatutako proparoxitonoak (*régimen*, *análisis*) salbuespenezko kasuak dira.

(1) Gaztelania: azentu patroioak

	_V]	_C]
kasu markatugabea	<i>calabáza</i>	<i>aparadór</i>
kasu markatua	<i>energúmeno</i>	<i>imbécil</i>
salbuespenezko kasuak	<i>jabalí</i>	<i>régimen</i>

Egin ditugun orokorpenak singularrari dagozkio. Dena den, orohar pluralezko atzizkiak ez du eraginik azentuaren kokagunean. Azentua silaba berean agertzen da ia beti, singularrean eta pluralean: *cása*, *cásas*, *árbol*, *árboles*. Salbuespenak oso gutxi dira eta geroxeago aztertuko ditugu.

Bokalez eta kontsonantez bukatutako kasu orokorrak jeneralizazio bakar baten barnean sartzen dira, flexiozko atzizkiak azentu unitatetik kanpo uzten baditugu. Gaztelaniaz bukaera hauek status berezia dute. Jakina denez, eratorpen atzizkiak eransten direnean galtzen dira bukaera hauek: *libr-o*, *libr-et-a*, *cas-a*, *cas-er-o*, etab. (ikus Harris 1991b, Roca 1989). Azentuaren aldetik, genero eta pluraleko atzizkiek era berean jokatzen dute. Neutralak dira biak: *francés*, *francés* eta *francéses* edo *buésped*, *buéspedes*

eta *huéspedes* hitzek erroaren bokal berean daramate azentua. Izenen flexiozko atzizkiak azentu unitatez landa gelditzen direla esan dezakegu. Modu honetan, kasu markatugabeen azentua unitatearen azken silaban ezartzen dela esan dezakegu.¹ Kasu markatuan, azentua unitatearen azkenaurreko silaban ezartzen da:

- (2) Gaztelania: azentuaren gaineko orokorpenak
- a. Arau orokorra: azentua unitatearen azken bokalak darama
[calabáz]a [aparadór]
- b. Kasu markatua: azentua unitatearen azkenaurreko bokalak darama
[energúmen]o [imbécil]

Bi kasu hauek normalak edo sistematikoak dira, nolabait esateko. Salbuespenen artean beste bi kasu aipatu ditugu. Alde batetik, bokalez amaitutako oxitonoena (*café, jabalí*) eta, beste aldetik, kontsonantez amaitutako proparoxitonoek (*régimen, Júpiter*) erakusten dutena. Bi kasu hauetariko lehena ez dugu salbuespentzat hartu behar kontuan hartzen baldin badugu hitz hauen azken bokala ez dela atzizkia, erroaren partea baizik. Lehen esan dugun bezala, flexiozko atzizkiak ezabatu egiten dira hitz eratorriak eratzen direnean. Baina *café, menú*, etabarren azken bokala mantendu egiten da hitz eratorrietan. Beraz, *menú* bezalako hitz baten diminutiboa *menúito* izan daiteke, baina ez **menito*. Edo sofak egiten edo saltzen dituen pertsona bati agian *sofacero* dei diezaiokegu, baina inolaz ere ez **sofero*. Hitz hauen azken bokala ez dela flexiozko atzizkia kontuan hartzen badugu, hitzok kasu orokorrean sartzen dira. *Cása* eta *sofá* hitzen arteko azentuzko diferentzia azken bokalaren statusaren ondorioa dela esan dezakegu. Azken bokala flexiozko atzizkia bada, ez da sartzen azentu unitatean, ikusi dugun bezala; erroaren partea bada, aldiz, bai. Beraz [cás]a baina [sofá] dugu; kasu bietan azentua unitatearen azken bokalean ezartzen delarik.

Kontsonantez amaitutako proparoxitonoen taldean ere adibide guztiak ez dira benetako salbuespenak. *Análisis, síntesis* eta antzeko hitzen bukaera atzizki bezala portatzen da: *análisis, analítico*. Beste adibide batzuek erakusten duten $-V_s$ bukaera ere atzizkia izan daiteke: *lejos, lejano* (ez **lejosano*), *virus, vírico*, etab.

Kontsonantez amaitzen diren beste hitz proparoxitonoak (*régimen, Júpiter, ómicron*), aldiz, benetako salbuespenak dira eta azentuari loturiko beste irregulartasun garrantzitsu bat erakusten dute. Konturatzen bagara, hitz hauen plurala eratzeko ez dago arau garbirik: *régimen, régimenes* baina *ómicron, omicrónes*. Hitz hauekin azentua mugituko ez balitz pluralean, hiru silabako leihoaren murriztapena bortxatuko litzateke: **régimenes*. Ikusten den moduan, ez dago aterabide bakar bat: *régimen/ régimenes* hitzaren kasuan azentua silaba bat eskuinalderantz mugitzen da. Baina *ómicron/ omicrónes, asíndeton/ asíndetónes* eta antzeko grekerazko hitz teknikoek kasuan azentua hitzaren azkenaurreko silabaraino mugitzen da. Beste batzuek ez dute plural garbirik. *Saturno*-ren plurala *Saturnos* da, baina zein da *Júpiter* hitzaren plurala? Esan bezala, /Vs/-z bukatzen direnak, aldiz, ez daude talde berean. *Síntesis, análisis* edo *ómnibus* hitzek ez dute plurala markatzen, baina hemen erregulartasun bat dugu: bokal atonoa eta /s/-z bukatzen diren hitzak ez dira aldatzen pluralean: *la/ las tesis, el/ los virus, el/ los lunes*.

¹ Funtsean, hau da Rocak (1990) proposatzen duena.

Salbuespenen zerrenda itxeko, *carácter* hitza azentu patroi markatu baina normaletan sartzen da. Baina pluralean gertatzen den azentu aldaketa *carácter/caractères* guztiz irregularra da. **Caractères* onargarria izango litzateke, forma honek ez baitu leihoaren murriztapena bortxatzen. Nik dakidanez, ez dago antzeko beste adibiderik.

3.2.2. *Azentua eta kuantitatea gaztelaniaz*

Gaztelaniaren azentuaren analisiak eztabaida garratz eta luzeak eragin ditu azken urteotan fonologia sortzailearen barnean. Autoreen arteko desakordio nagusia silaben kuantitateak azentu ezarketan jokatzeko duen paperarekin du zerikusia. Hau, egia esan, nahiko eztabaidagai zaharra da. Larramendik *El imposible vencido* liburuan gaztelaniaren azentuari eskaintzen dion atalean agertzen da jadanik. Autore batzuek, Harris-ek (1983, 1995), adibidez, uste izan dute gaztelaniazko latinaren ezaugarri garrantzitsu bati eutsi diola; hots, azkenaurreko silaba «astuna» bada, ezin dugula azentu proparoxitonorik izan. **Salámanca*, **Venézuela*, edo **Marácaibo* gaizki eratuta egongo lirateke gaztelaniazko proparoxitonoak direlako, azkenaurreko silaba astuna den bitartean. Beste autore batzuen iritziz, aldiz, aztarna historikoak gelditzen badira ere, latinaren araua guztiz galdu da gaztelaniaz. Larramendik azpimarratzen du latinaren azentu sistemak zeukan beste ondorioa ez dela betetzen gaztelaniaz. Latinez, azkenaurreko silaba arina bazen, azentua proparoxitonoa zen beti. Baina, Larramendik ikusi zuenez, hori ez da gertatzen gaztelaniaz. *Caballero* bezalako hitz baten azkenaurreko silaba arina da eta azentua proparoxitonoa da. Egoera hau ezinezkoa zen latinez, baina guztiz normala gaztelaniaz. Gaztelaniaren bilakaera historikoan latinaren bokal luze eta laburren arteko oposaketa erabat galdu delako da hau horrela. Gainera, azkenaurreko silaba astuna denean, azentua ez da azkenaurrekoan kokatzen salbuespenik gabe. Larramendik *Frómista*, Palencia aldeko toponimo bat, eta *limiste* 'oihal mota bat' aipatzen ditu adibide bezala. Iritzi bereko autore modernoek toponimo eta izen germanikoak aipatu dituzte salbuespenetan: *Ánderson*, *Wáshington*, *Mánchester*, etab. Autore hauek (Roca 1990) azpimarratzen dute ez dagoela inolako joerarik hitz arrotz hauen azentuera aldatzeko gaztelaniaz.

Diptongoz akabatutako hitzei aplikatzen zaie beste pare bat murriztapen. Hitzak goranzko diptongo bat badauka azken silaban patroi proparoxitonoa ez da posible (ez dago **cáricia* bezalakorik). Azken silaban behearanzko diptongo bat badago, azentua azken silaban ezartzen da beti (*convóy*, *caráy*). Baina hitz hauek oso gutti dira eta, gainera, *Disney* eta antzekoak ere entzuten dira.

3.2.3. *Hitz eratorri eta elkartuak*

Morfologiaren eta azentu unitatearen arteko harremani buruz esandakoari beste zertxobait gehi diezaiokegu. Esan dugu eratorpen atzizkiak, flexiozkoak ez bezala, erroaren azentu unitatean sartzen direla. Haietariko batzuk aurreazentuatzailak dira; hau da, atzizki hauekin atzizkiaren ezker aldean dagoen silabak darama azentua. Atzizki hauen artean *-ico* eta *-ulo* aipa ditzakegu: *mágico*, *químico*, *automático*, *receptáculo*, *montículo*.

Zenbait hitz konposatutan osagai bakoitza azentu unitate bat da. Hitz hauek bi lehen mailako azentu daramazkite, beraz: *camión-cisterna*. Talde honetan *-mente* morfema daramaten adberbioak sartzen dira: *rápida-mente*, *sencilla-mente*, *formál-mente*.

Orain arte esandakoa aditz ez diren hitzei dagokie. Ikus dezagun orain, labur-labur besterik ez bada ere, aditz formen azentuera.

3.2.4. Aditzen azentua

Azentuaren aldetik, aditz formak hiru taldetan banatzen dira. Lehen taldeko paradigmatan azentua azkenurreko silaban ezartzen da beti. Talde honetako formak indikatiboaren eta subjuntiboaren orainaldiko paradigmatik dira:

- (3) Gaztelania: orainaldiko azentuera (azentu paroxitonoa)

<i>cánto</i>	<i>cánte</i>
<i>cántas</i>	<i>cántes</i>
<i>cánta</i>	<i>cánte</i>
<i>cantámos</i>	<i>cantémos</i>
<i>cantáis</i>	<i>cantéis</i>
<i>cántan</i>	<i>cánten</i>

Beste bi azentu taldeetan azentuaren ezarketa ez da konputatzen unitatearen eskuinaldeko muga kontuan hartuz, orain arte ikusitako kasu guztietan ez bezala. Aldiz, azentua morfema jakin bati loturik dago. Lehen aldiko paradigmatan azentua bokal tematiko delakoa daraman silaban doa; hau da, erroari jarraitzen dion silaban. Silaba hau hitzaren azkena, azkenurrekoa edo azkenhirugarrena izan daiteke:

- (4) Gaztelania: lehenaldiko azentuera (azentua bokal tematikoa daukan silaban)

<i>cantába</i>	<i>cantára</i>	<i>canté</i>
<i>cantábas</i>	<i>cantáras</i>	<i>cantáste</i>
<i>cantába</i>	<i>cantára</i>	<i>cantó</i>
<i>cantábamos</i>	<i>cantáramos</i>	<i>cantámos</i>
<i>cantábais</i>	<i>cantárais</i>	<i>cantásteis</i>
<i>cantában</i>	<i>cantáran</i>	<i>cantáron</i>

Azkenik, geroaldiko paradigmatan eta baldintzazkoan, denborazko atzizkiak darama azentua. Geroaldian silaba azentuduna (atzizkia daukana) azkena edo azkenurrekoa izan daiteke, eta kondizionalean azkenurrekoa edo azkenhirugarrena:

- (5) Gaztelania: geroaldiko azentuera (azentua denborazko atzizkian)

<i>llegaré</i>	<i>llegaría</i>
<i>llegarémos</i>	<i>llegariámos</i>

Bigarren eta hirugarren taldeetan aplikatzen diren erregelak eta beste kasu guztietan ezartzen direnak nahiko desberdinak dira. Gaztelaniaz, beraz, azentuak ezartzeko, edo azentu kokaguneak erabakitzeke, badira bi irizpide: gehienetan, azentuaren kokagunea eskuinaldeko mugatik kontatuz erabakitzen da (izen, izenondo eta adberbioetan eta baita aditzen orainaldian ere). Aditz paradigma batzuetan, aldiz, azentua morfema bati lotuta dago. Bigarren kasu honetan, garrantzia duena ez da hitzaren muga, morfema azentudunaren kokagunea baizik. Hain zuzen, hauexek

dira munduko hizkuntzetan azentua ezartzeko aurkitzen ditugun bi irizpide nagusiak.

Aditzen azentueraren beste berezitasun bat eredu bakarra egotea da. Azentuaren aldetik ez dago aditz irregularrik. Aditz guztiek modu berean azentuatzen dira gaztelaniaz (baina ez italieraz, esate baterako). Gauzak honela izanik, izen eta adjektiboen artean aurkitzen diren azentu kontrasteak galdu egiten dira arau morfologikoen bidez aditzak sortzen direnean izen edo adjektibo erroak erabiliz. Izan ere, erro proparoxitonoek beren markatutasuna galtzen dute:

(6) Gaztelania: azentu irregularitasunaren ezabaketa aditzetan

Izena	Aditza
<i>número</i>	<i>numéro</i>
<i>fórmula</i>	<i>formúla</i>
<i>plática</i>	<i>plática</i>
<i>fábrica</i>	<i>fabrica</i>
<i>ánimo</i>	<i>ánima</i>

Beraz, azentu patroiak beste hitz motetan baino murriztuagoak dira aditzetan. Aditz guztiak modu berean azentuatzen dira.

3.2.5. *Azentu bigarrenkaria*

Azken hiru silabetariko batean kokatzen den lehen mailako azentuaz gain, askotan beste azentu leunago bat agertzen da hitzaren lehen silaban. Bigarren mailako azentu hau oso nabaria izan daiteke hizkera enfatikoan; adibidez irrati-telebistetako esatarien hizkeran: *el presidente de la diputación se reunirá mañana con el representante de los trabajadores*. Autore batzuen ustez (ikus Roca 1986), azentu erritmikoak ere badira, silaba bat txandakaturik: *antigènerativista*; baina hau ez dago hain garbi (Prieto & van Santen 1996).

3.2.6. *Laburpena eta zenbait gogoeta*

Atal honetan gaztelaniaren azentuera aztertu dugu. Ikusi dugunez, gaztelaniaz azentua hitzaren eskuineko ertzetik edo bukaeratik kontaturik ezartzen da. Silaba azentudunak hiru silabako leiho baten barnean egon behar du beti. Beraz, bigarren kapituluaren proposatutako tipologiaren arabera, gaztelania [+ertz] sistema da. Azentu posible guztiak (leihoaren barnean) ez dira agertzen maiztasun berberarekin. Aldiz, patroi markatugabeak, markatuak eta salbuespenekoak aurkitzen ditugu. Kasu markatugabeen erroaren azken bokalak daruma azentua, eta kasu markatuan, azkenurrekoak. Bestaldetik, kuantitatearen garrantzia zalantzazkoa da gaztelaniaz. Zenbait aditz paradigmatan azentu morfologikoa aurkitzen dugu. Hau da, azentua morfema bati lotua agertzen zaigu, ertza kontuan hartu gabe. Azkenik, badago azentu bigarrenkari bat, unitatearen ezker aldeko ertzari loturik dagoena.

Orain, aurkitutako arauak edo jeneralizazioek garrantzi psikologikorik ba ote duten galde dezakegu. Badirudi erantzun desberdinak eman behar ditugula, jeneralizazioak salbuespenik duen ala ez duen kontuan hartuz. Salbuespenik gabeko jeneralizazioen kasuan ez dago problemarik garrantzi psikologikoa edo emankortasuna onartzeko. Adibidez, hiru silabako murriztapenaren kasuan, argi dago hiztun guz-

tientzat **albaricoquero* bezalako hitz bat ez dela posible gaztelaniaz. Hitzun multzo bati *POCATUMELA* bezalako hitz asmatu bat ematen badiegu azentuatzeko inork ez du **pócatumela* edo **pocátumela* emango erantzun bezala. Era berean, hitzunei *ATULAR* aditz berria ematen badiegu eta honekin esaldi bat eratzeko eskatu, inork ez du **Juan átula* esango. Gauzak desberdinak dira jeneralizazioak salbuespenak dituenen. Adibidez, hiztegia ikusita, argi dago gaztelaniaz kontsonantez bukatzen diren hitzek azentu oxitonoa dutela kasu orokor edo markatugabeen. Baina jeneralizazio honek ba ote dauka garrantzirik hiztunentzat? Hemen badirudi erantzuna ezezkoa dela. *POCATUMEN* azentuatzeko emanda, hitzun askok *pocátumen* erantzuten dute. Aldiz, hitza *POCATUMON* bada, *pocatumón* ia guztiek nahiago dute (Aske 1990). Zer gertatzen da hemen? Antza denez, hitz berrien azentuera asmatzeko hitzunek oso analogia espezifikokoak erabiltzen dituzte eta ez bakarrik hitza bokalez edo kontsonantez bukatzen den. Gure adibideen kasuan /-en/ bukatzen diren hitz arrunt asko paroxitonoak dira: *exámen*, *velámen*, *órden*, *imágen*, etab. eta analogia hau aplikatuz hitzun gehienek *pocátumen* sortzen dute, eta ez *pocatumén*, hitza kontsonantez bukatzen bada ere.

3.2.7. Azentuaren ezaggarri fisikoak gaztelaniaz eta indar-azentuzko beste hizkuntza batzuetan

Gaztelania bezalako hizkuntza baten hitzun gehienek badakite hitz jakin batean non dagoen azentua. Hitzunei azentu hori zer den galdetzen badiegu, agian esango digute silaba azentuduna indar handiagoarekin ahoskatzen dela. Iritzi hau nahiko hedatuta dago eta liburu askotan aurki daiteke. Begira Pompeius gramatikarari erromatarrak zer dioen:

«illa syllaba plus sonat in toto verbo, quae accentum habet. ergo illa syllaba, quae accentum habet, plus sonat. quasi ipsa habet maiorem potestatem. et quo modo invenimus ipsum accentum? et hoc traditum est [...] finge tibi quasi vocem clamantis ad longe aliquem positum. ut puta finge tibi aliquem illo loco contra stare et clama ad ipsum. cum coeperis clamare, naturalis ratio exigit ut unam syllabam plus dicas a reliquis illius verbi; et quam videris plus sonare a ceteris, ipsa habet accentum. ut puta si dicas orator, quae plus sonat? ra, ipsa habet accentum. optimus, quae plus sonat? illa quae prior est. numquid sic sonat ti et mus, quem ad modum op? ergo necesse est ut illa syllaba habeat accentum, quae plus sonat a reliquis, quando clamorem fingimus» (in Heinrich Keil, *Grammatici Latini*, V, 126-127).

«Hitz osoan gehien entzuten den silaba azentua daukana da. Beraz, azentua daraman silaba, gehiago entzuten da, indar gehiago duela ematen du. Eta nola aurkitzen dugu azentua bera? Hau ere ikertua dago [...] pentsa ezazu urrun dagoen norbaiti hotsegiten diozula. Imajina ezazu urrun dagoen norbaiti hots egiten dion baten ahotsa. Hotsegiten hasten zarenean, arrazoi naturalak eskatzen du silaba bakar bat hitzaren beste guztiak baino indar gehiagorekin esatea; eta besteak baino gehiago entzuten duzunak azentua darama. Suposa ezazu *orator* esaten duzula; zein da gehien entzuten dena? *ra*; hau da azentuduna. Har *optimus*, zein da gehien entzuten dena? lehendabizikoa. Apika, *ti* eta *mus* silabak *op* bezainbat entzuten ote dira? Beraz, beste guztiak baino gehiago entzuten den silabak azentua eraman behar du, norbaiti hotsegiten diogula itxura egiten dugunean.»²

² Eskerrik asko Iñigo Ruiz Arzalluzi itzulpen honekin laguntzeagatik.

Arrazoi honengatik, hain zuzen, latinak, gaztelaniak edo ingelesak daukan azentu mota «indarrezko azentua» edo «indar azentua» deitu ohi da (*acento de intensidad*, gaztelaniaz; *stress*, ingelesez).

Ahoskeraren indarra, noski, artikulaziozko gertakaria da. Baina, hala bada ere, korrelato edo izari akustikoren bat izan behar du, azentua entzuten badugu. Nola gautzen da ahoskeraren indarra seinale akustikoan, bada? Indarra soinuaren «volumenarekin» erlaziona dezakegu (adibidez, irratian «volumena» goratzen dugunean, indar gehiago ematen diogu seinaleari). Pompeius-ek esaten duen bezala, silaba azentuduna gehiago entzuten da. Parametro hau soinu-uhinaren goitik-beherako zabalera (*amplitude*) islatzen da.

Hau honela izanik, hitzaren uhin-zabalerari so eginez, silaba azentuduna identifikatu beharko genuke. Soinu-uhinaren zabalera azentuarekin zuzenean erlazionatzen den ikusteko, hitzunik azentuaren bidez bereizten dituzten zenbait adibideren soinu-uhinak azter ditzakegu. Adibidez, azentuaren kokaguneaz bereizten diren (7)-ko hiru esaldiok mia ditzagun (1. irudian):

(7) Gaztelania: azentua eta indarra (ikus 1. irudia)

dígo número

dígo número

dígo número

Hiru adibideetan azentuduntzat hartzen dugun silaba zabalera handiena duena dela ikus daiteke. Beraz, erlazio bat ikusten dugu azentuaren eta intentsitatearen artean, proposatu bezala.

Hala ere, konturatzen bagara, *dígo* hitzaren bigarren silaba lehen silaba baino zabalagoa da hiru adibideetan, nahiz eta azentua daramana lehen silaba izan. Orduan, silaba azentuduna ez dela beti hitzaren intentsuena ondorioztatu behar dugu.

Har dezagun beste adibide bat. 2. irudian bigarren bikote minimo baten uhinak eta espektrogramak ditugu:

(8) Gaztelania: azentua eta indarra (ikus 2. irudia)



dígo tápo por tí

dígo tapó por tí



Uhin-zabalerari begiratu, 2b irudian *tapó* hitzean /o/ azentudunak /a/ azentuga-beak baino zabalera handiagoa badu ere, 2a irudian, aldiz, ez dirudi alde handirik dagoenik *tápo* hitzaren bi silaben artean. Bestaldetik, *dígo* hitzean azentua eta zabalera bat datoz 2a irudian, baina ez 2b irudian.

Ondorioak ateratzeko askoz adibide gehiago aztertu beharko genituzke. Dena den, horrela egingo bagenu, gauza bera ikusiko genuke; alegia, intentsitatea azentuarekin erlazionaturik badago ere, ez dela azentuaren ezaugarririk zuzen eta garbiena (ikus Lehiste 1970, Quilis 1981, Beckman 1986). Gehienetan, erlazio bat ikusten dugu: silaba azentuduna besteak baino intentsuagoa da, batez ere hitz solteetan edo esaldi deklaratioben bukaeran, baina ez beti.


Gaztelania bezalako «indar-azentuzko» hizkuntza batean intentsitatea ez bada azentuaren ezaugarririk fidagarriena, zertan datza hitzunik «sentitzen» duen azentua?



1.a. irud. digo número



1.b. irud. digo número



1.c. irud. digo número

Badakigu hizkuntza batzuetan silaba azentudunak azentugabeak baino luzeagoak direla. Gaztelaniaz ere horrela den ikusteko, gure adibideetan silaba bakoitzaren iraupena neur dezakegu soinu-uhina erabiliz. 1. irudietako uhinetan, bokalen neurriak hauexek dira milisegundoetan:

(9) Gaztelania: iraupena eta azentua (ikus 1. irudia)

	/numeró/	/numéro/	/número/
/u/ =	63 ms.	72 ms.	92 ms.
/e/ =	84 ms.	89 ms.	69 ms.
/o/ =	113 ms.	67 ms.	81 ms.


Ikus dezakegunez, azentuduntzat hartzen dugun silaba luzeena da hiru adibideetan.

2. irudiko beste bi adibideen ahots uhinetan gauza bera ikusten dugu. Bokalen neurriak hauexek dira:


(10) Gaztelania: iraupena eta azentua (ikus 2. irudia)

<i>tápo</i> á =	70.63 ms.	o =	44.62 ms.
<i>tapó</i> a =	58.86 ms.	ó =	71.80 ms/

1a-c irudietako adibideetan bezala, azentuduntzat hartzen dugun silaba luzeagoa da azentugabea baino. /a/ bokalak 12 ms. gehiago irauten du *tápo* hitzean *tapó* hitzean baino; eta, alderantziz, /o/ bokalak 27 ms. gehiago ditu *tapó* adibidean bestean baino.



2.a irud. digo tapo por ti



2.b. irud. digo tapó por ti

Lehen esan bezala, adibide guti hauetatik ezin dugu ezer ondorioztatu, baina antzeko adibide asko aztertuko bagenitu, gaztelaniaz bokalen iraupena azentuari lotuta dagoela ikusiko genuke (cf. Quilis 1981). *Ceteris paribus*, bokal jakin bat luzeagoa da azentua daramanean azentugabea denean baino eta, normalean, bokal azentuduna hitzaren bokal luzeena da. Beraz, iraupena azentuaren ezaugarritzat har dezakegu gaztelaniaz.

Hizkuntza anitzetan badago erlazio estu bat azentuaren eta iraupenaren artean. Gehienetan silaba azentudunak luzeagoak dira azentugabeak baino, gaztelaniaz bezala. Gainera, kuantitatea fonologikoki bereizgarria den hizkuntzetan, azentua silaba astunek erakarri ohi dute. Beraz, azentuaren eta kuantitatearen arteko eragina norabide bikoia da:

- (11) Azentuaren eta kuantitatearen arteko erlazio posibleak
 - a. Azentua → iraupena: bokal azentudunak luzeagoak dira
 - b. Iraupena → azentua: silaba luzeek azentua erakartzen dute


Latinak eta italierak azentuaren eta kuantitatearen arteko bi erlazio posibleak erakusten dizkigute. Latinez bazegoen kontraste fonologiko bat bokal luze eta laburren artean eta kontraste honek eragina zuen azentu ezarketan. Alegia, bokal luzeak edozein posizioan egon zitezkeen baina azkenaurreko silabako bokala luzea bazen (edo bokalaren ondoren kontsonante bat bazegoen silaba berean), azentua erakartzen zuen

beti. Italieraz, aldiz, ez dago horrelako kontraste fonemikorik bokal luze eta laburren artean. Fonemikoki bokal guztiak laburrak dira, baina bokal azentuduna luzatu egiten da silaba irekian baldin badago (Nespor & Vogel 1986: 131). Italieraz silaba azentudunak astuna izan behar du. Silaba azentuduna kontsonantez itxia (*fátto, vérede*) edo irekia izan daiteke (*fáto*). Itxia bada, bokal osteko kontsonanteak egiten du astun. Irekia bada, bokala luzatzen da: *fato* [fá:to]. Modu honetan, silaba tonikoak antzeko iraupena du *fatto* eta *fato* hitzetan; bi kasuetan astuna delarik. Beraz, latinez iraupenak azentu ezarketa baldintzatzen du eta italieraz azentuak bokalen iraupena baldintzatzen du. Nolabait, kontrako harremanak aurkitzen ditugu bi sistema hauetan. Beste hizkuntza batzuetan ez dago hain garbi iraupena azentuaren ondorioa ote den edo alderantziz.


Indarraz eta iraupenaz gain, azentua tonuarekin erlazionatzen da. Akustikoki tonuaren korrelato nagusia soinu-uhinaren oinarrizko maiztasuna (*fundamental frequency*) edo F_0 delakoa da. Goiko tonu batek (hau da, tonu akutu batek) beheko tonu batek (tonu grabe batek) baino oinarrizko maiztasun handiagoa du.

Berrito ere, hiztunek azentuaren bidez bereizten dituzten adibide talde minimoak azter ditzakegu hiztunek sentitzen duten azentua F_0 -arekin korrelazionatzen den ikusteko. *Numeró/numéro/número* adibideetako uhinen oinarrizko maiztasun kurbak aztertuz, silaba azentudunean kurbak gorakada bat egiten duela ikusten dugu (ikus 3a-c irudiak). Orduan, badirudi oinarrizko maiztasuna ere azentuaren ezaugarri fisikotzat har dezakegula. Gaztelaniaz oinarrizko maiztasuna esaldiari dagokion ezaugarri bat da. Hitz bera tonu patroia desberdinekin (hau da, intonazio desberdinekin) ahoska daiteke. Kotsidera dezagun, adibidez, zein intonazio desberdinekin ahoskatzen den *número* hitza honako esaldiotan:


- (12) Gaztelania: azentua eta tonua (ikus 4. irudia)
- le dieron el número.*
 - ¿le dieron el número?*
 - le dieron el número... (pero no el nombre)*




3.a. irud. digo numeró




3.b. irud. digo número




3.c. irud. digo número



4.a. irud. le dieron el número




4.b. irud. ¿le dieron el número?




4.c. irud. le dieron el número...

Hiru adibide hauetariko bakoitzean *número* hitzak kontorno desberdina erakusten du. Hala ere, azentuaren eta intonazioaren artean oso erlazio estua dagoela ikusten dugu, nahiz eta erlazio hau guztiz zuzena ez izan. Azentua ez da beti tonu gailur baten bidez adierazten. Aldiz, tonu kontornoa esaldi motarekin aldatzen da. Baina esaldiaren intonazioaren tonuak silaba azentudunekin lerrotatzen dira. Irudietan ikusten denez, hiru adibideetan *número* hitzaren lehen silaban (silaba azentudunean) tonu aldaketa bat dugu, baina melodia desberdina da kasu bakoitzean. Melodia desberdinak ditugu azken silabetan, melodia horren bidez esaldi motak desberdintzen direlako. Deklaratzaile bukatuari azkeneko beherakada bat dagokio; galderari beherakada azentudunean eta gero gorakada handi bat; eta deklaratzaile bukatugabeari gorakada azentudunean, beherakada azentuostekoan eta gorakada bukaeran. Bukaerako melodia hauek azken silaba azentudunetik hasten dira. Melodiak lerrotatzeko azentua hartzen da kontuan. Tonu melodiak esaldi mailakoak dira, baina tonu aldaketak silaba azentudunen inguruan gertatzen dira. Har ditzagun hurrengo adibideak (5a-c irudiak):


- (13) Gaztelania: azentua eta bai-ala-ezko galderen intonazioa (ikus 5. irudia)
 ¿digo número?
 ¿digo número?
 ¿digo número?



5.a. irud. ¿digo número?



5.b. irud. ¿digo número?



5.c. irud. ¿digo numeró?

Hiru adibide hauek tonu gorakada dute bukaeran, bai-ala-ezko galderak izanik; baina azken gorakada silaba ezberdinetan hasten da. Kasu bakoitzean azken silaba azentuduna erabiltzen da erreferentzia puntutzat gorakada hasteko. Hurrengo atalean aztertuko dugu gai hau zehaztasun gehiagoz.

Azentuarekin erlazionatzen den laugarren ezaugarri bat aipa dezakegu. Gaztelaniaz ez hainbeste, baina beste hizkuntza askotan, hala nola ingelesez edo katalanez, bokalen kualitatea desberdina da silaba azentudun eta azentugabeetan. Hizkuntza askotan kontraste fonologiko gehiago egiten dira silaba azentudunetan azentugabeetan baino. Sarri bokalak neutraldu edo-ta galdu egiten dira silaba azentugabeetan. Ingelesez, azenturik gabeko silabetan oso bokal ilunak agertzen dira, «schwa» deitzen direnak. Beraz, *banana* hitzean adibidez, azentua bigarren silaban dago eta beste bi bokalek kualitate neutrala dute: [bənænə] (Estatu Batuetako dialekto orokorrean). Ikerketa akustiko berri batzuek erakutsi dute ingelesez silaba azentudunen hiperartikulazioa oso nabaria dela eta kontsonanteen ahoskeran ere islatzen dela (Beckman & Edwards 1994). Koartikulazioa ahulagoa da silaba azentudunetan, silaba hauen hiperartikulazioagatik (De Jong, Beckman & Edwards 1993).

Ekialdeko katalanez, silaba azentugabeetan hiru bokal besterik ez dira agertzen (mailegu berriak albo batera utzita) [u, i, ə], silaba azentudunetan zazpi fonema bokaliko bereizten diren bitartean [i, e, ε, a, o, ɔ, u]. Gaztelaniaz aldiz ez dago horrelako murrizketarik, nahiz eta [we], [je] diptongoak, oro har, silaba azentudunetan besterik ez diren agertzen.

Laburbilduz, silaba batean sentitzen dugun azentuak edo prominentziak ezaugarri akustiko bat baino gehiagorekin izan dezake zerikusia. Esan bezala, azentuak lotura estua dauka oinarrizko maiztasun edo tonuarekin. Gainera, silaba azentudunak azentugabeak baino luzeago, indartsuago eta argiago, koartikulazio guttiagorekin, ahoskatu ohi dira.

Azentuaren ezaugarri fisiko bezala fenomeno hauexek aipatu ditugu azpialt honetan:

- a. Tonua (uhinaren oinarrizko maiztasuna): Intonazioaren gorabeherak silaba azentudunekin lerrotzen dira.
- b. Intentsitatea edo indarra (uhinaren zabalera): silaba azentudunak indar gehiagoz ahoskatu ohi dira.
- c. Iraupena: silaba azentudunak azentugabeak baino luzeagoak ohi dira.
- d. Ahoskeraren garbitasuna (hiperartikulazioa): silaba azentudunak garbiago, prezisio gehiagorekin, ahoskatzen dira.

Hizkuntzaren arabera, ezaugarri desberdin hauek garrantzi handiagoa edo tipiagoa izango dute. Adibidez, gaztelaniaz ez ditugu aurkitzen ingelesaren bokal neutraltze gogorrek silaba azentugabeetan. Hizkuntza guztiek ez dituzte parametro hauek guztiok erabiltzen.

3.2.8. *Azentua eta intonazioa gaztelaniaz*

Gaztelaniaz esaldiaren tonu melodiak azentuekin lerrotzen direla ikusi dugu; hau da, tonu aldaketa nagusiak silaba azentudunen inguruan gertatzen dira. Modu honetan silaba azentudunek (baina ez nahitaez silaba azentudun guztiek) tonuzko prominentzia daramate. Ikusi dugunez, horrek ez du esan nahi silaba azentuduna hitzaren tonuzko gailurra izango denik. Aldiz, zein esaldi mota dugun eta hitza non dagoen kokatuta esaldian aintzat harturik, kontorno desberdinak izango ditugu. Azpialt honetan tonu kontornoak aztertzen saiatuko gara.

Intonazio neutralean, tonu mugimendu berezirik egin gabe, F₀ kurba maila batean hasten da eta beherantza doa bukaeraraino, biriketako haizea galtzen dugularik. Esaldi baten F₀ kurba kontorno neutraletik desbideratzen den puntuetan elementu fonologiko bat sartzen dela onar dezakegu, hots, goiko tonu bat (H) kurbak gorakada egiten badu, edo beheko tonua (L) beherakada gogorra badugu. Pierrehumbert-ek (1980) erakusten duen moduan, bi elementu fonologiko hauekin, konbinaketa desberdinetan harturik, nahikoa dugu ingelesaren intonazioan agertzen diren tonu aldaketa guztiak azaltzeko (ikus, era berean, Beckman & Pierrehumbert 1986, Pierrehumbert eta Beckman 1988, Pierrehumbert & Hirschberg 1990); eta honek gaztelaniarako ere balio du (Sosa 1991).

Hasteko, ikus dezagun 6. irudiko adibidea:

- (14) Gaztelania: intonazioa (ikus 6. irudia)
le dieron el número del vuelo

Esaldi honetan hiru azentu unitate ditugu. Hiruretan beherakada bat dugu azentu aurreko silaban eta gorakada silaba azentudunean. Azentu-osteko silabetan azentudu-

naren tonu maila mantentzen da gutti gorabehera. Kontorno hauek L+H* melodiaren bidez adieraz ditzakegu. Izartxoak (*) bigarren tonua silaba azentudunari lotzen zaiola adierazten du:

(15) * * *
le diéron el número del vuélo
| | | | | |
L+ H L+ H L+ H

Azentuei lotutako melodia batekin ez dugu esaldiaren kontorno osoa esplikatatu. Esaldiaren azken silaban dugun beherakada falta zaigu. Beherakada hau, noski, L tonu bat bezala interpretatzen dugu. Tonu hau ez dago azentu batekin loturik, bukarako mugarekin baizik. Pierrehumbert-en (1980) notazio sistema erabiliz, muga-tonua % ikurrarekin markatzen dugu:

(16) [le dié ron el nú me ro del vué lo]
| | | | | | | |
L+H* L+H* L+ H* L%

Errepresentazio fonologiko honen interpretazio fonetikoan, tonurik gabe gelditzen diren silabetan alboko tonuen interpolazioa dugu.


Analisi honetan, beraz, esaldiaren intonazio kurba, H eta L elementuetan zatitzen dugu. Tonu batzuk azentuekin lerrotatzen dira, beste batzuk mugekin. Esaldi deklaratzailer bukaturtan L% muga tonua dugu; (13)-eko bai-ala-ezko galderetan, aldiz, H% muga tonua.

Gaztelania bezalako hizkuntza batean azentuari ez dagokio beti melodia berbera. Azentuaren kokagunea lexikoa da, baina tonu melodia ez. Ingelesarako Beckman & Pierrehumbert-ek (1986) sei azentu tonu onartzen dituzte. Tonu hauek tonu batekoak edo bikoitzak izan daitezke. Bikoitzak badira tonu bat silaba azentudunarekin lerrotatzen da eta bestea haren aurrean edo atzean ezartzen da. Ingelesez aurkitu dituzten azentu tonuak hauek dira: H*, L*, H*+L, H+L*, L*+H eta L+H*. Azentu batekin lerrotatzen den tonua adierazteko izartxo bat jarriko dugu tonu horren eskuinaldean. Beraz, adibidez, H*+L notazioarekin esan nahi dugu goiko tonu bat agertzen dela silaba azentudunarekin lerrotatuta eta hurrengo silaban tonu beherakada bat. Aldiz, H+L* notazioak adierazten du silaba azentuduna baino lehen gorakada bat dugula eta azentuduneari beherakada bat.

Azentu unitateak bitarteko taldeetan biltzen dira. Bitarteko talde batek azentu unitate bat edo gehiago eduki dezake. Taldearen azken azentu-tonuaren ondoren tonu bat sartzen da, taldea horrela markatuz. Taldeko azentu hauek tonu batekoak dira: H edo L.

Azkenik, intonaziozko esaldia bitarteko talde bat edo gehiagoz osatzen da. Intonaziozko esaldiaren amaierako muga muga-tonu bat sartzen da. Batzuetan esaldiaren hasieran ere bai. Muga-tonu hauek % ikurraren bidez adierazten dira Pierrehumbert-en notazioan eta, taldeko azentuak bezala, bi dira ingelesez: H% eta L%.

Azentu-tonu desberdinak, taldeko tonuak, eta muga-tonuak konbinatuz, ingelesez aurkitzen ditugun intonaziozko kurba guztiak azal ditzakegu.



6. irud. le dieron el número del vuelo

Ikusi dugu, beraz, gaztelaniaz esaldiaren tonuak azentuekin lerrotatzen direla. Tonu aldaketa garrantzitsuak silaba azentudunetan gertatzen dira. Baina tonuak esaldi mailako fenomenoak dira gaztelaniaz, ez hitz mailakoak. Tonu melodia edo intonazioa esaldi mailako esanahiak adierazteko erabiltzen da: esaldi bat deklaratzaileria edo galdera bat den adierazteko, eta baita ere harridura, ironia eta diskurtsoari dagozkion antzeko ñabardurak erakusteko; baina ez hitzak desberdintzeko. Hitz jakin bat ez da beti eta nahitanahiez tonu melodia berberarekin ahoskatzen. Melodia

esaldiaren intonaziozko faktoreen arabera aldatzen da. Horregatik esaten dugu gaztelania ez dela tonu hizkuntza bat, nahiz eta tonua azentuaren ezaugarri garrantzitsua izan hizkuntza honetan. Prominentzia tonalaz gain, intentsitate eta iraupe-naren bidez gorentasun gehiago ematen zaie silaba azentudunei. Gaztelania bezalako hizkuntza batean, azentua zerbait abstraktua da: lexikoï mentalean silaba bati ematen zaion prominentzia. Prominentzia hau parametro fisiko desberdinez gauzatzen da.

Hizkuntza guztietan ez da honela gertatzen. Izan ere, hizkuntza batzuetan erlazio estuagoa edo zuzenagoa dago azentuaren eta tonuaren artean. Lau hizkuntza aztertuko ditugu laburki adibide gisa: suediera, serbo-kroaziera, Tokyoko japoniera eta Osakako japoniera. Hizkuntza hauek guztiok amankomunean daukatena da azentua melodia jakin baten bidez gauzatzen dela beti. Hizkuntza hauek doinu-azentuzko hizkuntzak deitzen dira komunzki. Hauetariko batzuetan silaba azentudun guztiak melodia berberarekin agertzen dira. Beste batzuetan, badago aukera lexiko bat: hitz batzuek melodia bat aukeratzen dute eta beste hitz batzuek beste bat.

3.3. Stockholmeko suediera

Suedieraz azentuaren kokagunea beste hizkuntza germanikoetan bezala erabakitzen da. Gehienetan azentua erroaren lehen silaban ezartzen da: *flicka* 'neska', *hårlekin*, *indigo*, *álmanacka*. Hala ere, beste hizkuntzetatik hartutako mailegu askok azentua beste silaba batean daramate: *kostým* 'arropak', *amerikán*, *arkeologí*, *intensitét*, *pa-pegója*, *salmonélla*, *Amérika*.

Ingelesez edo alemanez ez bezala, badira bi azentu mota lexiko azentu I eta azentu II izenekin ezagutzen direnak. Hitz batean ez da nahikoa azentua zein silabatan doan jakitea. Horretaz gain, hitzak zein azentu mota hartzen duen jakin behar da. Bi azentu mota hauek melodia desberdinekin elkartuta daude. Hau da, tonuak, gaztelaniaz, ingelesez edo alemanieraz ez bezala, ez dira guztiz esaldi mailako fenomenoak. Adibideetan azentu I-a azentu akutuaz adieraziko dugu eta azentu II-a azentu grabeaz.

Hitza fokalizatuta dagoenean, edo isolatuta ahoskatzen denean, azentu I eta azentu II-ren arteko kontrastea honelaxe gauzatzen da: Hitzak azentu I badauka, tontor bat erakusten du silaba azentudunean. Aldiz, hitzak azentu II badauka, bi tontor erakusten ditu, bata silaba azentudunean eta bestea hurrengo silaban. Irudietan (7a-b irud.), *mína núnmer* 'nire zenbakia' eta *mína núnnor* 'nire monjak' adibideen oinarritzko maiztasun kurbak erka ditzakegu. Fokalizatuta dauden hitzak *núnmer* (azentu I) eta *núnnor* (azentu II) dira. Ikusten denez, *núnmer* hitzak tontor bakar bat duen bitartean, *núnnor* hitzak bi tontor garbi erakusten ditu.³

Hitza fokalizatuta ez dagoenean, azentu I duten hitzetan silaba tonikoaren aurrekoak goiko tonua darama eta tonikoan beherakada bat gertatzen da. Azentu IIko hitzetan, aldiz, goiko tonua silaba azentudunarekin lerrotatzen da eta beherakada hurrengo silaban agertzen da. (17)ko adibideetan, fokua azken hitza da eta fokalizatuta

³ Irudiak neuk atera ditut Stockholmeko hiztun batekin eta CECIL programa erabiliz.

ez dauden *l'ängre* (azentu I) 'luzeago' eta *l'änga* (azentu II) 'luze' hitzen tonuera erka ditzakegu. Adibideak hauexek dira (cf. 8a-d irudiak):

(17) Suediera


- a. *mīna l'ängre nūmmer* 'nire zenbaki luzeagoa'
- b. *mīna l'änga nūmmer* 'nire zenbaki luzea'
- c. *mīna l'ängre nūnnor* 'nire monja luzeagoak'
- d. *mīna l'änga nūnnor* 'nire monja luzeak'

Gösta Bruce-ren (1995) analisi fonologikoa onartuz, esan dezakegu azentu I, HL* melodiarekin dagoela lotua. Aldiz, azentu II-ren melodia H*L da. Diferentzia, bada, tonuen lerraketan datza.


Hitza fokalizatuta dagoenean, beste goiko tonu bat eranstean da azentuaren melodiaren ondoren. Beraz, patroia hauek ditugu (Bruce 1995):

(18) Suediera: bi azentuen analisi fonologikoa (Bruce 1995)

	ez fokal.	fokalizatua	
Azentu I	HL*	(H)L*H	adib.: <i>änden</i> 'ahatea', <i>règel</i> 'erregela', <i>nūmmer</i> 'zenbaki'
Azentu II	H*L	H*LH	adib.: <i>änden</i> 'izpiritua', <i>règel</i> 'itxigailu', <i>nūnnor</i> 'monjak'



7.a. irud. *mīna nūmmer*



7.b. irud. mìna nùnnor

Deklaratiboen intonazioak beste beheko tonu bat sartzen du bukaeran. (7a-b) irudietako adibideek honako analisiak izango lituzkete:


(19) Suediera

Azentu I	Azentu II
númm̄er	nùnnor
	\
L* H L	H*L H L


Suedieraz silaba azentuduna luzea da beti. Bokal ostean kontsonante bat bada kodan, kontsonante honek eraman dezake bigarren tonua, (19)ko adibideetan bezala. Aldiz, silaba azentuduna irekia bada, bokala luzatzen da morabidun bihurtuz.

Hitzak isolatuta ahoskatzen direnean fokalizatuak daude. Arrazoi honengatik azentu IIko hitzok bi azentu tontorrekin entzuten dira.


Suedieraz, melodiaz gain, silaba azentudunek lehen aipatutako ezaugarriak erakusten dituzte: iraupena, intentsitatea eta beste artikulazio edota espektruzko parametro batzuk. Silaba azentudunak astunak edo luzeak dira beti.




8.a. irud. mìnà lángrè nùmmèr



8.b. irud. mìnà lángrè nùmmèr



8.c. irud. mĩna lán gre nùn nor



8.d. irud. mĩna lán ga nùn nor

Bi azentuak ez dira banatzen hiztegian modu guztiz arbitrarioan. Alderantziz, bada jøera garbiak aurkitzen dugun banaketan. Hasteko, azentu IIa ez da inoiz azken silaban ezartzen. Oxitono guztiak azentu Ia hartzen dute: *lemonád*, *arkeologi*. Honen ondorio bat da erro silababakarreko guztiak azentu Ia daramatela: *bil* «kotxe». Azentu IIak bi silaba behar ditu gauzatzeko: azentuduna eta toniko atzekoa. Hau kontuan hartzen badugu, (18)an emandako *änden* ‘ahatea’ vs. *änden* ‘izpiritua’ pareta eta antzeko beste asko, neurri batean, morfologiaren bidez azaltzen dira: *änden* hitzak silababakarreko erroa dauka, *-en* artikulua delarik: *and-en*. Bigarren adibidearen erroa, aldiz, bisilabaduna da: *ande-n*.

Bisilabadun erro paroxitonoek, gehienetan, azentu IIa hartzen dute: *biskop* ‘apezpiku’, *düssin* ‘dozena’, *lèjon* ‘lehoi’. Baina salbuespenak ugariak dira: *kónjak*, *tóbak*, *sám-ba*, *fósfor*. Beraz, azentu IIa markatugabea edo orokorrera da kasu honetan, baina bi azentuak aurkitzen ditugu. Goian emandako *règel* eta *règel* pareak benetako pare minimoa osatzen du. Hala ere, hemen ere fonologilari batzuek arrazoi bat ematea posible dela proposatu dute. Hots, *règel* hitza azpiko egituran /regl/ izango litzateke, eta, beraz silababakarra.

Hiru silaba edo gehiago dituzten hitz monomorfemikoek azentu Ia hartzen dute normalean: *káviar*, *hárlekin*, *petróleum*, *índigo*, *Amérika* (azkenhirugarren silaban daramate azentua denek). Baina salbuespen batekin: *-a-z* bukatzen diren izen paroxitonoek azentu IIa hartzen dute: *salmonèlla*, *papegøja*, *kopja*, *váninna* ‘laguna (emakumezkoa)’.

Morfologiak oso eragin handia du azentuen banaketan. Azentua erroaren azken silaban badoa, atzizki batzuek hitzaren azentu mota aldatzen dute (azentu IIa emanez hitzari); haien artean pluralaren *-ar* atzizkia dugu, adib.: *stól* ‘aulkia’, *stòlar* ‘aulkiak’. Beste batzuek, hala nola *-en* determinatzaile singularrak, ez dute azentua aldatzen: *ánd* ‘ahate’, *änden* ‘ahatea’. Azentua ez badago erroaren azken silaban, atzizkiek ez dute eraginik: *fä’nrík* ‘alferez’, *fä’nríken* ‘alfereza’, *fä’nríkar* ‘alferezak’ eta azentu IIarekin *bäckè* ‘aldapa’, *bäckén* ‘aldapa, mug. sg.’, *bäckar* ‘aldapak’.

Be- edo *för-* aurrizkia duten hitzetan, azentua beti aurrizkiaren ondoko silaban doa eta azentu Ia da: *befälla* ‘agindu’, *förstø’ra* ‘ezabatu’.

Hitz elkartuek azentu IIa dute ia beti: *hüs-fluga* ‘etxe-euli’, *mid-sommar-bus-fluga* ‘uda-erdiko etxe-euli’, *musikfest* ‘musika festibala’, *natür-bonung* ‘ezti naturala’. Dena den, bada salbuespen batzuk, batez ere silababakarreko bi osagai dituztenak: *fré-dag* ‘ostirala’, *bl’ábär* ‘arana’. Dena den, salbuespen hauek guztiok erabat lexikalizatuta daude. Konposatu emankor guztiak azentu IIa daramate.

Beraz, suedieraren azentu sistema nahiko konplexua bada ere, datuak kontuz aztertuz gero, jøerak eta azpierregrulartasunak aurkitzen ditugu.

3.4. Serbo-kroaziera

Serbo-kroazieraren azentuaren deskribapenetan lau azentu mota bereizi ohi dira:

(20) Serbo-kroaziera: azaleko azentu motak

Beheranzko azentu luzea: $\overline{za} \mid \underline{as \ ta \ va}$ ‘bandera’

Beheranzko azentu laburra: $\overline{je} \mid \underline{ze \ ro}$ ‘laku’

Goranzko azentu luzea: $\underline{ra} \mid \overline{az \ li} \mid \underline{ka}$ ‘diferentzia’

Goranzko azentu laburra: $\overline{pa \ pri} \mid \underline{ka}$ ‘piper’

Ikus dezakegunez, goranzko azentuak morabidunak eta bisilabadunak dira. Hau da, azentu mota hau duten hitzetan badaude bi mora goiko tonuan silaba desberdinetan. Beheranzko azentuan, aldiz, mora bakar bat agertzen da goiko tonuarekin.

Azentu luze eta laburren arteko kontrasteak ere badu zerikusirik morekin. Azentu luzeetan, tonu aldaketa silaba luze baten bi moren artean gertatzen da (*zúastava*, *raázlika*). Gauzak horrela, datuak honelaxe interpreta ditzakegu:

(21) Serbo-kroaziera: azentu motak

Morabakarrekoa: *zúastava*, *jézero*

Morabiduna: *raázlika*, *páprika*

Esan behar da azentu morabidunetan hitzunek prominentzia goiko tonua duen lehen moran sentitzen dutela. Hau da silaba honek, goiko tonuaz gain, iraupen luzeagoa daukalako (Lehiste & Ivić 1978, eta agian azentuzko beste ezaugarri batzuk ere bai).

Azentuen banaketa lexikoan hurrengo murriztapenak aurkitzen ditugu:

(22) Serbo-kroaziera: azentuzko murriztapenak

- Azentu morabiduna ez da inoiz hasten hitzaren azken silaban edo silaba bakarreko hitzetan
- Azentu morabakarrekoa bakarrik hitzaren lehen bokalean agertzen da (eta silaba bakarreko hitzetan)
- Silaba luze baten bi bokalak ez dira inoiz goiko tonuan agertzen

(22b) murriztapenak salbuespen gutti batzuk ditu, batez ere mailegu berriak, adib. *asistent*, *laboratóorija*. Hau ikusirik, ez da zaila egoera hau diakronikoki nola sortu zen asmatzea: azentua mora bat ezkerraldera hedatu zen, silaba mugan zehar:

(23) Serbo-kroaziera: azentu lerraketa diakronikoa

raazlika > *raázlika* *zúastava* > (berdin)

paprika > *páprika* *jézero* > (berdin)

(22c) diakronikoki esplikatzeko, aldaketa gertatu baino lehen, silaba luzeetan azentua lehen moran besterik ez zela agertzen proposatu behar dugu. Murriztapen hau bokal luzeak eta laburrak dituzten beste hizkuntza askotan aurkitzen dugu, hala nola latinez edo Tokyoko japonieraz.

Ezkerralderako hedapenak arau sinkroniko bezala ere funtzionatzen du morfemen artean aplikatzen denean. Adibidez *ne-* ‘ez’ aurrizkiarekin:

- (24) Serbo-kroaziera: Ezkerralderanzko azentu hedapen sinkronikoa
ráadnik 'langile' *néráadnik* 'ez langile'

Inkelas & Zec-ek (1988) proposatzen dute gaurko sistema sinkronikoan azentu morabidunetan bigarren morak goiko tonua daramala azpiko egituran eta ezkerralderanzko tonu hedapena arau sinkroniko bezala aplikatzen dela hitz monomorfemikoetan ere. Antzeko analisi bat onartuko bagenu, azentu mota bakar bat izango genuke errepresentazio lexikoetan: /papríka/, /jézero/. Azentua daukan silabaren ezkerreko aldean beste silaba bat badago, azentua mora bat ezkerralderantz hedatzen da, arau bat aplikatuz (*asistént* bezalako salbuespenak salbuespen): /papríka/ → *páprika*. Gero, azentu marka hauek fonetikoki interpretatzeko jakin behar dugu azentudun silaba guztiek goiko tonua daramatela (intonazio deklaratiiboan) eta, elkarren ondoan bi silaba azentudun dauzkagunean, lehena, tonuaz gain, azentuaren beste ezaugarri fisikoan kokagunea dela. Konkrétuki, goiko tonua daraman lehen silabak iraupen luzeagoa dauka eta hau da hiztunek azentudun bezala hartzeko erabiltzen duten ezaugarria. Prozesu hau dela-ta, azpiko egituran azentua daraman silaba ez da beti azalean prominentziarik handiena erakusten duena.

Hitz batzuek azentuera bat erakusten dute esaldi baten erdian eta beste bat pausa baten aurrean. Konpara ditzagun hurrengo adibideak:

- (25) Serbo-kroaziera: pausa-aurreko beherapena
- | | | |
|--------------|--------------|------|
| erdian | bukaeran | |
| <i>vóda</i> | <i>vóda</i> | 'ur' |
| <i>vátrá</i> | <i>vátra</i> | 'su' |

Vóda bezalako hitzek erakusten dute pausa baten aurrean goiko tonua galtzen dela. Esaldi baten azken mora beheko tonuan dago beti intonazio deklaratiiboan:

- (26) Serbo-kroaziera
 /vodá/ → *vóda* (azentu hedapenaz) → *vóda* (pausa-aurreko beherapenaz)

Ikusiko dugunez oso antzeko gauza bat gertatzen da zenbait euskal hizkeratan, Zeberion, esate baterako.

3.5. Tokyoko japoniera

3.5.1. *Azentu patrioiak*

Tokyoko japonieraz edo japoniera estandarrean hitzak azentugabeak edo azentudunak izan daitezke. Hitz azentugabeetan tonuak gora egiten du bigarren silaban (edo, hobe esan, bigarren moran) eta goiko mailan mantentzen da unitatearen bukararaino. Adibide bat /miyako/ 'hiri nagusi' da. Hitz azentudunetan, aldiz, badago tonu beherakada bat azentuaren ondoren. Azentua hitzaren lehen silaban badoa, lehen silabak goiko tonua du eta handik aurrera beste silaba guztiak beheko tonuan ahoskatzen dira. Azentua beste silaba batean badago, tonuak gora egiten du bigarren moran eta goiko mailan mantentzen da silaba azentuduneraino. Adibidez, /inoti/ 'bi-zitza' hitzak lehen silaban darama azentua, /kokóro/ 'bihotz' hitzak bigarren silaban,

eta /atamá/ 'buru' hitzak azken silaban. (27)ko adibideetan hitzak *-ga* nominatiboaren atzizkiarekin ematen dira, tonua kontorno eskematikoen bidez erakusten delarik:

(27) Tokyoko japoniera: doinu-azentuzko patroiak

í | no ti -ga ko | kó | ro -ga a | ta má | -ga mi | ya ko -ga

Patroi hauek azaltzeko Pierrehumbert eta Beckman-en analisia onartuko dugu.

Pierrehumbert eta Beckman-ek (1988) azpimarratzen dute ohiko errepresentazio eskematiko hauek ez direla guztiz zuzenak. Konkretuki, unitate azentugabeetan tonua ez da laua bigarren moratik bukaeraraino. Aldiz, morarik altuena bigarrena da eta tonua beherantza doa. Beraz, atzizkirik gabe ahoskatuta, *atamá* eta *miyako* adibideak ez dira berdinak kontornuaren aldetik.

Bigarrenik, lehen silaban agertzen den beheko tonua %L muga tonu bezala interpretatzen dute eta azentua lehen silaban doanean ere gorakada bat dagoela hasieran erakusten dute, %L muga tonuaren ezarketa adieraziz. Intonazio deklaratioan, gure adibideek %L tonu bat erakusten dute hasieran eta beste bat bukaeran (hau da, L%). Gainera, azentu-unitate guztietan H tonu bat sartzen da hasierako muga-tonuaren ondoren. Japonieraz azentu unitatean guttienez hitz bat sartzen da, baina handiagoa izan daiteke (gehienez hiru hitz). Unitate azentugabeen kontornoa azaltzeko ez dugu besteren beharrik. *Miyako-ga* edo *murasakiro* 'more kolore' bezalako adibide azentugabeetan beheko muga-tonu bat dugu ezker aldeko ertzean eta lehenengo morari lotua, goiko tonu bat bigarren moran eta beheko tonu bat eskuinaldeko ertzean. Ez dago besterik. Tonurik gabeko silaben oinarrizko maiztasun maila dauden tonuen arteko interpolazioaren bidez lortzen da. Interpolazio fonetikoaren ondorioz, fonologian espezifikatutako H eta L% tonuen artean beherakada izango dugu:

(28) Tokyoko japoniera

[mi ya ko -ga] [mu ra sa ki i ro]
 | / | | | / | |
 %L H L% %L H L%

Unitate azentudunen melodia zertxobait konplexuagoa da. Silaba azentudunarekin H*L azentu-tonua elkartzen da. Silaba azentudunak goiko tonua darama eta hurrengoak beheko tonua:

(29) Tokyoko japoniera

[í no ti ga] [ko kó ro ga] [a ta má ga]
 | | | | / | | | / | | | |
 %LH*L L% %L H*L L% %L H H*L L%

Badaude arrazoi onak hasierako %L ondoren sartzen den H tonua eta azentuen H*L melodiak bereizteko. Hasteko, azentuaren H* tonua altuagoa da bestea baino. Bigarrenik, silaba nahikoak baldin badira hasiera eta silaba azentudunaren artean bi H tonuak nabarmenki bereizten dira sortzen den kontornoaren aldetik. Hirugarrenik, H*L azentuek katatesi delako beheratze bat eragiten dute ondorengo tonuetan (esaldi bateko azentu tonuek beherantzko eskilara bat eratuz).

Ikusi dugu ingelesez Pierrehumbert-ek eta bere lankideek sei tonu azentu mota bereizten dituztela. Tokyoko japonieraz, aldiz, tonu azentu bakar bat dago: H*L. Ez

dago beste aukerarik. Azentu lexikoeak prominentzia tonala jasotzen badute H*L melodia daramate beti. Hauxe da azentuaren ezaugarri nagusi eta bakarra. Tonuaz gain, iraupena eta intentsitatea erabil daitezke enfasi berezi bat emateko silaba azentudun bati, baina normalean H*L tonu melodia da azentuaren ezaugarri bakarra. Ingelese (edo gaztelaniaz), gauzak nahiko desberdinak dira. Tonua oso ezaugarri nabarmena da hitzak aipamen forman jasotzen ditugunean. Aipamen formetan bai, (L)H*L kontornoa dugu ingelesezko edo gaztelaniazko hitzetan, goiko tonua silaba azentudunarekin lerrotzen delarik. Baina, ikusi dugun bezala, testuinguruaren arabera tonuak nahiko aldakorak izan daitezke. Bestaldetik artikulaziozko ezaugarriak askoz tinkoagoak dira. Bokal azentudunak garbiak dira beti, ez dute neutralizaziorik jasotzen. Iraupena eta intentsitatea ere erabiltzen dira lexikoki azentudunak diren silabak bereizteko, silaba hauek azentu-tonurik jasotzen ez badute ere (Beckman & Pierrehumbert 1986). Nola-bait esateko, beste ezaugarri hauek tonua baino funtsezkoagoak dira ingelesez.

Esaldi mailan proposatutako tonu egitura nola gauzatzen den erakusteko, hurrengo adibidea ematen dute Beckman & Pierrehumbert-ek (1986):

(30) Tokyoko japoniera

[[[a	ne	-no]	[a	ka	i	sé	e	ta	a	-wa]]	[[dó	ko	de	su	ka]]]
	/		/													
% L		H	%L	H	H*L		L%	H	H*L		L%	H	H*		L%	H%

‘where is big sister’s red sweater?’

‘non dago arreba/ahizpa nagusiaren jertse gorria?’

3.5.2. Azentuen banaketa lexikoa eta azentu ezarketa arauak

Azentu unitatean azentu bakar bat izango dugu beti, baina azentu unitate batean morfema bat baino gehiago izan ditzakegu. Konkretuki, izenarekin batera postposizio bat izan dezakegu. Izena azentuduna bada (/mákura/ ‘burko’, /kokóro/ ‘bihotz’, /atamá/ ‘buru’, adibideetan), izenaren azentuera nagusitzen da eta patro berbera aurkitzen dugu postposizio guztiekin. Aldiz, izena azentugabea bada (/miyako/ ‘hiri nagusi’, adibidean) azentuera desberdinak ditugu postposizio desberdinekin, hurrengo adibideetan ikusten den bezala (McCawley 1978):

(31) Tokyoko japoniera

- | | | |
|-----------------------|------------------------|-------------------|
| a. <i>ga</i> ‘nom.’ | <i>kara</i> ‘abl.’ | <i>ni</i> ‘ines.’ |
| <i>mákura ga</i> | <i>mákura kara</i> | <i>mákura ni</i> |
| <i>kokóro ga</i> | <i>kokóro kara</i> | <i>kokóro ni</i> |
| <i>atamá ga</i> | <i>atamá kara</i> | <i>atamá ni</i> |
| <i>miyako ga</i> | <i>miyako kara</i> | <i>miyako ni</i> |
| b. <i>made</i> ‘adl.’ | | |
| <i>mákura made</i> | <i>sika</i> ‘bakarrik’ | |
| <i>kokóro made</i> | <i>mákura sika</i> | |
| <i>atamá made</i> | <i>kokóro sika</i> | |
| <i>miyako made</i> | <i>atamá sika</i> | |
| | <i>miyako sika</i> | |

/miyako/ izen azentugabearekin, (31a)-n azentua (tonu beheakada) unitatearen azken silaban dago; (31b)-ko postposizioekin, aldiz, azentua beste silaba batean dago.

(31b)-ko patroi hauek azaltzeko adlatiboaren postposizioak azentu lexikoa lehen silaban daukala proposa dezakegu: /máde/. Bestaldetik /'sika/ 'bakarrik' aurreazentuatzailea izango litzateke. Postposizioen azentu ezaugarri lexikoak izen azentugabeekin besterik ez ditugu ikusten. Izena azentuduna bada, postposizioaren azentua ezabatzen da. Beraz, azentu morfologikozko sistema bat dugu eta unitateak [+am] morfema bat baino gehiago dituenan, lehen azentu lexikoa nagusitzen da:

(32) Tokyoko japoniera

Azentu araua: unitatearen lehen azentu lexikoak irabazten du
 /kokóro máde/ → *kokóro made* /kokóro 'sika/ → *kokóro sika*
 /atamá máde/ → *atamá made* /atamá 'sika/ → *atamá sika*
 /miyako máde/ → *miyako máde* /miyako 'sika/ → *miyakó sika*

Gauzak honela izanik, (31a)-ko postposizioen kasuan, printzipioz bi posibilitate ditugu: azken silaban azentu lexikoa eraman dezakete edo azentugabeak izan daitezke. Ablatiboa eta inesiboa *wa* topiko-markatzailearekin ager daitezke. Izena azentugabea denean, hauexek dira lortzen ditugun azentuerak:

(33) Tokyoko japoniera

miyako kará wa *miyako ní wa*

Adibide hauek ikusita, /kará/ eta /ní/ morfemek azentu lexikoa azken silaban daramatela esan dezakegu. Azentu hau izena azentuduna denean ezabatu egiten da, ikusi dugun arauaren arabera:

(34) Tokyoko japoniera

/kokóro kará wa/ → *kokóro kara wa*
 /atamá kará wa/ → *atamá kara wa*
 /miyako kará wa/ → *miyako kará wa*

Honaino ikusitakoa laburbiltzeko, bai izenak eta bai postposizioak ere azentudunak, [+am], edo azentugabeak, [-am], izan daitezke. Izen azentudunek azentua edozein silaban eraman dezakete. Postposizio azentudunak, horretaz gain, aurreazentuatzaileak izan daitezke. Azentu unitatean izena eta postposizioa [+am] direnean, izenaren azentua nagusitzen da eta postposizioarena ezabatzen. Beraz, lehen [+am] morfemak irabazten du.

Esan duguna egoera orokorrari dagokio. Hala ere, zenbait postposizio bereziak dira azentueraren aldetik. Adibidez, *gúrai* 'bezain' azentuduna da eta unitatearen azentua hartzen du beti:

(35) Tokyoko japoniera: *gúrai* 'bezain'

makura gúrai *atama gúrai*
kokoro gúrai *sakana gúrai*

Postposizio honekin azentu arau orokorra ez dela aplikatzen esan behar dugu. Aldiz, kasu berezi honetan, postposizioaren azentua nagusitzen da.

Nagara 'izan arren' postposizioa daramaten unitateen azentuera are bereziagoa da. Konpara ditzagun hurrengo adibideak:

(36) Tokyoko japoniera: *nagara* 'izan arren'

makura nágara *atama nágara*
kokoro nágara *sakana nágara*

Ikusten denez, *nágara* postposizioa *gúrai* bezala portatzen da izena azentuduna denean; hots, azentua lehen silaban hartzen du eta izenaren azentua ezabatzen da. Aldiz, izena azentugabea denean, unitate osoa da azentugabea. *Nágara* morfemak azentuaren kokagunea erabakitzen du, baina bakarrik unitateko beste morfema batek azentua sartzen badu. Nolabait esateko, azentu kokagunea lehen silaban du, baina ez du azenturik.

Esan dugunak izena + postposizio egitura duten unitateetarako balio du. Hitz elkartuetan beste arau bat aplikatzen da. Hitz elkartuetan, gehienetan, gauzatzen den azentua bigarren osagaiarena da:

- (37) Tokyoko japoniera: hitz elkartuak: bigarren osagaiaren azentua nagusitzen da.
 /isóppu + monogátari/ *isoppu-monogátari* 'Esoporen fabulak'
 /tyúuka + ryóori/ *tyuuka-ryóori* 'txinar sukaldaritza'

Bukatzeko, aditz eta adjektiboetan, erroa azentuduna edo azentugabea izan daiteke, baina azentudun guztiak silaba berean azentuatzen dira, erroaren azkenaurreko silaban, normalean. Atzizkiak ere azentudunak edo azentugabeak izan daitezke. Erroa eta atzizkiak azentudunak direnean, erroaren azentua nagusitzen da, (38)ko laugarren adibidean ikusten denez:

- (38) Tokyoko japoniera: aditzak
- | | | |
|-----------------------------|---------------|----------------------------|
| erroa [-am], atzizkia [-am] | /hazime-ta/ | <i>hazimeta</i> 'hasi' |
| erroa [+am], atzizkia [-am] | /kakúre-ta/ | <i>kakúreta</i> 'izkutatu' |
| erroa [-am], atzizkia [+am] | /hazime-tára/ | <i>hazimetára</i> |
| erroa [+am], atzizkia [+am] | /kakúre-tára/ | <i>kakúretara</i> |

Tokyoko japonieraz, beraz, azalean azentu bakar bat, hau da, tonu gorakada-beherakada bakar bat, izan dezakegu azentu unitate batean. Azaleko tonu-patroiak sinpleak badira ere, lexikoian oso egoera konplexua dugu. Morfema mota guztiak (erroak, atzizkiak eta postposizioak) azentudunak edo azentugabeak izan daitezke. Izen erroek, azentudunak badira, azentua edozein silabatan eraman dezakete. Postposizio azentudunak, horretaz gainera, aurreazentuatzaileak izan daitezke. Aditz atzizkiekin antzeko aukera lexikoak ditugu. Aditz eta adjektibo erroen kasua zertxobait sinpleagoa da, azentudun guztiek azentua silaba berean baitaramate. Azentu unitate batean, morfema markadun bat baino gehiago daudenean, azentu bakar bat gauza daiteke. Gauzatzen dena, normalean, lehena da; baina kasu batzuetan, hala nola hitz elkartuetan eta postposizio batzuekin arau berezi bat dugu azentuaren kokagunea erabakitzeko. Iku-siko dugunez, Bizkaiko euskal hizkera batzuetan aurkitzen dugun azentu sistemak antzekotasun handia dauka Tokyoko sistemarekiko.

3.6. Osakako japoniera

Osakako japonieraz, hitzak lau taldetan sailkatzen dira prosodiaren aldetik, bi irizpide erabiliz: goiko (%H) edo beheko (%L) tonu batez hasten ote diren eta azentudunak edo azentugabeak ote diren ([+/- azent]:⁴ .

⁴ Atal hau Pierrehumbert & Beckman (1988) lanean oinarrituta dago.

- (39) Osakako japoniera
- 1a. %H, [+azent]: \overline{u} | \underline{gu} | \underline{su} \overline{ya} | \underline{ma} | \underline{za} | \underline{ku} | \underline{ra}
 'larratxori' 'basa geriza'
- 1b. %H, [-azent]: \overline{ni} | \underline{wa} | \underline{to} | \underline{ri} \overline{ni} | \underline{wa} | \underline{to} | \underline{ri} | \underline{ga}
 'oilo' 'oilo, nom.'
- 2a. %L, [+azent]: \underline{no} | \underline{ko} | \overline{gi} | \underline{ri}
 'karraka'
- 2b. %L, [-azent]: \underline{tu} | \underline{ke} | \underline{mo} | \underline{no} \underline{tu} | \underline{ke} | \underline{mo} | \underline{no} | \underline{ga}
 'piper' 'piper, nom.'

Lexikoian hitz bakoitza %H edo %L taldekoa den jakin behar dugu eta, azentuduna bada, azentuarien kokagunea. Emandako adibideetarako hurrengo errepresentazio lexikoak proposa ditzakegu:

- (40) Osakako japoniera: errepresentazio lexikoak
 /%H úguisu/ /%L nokogíri/
 /%H yamazákura/ /%L tukemono/
 /%H niwatori/

Errepresentazio lexiko hauekin azaleko kontorno tonalak lortzeko ondoko bi arauok aplikatu behar ditugu:

- (41) Osakako japoniera: Tonu ezarketa arauak
- Azentu guztiek H*L melodia daramate
 - Ezarri goiko tonu bat (H%) azentugabeko unitate baten bukaeran

Arau hauek hurrengo errepresentazioak ematen dizkigute:

- (42) Osakako japoniera: tonu melodiak
- | | |
|-------------------|------------------|
| [ya ma zá ku ra] | [no ko gí ri] |
| | |
| % H H* L | %L H* L |
| | |
| [ni wa to ri] | [ni wa to ri ga] |
| | |
| % H H% | %H H% |
| | |
| [tu ke mo no] | [tu ke mo no ga] |
| | |
| %L H% | %L H% |
| | |
| [ú gu i su] | |
| | |
| %H H*L | |

Egitura fonologiko hauek erabiliz, azaleko kontornoak lortzen ditugu interpolazio fonetikoaren bidez. Har ditzagun orain hurrengo adibideak:

- (43) Osakako japoniera: hitz andanak
 /%L tukemono/ /%L kakusu/ 'izkutatu' /%H kariru/ 'mailegatu'

tu ke mo no | -o | ka ku | su tu ke mo no -o | ka ri ru

Proposatu ditugun errepresentazio eta tonu ezarketa arauen arabera, kontorno hauek erakusten dituzten melodiak hauexek dira:

- (44) Osakako japoniera: tonu melodiak

[tu ke mo no -o]	[ka ka su]	[tu ke mo no -o]	[ka ri ru]
%L	H	%L	H%
		%L	H% %H
			H%

Lehen adibideak ez digu problemarik sortzen. Bigarrenak, aldiz, bai, *tukemono-o* unitatearen azken mora goiko tonuan agertzea esperoko baikenuke. Pierrehumbert & Beckman-ek bi arau proposatzen dituzte datuak esplikatzeko. Posibilitate bat tonu ezabaketa arau bat aplikatzea liteke: %L, [-azent] unitate bateko bukaerako goiko tonua galtzen da jarraian datorren beste goiko tonu baten aurrean. Hala ere, tonu hau ez dela galtzen pentsatzeko arrazoiak badaudela erakusten dute. Proposatzen dutena da bukaerako goiko tonua beranduago gauzatzen dela kasu honetan, hurrengo unitatearen lehen morari lotzen zaiolarik, eta horrela «ambiphrasal» bilakatuz.

Tonu hauen artean interpolatuz azalezko Fø kontornoak lortzen dira, besterik gabe.

Tokyon ez bezala, badago muga-tonu bat hitz guztien hasieran (ez bakarrik taldearen hasieran). Tokyon azentu taldeko hasierako muga-tonua %L da beti. Osakan, aldiz, aukera lexiko bat da. Hitz hasierako muga-tonua, %L edo %H, bereizgarria eta lexikoa da.

3.7. Tonu hizkuntza prototipiko bat: shona

Tonu hizkuntza prototipiko batean, printzipioz edozein silabak edozein tonu eraman dezake (ikus, adibidez, Odden 1995). Esate baterako, shona izeneko Zimbabweco hizkuntza bantuan, bi tonu maila fonologiko ditugu: goikoa (H, azentu akutuz adierazita) eta behekoa (L, azentu markarik gabe). Hurrengo adibideek erakusten duten bezala, hizkuntza honetan bi tonuen konbinaketa posible guztiak aurkitzen dira hitzaren eremuan (Odden 1981, 1985, Kenstowicz 1994):

- (45) Shona

a. Silababakarreko izenak

H	<i>mbwá</i>	'zakur'	L	<i>bwe</i>	'harri'
---	-------------	---------	---	------------	---------

b. Bisilabadun izenak

H-L	<i>bhúku</i>	'liburu'	L-H	<i>badzá</i>	'aitzur'
H-H	<i>bángá</i>	'ganibeta'	L-L	<i>sadzá</i>	'zopa' ('porridge')

c. Hirusilabadun izenak

H-H-H	<i>mbúndúdzí</i>	'arrak (mota bat)'
H-H-L	<i>hákáta</i>	'aztien hezurrak'
H-L-H	<i>shámwari</i>	'adiskide'
L-H-H	<i>dhwání</i>	'katilu'
H-L-L	<i>séndere</i>	'lantzeko debekatuta dagoen lurra'
L-H-L	<i>chápúpu</i>	'lekuko'
L-L-H	<i>dikitá</i>	'izerdi'
L-L-L	<i>dandadzí</i>	'amaraun'

Adibideetan ikusten denez, hitza silababakarrekua bada, bi patroi izan ditzakegu, silabak H edo L tonua eraman baitezake; bisilabaduna bada, lau; eta hirusilabaduna bada, zortzi. Konparazioz, indar-azentuzko hizkuntza batean, hitz bisilabadunekin bi posibilitate ditugu, eta hirusilabadunekin hiru:

(46) Gaztelania

ó-o	<i>tápo</i>	o-ó	<i>tapó</i>		
ó-o-o	<i>número</i>	o-ó-o	<i>numéro</i>	o-o-ó	<i>numeró</i>

Gaztelaniaz nahikoa da silaba azentuduna zein den jakitea. Shonaz, aldiz, silaba bakoitzari berari dagokion tonua eman behar zaio.

Baina hizkuntza bantuen tonologiak ikertzailen interesa erakarri badu, ez da izan hitz bakoitzak tonu patroi tinko bat duelako; ingurune desberdinetan hitzen tonuak aldatzen direlako baizik. Eman ditugun tonu patroiak hitz solteek erakusten dituztenak dira; baina morfemak eta hitzak elkartzen ditugunean, tonu asimilazio eta disimilazioak gertatzen dira usu tonuaren fonologia konplikatuaz.

Arau batzuk orokorrak dira eta hitzen artean aplikatzen dira. Hitzen artean aplikatzen diren arauak *sandhi* fenomenoak bezala ezagutzen dira. Hona hemen pare bat adibide, disimilazio bat eta asimilazio bat:

a) Hitzaren azken bi silabek H tonua badaramate eta hurrengo hitzaren lehen silabak ere H tonua badauka, lehen hitzaren azken silabaren tonua L bihurtzen da (disimilazioa):

(47) Shona: Sandhi beherakada: HH → HL / [] [H (edo HH) [H → HL] [H]
<i>hóvé</i> 'arrain' <i>húru</i> 'handi' <i>hóvé húru</i> 'arrain handia'
<i>murímé</i> 'gizon' <i>ákafá</i> 'hil zen' <i>murímé ákafá</i> 'gizona hil zen'
baina: <i>shámwari ákafá</i> 'laguna hil da' (lehen hitzaren azkenaurrekua L delako)

b) Hitz bat H tonuaz bukatzen bada eta hurrengo hitzaren lehen bi silabek L tonua badaramate, bigarren hitzaren lehen silabaren tonua H bihurtzen da (asimilazioa):

(48) Shona: Sandhi gorakada: LL → HL / [H] [] (edo H) [LL → H] [HL]
<i>zviringó</i> 'ur-ontziak' <i>zvina</i> 'lau' <i>zviringó zvina</i> 'lau ur-ontzi'
<i>ndakámútímá</i> 'bidali nuen' <i>munhu</i> 'pertsonea'
<i>ndakámútímá múnhu</i> 'pertsonea bidali nuen'
<i>ndakámútímá zviringó</i> 'ur-ontziak bidali nituen'

Tonu asimilazio eta disimilazio arau hauek direla-eta, hitz batzuk tonuera desberdinekin agertzen dira ingurune desberdinetan eta zenbait ingurunetan kontraste batzuk neutraldu egiten dira, sistema konplikatuz.

Aipatu ditugun arauak orokorrak dira, esan bezala. Beste batzuk, aldiz, testuinguru morfoloikiko jakin batzuetan besterik ez dira gertatzen. Klitikoekin, adibidez, fenomeno bereziak gertatzen dira:

a) *wó* ‘ere’ eta beste klitiko batzuek aurreko silabaren kontrako tonua hartzen dute:

(49) Shona: klitikoaren disimilazioa

<i>bwe</i>	‘harri’	<i>bwe-wó</i>	‘harria ere’
<i>shámwari</i>	‘lagun’	<i>shámwari-wo</i>	‘laguna ere’
<i>ákapá</i>	‘eman zuen’	<i>ákapá-wo</i>	‘eman ere egin zuen’
<i>ákáénda</i>	‘joan zen’	<i>ákáénda-wó</i>	‘joan ere egin zen’

Hitzaren azken bi silabak H badira, sandhi beherakada araua aplikatzen da klitiko hauekin eta klitikoa H tonuarekin agertzen da:

(50) Shona: sandhi beherakada + klitikoaren disimilazioa

<i>ndakátóra</i>	‘hartu nuen’	<i>ndakátóra-wó</i>	‘hartu ere egin nuen’
------------------	--------------	---------------------	-----------------------

b) Beste klitiko batzuek (haien artean /po/ ‘han, hara’ klitikoak), aurreko silabaren tonua hartzen dute:

(51) Shona: klitikoaren asimilazioa

<i>ákáénda</i>	‘joan zen’	<i>ákáénda-po</i>	‘hara joan zen’
<i>ákaóná</i>	‘ikusi zuen’	<i>ákaóná-pó</i>	‘han ikusi zuen’

Hizkuntza bantuen tonologiako prozesu ezagun bat Meeussen-en legea deitzen dena da. Ingurune morfoloikiko batzuetan HH sekuentzia HL bihurtzen da. Shonan preposizioek eragiten dute disimilazio hau, H sekuentzia oso bat beheratuz preposizioaren ondoren:

(52) Meeussen-en legea: H+ H* → H + L*

<i>mbwá</i>	‘zakur’	<i>né-mbwá</i>	‘zakurrarekin’
<i>bóvé</i>	‘arrain’	<i>né-hové</i>	‘arrainarekin’
<i>mbúndúdžj</i>	‘arrak’	<i>né-mbundudžj</i>	‘arrekin’

Baina:

<i>badžá</i>	‘aitzur’	<i>né-badžá</i>	‘aitzurrarekin’
--------------	----------	-----------------	-----------------

Tonu aldaketak, besterik gabe, balio semantikoa izan dezake. Egitura kopulatiboetan ez dago kopularik, baina H tonu bat sartzen da izenaren hasieran:

(53) Shona: tonu gorakada egitura kopulatiboan

<i>múrímé</i>	‘gizona’	<i>múrímé</i>	‘gizona da’
<i>chíkóro</i>	‘eskola’	<i>chíkóro</i>	‘eskola da’
<i>mápadžá</i>	‘aitzurak’	<i>mápadžá</i>	‘aitzurak dira’

3.8. Tonu banaketa murriztuko sistema bat: jita

Jita Tanzaniako hizkuntza bantu bat da.⁵ Hizkuntza honetan, shonan bezala, bada bi tonu maila, H eta L. Shonan ez bezala, H tonuaren banaketa oso murriztua da. Morfema batek ezin dezake H bat baino gehiago eraman. Banaketa murriztu hau, noski, azentuaren ezaugarri bat da. Dena den, hitz polimorfemikoetan —aditz formetan, adibidez— H bat baino gehiago izan ditzakegu.

Has gaitezen aditzekin. Aditz erroak H tonu bat eraman dezake edo ez. Erroa H-tonuduna bada, H tonua silaba jakin batean ezartzen da beti; alegia, normalean aditz-erroaren ezkerreko ertzetik kontatuz, bigarren silaban. Baina erroa silababakarrekoa edo bisilabaduna bada, H tonua erroaren lehen silaban doa (adibideetan *oku-* infinitiboaren aurrizkia da):⁶

(54) Jita: aditz erroak

a. H erroak

<i>oku-fwá</i>	‘hiltzea’
<i>oku-βóna</i>	‘ikustea, hartzea’
<i>oku-Bonána</i>	‘elkar ikustea, hartzea’
<i>oku-Bonírana</i>	‘elkarrentzat hartzea’
<i>oku-sarákura</i>	‘ebakitzea’

b. H-rik gabeko erroak

<i>oku-sya</i>	‘ehotzea’
<i>oku-βuma</i>	‘jotzea’
<i>oku-βumana</i>	‘elkar jotzea’
<i>oku-βumírana</i>	‘elkarrentzat jotzea’

H-dun erro bisilabadunen kasua azaltzeko, azken silaba estratonala dela proposa dezakegu. Estratonalitatea esaldi mailako fenomeno da jitzaz. Aditza esaldiaren bukaeran ez badago, *oku-βóna* bezalako aditzen azentua hitzaren azken silabara mugitzen da:

(55) Jita

<i>oku-βóna</i>	‘ikustea, hartzea’	<i>i:ñoñi</i>	‘txoria’
<i>oku-βoná iñoñi</i>	‘txoria hartzea’		

Aditz-erroa silababakarrekoa bada, gauza bera gertatzen da; baina kasu honetan H tonua hurrengo hitzera mugitzen da:

(56) Jita

<i>oku-fwá</i>	‘hiltzea’	<i>kumugera</i>	‘ibaian’
<i>okufwa kúmugera</i>	‘ibaian hiltzea’		

H-tonua lexikoian aditz erroaren lehen silabarekin asoziatua dagoela, baina, arau batez, hurrengo silabara mugitzen dela onartzen badugu, datu guztiak azal ditzakegu.

⁵ Datu eta analisiaren iturria Downing (1990) da.

⁶ H tonua azken silaban doanean, behearanzko kontorno bat bezala gauzatzen da fonetikoki.

Silaba estratonalak estrametrikalitatea markatzeko erabili ditugun parentesien artean jarriko ditugu. Jitaz esaldiaren azken silaba estratonala da, morfema oso bat ez baldin bada:

- (57) Jita: azpiko formak eta tonu lerraketa
 —Aditz erroa H-duna bada, H tonua lehen silaban agertzen da lexikoian
 —Tonu lerraketa araua: H-tonuak silaba bat eskuinaldera mugitzen dira

Azpiko formak	Azaleko formak
<i>oku-fwá</i>	<i>oku-fwá</i>
<i>oku-fwá kumugera</i>	<i>oku-fwa kúmuge<ra></i>
<i>oku-βóna</i>	<i>oku-βó<na></i>
<i>oku-βóna iñoñi</i>	<i>oku-βoná iño<ñi></i>
<i>oku-βón-an-a</i>	<i>oku-βoná<na></i>
<i>oku-βón-ir-a ligembe</i>	<i>oku-βonira lige:<mbe></i>
<i>oku-sárakura</i>	<i>oku-saráku<ra></i>

Beraz, H tonua lexikoian erroaren lehen silabarekin lotzen dela asumitzen badugu, tonua silaba bat eskuinaldera mugituz lortzen ditugu azaleko patroiak. Tonu lerraketa ez da gertatzen hurrengo silaba esaldiaren azkena baldin bada, azken silaba estrametrika baita. Joera unibertsal dat dago esaldiaren azken silaban H tonu bat ezartzearen kontra, arrazoi fonetikoengatik. Jitaren datuok joera hau islatzen dute. 3.4. atalean, serbo-kroazieran ere antzeko zerbait gertatzen dela ikusi dugu; eta euskal hizkera askotan ere gauza bera aurkitzen dugu. Erdialdeko euskal hizkera batzuetan, adibidez, azentua bigarren silaban doa normalean, baina inoiz ere ez bigarren silaba azkena bada.

Tonu lerraketa araua objektu aurrizkien portaera ikusten dugunean baiesten da. H-rik gabeko aditz batean objektu aurrizki bat sartzen dugunean, H bat agertzen da objektuaren ondorengo silaban. Adibideetan objektu aurrizkia azpimarratua agertzen da:

- (58) Jita
- | | |
|-----------------------------|--------------------|
| <i>oku-βuma</i> | ‘jotzea’ |
| <i>oku-<u>mu</u>-βuma</i> | ‘hura jotzea’ |
| <i>oku-<u>mu</u>-βúmira</i> | ‘harentzat jotzea’ |

Argi eta garbi, H tonua aurrizkiak sartzen du, baina hurrengo silaban agertzen da. Ikus ditzagun izenen tonu patroiak orain. Aditz erroetan ez bezala, izen erroek silaba desberdinetan eraman dezakete H-tonua. Izen erroa bisilabaduna bada, hiru posibilitate ditugu: H-tonurik ez, H-tonua lehen silaban eta H-tonua azken silaban:

- (59) Jita: izen erro bisilabadunak
- | | | |
|----------------------|----------------|---------|
| a. <i>omu-sa:ni</i> | ‘adiskidea’ | /sa:ni/ |
| b. <i>omu-ñé:mbe</i> | ‘mango arbola’ | /ñémbe/ |
| c. <i>omu-tu:ngá</i> | ‘aberatsa’ | /tungá/ |

Hitza eten baten aurrean ez badago, H-tonua hurrengo silabara mugitzen da; hau da, azken silabara hitz soltean azkenaurrekoan badago, eta hurrengo hitzaren lehen silabara azken silaban badago:

- (60) Jita: tonu lerraketa izen bisilabadunekin
- b. /ñémbe/
omu-ñé:mbe ‘mango arbola’ *gwa:témwa* ‘ebaki zen’
omu-ñé:mbe gwa:témwa ‘mango arbola ebaki zen’
- c. /tungá/
omu-tu:ngá ‘aberatsa’ *mumúji* ‘hirian’
omu-tunga múmúji ‘aberatsa hirian’

Adibide hauek aditzetarako ikusi dugun tonu lerraketa arauaren bidez azaltzen dira. Hirusilabadun erroko izenetan hiru talde aurkitzen ditugu etenaren aurreko patroiak kontuan hartzen baditugu, baina lau patroi desberdin esaldiaren erdian:

- (61) Jita
- a. o-o-o c. o-ó-o bukaeran, o-o-ó erdian
omu-lamusi ‘epailea’ *i:βustáni* ‘baratzea’
- b. o-ó-o bukaeran eta erdian *i:βustáni múmúji* ‘baratzea hirian’
emi-ñóróro ‘kateak’ d. o-o-ó
emi-ñóróro kucitéβe ‘aulkiko kateak’ *li-dariná* ‘mandarina’

(61b) eta (61c) taldeen arteko diferentzia azaltzeko, azpiko egituran (61b)ko erroak proparoxitonoak eta (61c) paroxitonoak direla proposa dezakegu. Tonu lerraketa araua aplikatuz, azentua hurrengo silabara mugituko da silaba hau estratonala ez bada:

- (63) Jita: hirusilabadun erroko izenak, azpiko eta azaleko formak
- a. /o-o-o/ /lamusi/ → *lamusi*
b. /ó-o-o/ → o-ó-o (tonu lerraketaz) /ñóroro/ → *ñóroro*
c. /o-ó-o/ → o-ó-<o>, o-o-ó ... /βustáni/ → *βustá<ni>*, *βustáni...*
d. /o-o-ó/ /dariná/ → *dariná*

Jitaz morfema batek H bakar bat eraman dezakeenez gero, H-tonuak funtzio kulinatiboa duela pentsa dezakegu; hau da, funtsean azentuzko sistema bat dugula hizkuntza honetan. Izenetan azentu librea izango genuke eta aditzetan azentu fixoa lehen silaban azpiko egituran. Dugun tonu lerraketa azentu lerraketa bezala interpreta daiteke. Hala ere, beste alderdi batzuetan jita azentuzko hizkuntzetatik alden du egiten da. Ikusi dugun bezala, tonu lerraketa araua dela-ta, H-tonua hitz batetik beste hitz batera alda daiteke. Fenomeno hau tonu sistemetan normala da, baina ez azentu sistemetan. Gainera, aipatu dugunez, hitz polimorfemikoetan H bat baino gehiago izan ditzakegu: *ata:mákúra* ‘ez zen hasi’, *ata:mágosóra* ‘ez zuen bisitatu’; ikus, era berean, *omutu:nga múmúji* ‘aberatsa hirian’ bezalako adibideak. Arrazoi hauengatik egokiagoa dirudi jita tonu banaketa murriztua duen tonu hizkuntzatzat hartzea, azentu hizkuntzatzat baino. Edozein kasutan, argi dago tonu hizkuntza batean tonuen banaketa librea murrizten den neurrian sistema prosodikoa azentu sistemetara hurbiltzen dela.

Jitaz, ikusi dugun moduan, H-tonuak silaba bat eskuinaldera mugitzen dira. Beste hizkuntza bantu batzuetan (hala nola digoz edo zuluz) tonu mugimendu luzeagoak aurkitzen ditugu. H-tonua hitzaren (edo hitz andanaren) azken, azkenaurreko edo azkenhirugarren silabara mugitu daiteke, adibidez. Kasu hauetan tonua erakartzen duen

silaba azentuduna dela esan dezakegu. Erka ditzagun, adibidez, hurrengo datuak, digo izeneko hizkuntza bantuaz (Kisseberth 1984: 112):

(64) Digo	
<i>ni-na-raβiz-a</i>	‘iraintzen ari naiz’
<i>a-na-raβiz-a</i>	‘iraintzen ari da’
<i>ni-na-gandamiz-a</i>	‘zapaltzen ari naiz’
<i>a-na-gandamiz-a</i>	‘zapaltzen ari da’
<i>ni-na-onjerez-a</i>	‘eransten ari natzaio’
<i>a-na-onjerez-a</i>	‘eransten ari zaio’

Adibideotan, argi dago H-dun morfema bakarra hirugarren pertsonaren subjektu aurrizkia /a-/ dela. Baina aurrizki honek sartzen duen H-tonua hitzaren azkenaurreko silaban gauzaten da.⁷ Digoa aztertzen dugunean, badaude arrazoiak tonu hizkuntzat hartzeko (egia esan, oso tonu patroik konplexuak aurkitzen ditugu hizkuntza honetan morfema tonudun⁸ bat baino gehiagoko formetan) baina baita silaba batzuk azentuduntzat hartzeko ere.

Tonu eta azentu sistemen artean, sailkapen bitar bat baino gehiago, konbinaketa desberdinak ditugu. Aurreko azpiatalean, tonu hizkuntza prototipiko bat aztertu dugu. Shonaz bi tonuen banaketa librea da eta ez dago motiborik inongo silabak prominentzia prosodikoa duela pentsatzeko. Baina familia bereko beste hizkuntza batzuetan, tonu banaketa murriztua edo-ta silaba batzuek H-tonua erakartzen dutela aurkitzen dugu. Kasu hauetan, eta batez ere bigarren kasuan, badirudi azentu kontzeptua erabil dezakegula, nahiz eta hizkuntza hauetan azentuarekin zerikusirik ez duten beste tonu fenomeno batzuk aurkitu (Odden 1988). Jita bezalako hizkuntza baten kasuan, fonologilari batzuek nahiago dute «banaketa murriztuko tonu hizkuntza» deitura erabiltzea. Beste batzuek, aldiz, «doinu-azentuzko» hizkuntzen sailean sartuko lukete. Kapitulu honen bukaeran itzuliko gara gai honetara.

3.9. Txinera (mandarinera)

Mandarinera tonu lexikoak hizkuntza bantueta baino konplexuagoak dira. Shona edo jitaren bi tonuen orde, lau tonu mota ditugu eta tonu lexiko hauek tonu mailak baino gehiago tonu kontorno desberdinak dira. Tonuak adierazteko maiz erabiltzen den metodo bat hasiera eta bukaera puntuak zenbakien bidez ematea da. Notazio honetan 5 mailarik altuena da eta 1 baxuena. Beraz, 35 erdian hasi eta goian bukatzen den kontorno bat da; 55 goian mantentzen den goiko tonu bat; 214 tonu apalean hasi, beheara joan eta gero gorakada handi bat duen kontorno bat, eta abar. Mandarinaren tonu-kontorno lexikoak hauek dira:⁹

⁷ Ikusiko dugunez, oso antzeko gertakaria dugu Ondarroan eta Lekeition, doinu azentu-sistema baten barruan.

⁸ Morfema tonudunak H-tonua daramatenak dira.

⁹ Datuen eta analisiaren iturria Yip (1980) da.

- (65) Mandarinera: tonu kontorno lexikoak
- | | | | | |
|-----------|--------------|---------|-------|--|
| 1. tonua: | <i>tā</i> | ‘hura’ | 55 | goiko tonua |
| 2. tonua: | <i>cháng</i> | ‘luze’ | 35 | goranzko tonua |
| 3. tonua: | <i>lǎo</i> | ‘zahar’ | 21(4) | beheko tonua, gorakada batekin
isolatua ahoskatzen denean |
| 4. tonua: | <i>dà</i> | ‘handi’ | 41 | beheranzko tonua |

Morfema gehienak silababakarrekoak dira txineraz eta bakoitzak zein tonu duen lexikoian zehazten da. Tonuaren bidez bereizten diren bikote eta hirukoteak ugariak dira. Posible da, gainera, laukoteak aurkitzea:

- (66) Mandarinera: laukote minimoa
- | | | |
|-----------|-----------|----------------------|
| 1. tonua: | <i>mā</i> | ‘ama’ |
| 2. tonua: | <i>má</i> | ‘hemp’ (landare bat) |
| 3. tonua: | <i>mǎ</i> | ‘zaldi’ |
| 4. tonua: | <i>mà</i> | ‘errieta egin’ |

Argi dagoenez, morfema baten tonua aldatzen badugu, galdu egiten da esanahia. Tonu lexikoak nahiko konplikatuak badira ere, tonuak aldatzen dituzten arau fonologikoak ez dira hizkuntza bantuetan bezain ugariak. Alotonia interesgarriena hirugarren tonuari dagokio. Tonu honek hiru alotonu ditu. Hirugarren tonua beheko tonu bezala 21 gauzatzen da esaldiaren erdian, baina eten baten aurrean gorakada bat du bukaeran, 214. Gainera, bi hirugarren tonu daudenean jarraian, lehenengo bigarren tonu bihurtzen da. Hau da mandarinerak duen sandhi arau aipagarriena:

- (67) Mandarinera: Hirugarren tonuaren sandhi araua: 214 → 35 / ___ 214

<i>mǎi</i> 214	‘erosi’	<i>mái</i> 35	<i>mǎ</i> 214	‘zaldia erosi’
		erosi	zaldi	
<i>zhǒng</i> 214	‘mota’	<i>zhèi</i> 41	<i>zhǒng</i> 35	<i>gǒu</i> 214
		hau	mota	zakur

Silaba gehienek tonu lexikoa badute ere, badira bi salbuespen nagusi. Lehenengo eta behin klitikoak eta antzeko partikulak tonugabeak dira. Bigarrenik, errepikapen morfologiko batzuetan, bigarren kopiak tonua galtzen du eta tonu neutroa delakoarekin ahoskatzen da:

- (68) Mandarinera: tonu galera errepikapen morfologikoan
- | | |
|----------------|------------------|
| <i>gè ge</i> | ‘guztiak’ |
| <i>kān kan</i> | ‘ikusi apur bat’ |

Errepikatzen den morfemak hirugarren tonua badauka, lehen kopia bigarren tonuarekin agertzen da (eta bigarrena tonu neutroarekin); hau da, kasu honetan hirugarren tonuaren sandhi arau aplikatzen da:

- (69) Mandarinera: Hirugarren tonuaren sandhi araua eta tonu galera
- | | | | |
|--------------|------------|--------------------|---------------------|
| <i>zhǒng</i> | ‘mota’ | <i>zhǒng zhǒng</i> | ‘mota guztiak’ |
| <i>xiǎng</i> | ‘pentsatu’ | <i>xiǎng xiǎng</i> | ‘pentsatu apur bat’ |

Datuok azaltzeko, Yip-ek (1980) bigarren kopiaren tonua sandhi araua aplikatu eta gero ezabatzen dela proposatzen du:

- (70) Mandarinera: Yip (1980)
zhǒng zhǒng
 Sandhi araua *zhóng zhǒng*
 Tonu ezabaketa *zhóng zhong*

Arau berezi batzuk aurkitzen baditugu ere, txineraren tonologia shona edo beste hizkuntza bantu tipikoena baino askoz sinpleagoa da. Hizkuntza txinarren tonu inbentarioa oso konplexua da (kantoieraz mandarineraz baino gehiago, sei tonu mota baititu), baina tonuak ez dira hizkuntza bantuetan bezain mugikorrak.

Mandarineraz, tonuaz gain, edo agian tonuen gainean, azentua dugu. Azentua mandarineraz, frantsesez bezala, esaldi edo talde fonologiko mailako fenomeno da. Gehienetan, talde prosodikoaren azken silabak besteak baino prominentzia handiagoa du eta lehen silaban azentu bigarrenkaria dugu. Baina azentua eramateko, silabak tonuduna izan behar du. Azken silabak tonu neutroa badauka azentua atzeratu egiten da:

- (71) Mandarinera: azentua
- | | | |
|----------------------------|-----------|---------------------|
| | * | |
| | * * | |
| a. kasu orokorra: | túshuguǎn | ‘liburutegia’ |
| | * * | |
| b. Azken silaba tonugabea: | kànwánle | ‘irakurtzea bukatu’ |

Beraz, azentua mandarineraz silaba tonudun batzuei ematen zaien prominentzia da. Esan bezala, esaldiaren edo talde prosodikoaren azken silaba prominenteena edo nagusia da. Dударik gabe txinera tonu hizkuntza bat da funtsean, baina hala eta guztiz ere azentua du; nahiz eta azentua esaldi mailako fenomeno izan eta bereizgarria ez izan.

3.10. Galderak tonu hizkuntzetan

Tonu hizkuntzetan tonua sarrera lexikoen parte bat baldin bada, nola adierazten dira indar-azentuzko hizkuntzetan tonuaren (intonazioaren) bidez egiten diren esaldi mailako bereizketa semantikoak? Adibidez, nola bereizten dira galderak esaldi deklaratuak? Hizkuntzen arabera erantzun desberdinak ditugu. Txineraz (eta japonieraz) partikula galdetzailerik bat dago (esaldiaren bukaeran). Jitan, bai-ala-ezko galderetan silaba guztien maila goratzen da lehen silabatik H-tonu lexikoa duen azken silabaraino (baina H eta L tonuen arteko bereizkuntzari eutsiz) eta esaldian H-tonu lexikorik ez badago, azkenurreko silabaraino. Tonu arau espezifikoak ere aplika daitezke. Shonan, adibidez, galdera baten azken silabak beheko tonuan egon behar du eta silaba honek H-tonua badarama, tonu hau ezabatu egiten da. Hitz ordena ere alda daiteke, etab. Era berean, indar-azentuzko hizkuntzetan intonazioak izan ohi dituen beste funtzioetarako (hala nola, fokua adieraztea, etab.) estrategia desberdinak aurkitzen ditugu tonu hizkuntzetan; batzuk intonaziozkoak, beste batzuk ez.

BIGARREN ZATIA
EUSKAL AZENTUAZ

LAUGARREN KAPITULUA

SARRERA ETA EKIALDEKO AZENTUERA

4.1. Sarrera

Aurreko kapituluetan azentuaren izaera fonetiko eta fonologikoa aztertu dugu, munduko hizkuntzetan aurkitzen diren azentuera mota nagusiak aurkeztuz. Eraiki ditugun oinarri teoriko eta tipologikoetatik abiatuz, hurrengo kapituluetan euskal azentubide nagusiak ikertuko ditugu. Azentu kontuetan, euskarak Europako beste inongo hizkuntzak baino aniztasun handiagoa erakusten du. Adibidez, gaztelaniaz, funtsean azentuera bakarra aurkitzen dugu Europa eta Ameriketako dialekto guztietan. Are gehiago, hizkuntza erromanikoetan, frantsesa alde batera utzita, ia azentuera bera dugu hizkuntza guztietan (portugesak, gaztelania, katalana, okzitaniera, italiara, etab.), nahiz eta desberdintasun tipi batzuk egon. Euskaraz, aldiz, oso azentu sistema desberdinak aurkitzen ditugu eskualde batetik bestera. Batzuetan, elkarren ondoan mintzatzen diren euskal hizkerak oso desberdinak dira azentuaren aldetik. Honekin konpara daitekeen egoera bat hizkuntza eslabikoetan aurkitzen dugu, baina hizkuntza hauek askoz lurralde zabalagoetan hedatzen dira. Euskararen kasuan, oso eskualde tipian eta hizkuntza bakar baten barnean azentu aniztasun harrigarria dugu.

Oparotasun hau dela-ta, gertatzen diren azentu aldaera guztiak kontuan hartzea ezinezkoa izango litzaiguke. Gainera, tokian tokiko azentuera guztiak ez ditugu behar bezala ezagutzen. Gauzak honela izanik, euskal azentu sistema nagusien ezaugarriak interesgarrienak besterik ez ditugu ikertuko hemen. Azterketa Euskal Herriko ekialdeko muturretik hasiko dugu kapitulu honetan eta mendebalderantz joango gara hurrengo kapituluetan.

Bai zubereraz eta baita hil berri den erronkarieraz ere, azentua kasu orokorrean azkenaurreko silaban ezartzen da. Baina kasu orokorra ez da kasu bakarra. Badira konplexutasun batzuk, batik bat erronkarieraz.

Azentu paroxitonoa, [-2], arau orokorra da ekialdeko beste hizkera askotan, nahiz eta beste hauetako egoera erronkarieraz edo zubereraz baino sinpleagoa izan. Laugarren kapitulu honetan, azentuera orokor bezala azentu paroxitonoa duten ekialdeko sistemak izango ditugu kontuan. Zuberera eta erronkarieraz gain, Zaraitzun, Esteribarren, Baztanen, Ultzaman, Lapurdin eta Nafarroa Beherean azaltzen diren berezitasunak izango ditugu aztergai.

Bestaldetik, erdialdeko eskualde zabal batean, azentua normalean bigarren silaban doa, [+2]. Arau orokor hau duten hizkeren adibide bezala Oñati, Arantza (Bortzi-riak) eta Beasain ikusiko ditugu bostgarren kapituluan. Hondarribiko azentuera ere kontuan hartuko dugu hemen, nahiz eta funtsezko berezitasunak izan. Antza denez, [+2] azentuera eskualde batzuetan (Bidasoa haranean, adibidez), beste leku batzuetan baino zaharragoa da eta zenbait eskualdetan oso berria izan daiteke. Gainera, ikusiko dugunez, [+2] azentuera nagusitzen ari da euskara batuaz hitzegiten duten hiztun gazteen artean. Azentuera desberdina da Nafarroako mendebaldean (Sakana, Imotz, Basaburua). Azentuera hau ere bostgarren kapituluan ikertuko dugu, nahiz eta [+2] araua ez jarraitu.

Seigarren kapituluan, Antzuola/Bergara, Urolalde eta Zeberio/Arratiko azentubi-deak miatuko ditugu zehazki. [+2] azentuera orokorraren mendebaldeko muga dau den hizkera hauetan, sistema konplexuagoak aurkitzen ditugu. Ikusiko dugunez, arau nagusia desberdina da hauetariko sistema bakoitzean: Antzuolan eta Bergaran arau nagusia [-2] den bitartean, Urolaldean (Azkoitia, Azpeitia, Urrestilla, Errezil) arau nagusia [+3] dela erakutsiko dugu. Zeberio eta Arratiako azentubidea zailagoa da formula bakar batekin deskribatzeko.

Zazpigarren kapituluan Bizkaiko iparraldeko doinu-azentu sistemak aztertuko ditugu eta, besteak beste, Gernika, Getxo, Lekeitio, Ondarroa eta Markinako azentubideen berezitasunak aipatuko ditugu. Sistema hauek, ezpairik gabe, euskararen eremuan dauzkagun azentuera berezi eta konplexuenak dira.

Azkenik, zortzigarren kapituluan mendebaldeko eta erdialdeko azentu sistemen arteko lotura historikoak aztertuko ditugu.

4.2. Ekialdeko azentubidea: ezaugarriak eta hedadura

Ekialdeko eskualde zabal batean, azentua azkenaurreko silaban doa gehienetan. Hau da, arau nagusia [-2] da. Azentuera hau Zuberoa eta Erronkaritik Baztan eta Ultzamaraino hedatzen da. Azentuera orokor honi Ekialdeko azentubidea deituko diogu. Hauetariko hizkera batzuetan, hala nola zubereraz eta, batez ere, erronkarieraz, salbuespen lexiko eta morfologikoen azentuzko bereizketak sortzen dituzte. Hitz gehienek azentua azkenaurreko silaban jasotzen badute ere, hitz batzuek azentuera ezberdina erakusten dute. Ultzameraz, aldiz, ia ez dago salbuespen lexikorik, baina egitura silabikoa kontuan hartzen da azentua ezartzeko. Bereizkuntza bera egiten da Lapurdiko eskualde batean (Saran, adibidez). Azkenik, Baztango eta Esteribarko hizkeretan, eta baita aezkeraz ere, azentu paroxitonoaren erregelak ez du salbuespen zehatzik. Hizkera hauetan, printzipioz hitz guztiak modu berean azentuatzen dira. Kapitulu honetan, azentuera orokor paroxitonoa duten ekialdeko hizkerak aztertuko ditugu, bakoitzak dituen berezitasun nagusiak azpimarratuz.

Ekialdeko azentubidearen muga-hizkerak Baztangoa eta Ultzamakoa dira. Azentu isoglosaz beste aldean, Bortziritan Erdialdeko azentuera orokorra aurkitzen dugu; hots, bigarren silaban; eta Imotz eta Nafarroako Basaburuan beste sistema bat erabiltzen da. Pirinioez haraindiko hizkerari buruz daukagun informazioa oso urria da eta ez dakigu guztietan azentu paroxitonoa nagusia ote den.

4.3. Zubereroa

4.3.1. Azentu patroiak flexiogabeko oinarrietan

Zubereraz, azentua normalean azkenaurreko silaban ezartzen da. Larrasqueten (1939) hiztegia hartzen badugu, hitz gehienek azentua azkenaurreko silaban dutela ikusiko dugu, bai bokalez bukatzen direnek eta baita kontsonantez bukatzen diren hitzek ere:

- (1) Zuberera: azentu paroxitonoa (kasu orokorra)
kbáldü, ilbar, jákin, áthün, gárkbotx, ápho, árgi
kabále, be(r)ábe, abéntü, emphéltat, albárgün, e(r)háztün, fundámen, barrio (< gazt. bárrío), kanabé(r)a, ado(r)azjóné, obligazjóné, adixkéide, entbeléga, enjogid üa

Eratorpenaren bidez sortutako hitzetan, azentua azkenaurreko silabara lerratzen dela ikus dezakegu, hurrengo adibideetan bezala:

- (2) Zuberera: azentu paroxitonoa hitz eratorrietan
- | | | | |
|-------------------|--------------------|-------------------|------------------|
| <i>áldi</i> | <i>akb'üllü</i> | <i>am'ürrü</i> | <i>áphür</i> |
| <i>aldíka</i> | <i>akbüllátze</i> | <i>amürrátze</i> | <i>aphürrágo</i> |
| <i>aldiká(r)i</i> | <i>akbüllazále</i> | <i>amürrazále</i> | |
| <i>béste</i> | <i>bezála</i> | | |
| <i>bestéla</i> | <i>bezaláko</i> | | |
| <i>besteláko</i> | <i>bezalakóxe</i> | | |

Kasu orokorrean, beraz, oin trokaiko bat ezartzen da unitatearen bukaeran:

- (3) Zuberera: oin trokaikoa
- | | | |
|------------|---------------|------------------|
| (x .) | (x .) | (x .) |
| [be za la] | [be za la ko] | [be za la ko xe] |

Hitz guztiek, hala ere, ez dute patroï hau erakusten. Batzuetan azentua azken silaban doa. Hasteko, benetako salbuespen lexikoak ditugu; hauen artean bai maileguak eta baita euskal jatorrizko hitzak ere aurkitzen dira. Gehienak kontsonantez bukatzen dira, baina badira bokalez amaitzen direnak ere.¹

- (4) Zuberera: azentu oxitonoa
arrés, buhadé, belátz, alphó, aphéz, amán, ark'üt, arlax, animál, bankarrót, andé (< andere), desgantzól, Larrajá, barbalót, setemé (G)

Pare kuasi-minimo batzuk aurkitzen ditugu, hala nola *ápho* 'crapaud' eta *alphó* 're-lent de chaleur'. Nabari da, beraz, salbuespen batzuk lexikoian markatu behar direla.

Irritariz bukatzen diren hitz guztiak oxitonoak dira. Zubereraz, bokalen arteko /r/ bat galduenez gero diptongoa sortuz, diptongoz bukatzen diren hitzak beste euskalkietan baino ugariagoak dira:

¹ Adibideak osatzeko Gavel (1960) erabili dut zenbait kasutan. Lan honetatik hartutako adibideak G-z adierazi ditut.

- (5) Zuberera: irristariz bukatutako hitzak
errói, ax[új], ag[éj], ask[eáj], lasterk[eáj], ardúkbói, ba(r)atx[új]

Hauek ez dira benetako salbuespen lexikoak, beheranzko diptongoak azpiko egituran heterosilabiko direla onar baitezakegu: /erroi/ → *e.rró.i* → *e.rrój*. Bestela esanda, diptongoa daukan silabak oin osoa hartzen du, nahiz eta silaba bakar bat izan:

- (6) Zuberera: irristariz bukatutako hitzak
 (x .)
 las ter ka j

Bokal sudurkariz bukatzen diren guztiek ere azentu oxitonoa hartzen dute. Hauen artean, *-ñ* bukaera duten mailegu ugariak sartzen dira; mendebaldeko euskalkietan *-oi-z* (*-oe*) bukatzen direnak, hala nola *lehú* 'lehoi', *fanfarrú* 'fanfarroi', etab.

- (7) Zuberera: bokal sudurkariz bukatutako hitz oxitonoak *ú*
kabezú, kantú, kharrú, lanbú, lehú, kebe(r)estú, melú, presú, pibú, píjü, txintxú, salú, faizú, fanfarrú, ferrú, fripú, gorrú, kbi(r)ixtú, kosú, latú, orgá, marrukhá

(7)ko adibideetan, bokalak fonemikoki sudurkariak dira. Beste kasu batzuetan, bokalen sudurkaritzea azaleko fenomeno da. Kontsonante sudurkari baten inguruan sudurkaritzen dira bokalak: *arrano* [arãñõ]. Sudurkaritutako bokal hauek ez dute azentua erakartzen. Azentua erakartzen duten bokalak azpiko egituran sudurkariak direnak dira. Jeneralizazio honek ez dauka salbuespenik, antza denez: bokal sudurkariak bukatzen diren hitz guztiak oxitonoak dira. Zentzu honetan, bokal sudurkariak beheranzko diptongoak bezalaxe portatzen dira.

Larrasqueten hiztegian, oxitonoen artean, hitz elkartu eta eratorri franko ere topatzen ditugu. Hitz elkartu gehienetan bigarren osagaiaren azentua nagusitzen da, eta bigarren osagaia silababakarrekoa bada, azentu oxitonoa dugu mugagabea:

- (8) Zuberera: hitz elkartu oxitonoak
bazter-só, elborri-béltz, asmü-l'üz, bür-hás, gibel-mín, giza-txár

Adibide hauek ez dira benetako salbuespenak. Azentua azken silaban doa eta ez azkenurrekoan azentu unitatea silababakarra delako. Beherago konposatuen azentuera aztertuko dugu xehetasun gehiagorekin.

Modu berean, silababakarreko atzizkia duten hitz eratorriak aurkitzen ditugu oxitonoen artean *-ñi, -xkót, -liar, -tiar, -(t)ar, -kor* mailegatutako *-us* eta beste eratorpen atzizki batzuek azentua hartzen dute beti, azentuera oxitonoa sortuz mugagabea:

- (9) Zuberera: hitz eratorri oxitonoak
aitañi (cf. *áita*), *aboní* (*ábo*), *aphalñi* (*áphal*), *aphürñi* (*áphür*), *bersiñi*, *bobexeni alborxkót*
bazkaltiár, bestaliár, egoiliár, elizatiár, menditár, herritár, bi(r)itár
ethenkór, gizenkór, ixilkór, leberkór, hilkór (G), *iga(r)ankór* (G)²
amu(r)ús, balentiús, despendiús, finaziús, ko(r)ajús, lanje(r)ús, mendekús

² Azken bi adibideak Gavelen Barkoxeko lekukoarenak dira. Atharratzeko hiztun batengatik *hílgór, ígáankór* jaso zituen Gavelek (1960: 315).

Hala ere, (10)eko adibideek erakusten dutenez, beste silababakarreko eratorpen atzizki batzuek ez dute azentua hartzen:

- (10) Zuberera: hitz eratorri paroxitonoak
frütádün, elhorridün, itzáldün, ogéndün, ilbédün
aisáto, aizéto, berdétto, gosétto, aitzínáto, alege(r)áto, albórtto
aldíka, alhórka

Neurri batean, atzizkiaren egitura silabikoak erabakitzen du bere azentuarekiko portaera. Alegia, azentudun atzizki gehienak kontsonantez bukatzen dira eta bokalez bukatzen direnak azentugabeak dira gehienetan, konpara *alborxkót* eta *albórtto* edo *apb'ürxka*. Baina adibideek erakusten duten moduan, hau joera bat besterik ez da eta badira bokalez bukatutako atzizki azentudunak (-ñí) eta kontsonantez bukatutako atzizki azentugabeak (-dün). Konpara, era berean, *herrítár* eta *herríkal*, adibidez. Gauzak horrela izanik, atzizki bakoitzaren azentuera espezifikatu behar da lexikoian. Eratorpen atzizki batzuk markatuak dira, azentudun bezala markatzen dira lexikoian; besteak ez. Atzizki markatuak (-ñí, -tiár, -kór) azentu oxitonoa eragiten dute hitzaren azken silaba direnean. Aldiz, -dün, -tto, -ka eta abarrek ez dute azentu marka lexikorik:

- (11) Zuberera: atzizki markatu eta markatugabeak
- | | | |
|------------------------|---------------|---------------|
| Atzizki markatuak: | /aita-ñí/ | (x) |
| | | aitañí |
| Atzizki markatugabeak: | /elhorri-dün/ | (x .) |
| | | el ho rri dün |

4.3.2. Hitz elkartuen azentuera

Hitz elkartuetan osagai bakoitza azentu unitate berezia da. Elkartu gehienetan Larrasquetek lehen mailako azentua bigarren osagaian jartzen du eta lehen osagaian bigarren mailako azentu bat ipintzen du. Azken osagaia silababakarrekoa bada, azentu oxitonoa izango dugu:

- (12) Zuberera: hitz-elkartuak, azentuera nagusia
- | | |
|--------------------|---------------------|
| <i>ádar-mútx</i> | <i>égüz-alhába</i> |
| <i>égür-bélhar</i> | <i>álhor-lán</i> |
| <i>jénte-kénte</i> | <i>égüz-aurbide</i> |

Zenbait konposatutan, Larrasquetek ez du bigarren mailako azenturik markatzen, eta azentu bakarra bigarren osagaian jartzen du:

- (12) Zuberera: hitz elkartuak, bigarren patroia
- | | |
|-------------------|----------------------|
| <i>aita-zílo</i> | <i>egüz-áita</i> |
| <i>bazter-só</i> | <i>elhorri-béltz</i> |
| <i>bür-bás</i> | <i>bürdün-bür</i> |
| <i>izorr-áldi</i> | <i>gibel-mín</i> |

Beste kasu batzuetan, baina guttiagotan, lehen mailako azentua lehen osagaian agertzen da eta bigarren mailakoa bigarrenean:

Har dezagun, adibidez, *mithil* hitzaren deklinabidea, singularrean eta pluralean (datuak Larrasquet 1934-tik jasota):

(18) Zuberera: singularrean eta pluralaren azentuera

	sg	pl
abs	<i>mithila</i>	<i>mithilak</i>
erg	<i>mithilak</i>	<i>mithilé</i>
instr	<i>mithilaz</i>	<i>mithilé</i>
dat	<i>mithilái</i>	<i>mithilér</i>
gen	<i>mithiláen</i>	<i>mithilén</i>

Paradigma honek erakusten duen bezala, singularrean eta absolutibo pluralean azentua hitzaren azkenaurreko silaban kokatzen da. Pluraleko beste kasu guztietan, aldiz, azentua azken silaban doa. Lafonek (1935) eta Mitxelena (1985: 408) azaltzen duten bezala, azentu oxitonoa erakusten duten formetan kontrazio bat dugu bilakaera historikoan; adib.: **gizon-ag-ek* > **gizonáek* > *gizunék*. Fonologia sinkronikoaren aldetik, hala ere /-é-/ pluraleko atzizkiak azentu morfologikoa daramala proposa dezakegu, besterik gabe: /gizun-é-k/. Atzizki hau, /-ní/, /-kór/, /-tár/ eta antzeko eratorpen atzizki azentudunak bezala portatzen da eta modu berean azter daiteke.

Gamindek (1995b) Zuberoa osoan bildutako datuak ikusiz, badirudi bi azentuera nagusi daudela datibo eta genitibo singularreko formetan. Hitzun batzuek azentua hitzaren azkenaurreko silaban jartzen dute, (18)an emandako Larrasqueten paradigmaman bezala. Beste hitzun zuberotar batzuek, aldiz, absolutiboaren azentuera *forme de fondation*-tzat hartzen dute eta silaba berean mantentzen dute singularreko beste forma guztietan:

(19) Zuberera: singularrean azentuera (Gaminderen datuak)

A Eredua	B Eredua
<i>gizúna</i>	<i>gizúna</i>
<i>gizúnak</i>	<i>gizúnak</i>
<i>gizunái</i>	<i>gizúnai</i>
<i>gizunána</i>	<i>gizúnana</i>

Gamindek (1995b) A Eredua deitu duguna honako herrietan aurkitu du: Santa Garazi, Muskildi eta Altzai; eta B Eredua, aldiz, hurrengo herrietan: Mithikile, Es-kiula eta Altzürükü. Bestaldetik, Larrainen *gizunái* baina *gizúnana* jaso zuen eta Ligin, aldiz, *gizúnai* baina *gizunána*. Agian aukera geo-dialektala da; baina gerta liteke hitzun berarentzat bi aukerak egotea.

Gizúnai, *gizúnana* bezalako aldakiak aztertzeko, kasu marka azentu unitatetik at geratzen dela proposa dezakegu; edo, bestela esanda, azentu unitatea oinarria gehi mugatzailea dela: [gizúna]na.

Kasu atzizkia luzeagoa bada, bigarren azentu bat ager daiteke atzizkian: [gizúna]ntàko edo [gizúna]ntáko.

(18)ko eskuinaldeko zutabearen ikusten denez, pluralean azentuera oxitonoa dugu /-e-/ atzizkia azken silaban dagoenean. Atzizki honen ondoren beste silaba bat badugu, azentu paroxitono markatugabea izango dugu. Forma hauetan, Gamindek

azentuera bera jaso zuen herri guztietan: *gizúnak*, *gizunék*, *gizunér*, *gizunéna*, *gizunéki*. Aldiz, pluraleko /-e-/ atzizkiaren ondoren silaba gehiago baditugu, bi aukera daude: azentua /-e-/ atzizkiaren gainean gera daiteke edo hitzaren azkenaurrekora mugi; hau da: *gizonéntako* edo *gizonentáko*.

Datuak osatzeko eta borobiltzeko, Intxausperen testu bat aztertu dut, *San Mateoren Ebanjelioa*, Euskaltzaindiak Bonaparteren euskal izkribuekin berrargitaratu duena (Intxauspe 1856 [1991]). Intxausperen testua miatuz, /-é-/ atzizkiak, edozein silabatan egonda ere, azentua erakartzen duela ikusten dugu. Atzizki hau azken silaban badago, azentu oxitonoa izango dugu, baina beste azentu patroiz batzuk izango ditugu atzizkia hitz akabuan ez badago; beraz atzizki hau daukaten hitzak ez dira beti oxitonoak edo paroxitonoak:

(20) Intxauspe: /-é-/

a. Hitz oxitonoak

Judionén (1:11, 2:2), *profetén* (2:23, 5:17), *ainguriér* (4:6), *zaudenér* (4:16), *guzién* (5:15), *lebenagocouér* (5:21), *aurbidér* (5:47), *nouzpaitcouér* (5:33), *eskerniazalén* (5:44), *oubouñéc* (6:20), *guizounér* (6:14), *tchoriér* (6:26), *souñecouéz* (6:28), *alborrétako liliér* (6:28), *tchacurrér* (7:6), *zibaurér* (7:6), *haurrér* (7:11), *guizounéc* (7:12)

b. Beste azentuera batzuk

zeliétaco (3:2, 5:3, 5:10), *hoiétaric* (3:9), *zubañén berrouétara* (3:10), *tchipiénetaric* (5:19), *fabxiétaric* (7:15)

Flexiozko atzizki honek ia beti azentua erakartzen badu ere, badira salbuespen guti batzuk:

(21) Intxauspe: /-é-/dun salbuespenezko adibideak

publicánouec (5:46), *pagánouec* (5:47, 6:32), *pagánouen* (6:7), *deitzoyéner* (7:11)

Ez dago oso garbi salbuespen hauek nola ulertu behar ditugun. Larrasqueten adibideen arabera mugatzailea normalean erroaren azentu unitatean sartzen bada ere, badirudi posible dela, aukera bezala, azentua erroaren azkenaurrekora ezartzea. Adibidez, *ezkáatzék*, hau da: [ezkáatz]ék aurkitzen dugu, espero genezakeen *ezkáatzék*-en orde. Ziur asko, (21)eko adibideak modu berean ulertu behar ditugu: [publikánu]ék, etab. Antza denez, hitz hauek ez dira salbuespen lexikoak. Erakusten duten azentu-erakuzkoak da; baina ez da aukera bakarra.³

Azentu unitatea dela-ta, mugatzaileak eremu honetan sartzen direla esan dugu. Honek *bat* mugatzailearentzat ere balio du. Zentzu honetan *bat* mugatzaileak atzizki gisa jokatzeko du zubereraz. Hurrengo adibideak Intxausperenak dira:

(22) Intxauspe: Izen+bat

Aingurú bat (1:20), *semé bat* (1:21, 1:23), *belhár bat* (6:30), *soumér bat* (7:3, 7:4), *harrí bat* (7:9), *sugné bat* (7:10)

³ Dena den, badirudi mailegu batzuek, batez ere pertsona izenek eta antzekoek, azentua erroan eramateko joera erakusten dutela.

Ikusten den bezala, azentua izenaren azken silaban agertzen da, *bat* mugatzaileak jarraitzen dionean. Mugatzailea azentu unitatean sartzen bada, azentu paroxitono erregularra dugu, noski:

- (23) Zuberera: Izen+*bat*, azentu unitatea eta oin metrikoa
 (x .)
 [ain gu ru bat]

Aldiz, kasu atzizkiak oinarriaren unitatez kanpo gelditzen dira askotan. Azter ditzagun hurrengo adibideak (Larrasquet 1934):

- (24) Zuberera: kasu atzizki luzeak
zūbiekila 'zubirekin'
zūbiekila 'zubiekin'

Adibide hauen azentuera azaltzeko, *-kila* bezalako atzizki bat lehen mailako azentua ezartzen den unitatetik kanpo gelditzen dela pentsatu behar dugu:

- (25) Zuberera: *-kila*
- | | | |
|----------------------|-------|---------------------------|
| x | | x |
| (x .) | (x .) | (. x) (x .) |
| [zū bi e] ki la] | | [zū bi é] ki la] |
| <i>zū bí e kà la</i> | (mg) | <i>zū bi é kà la</i> (pl) |

Atzizki batzuekin azentuera desberdinak aurkitzen ditugu tokian tokiko hizkertan (Gaminde 1995b). Larrasqueten adibideetan genitibo eta datibo singularra azentu unitatean sartzen badira ere, Intxausperen testuan, aldiz, atzizki hauek unitatetik at gelditzen dira, azentu proparoxitonoa sortuz gehienetan:

- (26) Intxauspe: gen sg eta dat sg
 gen. sg.: *Semíaren* (1:1), *Jáunaren* (1:20), *emaztiaren* (1:20, 5:32), *háurraren* (2:20),
Jíncouaren (4:4, 4:6), *sariaren*, *populiaren* (4:23), *khandeléraren* (5:15),
legúaren (5:17), *anayíaren* (5:22, 7:3), *begúaren* (5:38), *bórtzaren* (5:38),
khorpítzaren (6:22)
 dat. sg.: *anayíari* (5:22), *dénari* (5:22), (baina *errailíari* (5:22))

Beraz, Intxausperen erabileran, mugatzaileak sartzen dira azentu unitatean, baina kasu atzizkiak ez, eta, ondorioz, azentu proparoxitonoa eragin dezakete:

- (27) Intxauspe: azentu unitatea
 (x .)
 [e maz ti a] ren *emaztiaren*
 Honako adibideak ikus ditzagun orain:

- (28) Intxauspe: *bat*+kasu atzizkia
bortú batetarát (4:1), *tiletá batetaráno* (5:18), *besó bátex* (6:27), *buruscá batí* (7:3)

Azentuera hauek goian ikusi dugun moduan sortzen dira: mugatzailea (*bat*) erroaren unitatean sartzen da, baina kasu atzizkiak ez. Adibide hauetan oin trokaiko bat

kokatzen da erroak eta mugatzaileak osatzen duten unitatearen bukaeran eta beste bat bukaera absolutuan:

(29) Intxauspe: azentu unitateak eta oin metrikoak

(x .) (x .)

[[ti le ta bat] e ta ra no] *tiletá batetaráno*

/-lat/ atzizkia daramaten hitzek azentua azken silaban hartzen dute. Larrasquetek ematen dituen *sabáiala* eta *sabáialát* adibideak konpara ditzakegu. Larrasqueten deskribapenaren arabera, aukera bat azentua bakarrik azken silaban jartzea dateke, hau da, /-lat/ atzizkian. Azentu patroi honekin adibide ugari aurkitzen ditugu Intxausperen testuan:

(30) Intxauspe /-lat/

Bethlemerát (2:8), *berrialát* (2:12), *Herodesenganát* (2:12), *Egiptarát* (2:13), *lurretarát* (2:20, 2:21), *gaintietarát* (2:22), *hirialát* (2:23), *suylát* (3:10), *bibiteguietarát* (3:12), *itxasoulát* (4:18), *camporát* (5:13), *ifernialát* (5:29, 5:30)

Nolabait, hitz hauek konposatuak bezala jokutzen dute.

4.3.4. Azentu oxitonoa /-a/-z bukatutako oinarriekin

Normalean absolutibo singularrean azentua hitzaren azkenaurreko silaban ezartzen bada ere, badago salbuespen ezagun bat: oinarria /-a/-z bukatzen bada, mugatzailearekin batzen da, azentu oxitonoa sortuz:

(31) Zuberera /a+a/

mugababea abs sg

/neska/ *neska* vs. /neska+a/ *neská*

/arrolla/ *arrolla* vs. /arrolla+a/ *arrollá*

Orokorkiago, /-a/-z bukatutako oinarrien forma flexiodunetan, azentua kontrazioaren gunean ezartzen da. Kontrazioa azken silaban dugu absolutibo, ergatibo eta barretan, baina azkenaurreko silaban, adibidez, komitatiboan. Hurrengo adibideak Intxausperenak dira:

(32) Intxauspe /a+a/ → á

a. Hitz oxitonoak

Birjiná (1:23), *Profetác* (2:5, 5:12, 7:12), *amá* (2:13, 2:20, 2:21), *erresoumá* (3:2, 5:3, 5:10, 6:33), *chendác* (3:3), *aiscorá* (3:10), *eguiáz* (5:18, 6:5), *machelán* (5:39), *capá* (5:40), *erdollác* (6:20), *borthá* (6:5), *justiziá* (6:33), *buruscá* (7:4), *perlác* (7:6)

b. Beste azentuerak

amáreki (2:11) (= /ama+a+reki/)

Benetako jeneralizazioa, bada, azentua kontrazioa jasaten duen silaban ezartzen dela da. Goian aipatutako *gizunék* tankerako pluraletan ez bezala, hemen kontrazioa arau sinkronikotzat har daiteke.

Beste bokal batekin bukatzen diren oinarriekin mugatzailearen bokala gal daiteke zenbait bokal elkarketetan. Kasu hauetan ere azentu oxitonoa sortzen da: *mendían* ~

mendín (cf. Gavel 1920: 6-13, Lafon 1958, Hualde 1993). Bigarren kontrazio prozesu hau askoz berriagoa da eta zenbait lekutan aukerakoa baizik ez da. Azentu oxitonoa nahikoa azaleko fenomeno da kasu honetan.

4.3.5. Oinarri proparoxitonoak

Deskribapen batzuen arabera (Mitxelena 1958, 1972, 1985, Txillardegi 1984) zubereraz hitz guztiak paroxitonoak (kasu orokorra) edo oxitonoak (kasu berezi batzuk) izango lirateke. Hala ere, ikusi dugun bezala, forma flexiodunen artean proparoxitono batzuk aurkitzen ditugu; adib. *amáreki*. Are gehiago, flexiogabeko oinarrietan ere zenbait proparoxitono aurkitzen ditugu, hauek oso guti badira ere. Larrasqueten (1939) hiztegian hurrengo adibide proparoxitonoak aurkitu ditut:

- (33) Zuberera: oinarri proparoxitonoak Larrasqueten hiztegian
- andde-er*, *háustegi*, *házaisia*, *házebi*, *jögüne*, *lángile*, *lángite*, *hílberri*, *sedák hüllü*
 - háńkotü*, *hástekez*, *háurkatü*, *háustatü*, *igéxkatu*, *húnkitze*, *húpatü*, *húrpetze*, *jákütü*
 - árteka*, (*áurthen*) *ártino*
 - séküla*, *püttina* ‘mot par le quel on appelle les poules’

Gutti badira ere, garbi dago adibide hauek ez direla errata hutsak. *Lángile* hitza azentuera honekin jaso zuen Gavelek (1960) bere bi berriemaileengandik eta *séküla* honelaxe agertzen da beste iturri batzuetan ere (Larrasquet 1931, Amunarriz & Tellabide 1990). Azentuera proparoxitonoaren zergatia ez da berdina kasu guztietan. (33a)ko adibideak hitz elkartuak dira: *andde-er* (< *andere+eder*), *háustegi* (*hants+tegi*), *házaisia* (*háza+aisia*), *házebi* (*háza+ehi*), *jögüne* (*jo+güne*), *lángite* (*lan+(e)gite*), *hílberri* (*híl+berr*) 4.3.2. azpiatalean erakutsi bezala, elkartuetan osagai bakoitza azentu unitate bat da, eta nahiz eta gehienetan bigarren unitateak hartzen duen azentu nagusia, lehenak ere har dezake. (33b)ko adibideak aditz formak dira. Adibide hauetan azken atzizkia unitatetik at gelditzen da: [húnki]tze]. Ziur asko azentuera hau aukerakoa da antzeko aditz forma guztietan. Intxausperen testuan ere, atzizki berberarekin batzuetan azentuera paroxitonoa eta beste batzuetan azentuera proparoxitonoa aurkitzen dugu:

- (34) Intxauspe: aditz partizipioak

/-t(z)era/

Paroxitonoak: *adoratzéra* (2:8), *pheredicatzéra* (3:1), *bebatzéra* (5:17)

Proparoxitonoak: *górtera* (1:19), *jouáitera* (2:22), *egóitera* (2:23), *háustera* (5:17) *ikhóustera* (6:18)

/-ren/ (geroaldiko partizipioa)

Paroxitonoak: *emánen déyozu* (1:21), *gubernatúren dían* (2:6), *izánen da* (2:23), *zerbutchátúren* (4:10)

Proparoxitonoak: *sórburen dízu* (1:21), *gaitzéxiren du* (6:24)

/-rik/

Paroxitonoak: *ikbousíríc* (2:16, 3:7), *batheyatúríc* (3:14), *coundenatúríc* (5:22),
zerraturíc (6:6)

Proparoxitonoak: *bilduríc*, *éntzunic* (2:22), *lótarić* (2:22), *deítburíc* (2:23, 5:9),
luberrásturíc (4:9), *izárturíc*

Intxausperen testuan aditz partizipioek duten azentuera aldakorra ikusita, esan dezakegu hitz polimorfemiko hauetan badagoela bide bat baino gehiago azentu unitatea definitzeko. Azentua unitatearen azkenaurreko silaban utz dezakegu, baina aukera bezala aditz partizipioetan azken morfema unitatetik at gera daiteke: [ikhuśírík] edo [ikhuśi]rik.

(33c)ko adibideetan ere, azken silaba eratorpen atzizki bat da eta, salbuespenez, ez da kontuan hartzen azentu unitatean. Azkenik, *púttina* onomatopeia bat da. Ez dut uste *séküla* hitzean jatorrizko latinezko azentuerari eutsi zaionik, hau ez baita gertatu beste inongo hitzekin. Agian hemen azentuera paroxitonoak hitz honen erabilera enfatikoarekin dauka zerikusia.

Badirudi zubereraz hitzunak askatasun neurri bat duela azentu unitatea definitzeko hitz polimorfemikoetan. Atzizkiren bat azentu unitatetik at gelditzen bada, azentuera proparoxitonoa izango dugu. Hau dela-ta, adibide polimorfiko batzuetan azentua azkenhirugarren silaba baino ezkerralderago ere agertzen zaigu. Intxausperen testuan, batez ere izen bereziekin, azentua erroaren azkenaurreko silaban agertzen da (edo erroaren azken silaban *Isaák*, *Jerusalém* eta beste batzuekin), atzizkiak gorabehera:

(35) Intxauspe: azentua oinarrian izen berezietan

Isaák, *Isaákeć* (1:2),

Sidóñentaco (12:22),

Babilóñerat (1:11, 1:12) baina *Babilóñerát* (1:17), *Galilearát* (4:11)

Espirítu Sáñtiaren (1:18), *Sáñtiaganic* (1:20)

Jerusalémera (2:1),

Heródesec (2:7), *Heródes* (2:15)

Azentuera hau izen arruntekin ere aurkitzen dugu adibide guti batzuetan:

(36) Intxauspe: azentua oinarrian

sáñtiala (4:5), *sáñtia* (7:6), *sáñtuki* (6:9), *débrieki* (4:24), *mémbrietarić* (5:29, 5:30), *phákia* (6:5, 6:16, 6:18), *lúrrian* (6:10), *óroren* (6:32)

Larrasqueten (1931) testuan antzeko adibide batzuk aurkitzen ditugu: *bákín*, besteak beste. Dugun informazioarekin ezin dugu jakin oinarri hauek azentu fixoa ote duten silaba batean, edo posibleago ematen duena, hitz hauek azentuera orokor paroxitonoarekin ere ahoska ote daitezkeen. Hau da, kontrako ebidentziarik izan ezean, *sáñtia* eta *saintía* aukerako ahoskerak direla suposatu behar dugu; eta modu berean *Heródesec* eta *Herodéseć*. Baina, esan bezala, ez dakigu hau egia den ala ez.

4.3.6. *Laburpena*

Zubereraren azentuera honelaxe labur dezakegu:

A) Morfema bakarreko hitzetan, azentua azkenaurreko silaban jartzen da hitz gehienetan. Bestaldetik, azentua azken silaban dugu: (a) hitza irristariz buka-

tzen bada, *errói*, (b) hitza bokal sudurkariz bukatzen bada, *sal~u* eta (c) lexi-koian markatutako beste salbuespen batzuekin, *aphéz*.

B) Hitz flexiodunak

— Absolutibo singularrean, /-a/ edo /bat/ mugatzaileekin, azentua azkenau-
rreko silaban ezartzen da: *gizúna*, *gizún bat*. Salbuespena, oinarria /-a/-z bu-
katzen bada, bokalak batzen dira azentu oxitonoa sortuz: /neska+a/ *neská*.

— Singularreko beste forma guztietan bi aukera nagusi aurkitzen ditugu: abso-
lutiboaren azentuari eutsi dakioke, *gizúna*, *gizúnai*, *gizúnana*, edo azentua hit-
zaren azkenaurreko silaban ager daiteke, *gizúna*, *gizúnái*, *gizúnána*.

— Absolutibo plurala singularra bezala azentuatzen da, *gizúnak*, baina /-e-/
plural marka azken silaban duten formetan, azentua azken silaban ezartzen
da, *gizunék*, *gizunér*.

— Bestaldetik, atzizki batzuk, unitatetik at geldí daitezke, azentu proparoxito-
noa sortuz, *gizunéntako*. Hau, bereziki, aditzen atzizkiekin gerta daiteke, *hún-
kitze*.

C) Hitz eratorriak. Kasu normalean, azentu paroxitonoa dugu, *frütádün*. Baina era-
torpen atzizki batzuek azentua erakartzen dute, azentu oxitonoa sortuz flexio-
gabeko forman, *aitañí*.

D) Hitz elkartuak. Osagai bakoitza azentu unitate bat da. Normalean, bigarren
osagaiak hartzen du azentu nagusia.

Analisian, honako bi oin metriko hauek erabili ditugu:

(37) Zuberera: oinak

(x .)	(x)
a. [o o o o o]	b. [o o o o o]

(37a) kasu orokorra dugu; (37b), aldiz, azken silaba, modu batean edo bestean,
markatua denean. Hitz polimorfemikoetan (eratorriak, konposatuak edo flexiodunak)
komplexutasunak sortzen dira, batzuetan azentu unitatea definitzeko aukera desberdi-
nak aurkitzen baititugu.

4.4. Erronkari⁴

4.4.1. Oinarri motak

Erronkarieraz, zubereraz bezala, hitz gehienek azentua azkenaurreko silaban jaso-
tzen dute flexiorik gabeko formetan. Dena den, hau ez da posibilitate bakarra eta
hauen ondoan oxitonoak eta baita proparoxitonoak ere aurkitzen ditugu.

Azentua fonemikoa da erronkarieraz. Hurrengo adibideek erakusten duten bezala,
antzeko egitura duten hitzek askotan azentuera desberdinak dituzte:⁵

⁴ Atal honen erdarazko bertsio bat agertu da *ASJU*-n (Hualde 1995c).

⁵ Datuen iturriak: Beloqui et al. (1953) [B53], Mitxelena (1954, 1958) [M54], [M58], Izagirre (1959, 1961) [I59], [I61], Artola (1977, 1980, 1991) [A77], [A80], [A91], Alastuey & Artola (1990) [AA90] eta Allières & Mitxelenaren 1958ko grabaketa [AM58]. Atzetik datorren zenbakia orrialdearena da.

- (38) Erronkaria: azentuzko kontrasteak
- | | |
|---------------------------------------|---|
| <i>biar</i> [bi.ar] [M54:282] ‘bihar’ | <i>biár</i> [bjár] [M54:282] ‘behar’ |
| <i>égun, éguna</i> [B53:260] | <i>ulún, ulúna</i> [B53:263] ‘ilun’ |
| <i>píperr-a</i> [AM58], [I61:405] | <i>izúr-r-a</i> [AM58] ‘hezurra’ |
| <i>ádarr-a</i> [I61:392] | <i>gezúr-r-a</i> [AM58] |
| <i>irin-a</i> [AM58] | <i>urin-a</i> [AM58] ‘koipea’ |
| <i>ikatz-a</i> [I61:403] | <i>orrátz, orrátza</i> [B53:270], [I61:405] |
| <i>ésku, eskia</i> [B53:261] | <i>eskúa</i> [B53:261] ‘eskuina’ |
| <i>gáztulu</i> [I59:307] ‘gaztelu’ | <i>garraztúlu</i> [I61:394] ‘rastrillo’ |
| <i>báskari-a</i> [I59:286, B53:260] | <i>aigári-a</i> [B53:259] ‘afaria’ |

Deskribapenaren aldetik, oinarri bisilabadunak eta luzeagoak bereiztea lagungarria izan daiteke, neurri batean joera ezberdinak aurkitzen baititugu bi sailotan. Oinarri bisilabadunekin hasiz, flexiogabeko hitz gehienetan azentua lehen silaban (= azkenurrekoan) dugu, (39a). Talde típiago batean, azentua azken silaban ezartzen da, (39b). Zubereraz bezalaxe, irristariz bukatutako hitz guztiak bigarren talde honetan sartzen dira (beste iturririk aipatzen ez denean, adibideak Beloqui et al. (1953 [1988: 259-264, 267-271] lanetik hartu ditut):

- (39) Erronkaria: oinarri bisilabadunak
- a. Hitz paroxitonoak (azentuera orokorra)
- a1. bokalez bukatuak
áizpa, génte, séme, ándi, ázpi, bello, gáizto, márgu
 - a2. kontsonantez bukatuak
égun, gizon [B53:253], *mítel, káxal, biar, ságar* [AM58], *bélar, úrrats* [AM58], *ámets* [AM58]
 - a3. irristariz bukatuak
(ez dago adibiderik)
- b. Hitz oxitonoak
- b1. bokalez bukatuak (guti)
eskú [I59:302] (*eskú-a, eskú-ko* [M58:261]) ‘eskuin’, *ard⁶*
 - b2. kontsonantez bukatuak
aurér ‘alfer’, *abráts, bi.ótz*
 - b3. irristariz bukatuak
nasái [B53:249], *leprói* [AM58, I59:310], *izéi* [AM58], *karrói, xipói* [I61:397], *ardán*

Hiru silaba edo gehiagoko hitz flexiogabeetan ere azentuera orokorra edo markatugabea paroxitonoa bada ere, cf. (40a), alde batetik, bokalez bukatutako hitz anitzek azentuera proparoxitonoa dute, cf. (40b), eta bestetik, kontsonantez edo irristariz bukatutako hitz guztiek azentu oxitonoa dute, cf. (40c):

⁶ Hitz hauek jatorriz bokal sudurkariz amaitutakoak dira.

(40) Erronkari: Oinarri luzeak (hirusilabadunak eta luzeagoak)

a. Oinarri paroxitonoak

a1. bokalez bukatuak

aigáři-a, *alába*, *aziénda*, *baránka* [I61: 400], *lokáınka*, *karrika*, *arráultze*, *ezpóna* [I61: 400], *marzúza* [M58: 319, I59: 293, 310], *bilgorra* [I59: 287], *garrántxa* [I59: 307], *ondógra* [I61: 401], *piżkólte* [I61: 405], *inaztúra* [I59: 291], *gullúrdi* [I59: 308], *katédra* [I59: 309, AM58], *egúzki-a*, *uztárre* [I61: 406], *garraztúlu* [I61: 394], *oropilo* [I61: 396]

a2. kontsonantez edo irristariz bukatuak

(ez dago adibiderik)

b. Oinarri proparoxitonoak

b1. bokalez bukatuak

áinguru [I59: 300], *álkate* [I61: 401], *ánbula* [I59: 301], *ánburri* [I61: 402], *áragi* [I59: 301], *áxuri* [I59: 302, B53: 259], *áxari* [I59: 285], *báskari-a* [I59: 286, B53: 260], *bézino*, *bétatxu* [AM58, I59: 303], *kósi-no* [AM58, I59: 309], *kúrzułu* [I61: 404], *kúxela* [I59: 309], *ázkaži*, *lántzaro* [I61: 401], *órdoki* [I61: 404], *úñurri*, *zámari*, *xúxuli-a* [AM58, I59: 313] (*xúxulu*), *gáitzuru* [I61: 403], *gáztulu* [I59: 307], *záużkari* [I59: 295], *lu-múkulu* [I59: 305], *útzulu-ka* [I61: 406]

b2. kontsonantez edo irristariz bukatuak

(ez dago adibiderik)

c. Oinarri oxitonoak

c1. kontsonantez bukatuak⁷

axaxál [I59: 302], *beltzarrún*, *alargún* [B53: 251, I59: 283], *eraztún* [I59: 289, 306], *txokorrakin* [I61: 405], *garagár* [I59: 307], *itaxúr* [I59: 291]

c2. irristariz bukatuak

arratói [B53: 259], *murtzikói-a* [AM58], *ukarái* [B53: 263, I61: 405, I59: 312, AM58]

c3. bokalez bukatuak (oso arraroak)

txurrunplú [I61: 405] ‘sampion’

Dauzkagun datuen arabera, kontsonantez edo irristariz bukatutako oinarri luze guztiak oxitonoak dira. Beraz, hiru silaba edo gehiagoko oinarriekin, azken silaba astuna bada, azentu oxitonoa dugu. Bestaldetik, azken segmentua bokala bada, azentu paroxitonoa edo proparoxitonoa izan dezakegu (*txurrunplú* bezalako salbuespen bereziren bat alhora uzten badugu).

Azken segmentua gorabehera, hitz elkartu eta eratorri askotan azentua azken silaban doa:

(41) Erronkaria: hitz eratorri eta elkartu oxitonoak

ama-ñi, *uskal-dún* [AM58], *ronkari-ár* [AM58], *intzag-úr* ‘nuez’, *ama-bi* [B53: 258], *expel-dói* [I59: 307], *aldai-mé* [I59: 283] ‘falda o delgados del cerdo’

⁷ Hauetariko asko konposatu zaharrak dira, dudarik gabe.

Adibide hauetan, noski, oxitonotasunaren zergatia azentu unitatearen tamaina da. Azentu oxitonoa dugu hitzak bi azentu unitate dauzkalako, bigarrena silababakarra delarik.

Azentua ez da inoiz oinarriaren azkenhirugarren silaba baino ezkerralderago agertzen. Beraz 'hiru silabako leihoaren' fenomeno ezaguna aurkitzen dugu erronkarieraz. Hala ere, azentua azkenlaugarren bokoidean (baina azkenhirugarren silaban) agertzen da *ápario* [B53: 259, I59: 301, Izaba] bezalako adibide batean (baina *apário* [B53: 268] Uztarrotzen). Leihoa definitzeko silaba kopurua hartzen da kontuan.

Bigarren jeneralizazio garrantzitsu bat, kontsonantez edo irristariz bukatutako oinarri hirusilabadun eta luzeago guztiek azentua azken silaban dutela da. Egoera hau nahikoa harrigarria da, kontsonantez bukatutako oinarri bisilabadunetan azentuerarik normalena paroxitonoa baita, eta ez oxitonoa. Patroi orokor desberdinak ditugu, bada, oinarri labur eta luzeekin.

Azentuera proparoxitonoaren banaketan beste murriztapen bat ikusten dugu datuetan. Hots, dauzkagun adibide proparoxitono guztietan azken eta azkenaurreko silabak arinak dira. Jeneralizazio hau benetakoa bada, eta ez datuen urritasunak sortua, Erronkarieraren azentu sistema [+kuant] dela baieztatzen du.

Momentuz oinarri bisilabadunak albora utziz, hurrengo leihoak aurkitzen ditugu, beraz, azentuaren banaketan:

- (42) Erronkaria: «leihoak» oinarri luzeetan
- a. Azentua oinarriaren bukaeran kokatutako hiru silabako leihoan ezartzen da beti eta inoiz ez ezkerralderago: azentua azken, azkenaurreko edo azkenhirugarren silaban ezar daiteke.
 - b. Azkenaurreko silaba astuna bada, leihoak bi silaba ditu: azentua azken edo azkenaurreko silaban baizik ezin da ezarri. Adib: *egúzkei*, *alargún* baina ez **egúzkei*.
 - c. Azken silaba astuna bada, leihoak silaba bakar bat du: azentua azken silaban baizik ezin da ezarri. Adib: *alargún*, baina ez **alargún*, **alárgun*.

Hala ere, oinarri bisilabadunekin, hirugarren puntua, (42c), ez da betetzen. Esan bezala, oinarri bisilabadunekin azentuera orokorra paroxitonoa da, bai bokalez (adib. *méñdi*) eta baita kontsonantez ere (adib. *mitiñ*) bukatzen diren oinarriekin (ez, ordea, irristariz bukatzen direnekin).

(42)ko murriztapenak eta gaztelaniaz aurkitzen direnak antzekoak dira (ikus 3. kap.). Ikusi dugunez, gaztelaniaz ere hiru silabako leiho bat dugu. Gainera, azkenaurreko silaba astuna bada azentuera proparoxitonoa ez da aurkitzen normalean eta azken silaba astuna bada oso proparoxitono guti ditugu (*Júpiter*, *régimen*) eta hauek irregularrak dira. Azken kasu honetan, azken silaba kontsonantez bukatzen denean, azentuera orokorra oxitonoa da gaztelaniaz (*almiréz*, *virtúd*) eta markatua paroxitonoa (*alférez*, *lápiz*). Erronkarieraz, aldiz, silaba kopuruaren arabera jeneralizazio desberdinak aurkitzen ditugu kontsonantez bukatutako oinarriekin. Honek zailtasunak sortzen dizkio analisiari, argi egon behar duenez.

Aipatu bezala, dauzkagun datuen arabera, erronkarierarena [+kuant, +ertz] sistema bat dela esan dezakegu. Hau da, azentua ertz batetik (bukaerako ertzetik) kontatuz ezartzen da eta silabak arinak edo astunak diren hartzen da kontuan, nahiz eta, salbuespenez, bisilabadunetan azken silabaren pisuak garrantzirik ez izan. Aipatutako

joera eta murriztapenen zuzentasuna onetsiz, hurrengo lerroetan analisi metriko bat garatzen saiatuko gara. Baina horrekin hasi baino lehen, kuantitatearen eta azentuaren arteko harremana xehetasun gehiagorekin ikusi behar dugu.

Hirusilabadun eta luzeagoko oinarriekin hasiz, silaba egitura kontuan hartuz aurkitzen ditugun azentu patroï bakarrak (43)koak dira. \bar{o} keinuaz silaba astun (itxi) bat adierazten dugu, \check{o} keinuaz silaba arin (ireki) bat, eta \bar{o} keinuaz edozein motatako silaba bat:

- (43) Erronkaria: azentu patroïak oinarri hirusilabadunetan
- | | | |
|------------------------------|--|--|
| a. o \check{o} \bar{o} | azentu oxitonoa | <i>a.xa.xál</i> |
| b. o \bar{o} \bar{o} | azentu oxitonoa | <i>a.lar.gún</i> |
| c. o \bar{o} \check{o} | azentu paroxitonoa | <i>ga.rrán.txa, piz.kól.te</i> |
| d. o \check{o} \check{o} | azentu paroxitonoa
edo proparoxitonoa | <i>a.lá.ba, mar.zú.za</i>
<i>gáz.tu.lu, ú.nu.ri</i> |

Beraz, azken silaba astuna bada, azentua silaba horretan doa. Azkenaurreko silaba astuna bada eta azkena arina, azentua azkenaurrekoan ezartzen da. Azken bi silabak arinak badira, azentua azkenaurrekoan (normalean) edo azkenhirugarrenean joan daiteke.

Datuak aztertzeko erabiliko dugun tresna nagusia kuantitatezko oin trokaikoa da unitatearen bukaeran ezarrita. Oin honek honako tankerak izan ditzake: (a) bi silaba, bigarrena arina delarik, (\check{o} \check{o}), (\bar{o} \check{o}), edo (b) silaba astun bakar bat, (\bar{o}) (Hayes 1995). Tresna honek azentu paroxitonoa ematen digu unitatea bokalez bukatzen denean eta azentu oxitonoa unitatea kontsonantez bukatzen denean. Hauek dira patroï nagusiak oinarri luzeekin:

- (44) Erronkaria: kasu orokorra, kuantitatezko oin trokaikoa eskuinaldean
- | | |
|-------------------|---|
| adibidea | metrifikazioa |
| <i>garrastúlu</i> | \check{o} \bar{o} (\check{o} \check{o}) |
| <i>pizkólte</i> | \bar{o} (\bar{o} \check{o}) |
| <i>alargún</i> | \check{o} \bar{o} (\bar{o}) |

Azentuera proparoxitonoa azken silaba estrametrikkoa eginez lortzen dugu.

Kontsonantez bukatutako oinarri luze guztiak oxitonoak direnez gero, silaba arinak baizik ezin daitezkeela izan estrametrikokoak onets dezakegu. Azkenaurreko silaba astuna bada, berdín digu azken silaba metrikoa edo estrametrikkoa izan; edozein kasutan, azentua azkenaurrekoan egongo da. Hurrengo adibideek erakusten duten moduan, azentu proparoxitonoa lortzeko, azken bi silabek arinak izan behar dute:

- (45) Erronkaria: estrametrikalitatea
- | | |
|---|------------------------|
| (\bar{o} \check{o}) < \check{o} > | Adib.: (gáz.tu). <lu> |
| \bar{o} (\bar{o}) < \check{o} > | Adib.: piz. (kól).<te> |

/pizkolte/ bezalako hitzekin ezin dugu azentuera proparoxitonoa izan bukaeratik metrifikatzen badugu, bai (\bar{o} \check{o}) eta baita (\bar{o}) < \check{o} > ere oin trokaikoak baitira. Ezin gaitzake harantzago joan. /alargun/ bezalako unitateetan estrametrikalitatea ez da inoiz ezartzen azken silaba astuna delako.

Sistema honek (kuantitatezko oin trokaikoa gehi azken silaba arin baten aukerako estrametrikalitatea) oinarri luzeekin aurkitzen ditugun patroïak sortzen ditu. Ez dugu

txurrunplú bezalako hitz baten azentuera azaltzen, baina adibide hau oso salbuespen markatutzat hartzen dugu. Hitz eratorri eta elkartuak hurrengo atal batean aztertuko ditugu.

Orain falta duguna oinarri bisilabadunen azentueraren azalpena da. Esan bezala, hitz hauetan azentuera orokorra paroxitonoa da: *méñdi*, *mítíl*, *ságar*. Azentuera oxitonoa posiblea da, baina maiztasun txikiagoa erakusten du: *ulín*. Argi dago oinarri luzeagoetarako proposatutako analisiak ez duela funtzionatzen kasu honetan. Nolabaiteko aldaketa bat egin behar dugu analisisian. Posibilitate bat izango litzateke unitate bisilabadunekin oin trokaikoa ez dela kuantitatezkoa proposatzea; edo bestela, unitate hauetan azken kontsonantea estrametrikkoa dela normalean.

Bestaldetik, unitatea irristariz bukatzen bada, azentu oxitonoa dugu beti; bisilabadunekin nahiz luzeagoekin: *ixéi*, *arratói*. Beraz, oinarri bisilabadunen kasuan, kontsonantez bukatutakoak eta irristariz amaitutakoak oso modu desberdinetan portatzen dira. Hau kontuan hartuz, badirudi bisilabadunekin ere [+kuant] sistema bat dugula eta *mítíl* bezalako hitzen azentuera azaltzeko aterabide egokiena azken kontsonantearen estrametrikalitatea dela.

Datuak hain mugatuak direnez gero eta datu gehiago biltzeko posibilitaterik ez dagoenez, ezin dugu ziurtatu ikusi ditugun jeneralizazioak zuzenak ote diren. Baina esandakoa zuzena bada, gaztelaniaren eta latinaren azentuerarekiko antzekotasun nabaria ikusten dugu. Hizkuntzalari batzuek erronkarietaren azentuera beste modu batera ikusi dute. Adibidez, Martinet-ek (1955: 337) erronkarietaz azentua oso maiz hitzaren lehen silaban agertzen dela azpimarratu zuen, berak proposatutako euskal proto-azentueran bezala. Hala ere, datuak kontu handiagok aztertzen ditugunean, azentua oinarriaren bukaeratik kontatuz ezartzen dela ikusten dugu; ez hasieratik. Azentua ez da inoiz agertzen oinarriaren azkenhirugarren silaba baino ezkerralderago. Are gehiago, nahiz eta *gízona*, *béxino* eta antzeko hitzek kontrako irudia erakutsi, azentu proparoxitonoa oso mugatua da, azentu unitate bezala oinarria hartzen dugunean eta silaba egitura kontuan hartzen dugunean.

4.4.2. *Izenki flexiodunak*

Azentuzko ezaugarrien aldetik, flexiozko atzizkiak bi taldetan bana daitezke: batzuek azentua hartzen dute (atzizki azentudunak) eta besteek ez dute inolako eraginik azentuaren ezarketan (atzizki neutral edo azentugabeak). Zubereraz bezala, azentua pluralaren atzizkia daraman silaban ezartzen da pluraleko forma guztietan, absolutiboan izan ezik. Zubereraz bezala, /-rát/ atzizkiak ere azentua hartzen du. Beste forma flexiodun guztietan, atzizkia neutroa da eta azentua oinarrian ezartzen da, forma flexiogabearen silaba berean.

Forma flexiodunen azentueran zubererarekiko antzekotasuna aurkitzen dugu gauza batzuetan; baina baita desberdintasunak ere. Aipatu bezala, azentua erakartzen duten atzizkiak berdinak dira bi euskalkietan. Beste alde batetik, eta Mitxelena (1954[1988: 295]) azpimarratzen duen moduan, zubereraz azentua hitzaren azkenaurreko silabara mugitzen da singularrean eta absolutibo pluralean: *míthil*, baina *míthila*, *míthilak*. Erronkarietaz, aldiz, azentua silaba berean agertzen da forma flexiogabea eta absolutibo singular eta pluralean: *mítíl*, *mítíla* [B53: 262], *mítílak* [Ar77: 87]. Nolabait esateko,

atzizki azentugabe hauek neutroak dira erronkarieraz, baina ez zubereraz. Hona hemen adibide gehiago absolutiboan, azentuaren kokagune tinkoa erakutsiz:

(46) Erronkaria: absolutiboa

méñdi [M54: 295], *méñdia* [B53: 251]

úrzo, *úrzuá* [B53: 263]

gízon, *gízona*, *gízónak* [M54: 295]

morrói, *morróya*, *morróyak* [M54: 295]

orrátz, *orrátza* [M54: 295]

béziño, *béziñuà* [B53: 260]

gáztulu, *gáztulia* [I59: 307]

áxari, *áxaria* [I59: 285]

Absolutibo singularrek eta pluralek hain maiztasun handia dutenez, azentua hitzaren azkenurreko silaban joatea oso patroí normala da erronkarieraz, nahiz eta, goian erakutsi bezala, forma flexiogabeetan ohikoa ez izan.

Oinarria bokalez bukatzen bada, azentua hitzaren silaba berean doa forma flexiogabeen eta absolutibo mugatuan, azken bokalak silabizitatea galtzen baitu atzizkiaren aurrean, diptongoa sortuz. Beraz, *méñdi* eta *méñd[j]a* paroxitonoak dira eta *áxuri* eta *áxur[j]a* proparoxitonoak. Aldiz, *gízon* hitzak azentu paroxitonoa du eta *gízona* singularrak, proparoxitonoa (baina oinarriaren azkenurreko silaban bi kasuetan). Honek, neurri batean, kontsonantez bukatutako oinarriek erakusten dituzten azentuzko murriztapenak azaltzen ditu. Konturatzen bagara, kontsonantez bukatutako oinarri proparoxitonoak izango bagenitu, hauek azentua azkenlaugarren silaban lukete absolutibo mugatuan (cf. gaztelaniaz *régimen* bezalako hitzek sortzen dituzten arazoak pluralean). Goian aztertu ditugun murriztapenetarako oinarria azentu unitatetzat hartu badugu ere, bada joera oinarri-gehi-mugatzaila unitatean ere betetzeko.

Ikusiko dugunez, oinarri-bukaerako bokalak irrirtari bihurtzea, adib. *méñd[j]a*, Nafarroako beste hizkera askotan ere gertatzen da, hala nola zaraitzueraz, aezkeraz eta baztaneraz (Mitxelena 1976 [1987: 255], Txillardegi 1984: 383), beste hizkera hauetan azentuera oso ezberdina izan arren. Fenomeno honen muga Baztan eta Bidasoako eskualdeen artean pasatzen da; Labaien edo Ituren: *méñdia*, Hondarribia: *méñdiya*. Egoera zertxobait konplexuagoa da Ultzaman eta Lapurdiko zenbait lekutan. Eskualde hauetan *méñdie* (Ultz.), *méñdia* (Lap.) badugu ere, beste aldetik *étx[j]a* dugu, cf. 4.9 atala.

Beste forma flexiodun batzuk aztertzen baditugu, kasu gehienetan oinarri flexiogabearen azentuerari utsiko zaiola ikusiko dugu, absolutiboarekin gertatzen denez. Pluralean eta helburuzko adlatiboan, aldiz, azentua atzizkian doa:

(47) Erronkaria: forma flexiodunak

NORK

Sing.: *sémeak* [I61: 398] (*séme*), *gízónak* [I59: 290, 308], *máztiaak* [M54: 295] (*máztie*), *morróyak* [M54: 295] (*morrói*), *txákurrak* [I61: 397]

Plur.: *emaztiek*, *gízónék* [M58: 295, I59: 308]

NORI

Sing.: *sémeari* [I62: 398], *morróyari* [M54: 295], *txákurrari* [M54: 295], *áurrari* [M54: 395] (*áur*)

Plur.: *semér* [I61: 398]

NOREN

Sing.: *sémearen* [I61: 398], *négiaren* [M54: 295]

Plur.: *semén* [I61: 398], *morroién* [I59: 314]

NOREKIN

Mugag.: (*bi*) *morroíreki* [M54: 295], *zórreki* [I61: 406]

Sing.: *sémeareki* [I61: 399], *orrátzareki* [M54: 295] (*orrátz*)

Plur.: *seméki*, *alabéki* [I61: 399] (*alába*), *mitiléki* [I59: 297, 314], *artzayéki* (*artzái*), *emaztéki*

NORENTZAT

Sing.: *mayoráentako* [M54: 295] (*mayorál*)

Plur.: *gizonéntako* [I59: 308]

NORTAZ/ZEREZ

Mugag.: *gizonex*, *néskaz* [I61: 399] (*néska*)

Sing.: *éskiaz* [M54: 295] (*éska*)

PARTITIBOA

Mugag.: *juizjorik*, *kónturik*, *nobedáderik* [M54: 295], *gáizarik* [B53: 251], *espartíñarik* [Ar77: 82] (*espartíña*)

NON

Sing.: *méndian* [Ar77], *úrtian* [M54: 295] (*úrte*), *állurrián* [Ar77: 85] (*állur*), *gáitzurian* [I61: 403] (*gáitzuru* ‘cuartal’)

Plur.: *etsétan* (*étsé*), *idiétan* (*idi* ‘hiri’) [I61: 399]

NORA

Mugag.: (*zomat*) *étsetra* [I61: 398], *iditra* [I61: 398], *egútxatra* [I61: 406] (*egútxa*, *eguátxa*)

Sing.: *étsera* [I61: 400, 407], *méndiara* [M58: 295, I59: 311], *lúrriara* [M58: 295], *rosárioarà* [Ar77: 81], *bésoara* [I59: 284] (*béso*), *léixoara* [I59: 294] (*léixo*), *bízkarreara* [I59: 287, 298] *egúzxiara* [I61: 394]

Plur.: *etsétra*, *idiétra*, *lekiétra*, *eguatxétra* [I61: 391], *besoétra* [I59: 284], *leixoétra* [I59: 294]

NORAT

Sing.: *etserát* [I61: 309, 407], *mendiarrát* [I61: 399]

NONDIK

Mugag.: (*zér*) *étsetarik*, *egútxatarik* [I61: 407], *éuritarik* [I61: 403]

Sing.: *ménditik* [M54: 295, I59: 297], *zilotik* (*zilo*) [M54: 295], *állurretik* [Ar77], *étserik* [I59: 297]

Plur.: *etsétarik*, *mendiétarik* [I61: 407]⁸

Ikusten denez, flexiozko atzizki gehienak neutroak dira azentuaren aldetik. Ez dira kontuan hartzen azentua ezartzeko. Ondorioz, oinarria silababakarrekoa bada, azentua lehen silaban izango dugu:

⁸ Dirudienez, *gúzietarik* [B53: 253; Ar77: 85, 90, AA90] (*gúz*) hitzean azentua oinarrian agertzen da salbuespenez.

- (48) Erronkaria: silababakarreko oinarriak
- | | |
|------------------------------|------------------------------|
| <i>zúr-areki</i> [AM58] | <i>úr-eki</i> [Ar77: 91] |
| <i>ótz-areki</i> [AM58] | <i>lúrr-iarra</i> [B53: 255] |
| <i>lán-areki</i> [Ar77: 93], | <i>bát-eki</i> [AM58] |
| <i>lán-iarà</i> [Ar77] | |

Atzizki neutroen portaera azaltzeko, azentu unitatetik at gelditzen direla proposa dezakegu. Aldiz, /-é-/ eta /-lát/ atzizki azentudunak, unitatean sartuko lirateke eta azentu lexikoa izango lukete. Azentuera orokorrean eta azentu lexikorik ez badago, azentua aurreko atalean azaldu bezala ezartzen da (hau da, unitatearen bukaeran kuantitatezko oin trokaiko baten bidez, bisilabadunetan azken kontsonantea estrametrikoa delarik):

- (49) Erronkaria: azentu unitateak
- | | | |
|---------------|--------------|-------------------|
| /gizon-a/ | [gízon]a | <i>gízona</i> |
| /gizon-ak/ | [gízon]ak | <i>gízonak</i> |
| /gizon-ék/ | [gízonék] | <i>gízonék</i> |
| /zur-a-reki/ | [zúr]areki | <i>zúrareki</i> |
| /morroi-a-ri/ | [morrói]ari | <i>morróyari</i> |
| /seme-a-reki/ | [séme]areki | <i>sémeareki</i> |
| /artzai-é-ki/ | [artzaié]ki | <i>artzaiéki</i> |
| /idi-tra/ | [ídi]tra | <i>iditra</i> |
| /idi-é-tra/ | [idié]tra | <i>idiétrá</i> |
| /mendi-a-ra/ | [méndi]ara | <i>méndiara</i> |
| /mendi-a-rát/ | [mendiarrát] | <i>mendiarrát</i> |

4.4.3. /-a/-z bukatutako oinarriak

Zubereraz bezala, /-a/-z bukatzen diren oinarrien forma flexiodunek azentuera berezia dute. Hitz hauetan, oinarriaren azken bokala eta mugatzailea batu egiten dira eta sortzen den silabak azentua darama. Era honetan, flexiorik gabeko oinarria eta absolutibo singularra modu desberdinetan azentuatzen dira nahiz eta azalean egitura segmental bera izan; adib. *neska bàt* [B53: 255], baina *neská* [B53: 255] ‘abs sg’ /neska-a/. Hau zubereraz dugun fenomenoaren izen arren, analisisa zailagoa da erronkariaraz zubereraz baino. Zubereraz azentu unitatea oinarria gehi mugatzailea da. Ere honetan azentua azkenaurreko silaban ezartzen badugu, /mendi-a/ *méndia* eta /neska-a/ *neskáa* → *neská* lortuko dugu zuzenean. Beste kontrazio batzuk ere azentua ezarri ondoren gertatzen dira zubereraz, hala nola *méndian* → *méndin*. Beraz *neská* bezalako hitz baten azentuerak ez du arazo handirik sortzen zubereraren azentu sisteman, haren azpian /neska-a/ dugula erreparatzen badugu. Erronkariaraz, aldiz, ez dugu *méndia*, *méndia* baizik. Hau da, mugatzailea ez da azentu unitatean sartzen normalean. Hau hola izanik, ez litzateke /neska-a/ *neská* espero erronkariaraz; baizik eta **neska(a)*, *méndia* bezalaxe. Argi dago, bada, *neská* lortzeko arau berezi bat behar dugula erronkariaraz, azentu sistema orokorrak ez baitu ematen.

Hurrengo adibideek flexiogabeko formaren eta absolutibo singularren arteko azentu bereizketa erakusten dute:

(50) Erronkariera: /-a/-z bukatutako oinarriak, absolutibo singularra			
oinarria	abs sg	oinarria	abs sg
<i>alába</i>	<i>alabá</i> [B53: 267, I59: 297]	<i>karríka</i>	<i>karriká</i> [I59: 299]
		<i>koxaléna</i>	<i>koxalená</i> [I59: 292]
<i>ainzpa</i>	<i>ainzpá</i> [I59: 283]	<i>kríma</i>	<i>krimá</i> [I59: 292]
<i>aixkóra</i>	<i>aixkorá</i> [I59: 301]	<i>ténpra</i>	<i>tenprá</i> [I59: 294]
<i>arrebá</i>	<i>arrebá</i> [I59: 284]	<i>tintilla</i>	<i>tintillá</i> [I59: 294]
<i>bórtá</i>	<i>bortá</i> [I59: 298]	<i>túpla</i>	<i>tuplá</i> [I59: 294]
<i>bilgórta</i>	<i>bilgorrá</i> [I59: 287]	<i>úda</i>	<i>udá</i> [I59: 294]
<i>burrúña</i>	<i>burruñá</i> [I59: 287]	<i>zartégia</i>	<i>zartegiá</i> [I59: 295]
<i>eguátxa</i>	<i>eguatxá</i> [I59: 288]	<i>zénbra</i>	<i>zenbrá</i> [I59: 295]

Azentua kontrazioa duen silaban agertzen da kasu guztietan, ez bakarrik absolutiboan. Hona hemen adibide batzuk:

- (51) Erronkariera: /-a/-z bukatutako oinarriak
 NOR pl.: *aiták* [I61: 398], *lokeinkák* [Ar77: 93], *gaztañák* [Ar77: 94], *tintillák* [I59: 294] (cf. *ódot-ak* [Ar77: 93])
 NORK sg.: *alabák* [I61: 398], (cf. *séme-ak*)
 NORI sg.: *ainzpári* [Ar77: 81], (cf. *séme-ari*)
 NOREN sg.: *alabáren* [I59: 301, I61: 398], *fiestáren* [Ar77: 85], (cf. *séme-aren*)
 NOREKIN sg.: *aziendáreki* [B53: 250], *ainzpáreki* [Ar77: 81], (cf. *séme-areki* [I61: 399])
 NON sg.: *plaztán* [Ar77: 87, 92], *bañerán* [Ar77: 92], *tenprán* [Ar77: 92], (cf. *méndi-an*)
 NORA sg.: *espartiñára* [Ar77: 80], *mezára* [I59: 292, Ar77: 81] (cf. *méndi-ara*)

Tresna edo mekanismo berezi bat behar dugu, bada, azentuaren eta kontrazioaren arteko harremana lortzeko. Salbuespenez, mugatzailea azentu unitatean sartzen da oinarria beheko bokalarekin bukatzen denean:

- (52) Erronkariera: azentu unitatea /-a/-z bukatutako hitzetan
- | | | |
|----------------------------|-----------------|---|
| Egitura morfologikoa | Azentu unitatea | Azentu ezarketa |
| | | (x .) |
| Kasu orokorra /seme-a-ren/ | [seme]aren | [séme]aren <i>sémearen</i> |
| | | (x .) |
| Kasu berezia | /alaba-a-ren/ | [alabaa]ren [alabáa]ren <i>alabáren</i> |

Bestaldek /-é-/ pluraleko atzizki azentuduna duten formetan, adib. *alabék* [I61: 398] ez dago arazorik, ikusi bezala atzizki hau beti sartzen baita azentu unitatean.

Kasu batzuetan azentuera analogikoa edo paradigmaticoa aurkitzen dugu /-a/-z bukatzen diren oinarrien zenbait adibidetan. Adibidez, *ídiko* 'hiriko' dugunez gero, era berean /eliza-ko/ forma hartuz **elizako* espero genuke, baina *elizáko* [I61: 398] aurkitzen dugu. Adibide honetan kontraziorik ez dagoenez gero, azentuerak paradig-

ma bereko beste formen analogiaz sortua izan behar du; hala nola *elizán* [AM58] /eliza-a-n/ eta *elizára* [AM58] /eliza-a-ra/, cf. *méndiara*. Beste adibide bat *karrikátik* [Ar77: 95] da. Hemen ere /karrika-tik/ dugu, cf. *méndi-tik*, eta azentuera analogiaz sortu da. Ez dakigu zein neurritan NONGO eta NONDIK formak singularreko beste formekiko azentuera hartu zuten analogiaz /-a/-z bukatutako hitzekin.

4.4.4. *Hitz eratorri eta elkartuen azentuera*

Zubereraz bezalaxe, eratorpen atzizki batzuk azentudunak dira eta beste batzuk, aldiz, neutroak. Konparatiboak, adibidez, azentua erakartzen du:

- (53) Erronkaria: konparatiboaren azentuera
lodiágo [AM58], *finágo* [AM58], *meágo* [AM58, I59: 292, 309], *lúze*, *luzeágo* [AM58], *pésia*, *pesiágo* [AM58], *berantágo* [I61: 394] ‘beranduago’, *gaztiágo* [Ar77: 81], *zarrágo* [Ar77], *ederrágo* [Ar77: 87], *itsusiágo* [Ar77: 87], *ñoágo* ‘txikiago’ [AM58], *andiágua* [B53: 256], *úrrin*, *urrinágo* [I61: 397], *txikiágo* [I61: 402], *karatágo* [I61: 405], *obroxágo* [I61: 404]

Konparatiboaren /-ago/ atzizkia, beraz, azentu unitatean sartzen da. Izagirrek [I61: 392] *áintzína*, *áintzínkoa* adibideak ematen ditu, azentu lerraketarik gabe, baina konparatiboan *aintzínago*.

Silababakarreko atzizki batzuk azentu unitatean sartzen dira eta azentua jasotzen dute:

- (54) Erronkaria: eratorpen atzizki azentudunak
 /-ñó/ *aurñó bat* [I61: 393], *alabañóa* [I61: 401]
 /-ñí/ *amañí* [B53: 258], *aitañí* [B53: 267]
 /-(t)árr/ *uztarroztár*, *izabár* [AM58]
 /-(t)xún/ *aitaxún* [I61: 392], *amaxún* [I69: 393], *alabaixún* [AM58]
 /-dún/ *uskaldúna* [AM58], *aziendadún batí* [AM58], *garidún* [I59: 294], *ogidún* [I59: 313], *oxaldún* [I59: 313]
 /-xét/ *kolaxét* [I61: 395] (*kóla*), *kantitxét* [I61: 404]
 /-zár/ *apozár* [I59: 301], *aurerzár* [I59: 302], *neskatzár* [I59: 310]

Atzizki hauek, /-é-/ pluraltzaileak duen portaera bera erakusten dute. Azentu leikoa dute eta azentu unitatean sartzen dira.

Beste eratorpen atzizki batzuek, aldiz, ez dute azentua erakartzen; azentueraren aldetik neutroak direlarik:

- (55) Erronkaria: eratorpen atzizki neutroak
 /-garna/ *irorgarna*, *bigarna* (*bigarna* [B54: 256]), *laugarna*, *zörtzigarna*, *bederáizugarna* [AM58]⁹

⁹ Mota honetako hitzak ere elkartuak bezala azentua daitezke: *zázpigarnean* [Ar77: 83], *bòrgárna* [Ar77: 81]. Artolaren datuak Uztarrotzekoak direnez gero, agian Izabako eta Uztarrotzeko hizkeren arteko desberdintasun bat da.

/-ti/ *gezúrti*
 /-xi/ *néskaxi* [I61: 404]

Superlatiboaren azentuera ez dago hain garbi. Mitxelenak (1954 [1988: 296]) azentua oinarrian, eta ez atzizkian, ezartzen dela esaten digu (konparatiboan ez bezala) eta adibide hauek ematen dizkigu: *gáztena*, *zárrena* [M54: 296]. Hala ere, 1958ko grabaketan kontrako adibide hauek aurkitzen ditugu: *gúzitarik meéna* [AM58], *ñottuéna* [AM58], eta Izagirrek *urrinéna* [I61: 397], *urrinén* [I61: 405] eta *goruéna* [I61: 403] ematen dizkigu. Era berean, /-(l)ari/ atzizkiarekin ere kontsistentziarik gabeko adibideak ditugu: *dántzari* [I61: 402], azentu mugimendurik gabe, baina *úxtu*, *uxtulári* [I61: 406].

Agian atzizki aurrezentuatzailak zeuden, baina oso datu guti ditugu hau konfirmatzeko. Hitz eratorri batzuetan azentua mugitu egiten da flexiogabeko forman, baina ez da atzizkian ezartzen. Horrelako adibideak dira hurrengoak ([AM58] grabaketa-koak): *éria* ‘hatzamarra’, baina *eríkoa* ‘el dedal’, *élur* baina *elúrte bat*, *granba* (< *ganbra* < *cámara*) baina *granbátsoa*. Antza denez, atzizki hauek azentu unitatean sartzen dira, baina ez dira azentudunak.

Hitz konposatuetan, gehienetan, bigarren osagaiaren azentua gailentzen da eta lehendabiziko osagaiarena galtzen; adib.: *txokorrakin*, *txorrakinópil* [I61: 405]. Hona hemen beste adibide batzuk:

(56) Erronkaria: hitz elkartuak

aste-léna, *asti-ártia*, *asti-ázkena*, *neskan-éguna*, *ost-éguna* [B53: 258, AM58], *mi-lúz* [B53: 270], *senarr-emázteak* [I61: 405], *ogi-púska* [I61: 405], *lep-ezúrra* [I61: 404], *aur-zái* [I61: 393], *burar-mín* [I61: 400], *ezpain-mín* [I61: 394], *sor-bérri* [I61: 396], *etxe-gáina* [B53: 269], *mai-péan* [I61: 396, AM58], *besa-péa* [I61: 402], *ulun-pétik* [I61: 401], *etse-bórta* (mugagab.), *etse-bortá* (sg.) [I59: 289], *alke-báge* [I59: 298] (cf. *álkerik* [I59: 298]), *axuri-aríkoak* [I59: 300]

Izagirrek (1961: 391) ohartarazten du hitz konposatu argiak bi azenturekin ahoskatzen direla ahoskera zainduan: *anáxe-arrebák*, *zázpi-éin*, *óski-éli* ‘zapata pareá’, baina bigarren osagaiaren azentuarekin baizik ez hizkera arinean: *os.kié.li*, *zazpiéin*, *a.na-xea.rre.bák*.

Lexikalizatu gabeko konposatuetan, lehen osagaiaren azentua bigarren mailako azentu bezala ager daiteke: *bide-bérria* [AM58], *bágo-maltá* [AM58]. Hurrengoak ere bi azenturekin markatzen ditu Izagirrek: *ózpín-bélar*, *zídár-erezétún* [I59: 314]. Laburtuz, hitz elkartuetan bigarren osagaiaren azentua nagusitzen da orohar. Hizkera zainduan eta konposatu argietan, dena den, bi azentu izan ditzakegu.

4.4.5. Azentu bigarrenkaria

Azentua hitzaren bukaeratik kontatuz urrun badago, askotan bigarren mailako azentu bat aurkitzen dugu bukaeran, normalean azken silaban: *bigarná*, *bederátzugariná* [AM58]. Batzuetan, bigarren mailako azentua azkenaurreko silaban jar daiteke: *párrokotáko* [AA90], *lúrriaréino* [B54: 255]. *-radréino* atzizkiak azentua du beti, oinarriaren

azentua gorabehera: *Gárderadréino* [I61: 403], *korradréino* [I61: 404] ‘horraino’, *Zánkoza-radréino* [I6: 401]. Azentua dela-ta, atzizki honek hitz bat izango balitz bezala jokatzen du eta gaztelaniaren *-mente* atzizkiarekin erka daiteke.

4.4.6. *Azentua eta beste bilakaera fonologiko batzuk*

Normalean goiko bokalek silabikotasuna galtzen dute beste bokal baten aurrean, diptongoa sortuz: /mendi-a/ *ménd[ɰ]a*, /buru-a/ *búr[ɰ]a* (/u-a/ [ɰa]). Erdiko bokalak ere irristari bihurtzen dira ingurune berean [ẽ] edo [j], eta [õ] edo [w] emanez: *anax[ẽa]rrebák* [I61: 391], /asto-a/ *ást[õa]* [AM58], /seme-a/ *sém[ɰ]a*, /lexo-a/ *léx[wa]* [M54: 283]. Mitxelenak (1954) azpimarratzen duenez, bokala azentuduna denean ez da irristari bihurtzen (eta goiko bokalak ez dira igotzen): *méa* [M54: 282], *lóa* [AM58] (eta cf. [M54: 283]). *Biár* [bjár] [M54: 282] ‘behar’ adibideak diptongoa duen bitartean, *biar* [bí.ar] [M54: 282] ‘bihar’ hitzean hiatusa dugu. Bokal elkarketetan aplikatzen diren arau hauek guztiok, beraz, azentua hartzen dute kontuan. Era berean, /u/ bokala ez da [i] bihurtzen azentuduna denean: /su-a/ *sua* [M54: 283] eta ez **sia* (cf. *búru*, *búria*) eta *eskúa* [B53: 261].¹⁰

4.4.7. *Ohar diakroniko bat*

Esan dugu /-a/-z bukatutako oinarria duten hitzen azentuera (adib. /neska-a/ *neská*) nolabait asistematikoa dela erronkarietaz; sistemak /mendi-a/ *méndia* bezalako azentuerak sortzen baititu. *Neská* bezalako forma bat azaltzeko, lehenagoko garai batean *méndia* esaten zela pentsatu behar dugu, gaurko zubereraz bezala. Hau da, garai batean azentua unitatea oinarria gehi mugatzailea zela eta unitate honetan azentua paroxitonoa zela onesten badugu, /-a/-z bukatutako oinarrien azentuera arazorik gabe azaltzen da: *méndi*, *méndia*, *neska*, *neskáa*. Beraz, Zuberoako *méndia* Erronkariko *méndia* baino zaharragoa da.

Mitxelenak (1976 [1987: 254-255]) azpimarratzen duen moduan, sinkopa gertakariak ondorio berera garamatza.¹¹ Sinkopa, zaraitzueran bezain hedatua ez izan arren, nahikoa normala da erronkarietaz: *túpla* < **túpula* < *tipula* < *caepulla*, *kándra* < **kandera* < *candela*, *ténpra* < *tempora*, *ábre* < *abere*. Kontrazio hauek azaltzeko, garai batean azentua absolutibo singularraren azkenaurreko silaban ezartzen zela onartu behar dugu: **aberéa* > **abréa* > *ábrea*, **kanderáa* > *kandrá*. Sinkopa singularretik mugagabera hedatu zen hipotesi honen arabera.

Argi dago zenbait aditz formatan aurkitzen dugun sinkopa ez dela azaltzen ahal hipotesi honetan: *gra* < *gara*, *zrei* < **zarei* ‘zarete’, baina hau ez da arazo larria, aditz forma hauek askotan enklitikoak baitira. Hurrengo atalean sinkopa fenomenoaren xehetasun gehiagorekin miatuko dugu, zaraitzueraz are bortitzagoa baita.

¹⁰ Izagirrek *béso eskúa* [I59: 303] bildu zuen Izaban, baina *ésku eskía* [I59: 289] Uztarrotzen. Gómezek (1991: 400, n. 64) beste aldaera batzuk gehiago ematen ditu. Antza denez, erronkarietaz normalena *eskoi* zen.

¹¹ Sinkopa bokal azentugabean galera da.

4.5. Zaraitzuera

Egia esan, hiltzear dagoen Zaraitzuko euskararen azentueraz ez dakigu asko. Dena den, Mitxelena (1967, 1976) informazio apur bat ematen digu. Mitxelenaren datuen arabera, erronkieraz ez bezala, azentua ez da bereizgarria eta azkenaurreko silaban doa. Forma mugatuetan goranzko diptongoak sortzen dira:

- (57) Zaraitzuera
árdo, árđoa, béso, bésoa, lékña

Erronkieraz bezala, azentu ezarketa arauak diptongazioaren emaitzak hartzen ditu kontuan azentua azkenaurreko silaban ezartzeko.

Berriro, zaraitzueran hain indartsua den sinkopa (*korle* 'korrale', *trintate* 'trinitate', *apostru* 'apostolu', *tenpra* < *tempora*, etc.) azaltzeko, garai batean hiatus azentuduna genuela hartu behar dugu hipotesizat. Mitxelenaren (1976) hitzetan esateko, *á-rñ-a* izan baino lehen *a-rñ-a* zen, Zuberoan edo Bidasoaldeko hizkeretan bezala (eta Gipuzkoa-Bizkaietako euskalkietan bezala). Hipotesi honetan, bokal erorketa toniko-aurrekoan gertatu zen gehienetan:

- (58) Zaraitzuera: sinkopa
- | | | | | | |
|-------------------|---|--------------------------------|--------------------|---|-------------------|
| <i>korraléa</i> | > | <i>korléa</i> | <i>tenporá(r)a</i> | > | <i>tenprá(r)a</i> |
| <i>trinitatéa</i> | > | <i>trintatéa</i> ¹² | <i>apostorúa</i> | > | <i>apostrúa</i> |
| <i>misterióa</i> | > | <i>mistrióa</i> | <i>eramán-du</i> | > | <i>ermán-du</i> |
| <i>aberéa</i> | > | <i>abréa</i> | <i>aterá-du</i> | > | <i>atrá-du</i> |

Beranduago, hiatusa diptongo bihurtu zen eta azentua azkenaurreko silaba berrira mugitu zen:

- (59) Zaraitzuera: diptongazioa eta azentu lerraketa diakronikoa
- | | | | | | |
|-----------------|---|-----------------|--------------|---|--------------|
| <i>korléa</i> | > | <i>kórléa</i> | <i>arría</i> | > | <i>árría</i> |
| <i>abréa</i> | > | <i>ábréa</i> | <i>lekúa</i> | > | <i>lékúa</i> |
| <i>apostrúa</i> | > | <i>apóstrúa</i> | | | |

Sinkopa azaltzeko forma mugatuetatik hasi behar dugu, (58-59)an emandako adibi-deetan bezala. Adibidez, **aberéa* > **abréa* (eta gero > *ábrea*) bilakaeran sinkopa erraz azaltzen da: toniko-aurreko bokala galtzen da. Aldiz, **abére* mugagabea oinarritzat hartuko bagenu, bokalaren erorketaren arrazoia ez litzateke agertuko, galtzen den bokala azentuduna baita. Beraz, lehen esan bezala, sinkopa forma mugatutik mugagabera analogiaz hedatu zela onartu behar dugu hipotesi honetan: *abére* / *aberéa* > *abére* / *abréa* (sinkopaz) > *abére* / *ábrea* (diptongazioaz) > *ábre* / *ábrea* (analogiaz). Ez dakiguna zera da, diptongazioa sinkoparen hedapen analogikoa baino lehen gertatu zen ala ez.

I. Gamindek Espartzako azken euskal hitzuntariko batengandik jaso zituen datuen arabera, azentua ez da beti azkenaurreko silaban ezartzen, hau patroio orokorra izan arren. Hitza bisilabaduna denean, bai, azentua lehen silaban dago beti, (60a). Al-

¹² Adibide honetan galtzen den bokala tonikoa baino bi silaba ezkerralderago dago.

diz, hitza luzeagoa denean, bi azentuera aurkitzen ditugu: azentua hitzaren azkenau-
rreko (60b) edo azkenhirugarren silaban (60c) joan daiteke. Ez dakigu azentuaren ko-
kagunea lexikoki espezifikatua ote zegoen, erronkarieraz bezala, edo azentuerak alda-
keta librean ote zeuden.

Ezaguna denez, zaraitzueraz, /-a/-z bukatzen diren oinarriek absolutibo singula-
rrean *-ara* bukaera dute, *-r-* epentetiko bat sartzen delarik bi beheko bokalen artean.
Gisa honetako adibide batzuetan azentua are ezkerralderago dago, (60d):

(60) Espartza (Gaminde)

- a. *giltza, dirña, éskña, txérra, árdia, árdõa, lépõa, sémiã, gázñia*
- b. *egña, epéla, muskérra, jaungóikõa, begárñia, boróndia, neskátdõa*
- c. *bélarra, élurra, óllarra, sénarra, gázñara, alábara, arrébara*
- d. *kátedrara /katedra-a/*

Gamindek jasotako datu hauek zaraitzueraren azentuerari buruz geneukan iritzia
aldatzen dute. Orain ikusten dugunez, erronkarieraren eta Pirinioetako beste euskal-
kien arteko azentuzko muga ez zen erabatekoa. Baliteke, zaraitzueran, erronkarieran
bezala, oinarriek silaba desberdinetan hartzea azentua. Bestaldek, hala ere, erronka-
rieraz ez bezala, azentuak ez zeukan funtzio morfologikorik zaraitzueran. Erronkarie-
raren *gizonék* bezalako pluralak ezezagunak ziren zaraitzueraz, dakigunez. Eta *neská*
forma mugatuaren ordez, *neskara* aurkitzen dugu.

4.6. Erro eta Esteribar haranak (Mezkiritz, Usetxi, Eugi)

Funtsean azentuera mota bera aurkitzen dugu Pirinioetako hegoaldeko haran guz-
tietan zehar Zaraitzutik Baztaneraino (Espartzako hizkerarako egin dugun balizko
salbuespenarekin). Bi ezaugarri orokor aipa ditzakegu: azentua orohar azkenaurreko
silaban ezartzen da eta ez du balio fonologikorik. Hau da, hitz guztiak era berean
azentuatzen dira, salbuespen lexikorik gabe. Caminok (1997) aezkeraren azentuaz
esaten diguna bat dator deskribapen honekin.

Esteribarko azentuera Gamindek (1996a) ikertu du. Gainerako datu-iturri bezala,
Nafarroako euskaldunen mintzoak laneko Mezkiritz, Usetxi eta Eugiko grabaketak erabili
ditut (hemendik aurrera, NEM). Esan bezala, Erro eta Esteribarreko hizkeretan
azentua azkenaurreko silaban doa gehienetan. Azentuera orokor hau hurrengo adibi-
deetan ikusten da:

(61) Esteribar: azentuera orokorra (Gaminde 1996a)

- ó o *órma, lóya, málda*
o ó o *kópéta, senárta, sudúrre*
o o ó o *azazkála, andregáya, astíezkéna*

Aipatutako grabaketetatik ondoko adibideak atera ditugu, denak azentu paroxito-
noarekin hitzaren mailan:

(62) Erro/Esteribar (NEM)

Mezkiritz: *Orbára, Orbarára, Geróna, Geronára, Aribéara, Orbaizetára, Valentzñára,*
oyanéara, Aezkóáoko, karretéara, denboraráño, kanibétak, tenedóñak, kutxétak, espuma

dérak, espéla, denbóra aétan, kutzetáilak, bértze familiétan, yatékoz, iru gizon, sáku páre bat, refinétu, arrendátu.

Eugi: *azténdak, fabrike, denbóraz, leporáño, etxólak, kanbítetu.*

Usetxi: *frentéra, gogorra, idiékin, úden, patáta, illabetétan, lanéra, larrañéra, zázpi úrtetz, ebitétu, kosétxa printzípala.*

Mitxelena (1972) ematen dituen Eugiko datuek ere azentu paroxitonoa erakusten dute:

- (63) Eugi (Mitxelena 1972)
oñaztúre, asteléna, árrie, órdue.

Bai erdiko bokalek eta baita goikoek ere diptongoa sortzen dute beste bokal baten aurrean. Ingurune honetan erdiko bokalak erdiko edo goiko irristari bezala azal daitezke; baina edozein kasutan ez dute bokal asimilaziorik eragiten, azpiko goiko bokalek ez bezala. Azentua lehendabiziko silaban dugu, beraz, bokalez bukatzen diren bisilabadun oinarri guztietan:

- (64) Esteribar: Bokalez bukatutako oinarriak (Gaminde 1996a)
a. *bésõa, lépõa, itsésõa, péntzõa, ándrõa, barátzõa, itesúrõa, úrtõa, bídõa*
b. *búrõe, éskõe, árgõe, itúrõe, arpégõe*

- (65) Erro/Esteribar (NEM)
Mezkiritz: *mándõa, amar úrte búrõen, bízõa, kánpõan, étxe bakárrõan, kolórõa.*
Eugi: *yábõak, méndõe, terrénõak, derétxõa, permisõa.*
Usetxi: *gárõe, ólõa, ártõa, árdõek, dirõe, txérrõek, fréntõa, alúbõe.*
Batzuetan azentu unitatean hitz bat baino gehiago sartzen dira:

- (66) Erro/Esteribar (NEM): hitz bat baino gehiagoko azentu unitateak
Mezkiritz: *osaba zõena, utzi nuõela, bost gizon*
Eugi: *bueltatzen da*
Usetxi: *según nola artzén den, kosétxa biltzen*

Alderantziz, hitz polimorfemikoetan, azentua hitz osoa baino tipiagoa den unitate baten azkenurreko silaban eror daiteke. Kasu honetan, askotan beste azentu bat izan ohi da hitzaren azken silaban:

- (67) Erro/Esteribar (NEM): azentu unitatea hitza baino txikiagoa
Mezkiritz: *apreziatzékó*
Eugi: *emátékó, arréglatu zireláik, baztándarrák, abératsená, polliténá, edérrago, gústora, ze pasátiko dén, Baztángoindákó.*
Usetxi: *kantátzékó, etxérákó, búéltaka.*

Era berean, Gamindek (1996a) *-dako* eta *-gana* atzizkiekin azentua aurreko silaban ezartzen dela ohartarazten du; hau da, hitzaren azkenhirugarrean: *alabáindeko* 'sg', *alabéndako* 'pl', *alabáingana* 'sg', *alabéngana* 'pl' (cf. *alába, alabáiki* 'sg', *alabéki* 'pl'). Aldiz,

beste flexiozko atzizkiekin azentua beti azkenaurreko silaban agertzen da Gaminde-ren datuetan: *méndien*, *mendire*, *mendíétan*, *mendíétára*, *mendíetaráño*. -*dako* eta -*gana* atzizkien kasuan, analisirako aterabiderik zuzenena atzizki hauen azken silaba estrametrikotzat hartzea izango litzateke:

- (68) Erro/Esteribar: -*dako*
 (x .)
 [a la ben da <ko>] *alabéndako*

Hala ere, NEMeko grabaketetako datuak ikusita, badaude arrazoiak esateko hitz atzizkidunekin azentua hitz osoaren azkenaurreko silaban edo unitate tipiago baten azkenaurrekoan ezartzea aukerakoa dela, eta ez ezaugarri lexiko bat. Hitz berbera batzuetan azentuera batekin eta beste batzuetan beste azentuera batekin kausitzen dugu. Honela, Eugiko testu berean *Frántzierá* eta *Frantziera* aurkitzen ditugu, eta baita testu berean, *konsérbatú* baina *ajudikétu* ere. Honen zergatia aukeratzen den azentu unitatea izango litzateke:

- (69) Erro/Esteribar: azentu unitateak
 (x .) (x .)
 [kon tsér ba] tu [kon tser bá tu]

Azentua oinarriaren gainean jartzeko arrazoia enfasia izan daiteke: *idiékin eta bíorrekín* (Usetxi, NEM).

Gamindek azpimarratzen duen bezala, intonazio mantendua duten unitateetan (hau da, talde prosodikoaren bukaeran ez daudenak), silabarik prominenteena azkena da maiz edo gehienetan:

- (70) Erro/Esteribar (Gaminde 1996): azentuera oxitonoa
 [karri tút] [pipérrak]
 [alabák] [yán tu]
 [alabék] [yan dúte]
 NEM-eko grabaketan ere mota honetako adibideak aurkitzen ditugu:
- (71) Erro/Esteribar (NEM): azentuera oxitonoa
 Mezkiritz: *údan*, *udáko laná...akabátuz geróz ...*
 Eugi: *Erregenéko mugén*, eta *Baztángo mügen*
 Patroi hau intonazio mantenduaren ezaugarritzat har dezakegu.

4.7. Luzaide

NEM lanean aurkitzen den Luzaideko grabaketa entzunik, herri honetan ere Baztan, Erro eta Esteribarko azentuera erabiltzen dela esan dezakegu; hots, azentua unitatearen azkenaurreko silaban gehienetan eta kontraste lexikorik gabe. Eskuarki, azentu unitatea hitza da, (72a)ko adibideetan bezala. Badira, hala ere, hitz bat baino gehiago daukaten unitateak, (72b); eta baita hitz osoa baino tipiagoak diren unitateak ere, (72c):

(72) Luzaide (NEM)

- a. *elúrrak, lánĭan, úrtez, bíďiak, protejĭzen, bizĭki únak, méndĭak, kabála frángo.*
 b. *min itĕn du, muga órĭtan, pagatĭzĕn tu, yoan ártio, ari díre.*
 c. *Baigórri.tarrĕk, kabála.dúnak, Luzáide.ko.*

4.8. Baztan

Baztanen erabiltzen den azentuera Salaburuk (1984: 307-327) deskribatu du. Adibide guztiak lan honetatik hartuko ditugu. Salaburuk azpimarratzen duen bezala, Baztanen azentuak esanahiak bereizteko inolako balio fonologikorik ez badu ere, hitz solteetan ez da zaila azentua non dagoen antzematea. Alegia, azentua, normalean, hitzaren azkenaurreko silaban jartzen da:

(73) Baztan: azentuera orokor paroxitonoa

Larrankarriĕe, étxe, étĭĭa, gĭzonarendáko, telefónĭa

Hala ere, kontsonantez edo irristariz bukatzen diren flexiorik gabeko hitzek azentua azken silaban jaso dezakete:

(74) Baztan: azentuera oxitonoa kontsonantez bukatzen diren hitzetan

Sukilĕts, Ixterbéi, errán, eskualdún, gĭzon ~ gĭzón, lágun ~ lagún

Aurreko ataletan ikusitako Pirinioetako hegoaldeko beste hizkera guztietan bezala (eta zubereraz ez bezala), oinarri-bukaerako erdiko eta goiko bokalak irristari bihurtzen dira mugatzailearen aurrean, diptongoa sortuz:

(75) Baztan: oinarri-bukaerako [-behe] bokalak

/etxe-a/ étĭĭa, /ate-a/ áĭĭa, /sortu-a/ sórtĭe, Etxebérrĭa, Elizondókĭa

Aukera bezala, Baztanen ere, azentu unitatetzat hartzen den eremu morfologikoa hitz osoa baino tipiagoa izan daiteke hitz polimorfemikoetan; arrazoia erritmikoa, enfatikoa edo beste bat delarik:

(76) Baztan: azentu unitatea hitza baino tipiagoa

Elizóndo.koá, gĭzóna.rĕna, étxe.á

Alderantziz, era berean, azentu paroxitonoaren eremua hitza baino handiagoa izan daiteke; batez ere izena+adjektiboa edo partizipioa+laguntzailea bezalako hitz andanetan:

(77) *etxe xúrĕ, ate béltza, nór torri díre***4.9. Ultzama**

Ultzaman egitura morfologikoko berbereko hitz guztiak azentuera berdina erakusten dute, oso salbuespen gutirekin. Patroi orokorra paroxitonoa da, aurreko ataletan ikusitako hizkeretan bezala, baina konplexutasun batzuekin. Azter ditzagun hurrengo datuok (Ibarra 1994-tik hartuta):

(78) Ultzama

	mugagabea	abs. sg.	abs. pl
a.	<i>egún</i>	<i>egúne</i>	<i>egúnek</i>
	<i>okarán</i>	<i>okarána</i>	<i>okarának</i>
	<i>amorrái</i>	<i>amorráye</i>	<i>amorráyek</i>
b.	<i>ógi</i>	<i>ogíe</i>	<i>ogíek</i>
	<i>gorósti</i>	<i>gorostíe</i>	<i>gorostíek</i>
	<i>lárru</i>	<i>larrúe</i>	<i>larrúek</i>
	<i>inférnu</i>	<i>infernúe</i>	<i>infernúek</i>
c.	<i>néska</i>	<i>néskā</i>	<i>néskak</i>
	<i>alába</i>	<i>alábā</i>	<i>alábak</i>
	<i>séme</i>	<i>sémīa</i>	<i>sémīak</i>
	<i>diferénte</i>	<i>diferéntīa</i>	<i>diferéntīak</i>
	<i>ásto</i>	<i>ástūa</i>	<i>ástūak</i>
	<i>neskátō</i>	<i>neskátūa</i>	<i>neskátūak</i>

Adibideetan ikusten den bezala, azentua gehienetan azkenaurreko silaban badao ere, flexiozko atzizkirik gabeko hitzetan, hitza kontsonantez edo irristariz bukatzen bada, azentua azken silaban ezartzen da. Hitz flexiodunetan, aldiz, azentua beti azkenaurreko silaban doa, bokalez nahiz kontsonantez bukatu.

Bestaldetik, (78b) eta (78c)-ko adibideak konparatzen baditugu, oinarriaren amaierako erdiko eta goiko bokalak modu desberdinetan silabifikatzen direla ikus dezakegu. Atzizkiaren bokalaren aurrean goiko bokalek silabatasuna mantentzen duten bitartean, erdiko bokalak irristari bihurtzen dira, goranzko diptongoak sortuz. Suertatzen diren silaba egitura desberdinen ondorioz, azentua leku desberdinetan (baina beti azkenaurreko silaban) ezartzen da (78b) eta (78c)-ko adibideetan.

Azentueraren arabera, hiru oinarri mota bereiz ditzakegu, beraz:

(79) Ultzama: oinarri motak

- kontsonantez edo irristariz bukatzen direnak
- [+goi] bokalez bukatzen direnak, eta
- [-goi] bokalez bukatzen direnak.

Izagirrek (1966) bildutako datuek eman dugun deskribapena baieztatzen dute:

(80) Ultzama (Izagirre 1966)

I. Mugagabea

- bokalez bukatzen diren oinarriak
amár al baitéro, bórtz lengúsi, íru nekazári, zázpi igetelári
- kontsonantez edo irristariz bukatutako oinarriak
amár alargún, láu ezúr, bí agosabái, amár artzái

II. Abs sg

- kontsonantez bukatutako oinarriak
artzárra 'ardi zaharra', asteléna, atzapárra
- erdiko bokalez bukatutako oinarriak
ábria, água, antxúmia, árdna, atsóatxia, azukúria, borondátia
- goiko bokalez bukatutako oinarriak
antxúe, arpoie, babatxurie, erbie

III. Abs pl

jurementúek, aurroyálak, emanzáliak ‘eramanzaleak’

Esan bezala, funtsean hau azentu paroxitonozko sistema da, nahiz eta kasu jakin batzuetan azentu oxitonoa posible izan. Datuak aztertzerakoan bi arazo nagusi aurkitzen ditugu:

- (a) Azken kontsonantea oinarriaren parte bada, azkeneko silaba astunak azentua erakartzen du (adib. *okarán*). Baina, azken kontsonantea atzizkiaren parte baldin bada, azentua ez da azken silabara mugitzen (adib. *egúnek*).
- (b) Oinarri-bukaerako erdiko bokalak irristari bihurtzen dira determinatzailearen aurretik (adib. *séme, sémiā*); baina goikoek silabatasunari eusten diote (adib. *ógi, ogíe*).

Lehen arazoa dela-ta, gaztelaniaz antzeko egoera dugula gogoratzea merezi du. Hizkuntza honetan ere, kontsonantez bukatzen diren hitzek azentua azken silaban jasotzen dute gehienetan, baina ez azken kontsonantea pluralaren atzizkia bada (adib. *capáz, compás*, baina *cása, casas*). Egoera, hala ere, ez da guztiz berdina. Gaztelaniaz pluralaren atzizkiak ez du inolako eraginik azentuaren kokagunean, ezta silaba bat gehitzen denean ere; adib. *árbol, árboles* (*carácter, caracteres* bezalako salbuespenak alde batera utzita). Ultzamako euskaraz, aldiz, argi dago flexiozko atzizkiak azentu unitatean sartzen direla. (78b)ko adibideetan ikus daitekeenez, azentua hitzaren azkenaurreko silabara mugitzen da atzizkia eransten denean.

Datuak ikertzeko oin metrikoa kuantitatezkoa dela proposa dezakegu, baina azken kontsonantea atzizki baten parte denean estrametrikoa dela. Oin metrikoa, beraz, oin trokaiko moraikoa da. Azentu unitatea hitza da eta oina bukaerako mugan ezartzen da. Azentua azkenaurreko mora daukan silaban ezartzen da (kontsonante estrametrikokoak kontuan hartu gabe):

- (81) Ultzama: kuantitatezko oin trokaikoa

(̲)	(*) .)	(*) .)	(̲ .)	(*) .)
o. ka. ran	o. ka. ra. na	o. ka. ra. na<k>	go. ros. ti	go. ros.ti. e
<i>okarán</i>	<i>okarána</i>	<i>okarának</i>	<i>gorósti</i>	<i>gorostie</i>

Goiko eta erdiko bokalen arteko kontrasteaz zerbait esan behar dugu. Kasu honetan aspiko kualitatezko kontrasteak azentuaren kokagunea baldintzatzen du (hurrengo pare kuasi-minimoak Izagirreraren artikulutik hartu ditut):

- (82) Ultzama: pare (kuasi)minimoak

/ore-a/	<i>ó.řa</i>	vs.	/ori-a/	<i>o.ř.e</i>
/erle-a/	<i>ér.lřa</i>	vs.	/erbi-a/	<i>er.bí.e</i>

Eraitza hauek lortzeko erdiko bokalen desilabifikazio arau bat proposa dezakegu, azentu ezarketa araua baino lehen ordenatuz, Ibarrek proposatzen duen moduan. Desilabifikazio araua honelaxe formula daiteke:


- (83) Ultzama: irristaritze araua

V
[-behe, -goi] → [-sil] / __ V

h.d.: erdiko bokal batek silabatasuna galtzen du beste bokal baten aurrean.

Fonologia autosegmentalaren formalismoa erabiliz, gauza bera hurrengo eran adieraz daiteke:

(84) Ultzama: irristaritze araua



Desilabifikazio edo irristaritze arauaren ondorioa [ĩ], [ũ] irristariak dira gehienetan. Batzuetan, dena den, erdiko irristariak ditugu, [ẽ], [õ] (Ibarra 1994: 595).

Esan bezala, desilabifikazio araua, azentu ezarketa baino lehen ordenatu behar da. Desilabifikazioaren ondorioz [+goi] irristariak lortzen ditugunean, beheko bokalaren asimilazio araua baino lehen ere ordenatu behar dugu gainera, goiko irristari hauek ez baitute asimilaziorik eragiten. Aldiz, asimilazio araua eta azentu ezarketa ez daude ordenaturik.

(85) Ultzama: arauen hurrenkera

	/ore-a/	/ori-a/
Irristaritzea	orĩa	_____
Asimilazioa		orie
Azentu ezarketa	órĩa	oríe

Analisi honek emaitza zuzenak ematen baditu ere, ezin esan dezakegu datuak esplikatzeko dituenik. Silabizitatea galtzen duten bokalak erdikoak eta ez goikoak izatea, arauan estipulatu dezakegun gauza da, baina horrela izateko arrazoia ez da ikusten. Hain zuzen, goiko bokalek besteek baino sonoritate edo irekidura gutiago dute eta, printzipioz, hauek, eta ez erdikoek, silabizitatea galtzea espero genuke.

Azalpen historiko posible bat hauxe izan daiteke: garai batean, goiko bokalekin epentesi arau bat aplikatzen zen, eta *mendiya*, *buruba*, tipoko formak aurkitzen ziren, mendebalderago dauden beste hizkera askotan bezala. Hipotesi honetan, kontsonante epentetikoak diptongazioa blokeatuko luke. Beranduago kontsonante epentetikoak galdu egingo ziratekeen.

Datu interesgarri bezala, aipa dezakegu Ultzaman aurkitzen dugun goiko eta erdiko bokalen arteko silabifikazio kontraste berbera Lapurdiko eskualde batzuetan ere agertzen dela, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

Ultzamako hizkeran arau orokorrak salbuespen bat dauka: /guzi-a/ *gúzĩe*. Izagirrek behin eta berriz ematen digu forma hau: *al gúzĩek* 'todos los posibles', *lanburi gúzĩek*, *mingain gúzĩe*. Ibarrek ere honela jaso du. Hitz honi desilabifikazio araua aplikatzen zaio nahiz eta goiko bokalez bukatzen den.

Azentu unitatea dela-ta, esan dugu eremua hitza dela. Ultzaman hitzaren eremuan *bat* mugatzailea sartzen da, bai azentu ezarketarako eta baita asimilazio araurako ere (Izagirren datuak):

(86) Ultzama: /bat/

koropillú bet, karkaxú bet, koñatá bat, defotá bat, kopetá bat (cf. *bi kopéta*), *ástúat, elt̃xaurrónđúat, aurkeri bet*

Izagirreren ustez, izen sintagman zenbatzailerik badago, ahoskera arinean azentu bat bakarrik entzuten da sintagma osoan, zenbatzailearena hain zuzen, eta berdin da hau izenaren aurrean edo atzean kokaturik egon; adib.: *láu aizkora, bi betazal, anbértze garagar*, izen-aurreko zenbatzaileekin, eta *illeba bát, izoz gúti, lanburi gúzkiek, mingain gúzkie* izen-osteko zenbatzaileekin. Datu hauek zuzenak badira, azentu ezabaketa arau bat beharko genuke. Arau honek sintagma mailan operatuko luke eta kategoria gramatikalak hartu beharko lituzke kontuan.

4.10. Lapurdi eta Nafarroa Beherea

Dakigunez, Lapurdin eta Nafarroa Beherean azentua ez da bereizgarria, Zuberoan ez bezala. Askotan esaldietan azentuak non dauden asmatzea zaila izan badaiteke ere, hitz solteetan azentua azkenaren silaban kokatzen da normalean. Gamindek (1996b) eskualde osoan barrena egindako inkestek azentuera paroxitonoa nagusi dela erakutsi dute; aipamen formetan, behintzat.

Lapurdiko eskualde batean, Ultzaman bezala, oinarriaren amaierako erdiko bokalek diptongoa sortzen duten bitartean, goiko bokalek hiatusa sortzen dute. Fenomeno hau aspalditik da ezaguna. Bonapartek (1869: xxix, n.1-2 [1991, I: 257]) honelako formak aurkitu zituen Saran eta Lapurdiko beste herri batzuetan: *se-mia* eta *men-dí-a*, *o-tsua* eta *bu-rí-a*. Donibane-Lohizunen, gainera, kontsonante epentetiko^a aurkitu zuen goiko bokalez bukatzen diren oinarriekin *men-dí-ya*, *es-ku-ba* (Arrangoitzen, *es-ku-ya*).

Schuchardtek (1922: 6) datu hauek baieztatu egin zituen Sarako lapurterarako: *sé-mea*, *sémia*, *séme-(b)at* vs. *zaldía*, *zaldí-(b)at*; *ótchoa*, *óichua* vs. *burúa*. Pare minimo bat ere aipatu zuen: *sárea*, *sária* = 'sarea' vs. *saria* = 'saria'.

Martinetek (1981: 63) berak elkarrizketatutako hiztun lapurtar batek honako formak bereizten zituela esan zigun: «des finales définies des thèmes en *-i* (type *handi-a*) et celles des thèmes en *-e* (type *athe-a*) en accentuant le *-i-* dans les premières ([an 'dia]) et en faisant perdre sa valeur syllabique au *-e* des secondes ([atíá]).»

Ikerketa berriago batean, Gamindek & Salaberriak (1997) gauza bera aurkitu zuten Lekorneko hizkeran eta kontrastea erakusten duten forma asko bildu zituzten; adib. /suge-a/ *súgā* vs. /ogi-a/ *ogía*.

Gamindek (1996b) bildutako datuen arabera, bereizkuntza hau konsistentzia osoz egiten da Saran, Lekornen, Milafrangan, Mugerren, Ahetzen eta Beskoitzen. Gehienetan, baina ez beti, Urepelen, Ezpeletan, Makean eta Biriatur. Honen bermagari hona hemen Sarako datu batzuk:

(87) Sara (Gaminde 1996b)

/-i/	/-u/	/-e/	/-o/
<i>ogía</i>	<i>burúa</i>	<i>ógā</i> 'ohea'	<i>ástōa</i>
<i>afaría</i>	<i>eskúa</i>	<i>gázfā</i>	<i>fíkōa</i>
<i>ardía</i>	<i>forrúa</i> 'porrua'	<i>arróltzēa</i>	<i>árnōa</i>
	<i>gatúa</i>		<i>oiláskōa</i>

/-i/	/-a/	/-e/	/-C/
<i>begia</i>	<i>áza</i>	<i>ilēa</i>	<i>zaarra</i>
<i>idúzkiá</i>	<i>gázna</i>	<i>udárēa</i>	<i>gizóna</i>
<i>erría</i>	<i>kopéta</i>	<i>sémēa</i>	<i>beátza</i>
<i>ilargía</i>	<i>tximista</i>	<i>sukáldēa</i>	<i>oilarra</i>
<i>iturria</i>		<i>miisēa</i> ‘izara’	<i>eltxáurra</i>
<i>bearria</i>			<i>arratóina</i>
<i>marrobía</i>			<i>alargúna</i>

Hitz guztietan azentua azkenurreko silaban kokatzen da, baina diptongoak eta hiatusak bereiziz. Beskoitzen, Milafrangan eta Mugerren irristari bat sartzen da /-u/-z bukatutako oinarriekin, hiatusa apurtuz: *burúya*, *eskúya*, *gathúya* (Gaminde 1996b). Hau da, noski, Etxeparerengan ere aurkitzen duguna.

Beste eskualde batzuetan ez da egiten bereizketa hau. Nafarroa Beherean, gehienetan diptongoa egiten da goiko nahiz erdiko bokalekin, Aiherrako datu hauetan bezalaxe:

(88) Aiherra, Nafarroa Beherea (Gaminde 1996b)

/-i/	<i>bégia</i> , <i>idúzkiá</i> , <i>afáriá</i> , <i>árdiá</i> , <i>hérriá</i> , <i>óriá</i> , <i>ídiá</i> , <i>marrúbiá</i> , <i>xúriá</i> , <i>ilárgiá</i>
/-e/	<i>gáztiá</i> , <i>sukáldiá</i> , <i>sémiá</i> , <i>udáriá</i>
/-u/	<i>búriá</i> , <i>éskiá</i> , <i>pórríá</i>
/-o/	<i>ástóá</i> , <i>olláskóá</i> , <i>ánóá</i> , <i>óllóá</i>

Hau Pirinioetako hegoaldeko ibarretan, Erronkaritik Baztaneraino, aurkitzen dugun egoera da. Aldiz, Lapurdiko kostaldean, hiatusak nagusitzen dira bokal guztiekin (Bortzirietan eta mendebaldeko euskalkietan bezala).

Bestaldetik, azentuera paroxitonoa ez da Saran edo Lekornen bezain orokorra leku guztietan. Beskoitzen, Gamindek azentua azkenlaugarren silaban aurkitu du bi hitz elkartutan: *argizaria* eta *náfilarra* ‘indaba’ < *nafar-ilarra*. Ez dakit patroï honek ba ote duen indarririk hitz elkartuetan Beskoitzen. Oragarre eta Gabadiko datuetan ere, *argizaitia* ematen digu Gamindek.

Beste hizkera batzuetan, badirudi azentuera paroxitonoa nagusia izan arren, azentua aurrerago ere joan daitekeela lau silaba edo gehiago dauzkaten hitzetan. Horrelako azentuerak Arbonan, Biriatuan eta Sokoan aurkitzen ditugu Gamindek bildutako datuetan.

Aipatutako azentuera hitz isolatuei dagokiena da. Baina azentuera aski aldatzen da hizkera normal edo arinean. Ahozko testu naturaletan prominentzia silaba batzuetan nabari bada ere, arauak asmatzea oso zaila da. *Euskalkiez euskalki*-ko Sarako testutik ateratako hurrengo pasarte, adibidez, honelaxeko azentuerekin entzuten dut nik:

(89) Sara

Bátzuetán, izáten dá áro óna. Aizégüak emáten dueláik, úsüa pasátzen da apál. Loria izáten da, zeen eta, dakiénak úngi tiróka, árek íltzen du úsüa pollíki. Bertziák, bístan da, yelosía píxkatekín egóten da, báina ez du impórta, háin da eta, begitáriá eta mendía ederrá non, bakizú, izúik hiltzen expaldín badá ere plazér aundía da ikústiá méndi gáinetik, eta zelaiák urrünerat ikústen usú ítxasüa eta egüák irúdi dú Larrúngo eta mendía hórbelián atzáparréz atxématerakó dúzúlá; háin dá etá garbí eta mendíko áiriá.

Schuchardtek (1922) ere azentuak ezarri zituen transkribitu zuen Sarako testuan, baina ez dirudi arau garbirik dagoenik. Beraz, euskalki hauetan, azentua azkenurreko silaban kokatzen da normalean hitz isolatuetan, baina azentuera erabat aldatzen da esaldiaren barnean. Ez dakigu —edo, nik, behintzat, ez dakit— esaldi mailako prosodia nola sortzen den oinarritzko azentuera paroxitonotik abiatuz. Nolanahi ere, lehen pausuak hitz isolatuen azentuera aztertzea izan behar du. Batez ere Gaminderen lanari esker orain badakigu testuinguru honetan azentuera nagusia paroxitonoa dela.

Gaurregun aurkitzen dugun azentubideak nahikoa berria izan behar du Lapurdi eta Nafarroa Behereko leku askotan. Hurrengo kapituluan ikusiko dugunez eta Mitxelena (1972) erakutsi zuenez, XVIII. mende arte guttienez gaurko Hondarribiko azentuarekin zerikusi estua zeukan Lapurdiko kostaldean erabiltzen zenak. Bestalde, Leizarragak (Beskoitzen sortua) gaurko zubereraren azentubidearekin erlazionatutako sistema bat erabili zuen, Lafonek (1935) frogatu zuenez.

4.11. Laburbilduz

Kapitulu honetan Euskal Herriko ekialdean erabiltzen den azentubidea izan dugu aztergai. Erakutsi bezala, ekialdeko hizkeretan azentu arau nagusia azentu paroxitonoa da, [-2]. Azentu unitatea normalean hitza da, baina handiagoa izan daiteke eta baita tikiagoa ere hitz polimorfemikoetan. Hizkera gehienetan (Baztan, Erro eta Esteribar, Aezkoa eta, behintzat, Zaraitzuko alderdi batean), azentuak ez dauka balio fonologikorik; hau da, ezin daiteke esanahiak bereizteko erabili. Hizkera hauetan, azentua azkenurrekoa ez den silaba batean jartzen denean, arrazoia erritmoa, enfasi berezia edo beste halakoren bat izan daiteke, baina ez hitz jakin batek azentuera markatua duelako. Printzipioz, hitz guztiak era berean azentuatzen dira eskualde honetan.

Zubereraren eta erronkarieraren ere arau nagusia azentu paroxitonoa da; baina badira salbuespen lexiko eta morfologikoak. Azentuaren kokagunak, beraz, balio fonologikoa du hizkera hauetan. Espartzan eta agian Zaraitzuko beste zenbait lekutan ere, baliteke azentu arauak salbuespen lexikoak izatea, baina dauzkagun datuekin ezin dugu ezer baieztatu.

Ultzameraz tarteko egoera bat aurkitzen dugu nolabait esatearren. Oso salbuespen gutirekin, hitzaren egiturak erabakitzen du azentuaren kokagunea. Aurkitu dugun salbuespen lexiko bakarra /gúzti/ hitza da. Hala ere, hitz guztiekin ez dugu azentuera berbera; aldiz, oinarriaren azken segmentua zein den, azentuera desberdinak ditugu.

Argi dagoenez, kapitulu honetan ez dugu ekialdeko euskalkien eremu osoa aztertu. Lehenengo eta behin, Baztan eta Bortziririak zehar azentu isoglosa garrantzitsu bat pasatzen da, Bortzirietako edo Bidasoaldeko azentuera Erdialdeko azentubidean sartzen delarik. Beraz, azentu mota hau hurrengo kapituluan aztertuko dugu.

Bigarrenik, Sakanan, Imotzen eta Nafarroako Basaburuetan, beste azentu mota bat aurkitzen dugu. Azentuera hau oraindik ez dugu oso ondo ezagutzen edo ulertzen. Hurrengo kapituluan saiatuko gara dakiguna adierazten.

Azkenik, gauza bera gertatzen da Lapurdiko eta Nafarroa Behereko azentuarekin: hizkera hauek ez ditugu behar bezala ezagutzen. Dena den, badirudi eskualde hauetan ere azentuera paroxitonoa nagusia dela, aipamen formetan behintzat.

BOSTGARREN KAPITULUA

ERDIALDEKO AZENTUERA

5.1. Erdialdeko azentueraren ezaugarriak eta hedadura

Euskal Herriko erdialdeko eskualde zabal batean aurkitzen dugun azentuera orokorra [+2] da; hau da, azentuaren kokagunea bigarren silaba da gehienetan. Azentuera hau gaurregungo euskarari aurkitzen den orokorra dela esan dezakegu. Arau hau Gipuzkoako alderdirik haundienetan baita Nafarroako mendebaldean (Bidasoa haranean) eta Bizkaiko zenbait eskualdetan ere erabiltzen da. Euskara batuan gehien erabiltzen den azentuera mota honelakoa dela gainera dezakegu. Daukan hedadura geografiko zabala kontuan hartuz, [+2] azentuerari Erdialdeko azentuera deituko diogu hemen.

Azentuzko muga garrantzitsu bat dugu beraz Baztan eta Bidasoa haranen artean. Muga honetatik ekialderuntz azentu arau nagusia [-2] den bitartean, mendebalderuntz [+2] azentu araua aurkitzen dugu. [+2] azentubidearen mendebaldeko muga ez da hain garbia. Bizkaiko kostaldeko sistemak oso bestelakoak dira, eta Antzuola eta Bergarako eskualdean azentuera nagusia [-2] da. Eskualde batzuetan trantsizio sistemak aurkitzen ditugu, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez. Antza denez, [+2] azentuera hedatuz joan da azken mendeetan Bizkai-Gipuzkoetan zehar. Gai honetaz zerbaite esango dugu 8. kapituluan.

[+2] araua duten azentu sistemen artean desberdintasun batzuk aurkitzen badira ere, funtsean berdintsuak dira denak, azentu arau nagusia bera baitute. Kapitulu honetan adibide batzuk aztertuko ditugu [+2] sistemen arteko desberdintasunak zeintzuk diren ikusteko. Hasteko, Nafarroako Bortzirietako hizkerari begiratuko diegu. Geografikoki eskualde honetako muturrean dagoen Hondarribiko sistemari buruz ere esango ditugu hitz batzuk. Ikusiko dugunez, Hondarribiko hizkeraren kasuan, araua ez dela [+2] esan behar dugu, hitz gehienetan azentuerari alboko hizkerarekin bat etorri arren. Bestaldekik, gaurko Hondarribiko azentu sistema edo honekin antz handia zuen sistema bat kostaldeko lapurteran erabili zen antzina.

Bortzirietako hizkeraz gain, Goierriko Beasaingo hizkera eta Gipuzkoako bizkaieraren eremuan dagoen Oñatiko hizkera izango ditugu aztergai, [+2] araua duten azentu sistemen artean aurkitzen diren desberdintasun nagusiak erakusteko asmoz.

Goi-nafarreraren hego-mendebaldeko eskualdeetan (Sakana, bi Basaburuak eta Imotz) beste azentu sistema bat aurkitzen dugu. Hemen azentua oso aldakorra da, baina orohar lehen edo bigarren eta azken silaban ezartzen da. Sistema honek antz handiago du Erdialdeko sistemekin Ekialdekoekin baino, eta horregatik sartu dugu

kapitulu honetan. Baina, egia esan, kapitulu berezi bat mereziko luke, arau nagusia desberdina baita. Erdialdeko azentueran *gizoná* dugun bitartean, Nafarroako eskualde honetan *gizoná* dugu normalean.

Bukatzeko, euskara batuaren ahoskera izango dugu kontuan. Ikusiko dugunez, euskara batuan ere gehien erabiltzen den azentuera [+2] da.

5.2. Bortziriak (Bidasoa harana)

Euskal azentuari buruzko lehen lanetatik pentsatu izan da Bidasoa haraneko hizkerek azentuera berezia dutela. Larramendik (1745, 1969)¹, Bonapartek (1877)² eta Azkuek (1931)³ iritzi hau adierazi dute (cf. Sagarzazu 1994). Holmer-ek (1964) eta Mitxelenak (1972) ere azentuera berezizat hartzen dute beren euskal azentubideen sailkapenetan. Hala ere, azentu arauak kontuan hartzen ditugunean, sistema hau funtsean erdialdeko beste eskualde askotan erabiltzen den berbera dela ikusten dugu, nahiz eta berezitasun batzuk erakutsi. Dena den, Larramendiren garaian gauzak beste modu batekoak ziren, ziur asko, [+2] azentueraren hedapena nahikoa fenomeno berria baita Bizkai-Gipuzkoetan. Larramendik (1969: 301) esaten digu Irunen eta Bidasoaldean orohar *arrigarri* esaten zela, eta ez *arrigarri* beste lekuetan bezala. Baina gaurregun *arrigarri* aurkitzen dugu Gipuzkoako leku gehienetan ere, ez bakarrik Bidasoaldean; *arrigarri* soilik Bizkaiko kostaldean agertzen zaigularik. Beraz, antza denez, [+2] azentuera askoz zaharragoa da Bidasoaldean beste leku askotan baino. Baina gaurregungo azentu sistemak kontuan hartuz, Bidasoa haraneko hizkeren berezitasun nabarmenenek ez dute zerikusirik azentu arauekin, stricto sensu, azentuarekin loturiko fenomeno segmental batzuekin baizik.

5.2.1. Azentu patroiak eta arauak

Bortziritako hizkeretan, hitz gehienek azentua bigarren silaban daramate. (1)ko adibideak Arantzakoak dira (Amaia Telletxeari zor dizkiot). Azentuera orokorra edo markatugabea, beraz, (1)ko hitzek erakusten dutena da:

- (1) Arantza: azentuera markatugabea
- | | |
|---------------------------------|-------------------------|
| <i>amá</i> | <i>aingérua</i> |
| <i>eskúa, eskú bat, bi eskú</i> | <i>gurásorik obénak</i> |

¹ «En Fuenterrabia, Irun, y Oyarzun, participan algo del dialecto Labortano, y aun de su tonillo gustoso: *eguiñen dú, artzen dugu.*» (Larramendi 1745: xxx). Aipua Sagarzazu (1994) lanetik hartzen dut.

² «Ces localités guipuscoanes [Oiarzun, Irun, Hondarribia] ont une intonation qui leur est particulièrement, mais qui n'est pas exactement la même pour chacune d'elles.» (Bonaparte 1877: 154).

³ «Aunque con pena, hay que confesar que el acento vasco varía mucho entre sus dialectos. En dialecto suletino y en la variedad altonabarra de Bortzerrrieta (Cinco Villas: Bera, Etxalar, Lesaka, Aranatz e Igantzi) tiene la misma intensidad que en español, con la diferencia de que los suletinos cargan su extraño acento en la penúltima sílaba por lo general, mientras que los nabarros de la citada comarca tienen lo mismo que en castellano, vocablos agudos, graves y esdrújulos ...

Es por el estilo el acento de Irún y Fuenterrabía.» (Azkue 1931: 283-284).

<i>besúa, besóitk</i>	<i>txistúlaya</i>
<i>itxéera, itxéitk</i>	<i>alábari</i> (sg = pl)
<i>azéria</i>	<i>gizónan itxi da</i> (sg =pl)

Badago hala ere beste patroï bat, hots, hitz batzuek azentua lehendabiziko silaban daramate:

(2) Arantza: azentuera markatua

a. <i>bigarrena, bigarrenari, bigarrenarentzat</i>	b. <i>básua, básuna</i> ‘edalontzia’
<i>léngusua, léngusuentzat, léngusuri</i>	<i>txístua</i>
<i>(zakúr) béltzari</i>	<i>yéndia, yéndintzat</i>
<i>ókena</i> ‘hauena’	<i>pórrua</i>
<i>lúrra, lúrtik, lúrran kolória, lúrko belárra</i>	<i>bésta</i>
<i>láutik bóstara</i>	<i>bértzia, bértziri man diot</i> (sg = pl)
<i>árra, árrana, árranantzat</i>	
<i>ártza</i>	

Azentuaren kokaguneak balio fonologikoa du: hitz batzuek azentua bigarren silaban daramate (gehienek) eta beste batzuek lehendabiziko silaban. Hitz jakin batek beti silaba berean izango du azentua. Hau dela-ta, ez da zaila azentu oposaketak aurkitzea:

(3) Arantza: azentuzko oposaketak

<i>amá</i>	vs.	<i>árra</i>
<i>eskúa</i>		<i>pórrua</i>
<i>besúa</i>		<i>básua</i>
<i>unéna</i>		<i>ókena</i>
<i>betik</i> ‘beteak’	vs.	<i>bétik</i> ‘behetik’

Gauzak honela izanik, hitz bakoitzaren azentuera guztiz idiosinkratikoa den galdetu behar dugu. Erantzuna izango da azentuera markatua hitz batzuetan sistematikoa eta beste batzuetan idiosinkratikoa, hau da, lexikoa dela.

(2)ko adibideak bi taldetan banatu ditugu. (2a)ko hitzek silababakarreko erroa dute. Batzuk hitz elkartuak edo eratorriak dira: *bi-garren-a*, *lén-gusu-a*; beste batzuk hitz sinpleak, flexiozko atzizkiekin: *béltz-ari*, *árr-anantzat*. Silababakarreko erroa daukaten hitzek azentua lehendabiziko silaban daramatela ondoriozta dezakegu, orduan. Silababakarreko erroden hitzen kasuan azentuera markatua sistematikoa da, beraz. Hemen-dik jarraitzen da azentu unitatea erroa dela. (3)an erakutsitako lehen oposaketa azentuala (*amá* vs. *árra*) erroaren tamainaren bidez azaltzen da: *amá* baina *árr-a*. *Betik* /bete-ak/ vs. *bétik* /be-tik/ kontrastea ere modu berean azaltzen da. Emandako erakusleen kasuan, funtsean gauza bera dugu: *ókena* hitzaren egitura morfologikoa garbi dago, *ók* forma askea bezala aurkitzen baitugu: *ók-en-a*. Aldiz, singularraren kasuan morfologia ez dago hain garbi eta /unen/ morfema bakartzat hartzen da.

Bestaldetik, (2b)ko hitzak, nahiz eta azentua lehen silaban izan, ez dira (2a)ko taldean sartzen eta ez dago arrazoi morfofonologikorik haien azentuera berezia azaltzeko. Hitz hauek salbuespen lexikoak dira, benetako hitz markatuak. Talde honetako hitz gehienak maileguak (zaharrak zein berriak) eta bisilabadun erroak dira.

(1)-(3) datuak ikusita, hurrengo jeneralizazioak egin ditzakegu, beraz:

- (4) Arantza: Azentuaren kokaguneari buruzko jeneralizazioak
- Gehienetan, azentua bigarren silaban doa.
 - Erroa silababakarrekoa bada, azentua lehen silaban doa.
 - Hitz markatu batzuetan, azentua lehen silaban doa (salbuespen lexikoak).

Bidasoa haraneko beste hizkeretan, Irundik Labaieneraino, azentuera bera aurkitzen dugu (Mitzelena 1972). Mitxelena ematen dituen adibideak (Arantza, Irun, Lesaka eta Berakoak) (2)an aipatutako hiru taldeetan banatzen dira:

- (5) Mitxelena (1972) datuen sailkapena
- Patroi orokorra: *Akílinok* (Irun), *karákola* (Lesaka, Bera), *primábera* (Les.)
 - Salbuespen lexikalak: *bágua*, *órma*, *píkua*, *txára*, *txilkua* (Les., Bera), *bésta* (Ar.).
 - Silababakarreko erroak: *lúa*, *úra*, *úntza*, *jáya* (Bera), *úrik* (Les.).

Adibide gehiago emateko, datu iturri gisa *Euskalkiz euskalki* (Pagola 1984 = EE) eta *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak* (= NEM) argitaratutako grabaketak miatu ditut. Hurrengo adibideak Iturengoak dira eta EE-tik hartu ditugu. Adibideotan, [ə] bokalarekin bokal neutroa adierazten dugu. Bokal hau zenbait silaba atonotan agertzen da /a/ edo /e/ bokalak gauzatuz. Ikusten denez, datuak bat datoz emandako jeneralizazioekin:

- (6) Ituren (EE):
- bi silaba edo gehiagoko erroak, azentuera orokorra
Erro bisilabadakunak [o ó]
ardiak, *biórak*, *mendíra*, *udán*, *artúak* ‘artoak, erg.’, *yendía*, *burúnitxétan*, *belárra*, *gaztía*, *egúnóra*, *ordútikən*, *zopá*, *mutilləri*, *bertzík*, *lagún*
Hirusilabadakun eta luzeagoko erroak [o ó o...]
Amériketəra, *irúgarr(e)nín*, *Sunbillara*, *igittikín*, *Irátira*, *denbóra*, *soñúlaría*, *illúnabarrin*, *libértade*, *umérririk*, *inpórtantzí*, *atrásamendu*, *medíkua*, *kasti(ga)tzeko*, *eskúmuturrin*, *berrógei*, *permísua*, *fabrikəke*, *bezála*, *bezálko*, *komédik*, *armónirik*, *Zubítara*, *Zubítan*, *arpégi*, *emákumə*, *kozínara*, *zikírúərrétiratu*, *allétu gea*, *izáunenak*, *alkátik*, *karrákillaka*, *antíguko*, *erókeri*, *karrózak*
 - Silababakarreko erroak [ó]
góizín, *órtxe*, *dénak*, *gábetikən*, *lúrko*, *óna*, *lána*, *lánin*, *zárren*, *góiko*, *éitteko*
 - Salbuespen lexikoak [ó o...]
dántzan, *mártxan*, *ségəkin*, *béstak*, *músika*, *búéltak*, *trágu*, *módətəko*, *plázan*, *kótxi*, *búéltaka*, *zínitekín*, *púnttan*, *diru*
Hurrengo adibideak NEM2-ko Labaiengo grabaketatik jaso ditut:

- (7) Labaien (NEM)
- Labáindarra*, *autóbusa*, *denúntziatu*, *madárikatu*, *opérazio*, *makillazua*, *albáiteron-ganà*, *konpónduko*
 - átzetik*, *médikuəz*, *yéndeə*

Azentua lehen eta bigarren silaban daramaten hitzen arteko kontrastea Iturengo grabaketatik hartutako honako adibideetan ikus daiteke argi eta garbi:

(8) Ituren (NEM)

gábetikēn egúnəra
eʒ igittikin ta eʒ ségəkin

(8)ko lehendabiziko adibidean lehen hitzaren erroa silababakarrekoa da. Bigarren adibidean, *séga* maileguak azentuera markatua du.

Adibideek erakusten dutenez, Iturenen eta Labaienen, Arantzan bezala, azentua bigarren silaban doa arau orokorrez. Azentuaren eremua edo unitatea ez da hitz osoa, erroa baizik. Arrazoi honegatik azentua hitzaren lehen silaban doa erroa silababakarrekoa denean. Bestaldetik, badira, era berean, azentua lehen silaban daramaten zenbait salbuespen. Salbuespenak ez dira beti berdinak Bidasoa haraneko hizkera guztietan. Hitz jakin bat herri batean salbuespena izatea eta alboko herrian, aldiz, erregularra izatea gerta daiteke. Hala ere adostasun handia dago hizkera guztien artean.

Bidasoako haraneko azentu sisteman flexiozko atzizkiak azentu eremutik kanpo gelditzen dira eta ez dute inolako eraginik azentuaren kokagunean, (9)n eskaintzen diren Labaiengo adibideetan ikusten den bezala (Labaiengo adibideak Lourdes Telletxeari eskertzen dizkiot):

(9) Labaien

a. <i>zakúr</i>	b. <i>ár</i>
<i>zakúrra</i>	<i>árra</i>
<i>zakúrrik</i>	<i>árrak</i>
<i>zakúrrentzat</i> 'sg/pl'	<i>árrentzat</i> 'sg/pl'
<i>mendía</i>	<i>lúrra</i>
<i>mendík</i>	<i>lúrrak</i>
<i>mendíra</i>	<i>lúrrako</i>
<i>mendítik</i>	<i>lúrratiko</i>
<i>mendítara</i>	<i>lúrratik</i>
<i>mendítakua</i>	<i>lúrratan</i>
<i>lúrratakua</i>	

Sistema bezala, Bortzirietakoa nahiko erraza da. Azentu unitatea erroa da. Normalean, unitate honen gainean oin ianbiko bat ezartzen da, hasierako mugarekin lerrokaturata:

(10) Bortzirietako azentu sistema

Azentu eremua: Erroa

Azentu arau orokorra: Ezarri oin silabiko ianbiko bat, (. x), ezkerraldeko muga.

(. x)	(. x)	(. x)	(x)	(x)
[es ku]	[ain ge ru] a	[gu ra so] rik	[bi] ga rre na	[arr] a
<i>eskú</i>	<i>aingérua</i>	<i>gurásorik</i>	<i>bigarrena</i>	<i>árra</i>

Algoritmo honek azentua lehendabiziko silaban ematen digu eremua silababakarekoa denean. Hitz markatu lexikoen kasuan, aldiz, oin trokaiko bat ezartzen da:

- (11) Bortziriak: Salbuespen lexikoak: oin trokaikoa ezkerraldeko mugan, (x .).
 (x .)
 [po rru] a *pórrua*

Esan bezala, salbuespen lexiko gehienak hitz mailegatuak dira, baina mailegu guztiak ez dira markatuak. Mailegu asko erregularatu egin dira, azentua bigarren silabara mugituz, Arantzako hurrengo adibideetan bezala:

- (12) Arantza: maileguen erregularizazioa
música > *musika* *médico* > *medikua*
fábrica > *fabrika* *árbol* > *arbóla*, *arból bat*, *bi arból*
témpora > *denbóra* baina: *látigua*

Bestaldetik, azentua ez da inoiz bigarren silaba baino eskuinalderago ezartzen, eta azentua harantzago duten mailegu guztiak patroiz markatugabeari egokitzen zaizkio beti: *escópeta* > *eskópta*. Bide batez, Arantzako adibide honek Bortziritan azentuarekin loturik dagoen fenomeno bat erakusten digu; hots, bokal atonoen galera. Gai honetaz hurrengo atalean arduratuko gara.

5.2.2. Sinkopa Arantzako hizkeran

Bortziritako hizkeretan, bokal neutralketa eta sinkopa edo bokal atonoen galera oso gertakari nabarmenak dira eta itxura berezia ematen diete eskualde honetako hizkerari. Antza denez, sinkopa bereziki bortitza da Arantzán. Erronkarian eta zaraitzueran ikusi dugun sinkopa historikoak indar bizia du Bortziritako hizkeretan. Arantzán hitz askotan tonikoaren atzeko bokala galdu egin da *escopeta* > **eskópeta* > *eskópta* adibidean ikusi dugun bezala. Baina Arantzán sinkopa ez da prozesu diakroniko bat bakarrik, hizkeraren fonologia sinkronikoan ere oso garrantzi handia baitu. Har ditzagun hurrengo adibideak:

- (13) Arantza: sinkopak eragindako aldaketa sinkronikoak
básua, *bástik atéra dut* 'edalontzia' (cf. *besótik*, *mendítik*)
eskóla, *eskóltik*
itxásua, *itxástik eldú da*
fabrika, *fabríktik*
elíza, *elíztik*
basérria, *basértarra*

(13)ko adibide guztietan, erroaren azken bokala ingurune jakin batzuetan galdu egiten dela ikusten dugu, aldaketa morfofonologikoak sortuz. Beraz, /itxaso/ erroaren azken bokala /itxaso-tik/ *itxástik* forman galdu egiten da, eta gauza bera gainontzeko adibideekin. Sinkopa arauak baldintza segmentalak eta prosodikoak ditu. Adibideetatik

argi dago sinkopa bi kontsonanteren artean gertatzen dela. Baina bi kontsonanteren artean egotea ez da nahikoa sinkopa aplikatzeko, *elizak* baitugu, esate baterako, eta ez **elizk*. Bigarren kontsonanteak hurrengo silaban egon behar du. Gainera, alde batetik /básu-tik/ *bástik*, /itxaso-tik/ *itxástik*, eta bestetik, /beso-tik/ *besóitk* konparatzen baditugu, nabarmena da sinkopa arauaren baldintzetako bat azentua dela: adibide hauetan *s_t* ingurunean dagoen bokala ez da galtzen azentuduna denean, eta bai, aldiz, azentudun-ostekoa denean. Sinkopa araua honelaxe formula dezakegu:

- (14) Arantza: sinkopa araua
 $V \rightarrow \emptyset / V' C_1 _ C V$

Hau da, azentudun-osteko bokala galdu egiten da ezkerraldean guttienez kontsonante bat dagoenean eta eskuinaldeko ingurunean beste silaba bat.

Edozein bokal gal bide daiteke sinkopa ingurunean:

- (15) Arantza: sinkopa jasotzen duten bokalak
 $a \rightarrow \emptyset$ /eskóla-tik/ \rightarrow *eskóltik*
 $o \rightarrow \emptyset$ /itxáso-tik/ \rightarrow *itxástik*
 $i \rightarrow \emptyset$ /basérrri-tarr-a/ \rightarrow *basértarra*
 $e \rightarrow \emptyset$ /tomate-ko-a/ \rightarrow *tomátkua*

(13)ko adibideetan oinarriaren azken bokala galtzen da eta alternantzia edo aldaketa sinkronikoak ditugu. Beste kasu batzuetan, aldiz, ez dago alternantziarik, sinkopa morfema baten barnean aplikatzen baita. Kasu hauetan, bokal galera prozesu diakroniko bezala ulertu behar da, ez baitago aldaketa sinkronikorik. Horrelako adibide batzuk dira hurrengoak:

- (15) Arantza: morfema-barneko sinkopa
camiseta > *kamísta* *atzaparra* > *atzápra*
escopeta > *eskópta* *gaztanbera* > *gaztánbra*

Maileguen kasuan, argi dago lehenabizi azentua egokitu zela eta ondoren bokala galdu zela: *camiséta* > *kamíseta* > *kamísta*.

Ingurune kontsonantei buruz ez dago murriztapenik, antza denez. Printzipioz bokala gal daiteke edozein kontsonante agertuz ezkerraldeko zein eskuinaldeko ingurunean. Bildu ditudan adibideetan, ezkerraldean sudurkari, urkari, frikari, afrikatu edo herskari bat izan dezakegu, eta eskuinaldeko ingurunean herskariak, sudurkariak eta urkariak aurkitu ditut. Falta diren inguruneetarako ez dut adibiderik bildu. Hutsune horiek direla-eta, ez dakit ziurtasunez sinkopa zenbait kontsonanteren artean blokeatzen ote den. Edozein kasutan, sinkopa ingurune kontsonantiko gehienetan —guztietan ez bada— ezartzen dela ziurta dezakegu. Hurrengo adibideetan, T= herskari, N= sudurkari, L= urkari; *c* erabiltzen dut herskari sabaikari ahoskabea adierazteko (= # euskal ortografia normalean; hemen # grafiak geminatua adierazten du):

- (16) Sinkoparen ingurune kontsonantikoa
 $n _ T$ *zikinkua* (< *zikinekua*)
 $l _ T$ *eskóltik* (< *eskolatik*), *azáltik* (< *azaletik*), *bertzélko* (< *bertzelako*), *be-
zélko* (< *bezelako*), *txokóltia* (< *txokolatea*)
 $r _ T$ *lúrko* (< *lurreko*), *enbórtik* (< *enborretik*), *belártik* (< *belarretik*)

s	__ T	<i>elíztik</i> (< <i>elízatik</i>), <i>bástik</i> (< <i>basutik</i>)
ts	__ T	<i>xéztzko</i> (< <i>xehetzeko</i>), <i>kártzko</i> (< <i>ekartzeko</i>)
p	__ T	<i>eskópta</i> (< <i>eskopeta</i>)
t	__ T	<i>tomátkea</i> (< <i>tomatekoa</i>), <i>tomáttik</i> (< <i>tomatetik</i>), <i>játkea</i> (< <i>jatekoa</i>)
c	__ T	<i>mácko</i> (< <i>emaiteko</i>), <i>ícko</i> (< <i>egiteko</i>)
k	__ T	<i>fabríttik</i> (< <i>fabrikatik</i>), <i>fabríkkea</i> (< <i>fabrikakoa</i>), <i>berríkjan</i> (< <i>berriketan</i>)
	__ N	<i>abílka</i> (< <i>abilena</i>), <i>polítka</i> (< <i>politena</i>)
	__ L	<i>gaxtánbra</i> (< <i>gaxtanbera</i>), <i>librutik</i> (< <i>liburutik</i>)

Egia esan, Arantzan sinkopa arauak duen askatasuna nahikoa harrigarria da, sinkoparen ondorioz euskaraz normalean posible ez diren talde kontsonantiko asko sortzen baitira, hizkuntzaren silaba egitura erabat aldatuz.

Agian sinkoparen ondoriorik harrigarriena kontsonante bikoitz edo geminatuaren sorkuntza da: /fabrika-koa/ *fabríkkea*, /tomate-tik/ *tomáttik*. Kontsonante talde hauek benetako geminatuak dira. 9. irudian *atétik* vs. *atéttik* (< *atétatik*) pare minimoaren soinu uhinak eta espektrogramak ikus ditzakegu. Ikusten den bezala, *atétik* adibidean lehen kontsonanteak 113.02 ms. irauten du eta *attétik* adibidean, aldiz, 216.15 ms., hau da, kontsonante bakunaren doblea.

- (17) Arantza: 9. irud.: kontsonante bakun eta bikoitzak (geminatuak)
atétik vs. *atéttik* (< *atétatik*)

Sinkoparen ondorioz, CC.C taldeak, hau da, hitz barneko silaba batean bi kontsonanteko koda taldeak ere sortu dira Arantzako euskaraz. Talde hauek ezinezkoak dira euskal hizkera gehienetan:

- (18) Arantza: CC.C taldeak

<i>kártzko</i>	<i>ártko</i> (<i>bartako</i>)
<i>ánkjan</i> (< <i>anketan</i>)	<i>tórzn</i> (< <i>etortzen</i> (<i>d</i>)a)
<i>béltzkea</i> , <i>béltzik</i> , <i>béltzgu da</i>	<i>eskóptkea</i>
<i>béstkea</i> (< <i>bestakoa</i>)	<i>bésttik</i> (< <i>bestatik</i> , <i>bestetatik</i>)


Ikusten denez, talde hauen artean oso konplexuak diren batzuk aurkitzen ditugu, hala nola hiru herskari jarraian: *eskóptkea*. Adibide honen espektrograma eta ahotsuhina 10. irudian ikus daitezke. Espektrograma honetan hiru herskariaren leherketak argi eta garbi ikusten dira.

Geminatu bat ere aurki dezakegu txistukari baten ondoren, *bésttik* adibidean bezala. Dena den, herskari baten ondoren geminatuak sinplifikatu egiten dira: *eskopetatik* > *eskóptik*, ***eskópttik*. Honelako adibide batzuetan sinkopa birritan aplikatu da: *eskópetakua* > *eskóptakua* > *eskóptkea*.

Zenbaitetan, herskari ezpainkariak irristari bihurtu dira kodan, cf. (19a), silaba egitura zertxobait sinplifikatuz. Adibideon bilakaera diakronikoa (19b)-n ematen da (puntuak silaba muga adierazten du):

- (19) Arantza: ezpainkari > w / __ . C

a. *illántia* 'hilabetea', *iránzi* 'irabazi', *akántu* 'akabatu', *arrántu* 'harrapatu', *eskántu* 'eskapatu', *eránn* 'eraman'



9. irud. atéttik vs. atétik (Arantza)

- b. *bilabetea* > **illábtia* > *illántia*
irabazi > **irábzi* > *iráwzi*
akabatu > **akábtu* > *akáwtu*
barrapatu > **arráptu* > *arráwtu*
eskapatu > **eskáptu* > *eskáwtu*
eraman > **erámn* > *eráwn*

Adibide hauetan, gaztelaniaz gertatu den bilakaera berbera ikusten dugu. Ertaroko gaztelaniaz, sinkopa baten ondorioz, herskari ezpainkariak aurkitzen ditugu hitz-barneko silaba kodetan. Herskari hauek irristari bihurtu dira gaurrengungo gaztelanien: *cinitate* > *cibdad* > *ciudad*, adibidez.

Zenbait adibidetan bokalizazioa ez da agertzen Arantzan, agian maileguak berriagoak direlako, hala nola *eskóptia* adibidean (eta ez ***eskówtia*).⁴

Arantzako hizkeran silaba egitura euskara orokorrarena baino askoz aberatsagoa da. Desberdintasunak hitz-barneko kodan aurkitzen ditugu. Euskara orokorrean hitz-barneko kodak oso sinpleak dira; ez dago koda talderik eta aurkitzen ditugun posibilitate bakarrak hauek dira: sudurkari bat, hurrengo kontsonantearen ahoskunea hartzen duena (*kanpo*, *sendo*), urkari bat (*alde*, *hartu*) edo frikari bat (*asto*, *ezti*). Herskariak mailegu berrietan besterik ez dira agertzen (*helikoptero*, *administrari*). Arantzan, aldiz, herskariak eta afrikatuak ugariak dira posizio honetan (*eskóptia*, *tomátkea*, *mácko*, *fabriketik*, *xétzkeo*). Ahoskune guztietako herskariak aurkitzen ditugu kodan, sabaikaria barne. Kodaren egitura konplexuagoa da gaztelaniaz edo ingelesez baino, oso kontsonante talde zailak onartzen baitira. Esan dezakegu sinkopak Arantzako euskararen silaba egitura guztiz aldatu duela.

Arantzan nahiko aldaera bereziak sortzen dira partizipio imperfektiboarekin (Fidel Altunari zor diot albistea):


- (20) Arantza: partizipio imperfektiboa + laguntzailea

ekártzen du > *(e)*kártz(e)n u* > *kárznu*
ikústen da > *(i)*kúst(e)n a* > *kústna*
egiten du > *(eg)*ít(e)n u* > *ítnu*
etórtzen da > *(e)*tórtz(e)n a* > *tórtzna*

Partizipioetan bokal azentudunaren aurrekoa eta ostekoa galdu egiten dira. Beste bilakabide batez, laguntzailearen /d/-a galtzen da, sortzen diren taldeak nolabait erraztuz.


Sinkopa azentuak baldintzatuta dago edo, Mitxelena (1972) hitzekin esateko, azentuaren epifenomeno bat da (cf. Holmer 1964). Sinkopa gogor hauek Bidasoa haraneko hizkeren ezaugarri nabarmentzat hartuak izan dira, baina, nire ustez, euskalariak ez diete merezi duten garrantzia eman.

⁴ Gorka Elordietak (a.e.) beste arrazoi bat proposatzen du: adibide honetan bokalizazioa ez da gertatzen [ow] diptongoa ezinezkoa delako euskal hizkera honetan. Adibide gehiago beharko genituzke hipotesi zuzena zein ote den argitzeko.



10. irud. eskotku

Adibideetan ikusi dugunez, eskualde honetako beste herri batzuetan, hala nola Labaienen edo Iturenen, oso bokal ilunak eta neutralduak aurkitzen ditugu zenbait silaba azentugabeetan (cf. Hualde 1991: 173-174). Bokal hauek ere azentuazioaren epifenomenoak dira. Silaba azentugabeetan, eta batez ere azentudun ostekoan, bokalak oso laburrak dira maiz eta, esan bezala, /a/ eta /e/ fonemak [ə] antzeko bokal neutralaren bidez gauza daitezke.⁵ Beste bokaletan ere laburtze eta zentralizazio prozesu hau nabari da, bien arteko alofonoak sortuz. Labaiengo hizkeran ere, *bezálko*, *elízirik*, *elúrtako* eta antzeko adibideak jaso ditut, sinkoparekin. 11. irudian *baserr(i)tarra* adibidearen espek-



11. irud. baserr(i)tarra (Labaien)

trograma ikus daiteke. Zenbait kasutan silaba oso bat galtzen da. Labaienen *duté > te* bilakaera dugu: *gizónak in té* (< *egin duté*) vs. *gizónak in dú*. Bidasoaldeko hizkeretan, beraz, sinkopa nola gertatzen den oso modu argian ikusten dugu: hainbat bokal azentugabe gero eta laburragoak dira, kualitatea ilunduz, erabat desagertu arte.

5.3. Hondarribia

Lehen begirada batez, Hondarribiko azentu datuak Bidasoa haraneko azentu sistemaren antzekoak dira, eta horrela ikusi dute honetaz arduratu diren ikertzaile

⁵ Hiru adibide neurtu ditut Iturengo grabaketatik aterata. Egin ditudan neurketen arabera, [ɨ] bokalaren bigarren formakina [a]-rena baino altuagoa da eta [e]-rena baino baxuagoa, lehen formakina gutti gorabehera [e]-rena delarik. Honek esan nahi du [e] bokala baino zentralagoa dela. Gai honek azterketa sakonagoa merezi du.

gehienek. Datu gehiago biltzen ditugunean, hala ere, desberdintasun argiak agertzen zaizkigu. Begira diezaogun, adibidez, hurrengo testuari:⁶

(21) Hondarribia

buéno bá kontátukò dizút egún óketàn ondarríbian izáten ttugún jáiakén ingúrua. ba, ondárbiyán jáiak así diré gáur eguérdíko amábitàn eta bukátukò diré éldu dén astelénian, ez takít, gábaz... arrátsian bukátukò da. e... or jénde guzýyak eta gáuza típiko bezála ikústén dú alárdiarená. amabérjiñàn egúnian egíttén dén alárdiarená. etá alárde orí, ez takít, askók batállá, batállekin eta sitioekin etá, relazionátzén duté. gurétzát gáur egún ez tá orréllakorik. gurétzát da jái egún bát eta normálean óndo pásátzeko egúna eta ez tá aláko. buéno, eskopétak izán, ez takít, eskopétak baldín badíttugú eré, ez tá, ez tut usté borróka, borróka idéa or dagónik. alárde orí goizían asítzén dá eta buéno tanborráda. alárde guzýtan bezála tamborráda badagó[nez?]. tanborráda(k) goízeko séiretan diána jótzén dú eta géro zortzýyak árte eta zortzý terdiak aldéra trópa edo konpañía guzýyak bíltzén diré tóki konkréto bátean, múrruan eta órtik bederátzýak aldéra asítzén dá alárdia, ez? alárdia egótzén [?] da kále nagúsitikàn eta pláza de ármasera. án jenerála ré, alárdiákin batéra díjóan orrék deskárga bat agíntzén du. bandéran billá jóaten da tanborráda eta konpañía bat erríko bandéran billá eta géro bandéra orrékin béste... alárdiak segítzén du eta desfile bat egíttén da. sáindu déítzén dén basérri baten ondóraño. ándikan guadalúpera igótzén da eta guadalúpen ere gosáltzéz apárte méxa izáten da eta géro berríz desfílea. bazkáltzeko ordúa etórri, bazkáldu, txanpañía náiko erán ze jéndia normálean egún orrétan órtik askó egíttén dú edo egíttén dugú eta géro arrátsaldian berríz, arrátsaldian berríz izáten da eta berríz béste desfílea eta géro erriko bandéra entregátu egíttén da ayuntamiéntuan eta géro ba konpañía bakótxa jóaten da bere kantinéra entregátzera eta normálean kantinéan etxían erán éíttén dá dexénte. eta géro nai dukéna [?] bukátu árte. ori izáten da amabérjiña egúna zera setiémbré zortzýan.

Testu honetako hitz gehienen azentuera kapitulu honetan ikusi dugun sistemaren barnean azaltzen da. Hitz batzuen azentuera, hala ere, orain arte ikusitako sistematik alden du egiten da. Erka ditzagun, adibidez, *eskopéta* hitzak duen azentuera eta Arantzako *eskópta*. Eta hau ez da kasu bakarra testuan. Bortzirietan azentua lehen edo bigarren silaban doa beti, baina Hondarribiko testu honetan azentua hirugarren eta laugarren silaban agertzen da hitz batzuetan (denak maileguak): *tanborráda*, *kantinéra*, *konpañía*, *ayuntamiéntuan*, *amabérjiña*, *jenerála*, *guadalúpera*, *entregátzera*. Ikus dezagun astiroago Bortzirietako eta Hondarribiko azentu sistemaren arteko alde zertan datzan.

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, Hondarribian ere oinarriaren silaba kopuruak (silaba bat edo gehiago duen) baldintzatzen du azentuaren lekua. Azentua ez da

⁶ Testu hau Txomin Sagarzazurekin izan nuen lehen elkarrizketan grabatu nuen, berarekin azentuaz lan egiten hasi baino lehen.

inoiz flexiozko atzizkietan ezartzen. Beraz, azentu eremua oinarria da (ez bakarrik erroa, eratorpen atzizki gehienak sartzen baitira unitatean). Silababakarreko oinarriekin azentua hitzaren lehendabiziko silaban jartzen da (22a). Bisilabadunekin, aldiz, azentua gehienetan bigarren silaban doa, (22b), baina badaude salbuespen batzuk, azentua lehendabiziko silaban daramatenak (22c) (Hualde & Sagarzazu 1991):

(22) Hondarribia

a. Silababakarreko oinarriak

árr-a, árr-akentzat, án-dikan, ón-erako, lúrr-era, lúrr-etikan, béltz-akena, góiz-ian

b. Oinarri bisilabadunak, kasu orokorra [o ó]

<i>lau lagún</i>	<i>lau kató</i>
<i>lagúna</i>	<i>katúa</i>
<i>lagúnari</i> 'sg'	<i>katúari</i>
<i>lagúnakeri</i> 'pl'	<i>katúakeri</i>
<i>lagúnakin</i> 'sg/pl'	<i>katúakin</i> 'sg/p'
<i>lagúnantzat</i> 'sg'	<i>katúantzat</i>
<i>lagúnakentzat</i> 'pl'	<i>katúakentzat</i>

*ixtúa, burúa, txokúan, luzía, guzítan, garbíyaguak
bildú, lotú, beté, itó*

c. Oinarri bisilabadunak, salbuespen lexikalak [ó o]

básuan 'en el vaso', *básora* 'al vaso', *tókiyan, tókira, béstia, áurreko, átzetik, dúdarik, txilkua, pásmua, líbrua, mérke, sóñua, nékia, máixua, mútua bóta, pása*

Bokalez amaitzen diren oinarri hirusilabadunen azentuera aztertzen badugu orain, printzipioz bisilabadunekin daukagun egoera bera dugula ikusten dugu; hots, gehienetan azentua bigarren silaban dago eta kasu berezi batzuetan lehendabizikoan:

(23) Hondarribia

a. Bokalez bukatutako oinarri hirusilabadunak, kasu orokorra [o ó o]

alába, afárya, alkátia, alárdia, nagúsitikan, matrilluakin, txintxárrya, olláskua, irúki, nekátu

b. Bokalez bukatutako oinarri hirusilabadunak, salbuespen lexikalak [ó o o]

fábrica, mákiña bát, dénbora, músika, méryo, txúrmyua 'orkatila',
bízryua, múskeilla

Datu hauek ikusita, inguruko beste hizkeretan bezala, azentu arau nagusiak azentua bigarren silaban ezartzen duela esan behar dugu, azentu unitatea oinarria delarik. Hala ere, kontsonantez bukatzen diren hirusilabadun oinarriak edota oinarri luzeagoak dauzkaten hitzak kontutan hartzen ditugunean, konturatzen gara hau ez dela beti betetzen:

(24) Hondarribia

a. Kontsonantez bukatutako oinarri hirusilabadunak [o o ó]⁷

ezagún-a, kapitán-a, giltzurdiñ-a, euskaldún-a, astelén-a, astizkén-a, arrosél-a, Jaiçkibél, aberáts-a, betazál-a, ostegún

⁷ Badirudi garrantzia duen eremua oinarria dela, eta ez erroa; adibidez, /aste-len/ hitzak bi erro ditu.

- b. Kontsonantez bukatutako oinarri lausilabadunak [o o o ó]
kazkalabárr-a
- c. Bokalez bukatutako oinarri lausilabadunak [o o ó o]
ziringillu-a, matxapéta ‘atunak hiltzeko makila’, *kalamártza, sakarállu-a* ‘arrain mota bat’, *denbo(r)áli-a, salabárru-a, desafiyu-a, soziedádi-a, emakúmi-a, txokoláti-a, karramárru-ak, estropára, astokéri-ya, tanborráda, lapurréta, barka-zíyu-akin, txistulári-yakeri, bertsolári-ya, txistulári-yakentzat entenditu, eskeribitu, ezagútu, pallakátu*
- d. Bokalez bukatutako oinarri bostsilabadunak [o o o ó o]
konparazíyo, atarraméndu-a, bertsolarítza

(24)ko hitzen azentueran Hondarribiko azentubidea Bidasoako sistematik modu nabarmenean aldentzen da. Konpara ditzagun, adibidez, Hondarribiko *matxapéta, eskopéta, txokolátia* eta Arantzako *eskópta, txokóltia*, edo Hondarribiko *atarraméndua, txistuláriya* edo *kazkalabarra* eta Iturengo *atrásamendu, soñularia* edo *karrákillaka*. Modu berean, Hondarribian *astélana* dugun bitartean, Mitxelena (1972) *astélana* jaso zuen Lesakan eta *astélna* Beran (sinkoparekin). Argi dago Bidasoako azentu sistemaren arauak ez digula (24)ko hitzen azentuera zuzena ematen. Bidasoako azentubidean azentua ez da inoiz bigarren silaban baino eskuinalderago agertzen. Hondarribian aldiz, (24)ko adibideek erakusten diguten bezala, hirusilabadun eta luzeagoko oinarrekin azentua eskuinalderago kokatzen da. Zehazki, azentua oinarriaren azkenaurreko silaban ezartzen da, oinarria bokalez bukatzen bada, eta oinarriaren azken silaban, kontsonantez bukatzen bada. Azentuera hau eta Bidasoako arau orokorra, beraz, guztiz desberdinak dira, nahiz eta desberdintasuna oinarri luze xamarrekin bakarrik agertu.

Datuak laburbilduz, oinarriaren silaba kopurua kontuan hartuz, hurrengo azentu patroi markatugabe edo erregularrak ditugu Hondarribiko euskaraz:

- (25) Hondarribia: azentuera markatugabea
- Oinarria silababakarrekoa bada, azentua lehen silaban doa: *lúrr-era*
 - Oinarria bisilabaduna bada, azentua bigarren silaban doa: *mendi-ra, gizón-akiñ*
 - Oinarria hirusilabaduna bada, eta bokalez bukatzen bada, azentua bigarren silaban doa (azkenaurrekoa bukaeratik kontaturik): *alkáti-a*
 - Oinarria hirusilabaduna bada, eta kontsonantez bukatzen bada, azentua hirugarren (azken) silaban doa: *aberáts-a*
 - Oinarria lausilabaduna bada, eta bokalez bukatzen bada, azentua hirugarren (azkenaurreko) silaban doa: *ziringillu-a*
 - Oinarria lausilabaduna bada, eta kontsonantez bukatzen bada, azentua laugarren (azken) silaban doa: *kazkalabárr-a*
 - Oinarria bostsilabaduna bada, eta bokalez bukatzen bada, azentua laugarren silaban doa: *konparazíyo*

Patroi markatugabe edo orokorrenei buruzko jeneralizazio hauek ikusita, aterabide bat baino gehiago ditugu analisirako. Ikusten denez, oinarri bisilabadunekin oinarriaren azken segmentua bokala edo kontsonantea izateak ez du garrantzirik.

Hemen ez dago Bortzirietako azentuerarekiko diferentziarik. Oinarri luzeagoekin, aldiz, Hondarribian, Bortzirietako sisteman ez bezala, argi eta garbi oinarriaren eskuinaldetik kontatzen da azentua ezartzeko eta azken segmentua zein den garrantzitsua da azentugunea erabakitzeko. Bi sistemen arteko oinarritzko diferentzia hau, hala ere, ez da oso nabaria, euskaraz oinarri gehienak hirusilabadunak edo laburragoak baitira. Horregatik, ziur asko, beste ikertzaile batzuk ez ziren ohartu diferentzia honetaz.

Balitzko analisi batean, oinarri laburretarako Bortzirietako araua mantentzeko, oinarri luzeagoetarako beste arau bat proposatuz.

(25) Hondarribia: A analisia (behin-behinekoa)

Azentu eremua: Oinarria

- a. Silababakarreko eta bisilabadun oinarriak: oin silabiko ianbikoa ezkerreko mugan

(. x)	(. x)
[men di]	[gi zon]

- b. Hirusilabadun eta luzeagoko oinarriak: oin moraiako trokaikoa eskuinaldeko mugan

(x .)	(x)
[kon pa ra zi yo]	[kaz ka la barr]

(25)ean emandako analisia bide zuzenetik doa, emaitza zuzenak ematen baititu. Baina arau zeharo ezberdinak erabiltzen ditu, silaba kopuruaren arabera. Datu guztiak algoritmo beraren bidez azaltzea ez ote den posible ikusi beharko genuke.

Ohartzen bagara, oinarri luzeetarako proposatu analisia kasu guztietara hedatzeko problema bakarra bokalez bukatzen diren oinarri bisilabadunetan datza. (25b)ko arauak *gizón-a* emango digu, baina baita **méndi-ya* ere. Alabaina, lehen silaba estrametrikkoa dela proposatzen badugu, problema hau desagertu egiten da: <men>di eta <gi>zon badugu, azentua metrikkoa den silaba bakarrean ezarriko da bi kasuetan. Beraz, hurrengo algoritmoa proposatuko dugu:

(26) Hondarribia: B analisia

- a. Azentu eremua: Oinarria
- b. Estrametrikalitatea: Eremuaren lehen silaba estrametrikkoa da
- c. Araua: Ezarri oin moraiako trokaiko bat eskuinaldeko mugan (ó ð) edo (ō')

Hurrengo adibideek algoritmoaren gauzatzea erakusten dute:

(27) Hondarribia

beltzakena	lagunaken	mendira	emakumea	ezaguna
------------	-----------	---------	----------	---------

- a. Azentu eremua

[beltz]	[lagun]	[mendi]	[emakume]	[ezagun]
---------	---------	---------	-----------	----------

- b. Estrametrikalitatea

_____	<la>[gun]	<men>[di]	<e>[makume]	<e>[zagun]
-------	-----------	-----------	-------------	------------

c. Azentu araua

(*)	(*)	(*)	(* .)	(*)
[beltz]	<la>[gun]	<men>[di]	<e>[makume]	<e>[zagun]
<i>béltzakena</i>	<i>lagúnaken</i>	<i>mendíra</i>	<i>emakúmia</i>	<i>ezagúna</i>

Nolabait, Hondarribiko euskararen azentuera hopi hizkuntza iparramerikarraren aurkakoa da. Hizkuntza honetan, Hayes-en (1980: 126-128) deskribapenaren arabera, azentua lehen silaban doa, hau astuna bada, eta bestela bigarren silaban. Baina hitz bisilabadunek azentua lehen silaban dute, silaba hau arina bada ere. Hayes-ek patroio hauek lortzen ditu azken silaba estrametrikoko eginez.⁸

Mitxelenak behin baino gehiagotan ohartarazi zuenez, Bidasoako hizkeretan markatu edo irregularrak diren hitz asko edo gehienak, mendebalderagoko hizkeretan ere markatuak dira. Adibidez, Hondarribian azentu markatua duten hitzak sailkatzen baiditugu, beraien artean mailegu asko aurkitzen ditugu, batzuk nahiko zaharrak: *ánka*, *pútzu*, *múki*, *mérke*, *sónu*, *mútu*, *giro*, *lóre*, *jóku*, *sóto* 'portal', *pásmo* 'pus', *jénde*, *máixu*, *líbru*, *múrru*, *méza*, *sántu*, *kóntu*, *kántto*, *dénbora*, *múskillu*, *néke*. Gure analisisian hitz hauei ez zaie ezartzen lehen silabaren estrametrikotasuna.

Markatuen artean ere sarritan postposizio gisa erabiltzen diren hitzak aurkitzen ditugu, hala nola *áurre*, *átze*, *árte*, eta *gábe*. Bestalde Bortzirietatik Getxoraino markatua den hitz bat *txístu* da. Mitxelenak esaten duenez, *málko* eta *txílko* markatuak dira Errenterian ere. Beste hitz batzuk, aldiz, markatuak dira Hondarribian, baina markatugabeak mendebaldeko hizkera gehienetan, beraien artean, *áma*, *átta* eta *gútxi*.

5.4. Pierre d'Urteren lapurtera zaharra

Mitxelenak (1972) Pierre d'Urte idazle lapurtarraren azentuera aztertu zuen eta xvii. mendeko idazle honek funtsean Bidasoako sistema erabili zuela asmatu zuen. Dena den, honako murriztapen hau aurkitzen du: hitza (erroa + atzizkiak) lausilabada edo luzeagoa bazen, azentua ezin ezar zitekeen azkenhirugarren silaba baino ezkerralderago (Mitxelenak 1987 [1972]: 242). Mitxelenarentzat, beraz, d'Urteren kostaldeko lapurtera zaharrak gaurregungo Bortzirietako hizkeren azentuera zuen, baina murriztapen batekin. Nik hemen analisi desberdin bat proposatu nahiko nuke; hots, d'Urteren azentuera lapurtarra funtsean gaurko Hondarribiko euskararena dela. Mitxelenak bildu zituen datuak guztiz bat datoz Hondarribiko azentubiderako eman dugun algoritmoarekin:

(28) Pierre d'Urteren azentu grafikoa (xvii. mende akabuko kostaldeko lapurtera)

a. Silababakarreko oinarriak

gáitz-, *lúrr-*, *sú-*, *zúr-*

⁸ Larry Hyman-i eskerrak eman nahi dizkiot hopenaren aipuagatik.

- b. Erro bisilabadunak, patroï orokorra [o ó]

arté
artéan *egúnean* *mundúan*
artétik *egúnetik* *mundútik*
artéko *egúneko* *mundúko*
artétikan
bartú
bartúak
jainkóek,
seméek
arrótzen

- c. Oinarri bisilabadunak, salbuespenak [ó o]

grázia *gúzi*
tállu *gúziek*
zámek *lúze*
sábel *tóki*
téji *kúme*

- d. Bokalez amaitutako oinarri hirusilabadunak [o ó o]

ezárrri *isúri*
ezárrria *isúria*
emázteei

- e. Bokalez amaitutako oinarri lausilabadun eta luzeagoak [...o o ó o]

alkatérna *bizkitárte-an*
entsaláda *ben(e)dikátu-a*
miragárri *sakrifikatzálle*
benedizióne *esplikazióne*
ihizíki

- f. Kontsonantez amaitutako oinarri hirusilabadun eta luzeagoak
 (Ez dago adibiderik)

Mitxelenak bere artikuluan ematen dituen adibide guztiak bat datoz Hondarribiko azentu sistemarekin. Baina Hondarribiko sistemak ez du Mitxelenak proposatzen duen murriztapena, alegia, azentua ezin daitekeela joan azkenhirugarren silaba baino urrunago, atzizkiak barne sartzen direlarik. Murriztapen honen bidez *txistulárya* hitzaren azentuera azal dezakegu, baina ez *txistuláryakentzat* hitzarena, adibidez. Azentuera zuzena lortzeko oinarria hartu behar dugu azentu eremutzat, azaldu bezala. Datu faltagatik, ezin jakin dezakegu Pierre d'Urteren azentu sistema eta Hondarribikoak berdin-berdinak ote diren. Ez dakit zer gertatzen ote zen lapurtera zaharrean atzizki luzeekin (*txistuláryakentzat* bezalako kasuetan) edo kontsonantez bukatutako oinarri luzeko hitzetan. Edozein kasutan, Hondarribiko eta d'Urteren azentu sistemak oso antzekoak dira.

Bestaldetik, ez dago dudarik Hondarribiko azentuerak eta d'Urteren izkribuetan aurkitzen dugunak Bortzirietako azentuerarekin lotura historikoa dutela. Mitxelenaren ustez, d'Urteren testuek islatzen duten azentuera goian aipatutako murriztapena bereganatzearekin sortu zen: «I would suggest that historically a new rule was actually introduced in the Labourdin coast to the effect that stress could only fall on the last

three syllables of a word.» (Mitzelena 1987 [1972]: 242). Hau da, momentu jakin bat arte Bidasoako haranean eta Lapurdiko kostaldean azentu sistema berbera erabili zen. Geroago, azken hirusilabetako murriztapena sortu zen Lapurdiko kostaldean, azentu sistema konplikatur. Esan bezala, nire iritziz ez dago hain garbi d'Urteren sistemak arau edo murriztapen hau izan zuenik. Edozein kasutan, zalantzarik gabe Hondarribiko azentu algoritmoak ((26)an eman duguna) Bortzirietakoak baino konplexutasun haundiagoa dauka. Baliteke Hondarribiko azentu mota Bidasoa ibai-arrotik gora joanez aurkitzen dugunaren bilakaera izatea. *Honddárbi* (< *Hondárribi*) bezalako azentuerak bilakaera honen alde daude. Hala ere, hau ez da posibilitate diakroniko bakarra.

5.5. Oñati

Aipatu dugun bezala, Erdialdeko azentubidea definitzeko honako ezaugarri hau erabil dezakegu: azentua bigarren silaban ezartzen da hitz gehienetan, baina lehenengo silaban kasu berezi batzuetan. Mota honetako azentu sistemek oso zabalera geografiko handia dute. Hala ere, azentuera ez da guztiz berdina arau hau duten hizkera guztietan. Azentua lehendabiziko silaban hartzen duten kasu bereziak definitzerakoan agertzen dira diferentziak. 5.2 atalean adibide bat ikusi dugu, Bortzirietako azentuarena. Atal honetan eta hurrengoan beste bi kasu ikusiko ditugu, Oñati eta Beasain. Hiru adibide hauek Erdialdeko azentubidearen barnean aurkitzen den aniztasuna erakusten dute. Hiru hizkera hauetan, [+2] dugu normalean eta [+1] kasu batzuetan, baina [+1] azentuera kasu desberdinetan erabiltzen da hiru hizkerotan. Dena den, badira sistema sinpleagoak ere. Hemen konparatutako hiru hizkeretan, [+1] azentuera hartzen duten hitz batzuk salbuespen lexikoak dira; baina, leku batzuetan —Arrasaten esaterako— ez dago salbuespen lexikorik.

(29)ko adibideek Oñatiko azentuera markatugabea erakusten dute; adibideak mugagabean eta absolutibo singularrean ematen ditugu. Forma flexiodun guztiak absolutibo singularra bezala azentuatzen dira (adibideak Izagirrearen (1970) Oñatiko hiztegitik jaso ditut):

(29) Oñati: azentuera markatugabea

a. Oinarri bisilabadunak

<i>bába</i>	<i>babía</i>
<i>gízõn</i>	<i>gizóna</i>
<i>ágiñ</i>	<i>agíña</i>
<i>áltzo</i>	<i>altzúa</i>
<i>ágo</i>	<i>agúa</i>
<i>árgal</i>	<i>argála</i>
<i>gérri</i>	<i>gerrixa</i>

b. Oinarri hirusilabadunak eta luzeagoak

<i>abáre</i>	<i>abária</i>
<i>aláka</i>	<i>alákia</i>
<i>abráilla</i>	<i>abráillia</i>
<i>aábixxa</i>	<i>aábixxia</i>
<i>burdíña</i>	<i>burdíñia</i>
<i>errósen</i>	<i>errósiena</i>
<i>gorábeta</i>	<i>gorábetia</i>
<i>muñárratu</i>	<i>muñárratua</i>
<i>orkátilla</i>	<i>orkátillia</i>

Ikusten denez, oinarriak hiru silaba edo gehiago badauzka, azentua bigarren silaban doa, forma guztietan. Oinarri bisilabadunekin, aldiz, azentua lehen silaban doa atzizkirik gabeko forman eta bigarreanean forma atzizkidunetan. Bortzirietako

datuekin konparatuz, diferentzia bat oinarri bisilabadunen atzizkirik gabeko formaren azentueran agertzen zaigu. Bortzirietan *lau gízón, gízóna* dugun bitartean, Oñatin *lau gízón, gízóna* aurkitzen dugu. Arau orokorra [+2] bada ere, badago azentu oxitonoaren kontrako murriztapen edo debeku bat: azentua ezin daiteke hitzaren azken silaban egon. Murriztapen hau oso hedatua dago [+2] arau orokorra duten hizkeretan.

(29)n erakutsitakoa ez da patroï bakarra. Hitz talde txikiago batek azentua lehen silaban dauka forma guztietan:

(30) Oñati: azentuera markatua (salbuespen lexikoak)

a. Oinarri bisilabadunak

áje *ájia*
ánka *ánkia*
séme *sémia*
díru *dírúa*
izar *izarra*
ántzar *ántzarra*

b. Oinarri luzeagoak

éguen *éguena*
ídola *idolia*
ángixo *ángixua*
árbola *árbolia*
dénpora *dénporia*

Oinarri bisilabadun guztiek, markatuek eta markatugabeek, silaba berean dute azentua atzizkirik gabeko forman (= lehen silaban), baina azentuera ezberdinak erakusten dituzte forma atzizkidunetan.

Bestaldetik, Bortzirietan bezala, silababakarreko oinarrien forma guztietan azentua lehen silaban doa. Hau dela eta, esan dezakegu azentu unitatea erroa edo oinarria dela (eta ez hitz osoa):

(31) Oñati: silababakarreko oinarriak

lúr
lúrra
lúrrak
lúrrera
lúrrerara

Silababakarreko erroa duten hitz eratorri askok ere azentua lehen silaban dute:

(32) Oñati: erro silababakarrekoak

bí *báltz*
bigarrena *báltzagua*

Datuak ikusita, Bortzirietarako proposatu genuen analisisa ezar diezaiokegu Oñatiko sistemari ere, neurri handi batean; baina hitz bisilabadunen portaera (hau da, oxitonasunaren aurkako murriztapena) azaltzeko mekanismoren bat erabiliz. Algoritmo orokorrak [+2] patroia eman behar digu, bigarren silaba hitzaren azkena denean izan ezik. Maila analitikoan, azken silabaren azentugabetasuna lortzeko erabil dezakegun mekanismoa estrametrikalitatea da.

(33) Oñatiko azentu sistema

Azentu eremua: Erroa

Estrametrikalitatea: Hitzaren azken silaba

Azentu arau orokorra: Ezarri oin silabiko ianbiko bat, (. x), ezkerraldeko muga.

(34) Oñati

lurra gizon gizona abare abaria

Azentu eremua:

[lurr] a [gi zon] [gi zo n] a [a ba re] [a ba ri] a

Estrametrikalitatea:

[lu] <rra> [gi] <zon> [gi zo] <na> [a ba] <re> [a ba ri] <a>

Azentu araua:

(*)	(*)	(. *)	(. *)	(. *)
[lu] <rra>	[gi] <zon>	[gi zo] <na>	[a ba] <re>	[a ba ri] <a>
<i>lúrra</i>	<i>gízon</i>	<i>gízo^{na}</i>	<i>abáre</i>	<i>abária</i>

Bortzirietako sisteman bezala, hitz markatu lexikoek oin trokaiko bat hartzen dutela proposa dezakegu:

(35) Oñati: hitz markatuak

(x .)

[i do] <la>

ídola

Oñatin, hizkera gehienetan aspalditik sinplifikatu diren bokal luze (edo bikoitz) asko mantendu egin dira orain arte. Dena den, horietariko asko galduz doaz belau-naldi gazteetan. Konpara ditzagun hurrengo pluralak (ene esker ona Amaia Erostar-beri):

(36) Oñati: bokal luzeak

Hiztun zaharrak: *neskáak* *alábaak*Hiztun gazteak: *neskáak* *alábak*

Oñatiko hiztun gazteen hizkeran bokal luzeak silaba azentudunetan ager daitezke, baina ez silaba azentugabeetan. Análisi sortzaile klasiko batean, bokal laburketa azentuaren ezarketaren ondoren ordenatu beharko genuke.

Goian esan bezala, hizkera batzuetan ez dago salbuespen lexikorik. Oñatitik aski hurbil dagoen Arrasaten, esaterako, [+1] azentuera dugu hitza bisilabaduna denean: *árru*, *ándrak*, *báltza*, *lúrre*; hau da, azentuera oxitonoaren aurkako murriztapena aurkitzen dugu, Oñatin bezala. Baina bi silaba baino gehiagoko hitz guztiek bigarren silaban hartzen dute azentua, salbuespenik gabe: *arbólie*, *arbólak*, *denpórie*. Bestaldetik, azentu sistema Oñatin baino konplexuagoa da [+2] araua duten beste hizkera batzuetan. Beasainen, adibidez, baldintza morfologikoak aurkitzen ditugu.

Jansen (1992), bere Elorrioko azentuaren azterketan, azentuaren ezaugarri akustikoez arduratzen da. Azentu arauen arabera, Elorrión funtsean Oñatirako deskribatu dugun azentuera dugu. Ezaugarri fisikoak direla-ta, edozein ingurunetan silaba azentudunetan tonu gorakada bat dagoela aurkitu zuen Jansen-ek. Silaba azentudunak, beraz, H* melodia bat jasoko luke beti. Jansen-ek ondorioztaten du doinu-azentuzko sistema bat dela, azentuari lotutako melodia aldaezina baita (ingeles ez doaz gaztelaniaz ez bezala). Zazpigarren kapituluan, Bizkaiko kostaldeko hizkeretan silaba azentudunaren ondoren beti beherakada garbia dugula ikusiko dugu. Hizkera horietan, azen-

tuaren melodia H*L da. Elorriori, aldiz, azentuaren osteko silaben melodia aldatu egin daiteke esaldiaren intonazioaren arabera.

5.6. Beasain

5.6.1. *Azentu patrioiak eta arauak*

Beasainen, kapitulu honetan aztertutako hizkera gehienetan bezala, [+2] azentuera dugu orohar eta [+1] kasu berezi batzuetan. Ikusitako azentu sistemetan ez bezala, atzizki batzuek portaera berezia erakusten dute, [+1] azentuera markatua eraginez. Baldintza morfologiko hauek Bizkai-Gipuzkoetako beste hizkera askotan aurkitzen dira, ikusiko dugunez.

Hasteko, aditzaren forma jokatu gabeen azentuera hartuko dugu kontuan. Ikus ditzagun ondoko adibideak (kasu guztietan laguntzailea jarraian datorrenean aurkitzen den azentuera ematen da. Laguntzailerik gabe, azentu oxitonoa silaba bat atzera daiteke):⁹

(37) Beasain: partizipioak

a.	<i>ikúsi (da)</i>	<i>íkusten (da)</i>	<i>ikúsiko (da)</i>
	<i>esán</i>	<i>ésaten</i>	<i>esángo</i>
	<i>etórri</i>	<i>étortzen</i>	<i>etórriko</i>
	<i>ibilli</i>	<i>ibiltzen</i>	<i>ibilliko</i>
	<i>artú</i>	<i>ártzen</i>	<i>artúko</i>
	<i>konpóndu</i>	<i>kónpontzen</i>	<i>konpónduko</i>
	<i>botá</i>	<i>bótatzten</i>	<i>botáko</i>
	<i>entzún</i>	<i>éntzuten</i>	<i>entzúnngo</i>
	<i>jaió</i>	<i>jáiotzen</i>	<i>jaióko</i>
	<i>bizí</i>	<i>bízitzen</i>	<i>bizíko</i>
	<i>ió</i>	<i>íotzen</i>	<i>ióko</i> ('igo')
	<i>juntáu</i>	<i>júntatzen</i>	<i>juntáuko</i>
b.	<i>entén(d)ittu</i>	<i>entén(d)ítzen</i>	<i>entén(d)ittuko</i>
	<i>kontéstau</i>	<i>kontéstatzen</i>	<i>kontéstauko</i>
	<i>orgánizau</i>	<i>orgánizatzen</i>	<i>orgánizauko</i>
	<i>erábai</i>	<i>erábaitzen</i>	<i>erábaiko</i>
	<i>gertú(r)au</i>	<i>gertú(r)atzen</i>	<i>gertú(r)auko</i>
	<i>aukérau</i>	<i>aukératzen</i>	<i>aukérauko</i>
	<i>arrápau</i>	<i>arrápatzen</i>	<i>arrápauko</i>
	<i>asztórau</i>	<i>asztóratzen</i>	<i>asztórau</i>
	<i>ugárittu</i>	<i>ugáritzen</i>	<i>ugárittuko</i>
	<i>ingúrau</i>	<i>ingúratzen</i>	<i>ingúrauko</i>
	<i>sistématizau</i>	<i>sistématizatzen</i>	<i>sistématizauko</i>

⁹ Beasaingo datuengatik eta bere ohar zorrotz bezain interesgarriengatik, eskerrak eman nahi dizkiot Fidel Altunari.

Aditzak bi taldetan banatu ditugu. Adibide guztietan, partizipio perfektiboan eta geroaldikoan azentua bigarren silaban doa. Inperfektiboan, aldiz, azentua lehen silaban doa (37a) taldeko aditzekin, baina bigarren silaban (37b) taldekoekin. Bi taldeen arteko diferentzia silaba kopurua da, noski. (37a) taldeko partizipio inperfektiboek bi edo hiru silaba dituzte, eta (37b)koak luzeagoak dira. Partizipio inperfektiboak duen azentuera /-t(z)e/ atzizkiarekin eratutako beste forma guztietan ere betetzen da, eta hauek luzeagoak izan daitezke: *ikusteko*, *ibiltzea*. Garrantzia duena ez da, beraz, hitzaren silaba kopurua, erroarena baizik. /-tze/ atzizkiarekin dugun azentuerearen eskema ondokoa liteke:

(38) Beasain: partizipio inperfektiboaren azentuera

- | | |
|------------|-----------------|
| a. [ó]-tze | b. [o ó o]-tze |
| [ó o]-tze | [o ó o o]-tze |
| | [o ó o o o]-tze |

Azentu patroï hauek algoritmo bakar baten bidez lortzeko, honako analisisia proposa dezakegu fonologia metrikoaren tresnak erabiliz:

(39) Beasain: /-tze/ atzizkidun formak

- Azentu eremua erroa da (/ -tze/ atzizkia eremuz kanpo gelditzen delarik)
- Azentu eremuaren azken silaba estrametrikala da
- Eraiki oin silabiko ianbiko bat, (. x), ezkerraldeko mugarekin lerrokatuta

[ó]-tze	(x) [ar] tzen
[ó o]-tze	(x) [i <kus>] ten
[o ó o]-tze	(. x) [u ga <ri>] tzen
[o ó o o]-tze	(. x) [or ga ni <za>] tzen
[o ó o o o]-tze	(. x) [sis te ma ti <za>] tzen

Algoritmo honek azentua lehen silaban ematen digu erroa silababakarrekoea edo bisilabaduna denean eta bigarren silaban bestelako kasuetan.

Partizipio perfektiboetan, azken silabaren estrametrikalitatea ez da ezartzen. Estrametrikalitatea /-tze/ atzizkiak eragiten duen propietate prosodiko markatu bat da. /-tze/ bezalako morfema markaturik ez badago, oin ianbiko bat ezartzen da, besterik gabe:

(40) Beasain: partizipio perfektiboak

(. x)	(. x)	(. x)	(. x)
[ar tu]	[i ku si]	[u ga ri ttu]	[or ga ni zau]

(38)an emandako azentu patroïak orokorrak eta emankorrak dira eta mailegu berri guztiei aplikatzen zaizkie. Hala ere, kontuan har ditzagun orain beste adibide hauek:

(41) Beasain: partizipioak, kasu bereziak		
eséi	eséitzen	eséiko
aiázi	aiázten	aiáziko ('adierazi')
ebái	ebáitzen	ebáiko
irázi	irázten	iráziko ('irabazi')
irúittu	irúitzen	irúittuko
ezáutu	ezáutzen	ezáutuko

(41)eko adibideetan, itxadon, azentua lehen silaban forma inperfektiboan espero genuke, silaba kopurua kontuan hartuz. Hala ere, azentua bigarren silaban agertzen da, ikusten denez. Azentuera honen azalpena diakronikoa da. Adibide hauek guztiok kontrazio bat jasan dute, Fidel Altunak oharrezten didanez:

(42) Beasain: kontrazio diakronikoa	
<i>eseri</i> > <i>eséi</i>	<i>irabazi</i> > <i>irázi</i>
<i>adierazi</i> > <i>aiázi</i>	<i>iruditu</i> > <i>irúittu</i>
<i>ebagi</i> > <i>ebái</i>	<i>ezagutu</i> > <i>ezáutu</i>

Baina, horrela bada ere, sinkronikoki desagertutako kontsonanteak motibatuzeko ebidentziarik ez dagoenez gero, aditz hauen forma inperfektiboaren azentuera salbuespentzat hartu behar da, *esé. itzen* edo *iráazten* esaten ez duten hiztunentzat behinik behin. Salbuespen gutti hauek alde batera utziz eta orain arte ikusi duguna laburtuz, aditz partizipioetan azentua bigarren silaban ezartzen da gehienetan, baina /-t(ze/-atzizkidun formetan lehen silaban doa, hiru silaba baino guttiagoko erroekin.

Ikus dezagun orain izenen azentuera. Gipuzkoako beste hizkera batzuetan bezala, oinarriak bi, (43a), edo hiru silaba, (43b), dituenean, kasu orokor edo markatugabeen, azentua bigarren silaban doa singularrean (eta mugagabeen) eta lehen silaban pluralen:

(43) Beasain: izen/adjektiboak	
a. Oinarri bisilabadun markatugabeak	
[o ó	[ó o
sg	pl
<i>zakúrre</i>	<i>zakurrek</i>
<i>zakúrrei</i>	<i>zakurrei</i>
<i>zakúrren etxéa</i>	<i>zakurren etxéa</i>
<i>zakúrrekin</i>	<i>zakurrekin</i>
<i>zakúrrentzat</i>	<i>zakurrentzat</i>
<i>gizóna</i>	<i>gizonak</i>
<i>gizónai</i>	<i>gizonai</i>
<i>mendie</i>	<i>méndik</i>
<i>menditik</i>	<i>ménditatik</i>
<i>gerrie</i>	<i>gerrick</i>
<i>gerriñ</i>	<i>gerritan</i>
<i>burnie</i>	<i>burnik</i>
<i>eskúe</i>	<i>éskuk</i>

<i>etxéa</i>	<i>étxek</i>
<i>basóa</i>	<i>bások</i> ‘oihana’
<i>lepóa</i>	<i>lépok</i>
<i>neskéa</i>	<i>néskak</i>
<i>ezúrre</i>	<i>ézurrek</i>
<i>izárre</i>	<i>izarrak</i>
<i>melárre</i>	<i>mélarrak</i> ‘mehe’

b. Oinarri hirusilabadun markatugabeak

[o ó o	[ó o o
<i>alába</i>	<i>álabak</i>
<i>mozórroa</i>	<i>mózorrok</i>
<i>alkátea</i>	<i>álkatek</i>
<i>ostátue</i>	<i>óstatuk</i>
<i>katillue</i>	<i>kátilluk</i>
<i>siñálea</i>	<i>siñalek</i>
<i>zapátea</i>	<i>zápatak</i>
<i>ostíkoa</i>	<i>óstikok</i>
<i>bixígue</i>	<i>bixiguk</i>

Oñatin ez bezala, azentuera oxitonoa posible da. Erro bisilabadunen mugagabeen hiztunek zalantzak dituzte. Antza denez, ingurune honetan azentu atzerapena aukerakoa da, baina ez beharrezkoa:

- (44) Beasain: azentu oxitonoa
lau méndi ~ *mendi*
lau búru ~ *burú*

Oinarria luzeagoa bada, azentua bigarren silaban ezartzen da bai singularrean eta baita pluralean ere:

- (45) Beasain: oinarri luzeak
- | | |
|--------------------|---------------------|
| [o ó o o | [o ó o o |
| <i>emákumea</i> | <i>emákumak</i> |
| <i>gezúrteroa</i> | <i>gezúrterok</i> |
| <i>txistúlarie</i> | <i>txistúlariek</i> |

Hirusilabadun batzuekin ere (kontsonantez bukatzen diren guztiak?) azentua ez da atzeratzen pluralean:

- (46) Beasain: kontsonantez bukatutako oinarri hirusilabadunak
- | | |
|--------------------|---------------------|
| [o ó o | [o ó o |
| <i>abératsa</i> | <i>abératsak</i> |
| <i>giltxúrdiñe</i> | <i>giltxúrdiñek</i> |
| <i>esnédune</i> | <i>esnédunek</i> |
| <i>bizárdune</i> | <i>bizárdunek</i> |
| <i>alárgune</i> | <i>alárgunek</i> |

Salbuespenez, erro markatu batzuekin azentua lehendabiziko silaban kokatzen da singularrean eta pluralean:

(47) Beasain: erro markatuak

[ó o...		[ó o...	
<i>básoa</i>	<i>déndeá</i>	<i>bások</i> (edalontzia)	<i>déndak</i>
<i>úmea</i>	<i>pélotea</i>	<i>úmek</i>	<i>pélotak</i>
<i>sémea</i>	<i>léngusue</i>	<i>sémek</i>	<i>léngusuk</i>

Oinarria silababakarrekoea bada, azentua lehen silaban jartzen da forma guztietan:

(48) Beasain: silababakarreko oinarriak

[ó			
<i>lúrre</i>	<i>lúrrea</i> ('lurrera')	<i>órtza</i>	
<i>lúrrena</i>	<i>lúrreta</i> ('lurretara')	<i>órtzana</i>	
<i>lúrrei</i>	<i>lúrretio</i> ('lurretik')	<i>órtzai</i>	

Datu hauek guztiok ikusita, argi dago Beasaingo azentuera markatugabea [+2] dela, kasu berezi batzuetan [+1] azentuera erabiltzen delarik. Beraz, funtsean, aurreko ataletan ikusitako azentu sistema dugu. Badago, hala ere, diferentzia nabarmen bat. Beasainen, flexiozko atzizki batzuek, hala nola inperfektiboak eta pluralak, azentuera markatua eragiten dute unitate «laburretan». Kapitulu honetan aztertutako beste azentu sistemetan, aldiz, ez dugu horrelakorik aurkitu. Beasaingo azentu patroiak honelaxe labur ditzakegu:

(49) Beasain: azentu patroien laburpena

[+2]: Kasu orokorrean

[+1]: a. Oinarria silababakarrekoea denean: *lúrretio*

b. Hitza bisilabaduna denean (aukerakoa): *lau méndi*

c. Erro markatuekin: *sémea*

d. Partizipio inperfektiboetan aditz erroa silababakarrekoea edo bisilabaduna denean: *étortzen*

e. Oinarri bisilabadunen eta bokalez amaitutako hirusilabadunen pluralen: *zákurrek*

[+1] azentueraren (49a), (49b) eta (49c) kasuak aurreko ataletan ere aurkitu ditugu eta han esandakoak balio du hemen ere. (49d) kasua ikusi berri dugu. Azaltzeko falta zaiguna pluralaren azentuera da, beraz.

Badirudi partizipio inperfektiboen azentuerarako emandako analisia inolako arazorik gabe heda dezakegula pluralaren azentuera azaltzeko. Hasiera batean, pluralaren azentuerak zertxobait konplexuagoa ematen du, kontsonantez eta bokalez bukatutako oinarriak bereizten baitira. Adibideetan ikusten dugu absolutibo pluralen bokal sekuentziak sinplifikatu egiten direla, atzizkiaren bokala galtzen delarik: /lepo-ak/ *lépok*. Hau da, atzizkia eta oinarriaren azken bokala elkarrekin silabifikatzen dira. Pluralaren atzizkia daukan silaba eremutik at gelditzen dela proposatuz, inperfektiborako emandako analisia erabil dezakegu. Bi atzizki markatu hauek berezitasun bera izango lukete: Atzizkia daukan silaba ez da sartzen eremuan eta aurreko silaba ere estrametrikoea da. Azentu patroiz guztiak oin ianbiko bat ezartzen lortzen dira:

(50) Beasain: plurala

(x)	(x)	(x)
[le] pok	[za <ku>] rrek	[al <ka>] tek
(. x)	(. x)	
[a be <ra>] tsak	[ko rri ka <la>] rik	

Ondorioz, esan dezakegu [+1] patroi markatua absolutibo pluralean hitz osoak hiru silaba edo guttiago dituenean agertzen dela: *álkatek* baina *abératsak*. Beste forma guztien absolutiboaren azentueran oinarritzen da.

Singularraren eta pluralaren arteko azentu bereizketa erakusten duten oinarriekin, hitzak flexiozko atzizki bat baino gehiago baldin badauka, lehen atzizkiak erabakitzen du hitzaren azentuera:

(51) Beasain: sg eta pl atzizkien konbinaketak

a. /zakurr-an-ai/	<i>zakúrrenai</i>	‘zakurrarenari’
sg sg		
b. /zakurr-an-ai/	<i>zakúrrenai</i>	‘zakurrarenei’
sg pl		
c. /zakurr-an-ai/	<i>zákurrenai</i>	‘zakurrenari’
pl sg		
d. /zakurr-an-ai/	<i>zákurrenai</i>	‘zakurrenei’
pl pl		

5.6.2. *Hitz eratorriak eta elkartuak*

Eratorpen atzizki batzuk azentu eremutik at gelditzen dira. Atzizki hauekin, azentua hitzaren lehen silaban agertzen da erroak, atzizkirik gabe, silaba bakar bat duenean. Adibide argi bat /-garren/ zenbatzaile ordinala da:

(52) Beasain: /-garren/

[ó...]	<i>bigarrena, bigarrenantzat, láugarrena</i>
[o ó...]	<i>zazpigarrena, zazpigarrenantzat, irígarrrena</i>

Atzizki honekin, azentua lehen silaban agertzen da erroa *bi*, *lau* edo beste silaba-bakarreko zenbaki bat bada, eta bigarren silaban, aldiz, erro luzeagoekin.

Beste eratorpen atzizki batzuekin egoera desberdina da. Adibidez, /-en/ superlatiboarekin eta /-egi/ gehiegizkoarekin, azentua lehen silaban kokatzen da erroa bisi-labaduna edo hirusilabaduna denean ere (ez daukat adibiderik adjektibo luzeagoekin), ez bakarrik silababakarrekoa denean. Erabilera mugatuagoa daukaten beste atzizki batzuek, hala nola /-ki/ ‘zati’, portaera bera erakusten dute:

(53) Beasain: eratorpen atzizki markatuak

/-en/	<i>béltzena, zárrena, gáztena, bérdena, górrina, zúrriña, úrdinena, ázkarrena</i>
/-egi/	<i>ónegie, béltzegie, pólittegie, zábalegie, dótozegie</i>

/-ki/

txérrikie, árdikie

Atzizki hauen azentu portaerak inperfektibo eta pluralarenarekin zerikusi garbia dauka. Hots, atzizkiak azentuera markatua sortzen du. Eratorpen atzizkiak, beraz, ez dira azentu eremuan sartzen. Gainera, batzuek, markadunek, estrametrikalitatea eragiten dute azentu eremuko azken silaban.

Hitz elkartuetan, azentua lehendabiziko silaban ezar daiteke (a) lehen osagaia silabakarrekoa bada, edo (b) lehen osagaia markatua bada:

(54) Beasain: hitz elkartuak

a. *bás-errie, bás-auntze* (cf. *basá-gizon, basá-bide*)

b. *bélarr-ondokoa* (cf. *bélarrie*)

Kasu hauetatik aparte ere, baina erregulartasunik gabe, elkartu batzuek [+1] azentua dute:

(55) Beasain: hitz elkartuak

[ó... *búru-aundie ~ burú-aundie*

mútur-aundie

ánka-motza

béso-motza

xágu-xarra

[o ó... *sudúr-luxea*

begí-okerra

begí-زابالا

gibél-aundie

illún-abarra

Pare bat adibidetan, konposatua [+2] da, nahiz eta lehen osagaia markatua izan:

(56) Beasain: hitz elkartuak

belárrí-luzea (baina *bélarrie*)

arpégi-زابالا (baina *árpegie*)

Ez dirudi arau bat bilatzea posible denik. Konposatuetan joera batzuk aurkitzen ditugu, baina baita salbuespen ugari ere. Hitz elkartu eta eratorri askok lehen silaban daramate azentua, baina ez guztiek. Azentuera markatua duten beste zenbait hitz jatorriz elkartuak edo eratorriak dira, nahiz eta haien egitura morfologikoa ilun bilakatu den:

(57) Beasain: hitz elkartu eta eratorri zaharkituak

léngusue

éuskerea

óllarra

éuzkie ('eguzkia')

íntxaurre

báatzurie

óllaskoa

bázkarie, gósarie, jánarie, éarie (baina: *afárie*)

5.6.3. Maileguak egokitze azentu arauak

Beasainen, Arantzan eta Oñatin bezala, bi silabako leiho bat dago azentua ezartzeko. Azentua hitzaren lehen bi silabetariko batean joan behar du. Murritzapen hau guztiz orokorra da. Mailegetan, azentua ezkeralderago badoa, jatorrizko azentuera aldatu egiten da beti (adibideak absolutibo singularrean ematen dira):

(58) Beasain: maileguen egokitzea

<i>maratón</i> >	<i>marátoia</i>	<i>pintalábios</i> >	<i>pintálabiosa</i>
<i>ascensór</i> >	<i>a(s)zénsorea</i>	<i>calendário</i> >	<i>kaléndarioa</i>
<i>situación</i> >	<i>situázioa</i>	<i>futbolísta</i> >	<i>fubólístea</i>
<i>tentación</i> >	<i>tentázioa</i>	<i>albaricóque</i> >	<i>albárikekea</i>
<i>tenedór</i> >	<i>tenédorea</i>	<i>tegráma</i> >	<i>tegréamea</i>
<i>melocotón</i> >	<i>melókotoia</i>	<i>bicicléta</i> >	<i>bizíkeletea</i>
<i>ordenadór</i> >	<i>ordénadorea</i>	<i>lavadóra</i> >	<i>labádorea</i>
<i>publicación</i> >	<i>publíkazioa</i>	<i>matadéro</i> >	<i>matáderoa</i>
<i>manifestación</i> >	<i>manifestazíoa</i>	<i>escopéta</i> >	<i>eskópetea</i>
<i>especialidad</i> >	<i>espézialidadea</i>	<i>frigorífiko</i> >	<i>frigórifikoa</i>
		<i>automático</i> >	<i>atómatikoa</i>

Gaztelaniaz azentua lehen silaban badoa, silaba horretan mantentzen da, [+1] azentuera markatua duten hitzak sortuz:

(59) Beasain: azentua lehen silaban duten maileguak

<i>lámpara</i> >	<i>lánpara</i>	<i>plástico</i> >	<i>plástikoa</i>
<i>plátano</i> >	<i>plátanoa</i>	<i>zócalo</i> >	<i>zókaloa</i>

Egitura honetako mailegu zahar askotan ere jatorrizko lekuan geratu da azentua, erro markatuak emanez Beasaingo sisteman:

(60) Beasain: azentua lehen silaban duten mailegu zaharrak

<i>témpora</i> >	<i>dénborea</i>	<i>tégula</i> >	<i>*téllea</i> >	<i>téllea</i>
<i>ténda</i> >	<i>dénde</i>	<i>ánser</i> >		<i>ántzarra</i>
<i>páce</i> >	<i>pákea</i>	<i>árbol</i> >		<i>árbolea</i>
<i>cálle</i> >	<i>kálea</i>	<i>ábbas</i> >		<i>ápaixe</i>
<i>libru</i> >	<i>liburue</i>	<i>lócu</i> >	<i>luéco</i> >	<i>lékue</i>
<i>cámera</i> >	<i>cámbrá</i> >			<i>gánbarea</i>

Erdaraz azentua hitzaren bigarren silaba badoa, azentua leku berean izatea itxandongo gence, printzipioz, hauxe baita azentuera orokorra Beasaingo sisteman. Hala ere, hau ez da beti gertatzen. Hasteko, erdal proparoxitonoetan, azentua lehen silabara aldatzen da era sistematikoan:

(61) Beasain: erdal proparoxitonoak

<i>micrófono</i> >	<i>míkrofonoa</i>	<i>kilómetro</i> >	<i>kílometroa</i>
<i>semáforo</i> >	<i>sémáforoa</i>	<i>centímetro</i> >	<i>zéntimetroa</i>
<i>téléfono</i> >	<i>télefonoa</i>	<i>eléctrico</i> >	<i>éle(k)trikoa</i>
<i>bolígrafo</i> >	<i>bóligrafoa</i>	<i>simpático</i> >	<i>símpatikoa</i>
<i>artículo</i> >	<i>ártikulue</i>	<i>mecánico</i> >	<i>mékánikoa</i>
<i>católico</i> >	<i>kátolikoa</i>	<i>península</i> >	<i>péninsulea</i>
<i>telégrafo</i> >	<i>telegrafoa</i>	<i>matrícula</i> >	<i>mátrikulea</i>

Beraz, Beasaingo hitzunek egokitze arau berezi bat ezartzen dute kasu honetan. Erdal proparoxitonoek [+1] azentuera hartzen dute:

(62) Erdal proparoxitonoen egokitze araua

[-3] → [+1]

Antza denez, Goierriin egokitze arau hau gero eta sistematikotasun guttiagorekin aplikatzen da. Adibidez, Fidel Altunak hurrengo datuak jaso ditu Ataunen adin desberdineko hiru hiztunengandik:

(63) Ataun: erdal proparoxitonean egokitzea (F. Altuna)

J.I. (80 urte):	<i>sémafóroa</i>	<i>bóligrafoa</i>	<i>mikrófonoa</i>	<i>teléfonoa</i>
M.J.I. (49 urte):	<i>sémafóroa</i>	<i>bóligrafoa</i>	<i>mikrófonoa</i>	<i>teléfonoa</i>
M.G. (9 urte):	<i>semáforoa</i>	<i>bolígrafoa</i>	<i>mikrófonoa</i>	<i>teléfonoa</i>

Hiru hiztun hauetariko zaharrenak [-3] → [+1] egokitze araua sistematikotasun osoz aplikatzen duen bitartean, gazteenak erabat galdu du eta erdikoak sistematikotasunik gabe erabiltzen du.

Egoerarik korapilotsuena erdal hirusilabadun paroxitonoen kasuan aurkitzen dugu. Kasu honetan ere, azentu patroia [o ó o] denez gero, aldaketarik ez aurkitzea espero genuke. Hala ere, hauetariko hitz gehienetan azentua lehen silabara mugitzen da, baina, dirudienez, erregulartasunik gabe. Hona hemen adibide batzuk:

(64) Beasain: erdal hirusilabadun paroxitonoak [o ó o]

a. [o ó o] → [ó o o]

<i>ánuncio</i> >	<i>ánuntzioa</i>	<i>cortina</i> >	<i>kórtinea</i>
<i>ánemia</i> >	<i>ánemie</i>	<i>anténa</i> >	<i>ántenea</i>
<i>armário</i> >	<i>ármarioa</i>	<i>pantálla</i> >	<i>pántallea</i>
<i>colónia</i> >	<i>kólonie</i>	<i>floréro</i> >	<i>flóroera</i>
<i>acácia</i> >	<i>ákazje</i>	<i>pasillo</i> >	<i>pásilloa</i>
<i>pelóta</i> >	<i>pélotea</i>	<i>pizárra</i> >	<i>pízarrea</i>
<i>botélla</i> >	<i>bótilla</i>	<i>lavábo</i> >	<i>lábaboa</i>
<i>cuchillo</i> >	<i>kútxilloa</i>	<i>garáje</i> >	<i>gárajea</i>
<i>artista</i> >	<i>ártistea</i>	<i>pancárta</i> >	<i>pánkartea</i>
<i>dentista</i> >	<i>déntistea</i>	<i>cartúcho</i> >	<i>kártutxoa</i>
<i>tomáte</i> >	<i>tómatea</i>	<i>billéte</i> >	<i>billetea</i>
<i>idéa</i> >	<i>idea</i>	<i>novato</i> >	<i>nóbatoa</i>
<i>corréa</i> >	<i>kórrea</i>	<i>manéra</i> >	<i>mánerea</i>
<i>sorprésa</i> >	<i>sórpresea</i>	<i>desástre</i> >	<i>désastrea</i>
<i>depóрте</i> >	<i>déportea</i>	<i>heréje</i> >	<i>érejea</i>

b. Aldaketarik gabe, [+2]

<i>cazuéla</i> >	<i>kazuélea</i>	cf. pl. <i>kázuelak</i>
<i>pintúra</i> >	<i>pintúrea</i>	<i>pinturak</i>
<i>conéjo</i> >	<i>konéjue</i>	<i>kónejuk</i>
<i>carréra</i> >	<i>karrérea</i>	<i>kárrerak</i>
<i>altúra</i> >	<i>altúrea</i>	<i>álturak</i>
<i>patáta</i> >	<i>patátea</i>	<i>pátatak</i>
<i>cuchára</i> >	<i>kutxárea</i>	<i>kútxarak</i>
<i>naránja</i> >	<i>nará(n)jea</i>	<i>nára(n)jak</i>
<i>verdúra</i> >	<i>berdúrea</i>	<i>bérdurak</i>
<i>postúra</i> >	<i>postúrea</i>	<i>pósturak</i>
<i>segúro</i> >	<i>segúrue</i>	<i>séguruk</i>
<i>portéro</i> >	<i>portéroa</i>	<i>pórterok</i>
<i>encárgo</i> >	<i>enkárgue</i>	<i>énkarguk</i>

Salbuespenak ugariak badira ere, argi dago badagoela joera bat azentua lehen silaban jartzeko egitura honetako hitz mailegatueta. Mailegu zaharretan ere azentu aldaketa hau aurkitzen dugu:

(65) Beasain: mailegu paroxitono zaharrak [o ó o] → [ó o o]

<i>ascóola</i> >	<i>ázukorea</i>	<i>cerésea</i> >	<i>kéizea</i>	
<i>spéculu</i> >	* <i>espéllu</i> >	<i>ispillue</i>	<i>acúlen</i> >	<i>ákullue</i>
<i>in g'yru</i> >	<i>ingurue</i>	<i>azúcar</i> >	<i>ázukrea</i>	
<i>schóla</i> >	<i>éskolea</i>	<i>caepúlla</i> >	<i>típolea</i>	

Beste mailegu zahar batzuetan, noski, [+1] azentuera dugu azentua jatorrizko kokagunean mantendu delako, (60)ko adibideetan bezala. Nonbait honelako adibideetan oinarrituta analogiazko patroia bat sortu da. Gauzak laburtuz, hauexek dira bi silaba baino gehiagoko maileguak egokitzeko erabiltzen diren azentu arauak:

(66) Beasain: egokitze arauak

a. [...o o ó...] → [o ó...]

Erdal hitzean azentua bigarren silaban baino ezkeralderago badoa, bigarren silabara mugitzen da. Salbuespenik gabe.

b. [ó o o] = [ó o o]

Hirusilabadun proparoxitonoen azentua ez da aldatzen. Salbuespenik gabe.

b'. [...ó o o] → [ó o o...] [-3] → [+1]

Lau silaba baino gehiagoko hitz proparoxitonoen azentua lehen silabara mugitzen da. Salbuespenik gabe hiztun zaharren hizkeran.

c. [o ó o] → [ó o o] [-2] → [+1]

Hitz hirusilabadun paroxitonoen azentua lehen silabara mugitzen da. Salbuespen asko (joera).

Aztertzeke gelditzen zaigun taldea bisilabadunena da. Azentua bigarren silaban hartzen duten hitz gehienak kontsonantez bukatzen dira gaztelaniaz. Egitura honetako maileguetan jatorrizko azentuera mantentzen da Beasaingo euskaraz normalean, (67a); nahiz eta kasu bakan batzuetan azentua atzeratu, (67b). Kontsonantez bukatzen ez direnak oso guti dira, eta horietan azentua atzeratu egiten da, (67c):

(67) Beasain: mailegu bisilabadun oxitonoak

a. <i>crístal</i> >	<i>kristála</i>	b. <i>cuartél</i> >	<i>koártela</i>
<i>balcón</i> >	<i>balkóia</i>	c. <i>café</i> >	<i>káfea</i>
<i>hotél</i> >	<i>otéla</i>	<i>jerséy</i> >	<i>jértsea</i>
<i>atún</i> >	<i>atúne</i>		
<i>motór</i> >	<i>motórra</i>		

(60)an ikusi dugun bezala, [ó o] azentuera mantendu egin da mailegu zahar batzuetan, hala nola *pákea* edo *kálea*. Baina, egia esan, bai mailegu zaharretan eta bai berriagoetan ere bi posibilitateak aurkitzen ditugu:

(68) Mailegu bisilabadun paroxitonoak

a. [ó o] aldatu gabe

<i>páce</i> >	<i>pákea</i>	<i>píso</i> >	<i>píxue</i>
<i>cálle</i> >	<i>kálea</i>		(cf. <i>péso</i> > <i>píxúe</i>)
<i>máillo</i> >	<i>mállue</i>	<i>lége</i> >	<i>légea</i>
<i>génte</i> >	<i>jéndea</i>	<i>coélu</i> >	<i>zérue</i>
<i>góna</i> >	<i>gónea</i>	<i>sáccu</i> >	<i>zákue</i>
<i>giro</i> >	<i>giroa</i>	<i>trápo</i> >	<i>trápue</i>
<i>cáusa</i> >	<i>gáuzea</i>	<i>ánca</i> >	<i>ánkea</i>
<i>missa</i> >	<i>mézea</i>	<i>gásto</i> >	<i>gástue</i>
<i>váso</i> >	<i>básoa</i>	<i>fícu</i> >	<i>píkue</i>
		<i>cárta</i> >	<i>kártea</i>

b. [ó o] → [o ó]

<i>cáttu</i> >	<i>katúe</i>	<i>fréscu</i> >	<i>preskóa</i>
<i>córpus</i> >	<i>gorpútze</i>	<i>álto</i> >	<i>altúe</i>
<i>pécho</i> >	<i>petxúe</i>	<i>falóre</i> >	<i>loréa</i>
<i>parte</i> >	<i>partéa</i>	<i>sólu</i> >	<i>soróa</i>
<i>fágu</i> >	<i>pagó</i>	<i>hábil</i> >	<i>abille</i>
<i>sápo</i> >	<i>zapóa</i>	<i>fútbol</i> >	<i>fubóla</i>
<i>verde</i> >	<i>berdéa</i>	<i>túnel</i> >	<i>tunéla</i>

Beraz, bisilabadunetan, jatorrizko azentuera [o ó] denean, azentuera berau mantentzen da gehienetan. Azentu aldaketa jasan duten hitzak oso guti dira. Aldiz, jatorrizko azentuera [ó o] bada, ez dago patroi garbirik. Hitz batzuetan jatorrizko azentuera mantentzen da eta beste batzuetan erregularatu egiten da. Talde honetako hitz bakoitzak bere historia izan du, patroi analogiko indartsurik sortu gabe.

5.6.4. Beste salbuespen lexiko batzuk

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, azentuera markatua duten oinarri asko maileguak dira, zaharrak nahiz berriak. Beste batzuk hitz elkartu eta eratorriak dira. Baina oinarri markatu guzti-guztiak ez dira bi talde hauetan sartzen. Aipatutako bi taldeak alhora uzten ditugunean ere, salbuespenezko azentuera hartzen duten oinarri batzuk gelditzen zaizkigu. Dena den, euskal jatorrizko oinarri markatu monomorfemikoak ez dira asko. Hona hemen zenbait adibide:

(69) Beasain: euskal jatorrizko markatu monomorfemikoak

égie ‘verdad’ (cf. *égie* ‘pendiente’), *sémea*, *tókie*, *bélarrie*, *béstea*, *áurrea*, *átzea*, *názkea*, *ústea*, *tártea*, *gáraie*, *léioa*, *ibaie*, *mókoa*, *órdue*.

Hauetariko batzuk markatuak dira Bizkai-Gipuzkoetako hizkera gehienetan; beste batzuk, ordea, ez.

5.7. Hego-mendebaldeko Goi-Nafarrera

Hego-mendebaldeko Goi-Nafarreraren eremuan, hau da, Sakana, Imotz eta Basaburuetan, azentuera desberdina aurkitzen dugu. Azentuera mota hau, inon sartzeko-

tan, kapitulu honetan sartu behar bada ere, ez da hain ondo elkartzen bertan ikusitako beste azentuerekin. Eskualde honetan, normalean azentua hitzaren lehen eta azken silaban ezartzen da, hitz isolatuetan: *álabá, éskolatík*. Azentua bigarren silaban egon daiteke, lehendabizikoan ezarri ordez: *eskólatík*. Antza denez, [+1, -1] patroia, [+2, -1] patroia baino erabiliagoa da, edo maiztasun handiagoa du (cf. Hualde 1991: 173, Gaminde 1995e eta Artola 1992, Ihabarko datuak batez ere). Bi azentuak, hasierakoa eta bukaerakoa, maila berean egon daitezke, *álabá*; lehendabizikoa bigarrena baino prominenteagoa izan daiteke, *álabá*, edo alderantziz, *àlabá*. Bi azentuetarik bat bakarrik entzun daiteke gainera. Hauxe da N. Ormaetxeak ("Orixe") bere «Acento vasco» artikulua (1919) idazteko ardaztzat hartu omen zuen azentuera «La palabra *gizona* v.g. tiene acentos en las sílabas primera y tercera». «Podemos afirmar... que nuestras palabras de tres y más sílabas tienen acento en su primera y última sílaba» (Ormaetxea 1919: 4)¹⁰. Azentuera honen muga geografikoak hauexek dira: ekialdean, [-2] azentuera dugu Ultzaman; beste alde guztietatik, [+2] araua duten azentu sistemek inguratuta dago, Bidasoa haraneko hizkerak iparrekialdean eta Gipuzkoakoak mendebaldean.¹¹

Eskualde honetako herri gehienetan azentua ez da bereizgarria; hau da, hitz guztiak modu berean azentua daitezke. Hala ere, Ibarraren (1994) ikerketaren arabera, Goldaratz, Beruete eta inguruko beste herri batzuetan (Basaburuan eta Imotzen), azentuera desberdinak aurkitzen ditugu singularrean eta pluralean zenbait kasutan. Singularreko azentuera deskribatu duguna da: «[s]ingularrean, azentu nagusia joaten da ezkerretik hasita, lehenengo edo bigarren silaban, eta azentu bigarrenkari bat badago azken silaban» (Ibarra 1994: 402). Pluralean, aldiz, azentu nagusia pluralaren morfema daukan silaban erortzen da; hau da, azken silaban absolutibo eta ergati-boan, baina azkenaurrekoan datibo, komitatibo edo benefaktiboan, adibidez. Era honetan, hurrengo sg/pl pareak bereizten dira:

(70) Basaburua/Imotz: Ibarra (1994)

sg		pl	
<i>gizonák</i>	<i>emákumèk</i>	<i>gizonák</i>	<i>emákumèk</i>
<i>gizonaakìn</i>	<i>emákumiri</i>	<i>gizonákìn</i>	<i>emakumiri</i>
	<i>emákumeekein</i>		<i>emakumékein</i>
	<i>emákumeentzát</i>		<i>emakuméntzát</i>

Ormaetxeak (1919: 6) ere bereizkuntza bera aipatu zuen, ergatiborako behintzat: «En la parte de Navarra cuyo vascuence me es más familiar... suprimen el acento final en los agentes singulares; en el plural por el contrario le conservan: ó para expresarme de otro modo, en el primer caso la sílaba final lleva acento grave; en el segundo le lleva agudo. *Gizonák egín du. Gizonák egín dute.*» Singularrean eta pluralaren arteko azentu bereizkuntza hau, nolabait, Bizkaian eta Gipuzkoan aurkitzen dugunaren kontrakoa da.

¹⁰ Ikus, era berean, Ormaetxea (1958).

¹¹ Gipuzkoako mugan dagoen Gaintza herrian (Araitz haranean) Erdialdeko azentuera orokorra aurkitzen dugu. José M. Etxebarriak (1985) jasotako datuetan, azentua bigarren silaban dago gehienetan: *eskúe, alába, pekáitue, udáberrie, ukálondoa*. Baina hitz batzuek azentua lehen silaban dute: *éuskie, txáloak, léngusue, lékue*. Salbuespenezko hitz hauek, noski, markatuen taldekoak izan ohi dira Gipuzkoako eta Bizkaiko hizkeretan ere.

Neuk ezin izan dut egiaztatu azentu bereizketa hau beti eta kontsistentzia osoz egiten denik; alabaina, hurrengo hitzetan bereizkuntza argi dagoela iruditzen zait:

(71) Goldaratz	
sg	pl
<i>pórruú</i>	<i>porrúik</i>
<i>méndii</i>	<i>mendík</i>
<i>sémiik jan do</i>	<i>semik jan dute</i>
<i>sémiina</i>	<i>semina</i>
<i>sémiiri</i>	<i>semiri</i>

Adibideotan, singularrean bokal luze bat dugu, baina eskualde honetako azentuera markatugabea da. Pluralean, aldiz, bokala laburra da eta azentua kontrazioa jasotzen duen silaban kokatzen da. Ziur asko, singularraren bokal luzeak pluralaren kontrazioa baino berriagoak dira. Hau da, *porruak* > *porrúik* bilakaera pluralean, *porrua* > *porruu* asimilazioa baino zaharragoa da. Agian garai batean pluralean ere bokal luzeak aurkitzen ziren, singularrean sortu baino lehen, eta bokal luze horiek azentua erakarri zuten historikoki: *porruak* > *porruuk* > *porrúik*.

Beste mota bateko hitzetan —nik jaso ditudan datuen arabera— ez dago hain garbi azentu patroï desberdinak ditugunik singularrean eta pluralean era guztiz kontsistentean. Batzuetan bai, baina ez beti. Gerta daiteke Ormaetxearen eta Ibarrenaren deskribapenak, nahiz eta zuzenak izan, agian joera bat islatzea, arau tinkoa baino gehiago. Edozein kasutan, azentuera honek ikerketa sakonagoa merezi du, inguruko azentu sistemekin dauzkan desberdintasun nabarmenengatik.¹²

Sakanan bereizkuntza hau ez da egiten, ezta beste inolako azentuzko bereizkuntzarik ere.

5.8. Euskara batua

Euskara batua ikasi duten euskaldun zahar batzuek, beraien jatorriko azentuera erabiltzen dute euskara batuaz ere. Gipuzkoar askok egiten dute hori. Hala ere, beraien jatorriko hizkera oso bestelakoa bada, askotan hitzuneke beste sistema prosodiko bat erabiltzen dute euskara batuan hitzegiteko. Adibidez, batuaz dakiten ondarrutarrak, lekeitiarrek edo gernikarrek orohar ez dute jatorriko azentuera erabiltzen euskara batuaz ari direnean. Zein azentu sistema erabiltzen dute, beraz? Batik bat [+2] azentuera¹³. Bizkai-Gipuzkoetako euskaldun berrien artean ere, badirudi [+2] azentuera

¹² Nik Imotz/Basaburuetako azentu sistemarekin daukadan esperientzia oso laburra da. Koldo Zua-zo eta Orreaga Ibarrari esker, lau hitzunengandiko datuak jasotzeko aukera izan nuen (Martin Mariezkurrena, Arrarats herrikoa; Mari Carmen, Etxalekukoa; Imanol Rekondo, Beruetekoa eta Txuri Olo). Leire Zabaltzak Etxalekuko hizkeraren datu gehiago eskaini zizkidan. Eskerrik asko guztiei.

¹³ Gorka Elordietaren ustez (a.e.), portaera honen arrazoiak irratitelerak esatarien eragina izan liteke. Nik ez dakit [+2] azentueraren zabalkuntza hau nola gertatu den, baina Gorka Elordietaren beraren portaera esaten dudaren adibide garbia da. Ikusiko dugunez, lekeitieraz eta batuaz erabiltzen dituen azentuerek ez dute bata bestearekin zerikusirik. Batuaz hitzegiten duenean, [+2] araua darabil Gorkak gehien batean, nahiz eta lekeitieraren arau orokorra [-1] izan.

dela erabiliena. Bestaldetik, euskara batuaz hitz egiterakoan hitzunek erabiltzen dituzten azentu sistemak oso sinpleak dira normalean, inolako marka lexikorik gabe.

Adibide bezala, Donostiako emakumezko hiztun gazte baten azentuera aztertuko dugu. Gure hiztunak (I.M.) ikastolan egin ditu ikasketak. Bere aita euskaldun zaharra bada ere, alabekin euskara batuaz edo hitz egin du beti. Ondorioz, gure hiztunak menperatzen duen euskara mota bakarria euskara batua da, «gipuzkerakada» edo «donostiarkeria» lexiko batzuekin (*deñ, gera, jelatua*, etab.). Hiztun gazte honen datuak hemen ematen badituzte, nire ustez bere azentuera nahiko errepresentagarria delako da. Hona hemen silaba kopuru desberdineko adibide batzuk:

(72) Donostiako hiztun gazteen euskara batua

ó o	<i>áte, méndi, lúrra, lúrrak</i>
o ó	<i>gizón, atál, enbór</i>
o ó o	<i>mendía, basóa, gizóna, mutilla, mendiak, gizónak, lurrera, lurrétik</i>
ó o o	<i>lúrrari, árrari, béltzari, béltzena, béltzago</i>
o ó o ò	<i>autóbusà, alárgunà, gizónenà, amárentzàt</i>
o ó o o ò	<i>txistúlarià, alárgunenà, gizónarenà, lagúnarentzàt, lurrárentzàkò</i>
o ó o o o ò	<i>txistúlariari, alárgunenari, gizónarentzàkò, lurrárentzàkòà</i>
o ó o o o o ò	<i>txistúlariarenà, alárgunarenari, basérritarrarentzàt</i>

Gehienetan azentu nagusia bigarren silaban doa eta hitzak hiru silaba baino gehiago badauzka, azken silaban azentu bigarrenkari bat dago. Bokalez bukatzen diren flexiorik gabeko hitzetan azentu nagusia lehen silaban agertzen da, baina ez kontsonantez bukatzen direnetan: *méndi* baina *gizón* (hau da, azken silaba estrametrikoa da bokalez bukatzen bada, baina ez kontsonantez bukatzen bada). Kontsonantez bukatzen diren bisilabadunetan ere, azentua lehen silaban jartzen da kontsonantea atzizki baten partea denean (cf. Ultzama): *lúrrak, ázak*. Erro silababakarreko hitz luzeagoetan, azentua lehen silaban joan daiteke, baina aukera bezala bakarrik: *lúrrera* edo *lurréra* (baina beti *méndira* eta ez **méndira*).

Azentu eremua hitza baino handiagoa izan daiteke:

(73) Donostiako euskara batua: azentu unitate zabalak

<i>méndi zabalà</i>		<i>umé bati</i>
<i>gizón haundià =</i>	<i>txistúlarià</i>	<i>até bat</i>
<i>mendía, méndi bat ~ méndi bàt</i>		<i>gizóna dà, gizónak dirà</i>
		<i>emákumea dà, emákumeak dirà</i>

Alderantziz, azentu nagusia lehen silaban ager daiteke hitz eratorrietan erroa silababakarrekoa bada:

(74) Donostiako euskara batua: azentu eremua hitza baino tikiagoa

<i>játeko</i>
<i>gáltzekò ~ gáltzéko vs. ikústekò *ikustekò</i>
<i>jóateà</i>
<i>játekoà</i>
<i>játekoari</i>
<i>gáltzerakoàn</i>
<i>láurretàn vs. zázpíretàn</i>
<i>béltzegià ~ béltzégià</i>

Hiztun honentzat ez dago inolako marka lexikorik. Egitura bereko hitz edo hitz andana guztiak modu berean azentuatzen dira. Laburbilduz, hauexek dira ditugun patroiak:

- (75) Donostiako euskara batua: azentu patroiak
- [+1] a. bokalez bukatzen diren hitz bisilabadunetan: *méñdi*
 - b. kontsonantez bukatzen diren hitz bisilabadunetan, kontsonantea atzizkia bada (eta ez oinarriaren parte): *lúrrak, ázrak*
 - c. bi silaba baino gehiagoko hitzetan erroa silababakarra bada (aukerakoa): *béltzago ~ beltzago*
- [+2] beste kasu guztietan

Gainera, azentu bigarrenkaria izan dezakegu azken silaban guttienez silaba atono bat badago bere ezker aldean: *méndikoà, txistúlarìa*.


Esan bezala, euskara batuaz hitz egiten dutenen artean, ezaugarri hauek oso hedadura handia dutela iruditzen zait. Honen bermagarri, Urkijo Oruetak (1996) patroierberak aurkitu ditu Laudioko hiru euskara batudunengan.

Azentuaren izari akustikoak direla-ta, 12-17 irudietan, aipatutako hiztun donostiarraren adibide batzuen soinu-uhina eta oinarritzko maiztasun kurbak ikus daitezke. Adibide guztietan, silaba azentuduna F₀-ren gailurra da. Badirudi, beraz, hemen ere oinarritzko maiztasuna azentuaren izari fidagarria dela.


Iraupenak izan dezakeen garrantzia ikusteko beste adibide batzuk grabatu eta aztertutitut. Hona hemen neurketa batzuk:

- (76) Donostia: iraupena
- | | |
|------------------------|--|
| <i>epérra da</i> | $e_1 = 54 \text{ ms.}, \acute{e}_2 = 88 \text{ ms.}$ |
| <i>galéperra da</i> | $\acute{e}_1 = 63 \text{ ms.}, e_2 = 67 \text{ ms.}$ |
| <i>gizon edérra da</i> | $e_1 = 91 \text{ ms.}, \acute{e}_2 = 80 \text{ ms.}$ |


Hiru adibideotan /é/ azentuduna aldameneko beste /e/ azentugabe batekin konparatzen da. Ikusten denez, adibide hauen arabera ez dirudi lotura estua denik iraupenaren eta azentuaren artean. Lehen adibidean /é/ azentuduna azentugabea baino luzeagoa bada ere, beste bi adibideetan kontrakoa aurkitzen dugu. Ez da esan beharrik adibide gutti hauetatik ezin dezakegula ondorio garbirik atera. Esan dezakegun gauza bakarra zera da, ez dugula ebidentziarik iraupena azentuaren izari akustikotzat hartzeko.




12. irud. alábarena dà




13. irud. lagúna da




14. irud. beré laguna dà



15. irud. berç álarguna dà



16. irud. alárguna dà



17. irud. osó zabala dà

SEIGARREN KAPITULUA

MENDEBALDEKO ZENBAIT SISTEMA BEREZI

6.1. Sarrera

Aurreko kapituluan Erdialdeko [+2] azentu sistemak aztertu ditugu. Hurrengoan, puntu askotan zeharo desberdin diren Bizkaiko kostaldeko doinu-azentu sistemak hartuko ditugu kontuan. Nolabait bien bitartean, tipologiaren aldetik (eta baita ere onesten dudan garapen historikoan), beste sistema batzuk ditugu Gipuzkoako mendebaldean eta Bizkaiko hego-mendebaldean dauden Arratia eta Zeberio haranetan. Kapitulu honetan hauetariko hiru hizkera ikertuko ditugu: Antzuola (eta Bergara), Azkoitia (Azpeitia, Urrestilla eta Errezil) eta Zeberio (eta Arratia). Hirurak desberdinak dira azentu arauen aldetik, puntu askotan azaleko antzekotasuna erakusten badute ere.

Antzuolan eta Bergaran arau nagusia [-2] da; hau da, azentua hitzaren azkenarreko silaban kokatzen da gehienetan. Baina zenbait kasutan, askoz eskuinalderago koka daiteke.

Azkoitian eta Urola haraneko beste hizkeretan (Azpeitia, Urrestilla, Errezil) beste azentuera bat aurkitzen dugu: [+3]. Bigarren kapituluan ikusi genuen bezala, azentuera hau oso berezia da tipologiaren aldetik. Han esan genuenez, kuantitatezkoak ez diren azentu sistemetan ertz batetik kontatzen bada, gehienetan azentua lehen edo bigarren silaban ezartzen da. Salbuespenez, mazedonieraz [-3] aurkitzen dugu. Aldiz, [+3] azentuera orain arte hutsune tipologikotzat hartu izan da. Baina hutsune hau ez da benetakoa, azentuera hau Azkoitia eta inguruko beste euskal hizkera batzuen arau nagusia baita.

Hemen defendatuko dudan hipotesian, Urolako azentu sistema Antzuolan eta Bergaran aurkitzen dugun sistemaren berranalisiaren bidez sortu zen. Hau da, [+3] izan baino lehen, [-2] genuen.

Aurreko kapituluan ikusi genuenez, inguruko beste eskualde batzuetan arau nagusia [+2] da. [+3] > [+2] aldaketa gure begien bistan gertatzen ari da zenbait lekutan. Gamindek dokumentatu du Getarian hitzun zaharrek [+3] erregela erabiltzen dutela eta gazteek, aldiz, [+2] azentuera. Neuk jaso ditudan datu batzuen arabera, Azpeitian ere gauza bera gertatzen ari da. Dena den, hau ez da bide bakarra [+2] azentuera sortzeko eta leku batzuetan [-2] > [+3] > [+2] bilakaera historikoa izan gabe, zuzenean [-2] > [+2] izan dugu agian. Eta, noski, [+2] arau oso zaharra da beste zenbait lekutan. Itzuliko gara gai honetara.

Azkenik, Arratia eta Zeberioko azentuera, [-2] azentueraren beste bilakaera bat da, baina azentuera hau konplexuagoa da hitz bitan laburtzeko.

6.2. Antzuola eta Bergara

6.2.1. *Azentuera orokorra*

Oñatin, Elorrión, Arrasaten eta inguruko herri gehienetan azentu arau nagusia [+2] den bitartean, Antzuolan eta Bergaran kasu orokorrean azentua hitzaren azkenurreko silaban ezartzen da, (1)en ematen diren adibideek erakusten duten moduan:¹

- (1) Antzuola: azentuera orokorra [-2]
- | | |
|--------------------|---------------------|
| <i>ésku</i> | <i>mútill</i> |
| <i>eskúa</i> | <i>mutilla</i> |
| <i>eskuandáko</i> | <i>mutillákiñ</i> |
| <i>eskuandakúa</i> | <i>mutillandáko</i> |

Ikusten denez, azentua azkenurreko silabara lerritzen da, oinarriari atzizkiak erantsen zaizkionean. Hurrengo datuek ere [-2] azentueraren nagusitasuna erakusten dute:

- (2) Antzuola: azentuera orokorra [-2]
- | | |
|------------------|--|
| <i>katúa</i> | <i>konsiertúa</i> |
| <i>berdía</i> | <i>Oñatikúa</i> |
| <i>itxasúa</i> | <i>alkondaria</i> (I) |
| <i>ipurdía</i> | <i>mitxeléta, mitxeletía</i> (I) |
| <i>itxurríxa</i> | <i>emakúme, emakumía</i> (I) |
| <i>patatía</i> | <i>aittapuntáko, aittapuntakúa</i> (I) |

Beste datu hauek Bergarakoak dira eta azentu molde berbera erakusten dute (Hualde 1993); hots, azentua azkenurreko silaban:

- (3) Bergara
- | | |
|--------------------|--------------------|
| a. <i>lágun</i> | b. <i>úra</i> |
| <i>lagúna</i> | <i>nagíxa</i> |
| <i>lagunána</i> | <i>ieltserúa</i> |
| <i>lagunandáko</i> | <i>errukarríxa</i> |
| | <i>madarikatúa</i> |

Normalean, hitz bakoitza azentu unitate berezi bat da, baina *bat* zenbatzaile / mugatzailea atzizki bezala portatzen da (zubereraz edo ultzameraz bezala, esate baterako, baina lekeitieraz ez bezala):

- (4) Antzuola: azentu unitateak
- | | |
|-------------------------|-------------------------|
| <i>gíson gastía</i> | <i>gíson-bat</i> |
| <i>kuadérno aundíxa</i> | <i>kuadernó-bat</i> |
| | <i>arkasté-bat</i> (I) |
| | <i>arnasá-bat</i> (I) |
| | <i>armiarmá-bat</i> (I) |

¹ Antzuolako datu iturri nagusitzat Amaia Olabarriaren (1995) *Antzuolako enskeria* izeneko eskuizkribua erabili dut, berarengandik lortutako beste adibide batzuekin osaturik. Beste datu batzuk Izagirre (1968) artikulutik hartu ditut. Hauek (I) baten bidez erakusten ditut. Bergarako azentueraz zerbait esan nuen Hualde (1993b) lanean; horretaz gain, ikus UNED-Bergara (1988).

Aditz trinkoa ere aurreko izen sintagmaren azentu unitatean sar daiteke Bergaran (baina, antza denez, ez Antzuolan):

(5) Bergara

txakúrri da ~ txakurrá da

txakurrandáko da ~ txakurrandakó da

Azentuera paroxitono hau, noski, aski aldentzen da Oñati eta Beasaingo hizkeretan ikusi dugun eta Gipuzkoan hedatuen dagoen [+2] azentueratik eta, aldiz, Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan aurkitzen dugun patroí orokorra da (ikus 4. kapitulua). Hala ere, hurrengo azpi-ataletan ikusiko dugun bezala, ekialdeko hizkeretikiko antzekotasuna hementxe bukatzen da. Azentu arau nagusia alde batera utziz, funtsezko beste gauza askotan Antzuola eta Bergara bat datoz inguruko hizkerekin, baita [+2] araua duten hizkera askorekin ere. Beasainen bezala, adibidez, pluralean eta partizipio imperfektiboetan azentuera markatua dugu, azentua kasu normalean baino ezkeralderago agertzen delarik. Bat-etortze hau, noski, ez da kasualitate hutsa, amankomuneko jatorri historikoaren adierazlea baizik. Adibide gisa, har dezagun, hasteko, pluralaren azentuera.

6.2.2. Pluralaren azentuera

Pluralean, azentua singularrean baino lehenago kokatzen da hitz gehienetan. Hurrengo adibideek erakusten dutenez, pluralean azentua azkenaurreko silaba baino askoz ezkeralderago ager daiteke:

(6) Antzuola/Bergara: pluralaren azentuera

a. Antzuola

sg	pl
<i>mutilla</i>	<i>mútillak</i>
<i>kaliá</i>	<i>káliak</i>
<i>mutillái</i>	<i>mútillei</i>
<i>kaliái</i>	<i>káliei</i>
<i>mutillána</i>	<i>mútillena</i>
<i>mutillákiñ</i>	<i>mútillekiñ</i>
<i>kaliákiñ</i>	<i>káliekiñ</i>
<i>mutillandáko</i>	<i>mútillendako</i>
<i>kaliandáko</i>	<i>káliendako</i>

b. Bergara

<i>lagína</i>	<i>lágunak</i>
<i>lagunána</i>	<i>lágunena</i>
<i>lagunandáko</i>	<i>lágunendako</i>

Datu hauek ikusita, hiru hipotesi posible agertzen zaizkigu pluralaren azentuera azaltzeko:

(7) Antzuola/Bergara: Pluralaren azentuerari buruzko hipotesiak

H1: pluralean, azentua hitzaren lehendabiziko silaban ezartzen da.

H2: pluralean, azentua singularrean baino bi silaba ezkeralderago ezartzen da (behar bezainbeste silaba egonez gero).

H3: pluralean, azentua oinarriaren azkenaurreko silaban ezartzen da.

(6)ko adibide guztietan oinarriak bi silaba ditu. Hipotesi hauen artean aukeratzeko, oinarria luzeagoa denean zer gertatzen den ikusi behar dugu, hipotesi bakoitzak predizio desberdinak egiten baititu (Antzuolako datuen iturria: Gaminde (1996) (G), Izagirre (1968) (I)):

(8) sg vs. pl

a. Antzuola

	sg	pl
/alaba/	<i>alabía</i>	<i>alábak</i> (G)
/erota/	<i>errotía</i>	<i>errotak</i> (G)
/aingera/	<i>aingería</i>	<i>aingérek</i> (I)
/aldapa/	<i>aldapía</i>	<i>aldápak</i> (I)
/iturri/	<i>itturríxa</i>	<i>ittúrrixak</i> (I)
/arkaste/	<i>arkastía</i>	<i>arkástiak</i> (I) 'ardi gazte'
/arnasa/	<i>arnasía</i>	<i>arnásak</i> (I)
/aberatz/	<i>aberátza</i>	<i>abératzak</i> (G)
/abade/	<i>abadía</i>	<i>abádiak</i> (G)
	<i>abadiákiñ</i>	<i>abádiekiñ</i> (G)
/alargun/	<i>alargúna</i>	<i>alárgunak</i> (G)
/tellatu/	<i>tellátutik</i>	<i>tellátuetatik</i> (G)
	<i>tellatukúa</i>	<i>tellátuetakua</i> (G)
/taberna/	<i>tabernátik</i>	<i>tabérnetatik</i> (G)
	<i>tabernakúa</i>	<i>tabérnetakua</i> (G)
/emakume/	<i>emakumía</i>	<i>emakúmiak</i> (I)

b. Bergara

/nagi/	<i>nagíxa</i>	<i>nágixak</i>
/ieltsero/	<i>ieltserúa</i>	<i>ieltserúak</i>
/errukarri/	<i>errukaríxa</i>	<i>errukárrixak</i>
/madarikatu/	<i>madarikatúa</i>	<i>madarikátuak</i>

Argi eta garbi, H1-k ez du funtzionatzen oinarriak hiru silaba edo gehiago dituean eta bertan behera utzi dezakegu, besterik gabe. Azentua ez da lehen silaban agertzen plural guztietan. H2, aldiz, mantendu egin daiteke. Baina hau egiteko /-a/-z bukatutako oinarriekin azpiko egitura morfologikoak izan beharko genituzke kontuan; hala nola /alába-ak/ eta ez azalekoak. Dena den, hirugarren hipotesia, H3, aukeratu dugu, hipotesi honek datu guztiak azaltzen baititu era zuzenagoan, azaleko egituren mailan: pluralean azentu unitatea oinarria da. Azentua unitate honetako azkenurreko silaban ezartzen da.

6.2.3. *Azentu algoritmoa*

Arau bakar bat izango genuke, beraz, singularrean eta pluralean; hots, azentua unitatearen azkenurreko silaban ezartzen da (oin trokaikoa bukaerako mugan). Singularrean eta pluralaren artean azentu unitatea da azentu ezarketan aldatzen dena: hitz prosodikoa ala oinarria. Bestela esanda, singularrean (eta mugagabeen) unitatea

hitz prosodikoa den bitartean, pluraleko atzizkiek muga bat sortzen dute beraien ezker aldean. Oin metrikoa muga honetatik abiatuz ezartzen da.

- (9) Antzuola eta Bergarako azentu algoritmoa
- Azentu unitatea: (a) hitz prosodikoa (singular eta mugagabea)
(b) oinarria (pluralean)
 - Azentu ezarketa: ezarri oin trokaiko bat eskuinaldeko mugan
Adibideak:
Azentu unitatea: hitz prosodikoa
(x .) (x .)
[mu ti lan dá ko] [kua der nó bat]
Azentu unitatea: oinarria
(x .) (x .) (x .) (x .)
[mú till] en da ko [a bá di] e kin [a lár gun]ak [ta bér ne-] takua²

6.2.4. *Azentu unitateak aditzaren forma jokatu gabeetan*

Proposatu dugun azentu-unitate bereizketa hau ez da bakarrik izen formekin erabiltzen. Aldiz, singularraren eta pluralaren artean dugun kontraste bera aurkitzen dugu aditzaren forma jokatu gabeekin ere. Har ditzagun hurrengo adibideak (datuak Olabarria 1995 lanetik hartzen ditugu):

- (10) Antzuola: Aditz-forma jokatu gabeen azentuera
- | | | | |
|---------------|---------------------------|-----------------|------------------------------|
| <i>é(g)on</i> | <i>é(g)otia</i> | <i>gisóndu</i> | <i>gísontzia</i> |
| <i>jákin</i> | <i>jákintzia</i> | <i>aberástu</i> | <i>abérastia, aberástuko</i> |
| <i>ibíli</i> | <i>ibiltzen, ibilliko</i> | <i>etórrí</i> | <i>étortzia</i> |
| <i>erúan</i> | <i>erúatia</i> | <i>konpóndu</i> | <i>kónpontzia</i> |
| <i>apúrtu</i> | <i>ápurtzen, apúrtuko</i> | <i>émon</i> | <i>émongo</i> |

Izenekin gertatzen den moduan, azentu unitate desberdinak erabiltzen dira. Partizipio perfektiboan, azentua hitzaren azkenaurreko silaban agertzen den bitartean, /-t(z)e/ eta /-ko/ flexiozko atzizkiek, aldiz, muga bat sortzen dute eta unitatetik kanpo gelditzen dira:

- (11) Antzuola: azentu unitateak aditz-forma jokatu gabeetan
- | | | | |
|------------------|-----------------|---------------|-----------------|
| (x .) | (x .) | (x .) | (x .) |
| [kon pón du] | [kón pon] tzi a | [a be rás tu] | [a bé ras] ti a |
| (x .) | (x .) | (x .) | (x .) |
| [a be rás tu] ko | [é (g)on] | [é (g)o] ti a | [é mon] go |

Hemen ere, forma guztietan azentua azkenaurreko silaban ezartzen da, baina azentu unitatea modu desberdinetan definitzen da partizipio perfektiboetan eta /-t(z)e/ eta /-ko/-dun formetan. Partizipio perfektiboan, hitzaren azkenaurreko sila-

² Adibide honetan, oinarriaren azken bokala galtzen da: a+e → e. Azentu ezarketarako kontraziotik sortzen den bokala oinarrian sartzen dela onesten dut hemen.

bak darama azentua; partizipio inperfektibo eta beste formetan, aldiz, atzizkia azentu unitateaz kanpo dago eta azentua oinarriaren azkenurreko silaban kokatzen da.

6.2.5. Genitiboaren azentua

Ikus dezagun orain singular eta pluraleko atzizkiak konbinatzen ditugunean zer gertatzen den:

- (12) Antzuola: sg eta pl atzizkien konbinaketak
- | | | | |
|----|----------------|-------------------|----------------|
| a. | /mutill-an-ai/ | <i>mutillanái</i> | ‘mutilarenari’ |
| | sg sg | | |
| b. | /mutill-an-ei/ | <i>mutillánei</i> | ‘mutilarenei’ |
| | sg pl | | |
| c. | /mutill-en-ai/ | <i>mútillenai</i> | ‘mutilenari’ |
| | pl sg | | |
| d. | /mutill-en-ei/ | <i>mútillenei</i> | ‘mutilenei’ |
| | pl pl | | |
- (13) Bergara
- | | | | |
|----|-----------------|--------------------|-----------------|
| a. | /txakurr-an-a/ | <i>txakurrána</i> | ‘txakurrarena’ |
| | sg sg | | |
| b. | /txakurr-an-ak/ | <i>txakurrának</i> | ‘txakurrarenak’ |
| | sg pl | | |
| c. | /txakurr-en-a/ | <i>txákurrena</i> | ‘txakurrena’ |
| | pl sg | | |
| d. | /txakurr-en-ak/ | <i>txákurrenak</i> | ‘txakurrenak’ |
| | pl pl | | |

Pluraleko atzizkiek azentu unitatean muga bat sartzen dutela onesten badugu, goian proposatu dugun bezala lau kasuetariko hiru problemarik gabe azaltzen dira:

- (14) Antzuola/Bergara: atzizkien konbinaketak
- | | | | |
|----|------------------|---------------------|------------------------|
| | (x .) | (x .) | (x .) |
| a. | [mu ti lla ná i] | c. [mú till] e na i | d. [mú ti ll] e n] e i |
| | (x .) | (x .) | (x .) |
| | [txa ku rrá na] | [txákurt] e na | [txá kurt] e n] ak |

Aldiz, (b) kasua (genitibo sg + dat/abs pl) ez dago hain garbi. Kasu honetan, agian **mutillanei*, **txakurrának* espero genuke. Hau da pluraleko atzizkia unitatetik atziz eta oin trokaiko bat ezarriz lortzen duguna. Baina azentuera hori izan gabe, *mutillánei*, *txakurrának* dugu:

- (15) Antzuola/Bergara: gen sg + dat pl
- | | |
|--|-------------------|
| | (x .) |
| | *[mu tí lla n]e i |

(12b-13b)-ren kasuan daukagun azentuera ulertzeko kontuan hartu behar dugu genitibo singular hutsean azentua hitzaren azken silaban doala, eta ez azkenurrekoan:

- (16) Antzuola/Bergara: genitibo singularraren azentuera
mutillán (burúa) cf. pl. mútillen búruak
Jangoikuán atzámarrak (UNED-Bergara 1988: 223)

Arazoa ez da, beraz, pluralarentzako proposatu dugun errepresentazioa, genitibo singularraren azentuera baizik. Salbuespenez, genitibo singularrean azentuera oxitonoa dugu. Azentua ezin daiteke ezarri atzizki hau baino ezkerralderago. Morfema honen azentuzko berezitasuna da hau.

6.2.6. Oinarri markatuak

Hitz guztiak ez dira emandako patroien arabera azentuatzen. Orain arte ikusitako azentuera hitz gehienena bada ere, badira salbuespenak edo oinarri markatuak. Antzuola eta Bergarako azentu sistemari oinarri markatuak mugagabeen nahiz singularrean azentua azkenurreko silaban baino ezkerralderago daukatenak dira. Hitz hauek, singularrean zein pluralean eta deklinabidearen forma guztietan, azentua bokal berean daramate.

Gipuzkoa eta Bizkaiko beste hizkeretan bezala, hitz markatuen artean mailegu asko aurkitzen ditugu, bai zaharrak (17a) eta baita berriagoak ere (17b):

- (17) Antzuola: hitz markatuak
 a. Mailegu zaharrak: *gánbara, liburu, kípula, áiskoria* (I), *béntania* (I), *dómekia* (I), *zápata* (I), *érlojua* (I), *púxicia*
 b. Mailegu berriak: *kótzia, káfia, kuártua, bánkua*

Hiru eta lausilabadun mailegu paroxitono askotan azentua silaba bat ezkerraldera mugitu da, azentuera markatua emanez:

- (18) Antzuola: Azentu lerraketa erdal paroxitonoetan
bándeja, ármaixo, álfonbra, tiesto, eléfante, elegante, bútake, éskoba, gálleta, éskola, kípula, kútxillo, tómate, létxuga

Joera honek indarra badu ere, mailegu guztiak ez dira modu honetan egokitzen. Beste erdal paroxitono batzuetan azentua ez da lekuz aldatu eta hitz markatugabeak dira:

- (19) Antzuola: lerraketarik gabeko erdaratikako paroxitonoak
kuadérno, kuadernúa
asiénto, asientúa

Olabarriak ohartarazten duen bezala, mailegu jakin batek azentuera orokorra ala markatua hartzen duen erabakitzeke badira egokitze patroik garbiak kasu batzuetan. Adibidez, *-ista, -ada, -ero, -azo, -ción* atzizkiez bukatutako erdal hitzak markatugabe bezala egokitzen dira Antzuolako euskaraz. Ikusiko dugunez, horrelako egokitze patroiak hizkera askotan erabiltzen dira.

Baina hitz markatu guztiak ez dira maileguak, batzuk euskal jatorrikoak dira. Behin baino gehiago esan dugun bezala, hauetan ere adostasun handia aurkitzen dugu Bizkai-Gipuzkoetako hizkeren artean. Hauetariko askok atzizki fosilizaturen bat daramate edo konposatu zaharrak dira. Hona hemen Antzuolako adibide batzuk:

- (20) Antzuola: euskal jatorriko oinarri markatuak
éuskeria, *lókatzja* (I), *bélarrixa* (I), *éradixxa* ‘edaria’ (I), *érastuna* (I), *léngusua* (I),
léngusiña (I), *ságastixa* (I), *tókixa* (I), *intxarrixa* (I), *intxaurra* (I), *lápikua* (I)

Hitz markatu gehienek azentua lehendabiziko silaban dute. Hala ere, badira azentua bigarren silaban dutenak ere:

- (21) Antzuola: azentua bigarren silaban duten hitz markatuak
berákatza (I), *martizena* (I), *eskállasua* ‘arrendajo’ (I), *iítaixa* (I), *garágarrilla* (I),
abéndua (I)

Dena den, badirudi azentua ezin daitekeela edozein silabatan joan, nahiz eta hitzaren azkenaurreko silabatik nahiko urrun agertu. Beste kasuetan bezala, azentuera posibleak zehazteko oinarriaren bukaeratik kontatu behar dugu Antzuolako sisteman. Hitz markatuetan aurkitzen dugun murrizketa hauxe da: azentua ez da inoiz agertzen oinarriaren azkenhirugarren silaba baino ezkerralderago. Hau da, dauzkadan datuen arabera, ez dugu **elegante* bezalako hitzik aurkitzen. Murriztapen hau, noski, gaztelaniaz eta beste hizkuntza askotan dugun ‘hiru silabako leihoa’ da. Aurkitu dudak salbuespen bakarra *léngusiña* da. Baina hitz hau konposatua da, nahiz eta gaurregun bigarren osagaia hitz askea ez den. Konposatuen azentuaren arau bereziak aurkitzen ditugu, hurrengo atalean ikusiko dugunez. Esan bezala, euskal jatorrizko oinarri markatuen artean, hitz konposatu eta eratorri asko aurkitzen ditugu.

6.2.7. Hitz elkartuak

Hitz elkartu edo konposatu askotan azentua lehen osagaiaren azken silaban agertzen da:

- (22) Hitz elkartuak
 a. Antzuola
burú-aundixa, *gibél-urdiña*, *xagú-xarra*, *aitxá-jauna* (I), *burdún-tzalixa* (I), *argi-ollarra* (I), *artá-soua* (I), *sorgiñ-itxuskixa* ‘landare bat’ (I), *xágu-xarra* (I)
 b. Bergara (UNED-Bergara 1988)
irí-kutza, *gibél-urdiña*, *sorgín-orrazixa*, *puzkárr-ontzixa*, *praká-narras*, *potró-aundixa*, *sanó-potrua*, *narrú-sendua*

Patroi hau emankorra den neurrian, arau berezi bat proposatu behar dugu hitz elkartuentzat, egitura morfologiko honetako hitzetan azentua lehen osagaiaren azken silaban ezartzen duena. Dena den, konposatu guztiak ez dira arau honen arabera azentuatzen. Beste konposatu batzuek [-2] azentuera orokorra erakusten dute:

- (23) Antzuola: konposatu markatugabeak
aritz-orrixa (I), *aitta-puntakúa* (I), *ar-keastía* (I), *kuku-sagárra* (I), *txori-opilla* (I),
ur-txakúrta (I)

Konposatu jakin baten azentu ezarketa arau orokorraren bidez edo konposatuaren arauaren bidez egingo ote den jakiteko ez dirudi irizpide argirik dagoenik.

6.2.8. Hitz eratorriak

Eratorpen atzizki batzuek plural edo partizipioetako atzizki markatuen portaera bera erakusten dute, azentua bi silaba ezkeralderago jartzen dutelarik. Atzizki hauen artean /-ti/ dugu Antzuolan. Hala ere, Bergaran, hitz batzuetan behinik behin, azentua silaba bakar bat lehenago agertzen da:

(24) Hitz eratorriak /-ti/

- | | |
|--------------|---|
| a. Antzuola: | <i>móskortixa, bildurtixa, ságastixa</i> (I) |
| b. Bergara: | <i>gáixotixa, bákartixa</i>
<i>negártixa, lotsátixa, bekártixa</i> |

Azken taldekoetan hitz markatugabeekiko kontrastea galdu egiten da flexiorik gabeko forman, azentua azkenaurreko silaban doanez gero (*lau negárti*).

6.2.9. Azentu oxitonoa aditz forma jokatuetan

Goian ikusi dugu genitibo singularrean azentua hitzaren azken silaban ezartzen dela: *mutillán burúa*. Genitiboaz gain, zenbait aditz forma jokatu dira hitz oxitono bakarrak:

(25) Antzuola: aditz jokatu oxitonoak

<i>dittué</i> 'dituzte'	<i>dotzúé</i> 'dizute/dizuete' cf. <i>dotzúe</i> 'dizue'
<i>gaittué</i> 'gaituzte'	<i>saté</i> 'zarete'
<i>saittué</i> 'zaituzte'	<i>siñatén</i> 'zinateen'
<i>sitxuén</i> 'zituen/zituzten'	<i>soiasté</i> 'zoazte'
<i>dabé</i> 'dute'	<i>satosté</i> 'zatozte'
<i>sebén</i> 'zuten' cf. <i>(s)éban</i> 'zuen'	<i>dakixé</i> 'dakite'
<i>dosté</i> 'didate'	

Forma oxitono hauek guztiok /-é/ edo /-té/ atzizki pluraltzaille bat daramate, pluralaren hirugarren edo bigarren pertsona adierazten duena. Atzizki hauek azentudun bezala markatu behar ditugu lexikoian.

6.2.10. Laburpena

Antzuolako eta Bergarako azentu sisteman, azentua unitatearen azkenaurreko silaban jartzen da arau orokorrez (oin trokaikoa bukaeran). Azentu unitatea hitz prosodikoa da gehienetan, baina atzizki batzuek, hala nola izenen pluralekoek edo aditz forma jokatugabeetako /-t(z)e/ eta /-ko/ atzizkiek beraien ezkeraldera jartzen dute unitatearen bukaerako muga. Kasu hauetan ere oin trokaikoa erabiltzen da, baina azentu unitatea hitza baino txikiagoa da. Salbuespen lexiko batzuek azentua atzerago daramate, baina beti, antza denez, 'hiru silabako leihoa' errespetatuz (leihoa erroaren bukaeratik hasita jartzen delarik).

Hitz konposatu askotan, baina ez denetan, azentu arau berezi bat aplikatzen da, azentua lehen erroaren azken silaban ezartzen duena.

Azkenik, kontestu morfologiko jakin batzuetan azentua azken silaban doa.

Antzuola eta Beasaingo azentu sistemak erkatzen baditugu, arau nagusi erabat desberdinak eduki arren ([+2] vs. [-2], hurrenez hurren), azpiko batasun historiko bat erakusten dutela esan behar dugu. Batasun historiko hau azentuera markatua eragiten duten atzizki eta oinarrietan islatzen da. Honen adierazle dugu pluralak eta partizipio inperfektiboak duten azentuera berezia bi azentu sistemetan.

6.3. Azkoitia (Urolaldea)³

6.3.1. Azentuera orokorra

Lehen begirada batean, Azkoitiko azentu arau orokorra, Antzuolan eta Bergaran bezala, [-2] dela ematen du:

- (26) Azkoitia
burúe, gixóna, txapéla, jostúne, alpérra
ipurdíxe, itturríxe, guntzurríne, abaríe, alkatíe, txistuláixe, alargúne

Hala ere, datu gehiago aztertzen ditugunean, lehen analisisa aldatzeko arrazoiak aurkitzen ditugu. Alde batetik, *ona*, *gixona* nahiz *txapela* bezalako adibide bat aditz trinko baten aurrean jartzen badugu, azentua azken silabara mugi daiteke. Hau ez da gertatzen *itturríxe* edo *alargune* bezalako hitzekin:

- (27) Azkoitia
óna itturríxe
oná da itturríxe da

gixóna alargúne
gixoná da alargúne da
gixoná dator

txapéla
txapelá da

Gainera, hitz luzeagoak kontuan hartzen ditugunean, hauetan azentua azkenaurreko silaban baino lehenago agertzen dela ikusten dugu:

- (28) Azkoitia: oinarri luzeak
e ma kú mi e
i el tsé ru e
te le bí si xu e

³ Atal honetan aurkezten ditudan zenbait datu Hualde (1993b) artikulutik hartu ditut eta bertan aipatutako berri-emaileei zor dizkiet. Datu horiek Inma Urteagak eta Iñigo Ruiz Arzalluzek (bere amarengandik) eman dizkidaten beste batzuekin osatu ditut orain. Eibarko azentuerak hemen aztertzen denarekin zerikusi handia du, ikus Laspiur (1979).

(27) eta (28)ko datuek beste hipotesi bat formulatzera garamatzate; hots, kasu orokorrean azentua hirugarren silaban doala, silaba hau talde prosodikoaren azkena ez baldin bada.

Bi eta hiru silabako oinarrien singularreko forma atzizkidunak konparatzen badiugu, azentua hirugarren silaban ezartzen dela baieztatu dezakegu. Oinarria bisilabaduna denean, azentua bigarren silaban doa hitza hirusilabaduna bada, baina bestela hirugarren silaban agertzen da. Oinarria luzeagoa bada, azentua hirugarren silaban doa forma guztietan. Beraz, azentu oxitonoaren aurkako murriztapena bortxatzen ez den bitartean, azentua hirugarren silaban ezartzen da:

(29) Azkoitia: singularra

<i>gizóna</i>	<i>txakúrre</i>	<i>alkatie</i>	<i>alargúne</i>
<i>gizonái</i>	<i>txakurréi</i>	<i>alkatiei</i>	<i>alargúnei</i>
<i>gizonána</i>	<i>txakurréna</i>	<i>alkatiéna</i>	<i>alargúmena</i>
<i>gizonákin</i>	<i>txakurrékin</i>	<i>alkatiekin</i>	<i>alargúnekin</i>
<i>gizonántzako</i>	<i>txakurréntzako</i>	<i>alkatientzako</i>	<i>alargúmentzako</i>

gizóna/gizonái, txakúrre/txakurrékin azentu aldaketa dugu absolutiboan hirugarren silaba hitzaren azkena delako. Aldiz, /alkate/ edo /alargun/ hitzekin, azentua silaba berean ezartzen da paradigmaz zehar, azentua hirugarren silaban jarritz, hau eginez oxitotonasunaren aurkako murriztapena ez baita inoiz bortxatzen.

Beste honako datuok [+3] araua baieztatzen dute:

(30) Azkoitia: /-ko-a/

<i>baso-kúe</i>	<i>itxesó-kue</i>
<i>mendi-kúe</i>	<i>Donosti-kue</i>
<i>kale-kúe</i>	<i>ipurdi-kue</i>
<i>txapel-kúe</i>	<i>aldapá-kue</i>
<i>bizker-kúe</i>	<i>elizé-kue</i>
<i>Azkoitti-kue</i>	
<i>udebéri-kue</i>	

Bukaeratik kontatzen badugu, lehen taldeko hitzek azentua azkenaurreko silaban daramate eta bigarren taldekoek, aldiz, azkenhirugarrenean. Morfologia kontuan hartzen badugu, azentua atzizkian dago kasu batean eta atzizkiaren aurreko silaban bestean, eta baita bi silaba lehenago azken adibidean. Bestaldetik, hasieratik kontatuz gero, orokorpen bakar bat dugu: Azentua hirugarren silaban dago adibide guztietan. Arauak, beraz, azentua hirugarren silaban ezartzen dela izan behar du.

Azentua ez da inoiz hirugarren silaba baino eskuinalderago ezartzen. Orokorpen honek ez du salbuespenik Azkoitian. Azentua hirugarren silaban kokatzeko honako algoritmoa erabil dezakegu:

(31) Azkoitiko azentuera orokorra: [+3]

- Lehen silaba estrametrikoa da
- Ezarri oin ianbiko silabiko bat ezkeraldetik

<.> (. x)	<.>(. x)
[ba so kú e]	[al da pá ku e]

Hitza hirusilabaduna denean, algoritmo honek azken silaban jartzen du azentua. Hau zuzena da baina bakarrik hitza andanaren azkena ez denean, ez eten prosodiko baten aurrean:

- (32) Azkoitia: unitate hirusilabadunak
 <.>(x) <.>(x)
 [gi zo ná da] * [gi zo ná]

Esan bezala, badago, beraz, azentuera oxitonoaren aurkako murriztapen bat: azentua ezin joan daiteke hitz andanaren azken silaban. Oñatin ere gauza bera aurkitu genuen (cf. 5.5 atala). Azkoitian murriztapen hau hitz andanaren eremuan ezartzen da, esan bezala: hitz andana edo talde prosodikoaren azken silaba estrametrikkoa da:

- (33) Azkoitia: azken silabaren estrametrikalitatea
 <.>(x)<.>
 [gi zó na]

Proposatutako analisisian, bi estrametrikalitate mota ditugu hizkera honetan, baina maila edo eremu desberdinetan. Hitz mailan lehen silaba estrametrikkoa da; eta talde prosodiko mailan, azken silaba.

Hitz bisilabadun isolatuetan hitz osoa estrametrikkoa izango litzateke, bi estrametrikalitate arauak aplikatuz, baina hau ezinezkoa da. Beste hatsarri batek esaten digu unitate osoa ezin daitekeela estrametrikkoa izan. Kasu honetan estrametrikalitatea ez zaio aplikatzen lehen silabari: *lúrre*.

Tipologiaren aldetik [+3] araua oso bitxia da. Egia esan beste adibiderik ez da aurkitu munduan eta van der Hulst-ek (1996) hutsune tipologikotzat hartzen du. Euskal eremuan, Azkoitian ezezik inguruko beste honako herri batzuetan ere aurkitzen dugu: Azpeitia, Urrestilla eta Errezil. Gamindek (1996b) Getariko hitzun zaharrek ere patroi hau erabiltzen dutela aurkitu du, nahiz eta gazteek [+2] araua erabili. Agian Eibarren ere [+3] araua dugu kasu orokorrean.

6.3.2. Azentueren konparaketa

Eremu geografiko estu batean oso azentuera desberdinak aurkitzen ditugu: [+2] Gipuzkoako leku gehienetan, [-2] Antzuolan eta Bergaran eta [+3] Urolaldean. Gauzak honela, egoera hau nola sortu ote zen galde dezakegu. Baina maizen agertzen diren hitzen azentuera aztertzen dugunean, oso antzeko patroiak aurkitzen ditugu, nahiz eta arauak oso desberdinak izan.

- (34) Azentueren konparaketa
- | | | |
|-------------------|-------------------|-------------------------------------|
| Oñati [+2] | Antzuola [-2] | Azkoitia [+3] & estrametrikalitatea |
| o ó o | o ó o | o ó o |
| <i>txakúrra</i> | <i>txakúrra</i> | <i>txakúrre</i> |
| <i>mendíxa</i> | <i>mendíxa</i> | <i>mendíxe</i> |
| o ó- o o | o o ó o | o o ó o |
| <i>txakúrrari</i> | <i>txakúrrari</i> | <i>txakúrréi</i> |
| <i>alábia</i> | <i>alabía</i> | <i>alabíe</i> |
| <i>ittúrríxa</i> | <i>itturríxa</i> | <i>itturríxe</i> |

o ó o o o	o o o ó o	o o ó o o
<i>tabérnakua</i>	<i>tabernakúa</i>	<i>tabernákue</i>
<i>ieltserúa</i>	<i>ieltsérue</i>	
<i>errukarríxa</i>	<i>errukárrixe</i>	
<i>emakumía</i>	<i>emakúmie</i>	

Euskaraz maiztasun handiena duten hitzak hirusilabadunak dira eta hauek silaba berean azentuatzen dira hiru sistemetan. Lausilabadunetan ere adostasuna aurkitzen dugu Antzuola eta Azkoitiko hizkeren artean, hirugarren silaba azkenaurrekoa baita. [+3] eta [-2] sistemen arteko desberdintasuna bakarrik hitz luze xamarretan agertzen da. Hizkera naturalean agertzen diren hitz gehienak azentu arauaren aldetik anbiguoak direnez gero, ez da batere harrigarria hitz luzeagoetarako irtenbide desberdinak aurkitzea herri desberdinetan. Tipologikoki hain berezia den [+3] azentuera, [-2] azentueraren berrinterpretazioz sortu zen, hitz askotan edo gehienetan aurkitzen den anbiguitateaz lagunduta.

Azalean, Azkoitiko sistema ez da horren bitxia, hitz gehienak hirusilabadunak direlako eta azken silaban estrametrikalitatea dagoelako. «Bitxitasuna» hitz luze xamarretan baizik ez zaigu agertzen.

6.3.3. Pluralaren azentua

Singularraren eta pluralaren azentuerak erkatzen ditugunean, egoera desberdinak aurkitzen ditugu oinarriaren luzeraren arabera:

(35) Azkoitia: absolutibo plurala	
singularra	plurala
Silababakarreko oinarriak	
<i>óna</i> (~ <i>oná da</i>)	<i>ónak</i>
<i>lúrre</i> (~ <i>lurré da</i>)	<i>lúrrek die</i>
Oinarri bisilabadunak	
o ó-o	ó o-o
<i>gizóna</i> (~ <i>gizoná da</i>)	<i>gizonak</i>
<i>burúe</i> (~ <i>burué da</i>)	<i>búru(e)k</i>
Oinarri hirusilabadunak	
o o ó-o	o ó o-o
<i>itturríxe</i>	<i>ittúrrixek</i>
<i>abarié</i>	<i>abári(e)k</i>
<i>mendikúe</i>	<i>mendíku(e)k</i>
<i>alargúne</i>	<i>alárgunek</i>
<i>katedrála</i>	<i>katédralak</i>
<i>fruteríe</i>	<i>frutérue</i>
<i>mataríxe</i>	<i>matárixek</i>

Oinarri lausilabadunak - (a) patroia

o o ó o-o	o o ó o-o
<i>emakúmie</i>	<i>emakúmi(e)k</i>
<i>itxesóku</i>	<i>itxesóku(e)k</i>
<i>txistuláixe</i>	<i>txistuláixek</i>
<i>ieltséru</i>	<i>ieltséru(e)k</i>
<i>melokótoye</i>	<i>melokótoyek</i>
<i>aldapákue</i>	<i>aldapákue(e)k</i>

Oinarri lausilabadunak - (b) patroia

o o ó o-o	o ó o o / (o ó o o-o)
<i>labadórie</i>	<i>labádorak</i>
<i>fubolístie</i>	<i>fubólístek</i>

Oinarri bostsilabadunak

o o ó o o-o	o o ó o o-o
<i>katedrálekue</i>	<i>katedráleku(e)k</i>
<i>udebériku</i>	<i>udebériku(e)k</i>
<i>telebisi:ue</i>	<i>telebisi:u(e)k</i>

Pluralaren beste forma guztiak absolutiboa bezala azentuatzen dira, hau da, azentua silaba berean doa paradigma osoan zehar:

(36) Azkoitia: sg vs. pl

sg	pl	sg	pl
<i>lagúne</i>	<i>lágunek</i>	<i>alkatie</i>	<i>alkátiek</i>
<i>lagúnek</i>	<i>lágunek</i>	<i>alkatiek</i>	<i>alkátiek</i>
<i>lagunéi</i>	<i>lágunei</i>	<i>alkatiei</i>	<i>alkátiei</i>
<i>lagunéna</i>	<i>lágunena</i>	<i>alkatiéna</i>	<i>alkátiena</i>
<i>lagunéntzako</i>	<i>lágumentzako</i>	<i>alkatientzako</i>	<i>alkátientzako</i>

Esan bezala, singularrean azentua azken silabara mugi daiteke oinarri laburrekin silaba hau talde prosodikoaren azkena ez bada (kopularekin). Aldiz, pluralean azentua ez da inoiz mugitzen:

(37) Azkoitia: abs + kopula

<i>óna, oná da</i>	<i>ónak, ónak die</i>
<i>gizóna, gizoná da</i>	<i>gizonak, gizonak die</i>

Pluraleko azentuera guztietarako balio duen jeneralizazio bat aurkitzea ez da batere erraza. Adibideetan ikusten dugunez, gehienetan azentua ezkeralderago kokatzen da pluralean singularrean baino. Baina hau ez da beti gertatzen eta silaba kopuruaren arabera patroia desberdinak aurkitzen ditugu. /lagun/ bezalako oinarri bisilabadunekin, azentua singularrean baino bi silaba lehenago agertzen da pluralean, hitzaren lehen silaban kokatzen delarik. /alargun/ bezalako hirusilabadunekin, aldiz, azentua silaba bat lehenago agertzen da pluralean, singularrekin alderatuta. Oinarria luzeagoa bada, ez dago diferentziarik singularrean eta pluralaren azentueren artean, /-a/-z bukatzen diren lausilabadunak alboratu zuten baditugu, zeren hauen kontrazioa dela eta,

hirusilabadunak bezala portatzen baitira. (Beste zenbait lausilabadunekin ere azentuaren atzerapena aurkitu dut, baina erregularitaterik gabe: *inportántie*, *inportánti(e)k*, adib.).

Erantzun behar dugun galdera hauxe da, beraz: pluralean agertzen diren azentu patroi guztiak batu ote daitezke orokorpen bakar baten barnean? Baliteke arau bakar bat izatea pluralean? Lau silaba edo guttiagoko oinarria duten hitzen pluralerako badirudi honako arau hau eman dezakegula: azentua oinarriaren azkenaurreko silaban ezartzen da.

(38) Azkoitia: pluralaren azentuera

- | | |
|-----------------|-------------------|
| a. [ón] ak | b. [udebériku] ek |
| [lágun] ek | [telebísixu] ek |
| [alárgun] ek | |
| [labádor(a)] ak | |
| [emakúmi] ek | |

Arau hau, noski, Antzuolako hizkerarako proposatu duguna da. Antzuolan arau hau bat dator beste kasuetan aplikatzen den arau orokorrenekin. Azkoitian, aldiz, pluralean oinarriaren bukaeratik kontaktzea nahikoa bitxia da, bestela hasieratik kontaktzen baita, ikusi dugun bezala. Gainera, arau hau ez da aplikatzen Azkoitian bere ondorioa azentua hirugarren silaba baino eskuinalderago ezartzea izango litzatekeen kasuetan, (38b). Argi dago, beraz, Azkoitian hirusilabako leiho bat dugula hitz hasieran. Azentua leiho honen barnean kokatu behar da beti. Pluraleko atzizkiak azentua bi silaba ezkeralderago, edo oinarriaren azkenaurrekoan ezartzen du, baina soilik hiru silabako leihoaren murriztapena ez bada bortxatzen. Erabiltzen ari garen errepresentazio mekanismoen arabera, honek esan nahi du oin trokaiko bat lerrotatzen dela oinarriaren bukaerako mugarekin. Algoritmo hau, esan bezala, hasierako leihoa erresetatzen den bitartean aplikatzen da, (39a). Baina oin trokaikoak azentua leihoaz kanpo jarriko lukeenean, mekanismo hau ez da aplikatzen eta aldiz arau orokorra erabiltzen da, (39b):

(39) Azkoitia: plurala

- | | | | |
|------------------------|---------------------|------------------|----------------|
| a. (x .) | (x .) | (x .) | (x .) |
| [gí zon]ak | [men dí ku] ek | [i txe só ku] ek | [a lár gun] ek |
| b. (x .) | <.>(x) | | |
| *[te le bi sí xu] ek → | [te le bí si xu] ek | | |

Dudarik gabe, murriztapen honen arrazoietakoa bat hauxe da: pluralean azentua ezin daitekeela singularrean baino eskuinalderago egon. Azkoitian, singularrean azentuera berrinterpretatu egin da, eta orain hasieratik kontaktuz ezartzen da azentua. Pluralean, hala ere, atzizkiak eragiten du azentuera eta, ondorioz, oinarriaren bukaeratik kontaktzen da. Kasu gehienetan, modu honetan azentua singularrean baino lehenago ezartzen da pluralean. Baina, oso oinarri luzea duten hitzetan, patroia alderantzizkoa izango litzateke. Egoera hau saihesteko, pluralaren arau berezia ez da aplikatzen kasu honetan, eta aldiz arau orokorra erabiltzen da, singularrean eta pluralean azentuera berbera emanik.

/-a/-z bukatzen diren oinarrien pluralean oinarriaren azken silaba atzizkiarekin batzen da eta unitatetik at gelditzen da. Modu honetan azaltzen dira (b) patroia erakusten duten lausilabadun gehienak.

6.3.4. *Azpeitia/Urrestillako plurala*

Urolaldeko beste zenbait herritan, Azkoitiko azentubidea aurkitzen dugu kasu orokorrean. Pluralean, aldiz, azentuera ezberdinak ditugu. Desberdintasuna oinarri bi-silabadunekin agertzen zaigu. Oinarria luzeagoa bada, patroi berdinak aurkitzen dira Azpeitian, Urrestillan eta Azkoitian:

(40) Azpeitia/Urrestilla vs. Azkoitia		
sg	pl	
	Azpeitia/Urrestilla	Azkoitia
o o-o		
<i>gizóna (gizoná da)</i>	<i>gizónak</i> ≠	<i>gizónak</i>
o o o-o		
<i>alkatíe (alkatíe da)</i>	<i>alkátiek</i> =	<i>alkátiek</i>
o o o o-o		
<i>ieltsérue</i>	<i>ieltséruek</i> =	<i>ieltséruek</i>

Pluralean azentua silaba berean mantentzen da paradigmaman zehar. Hurrengo datuak (36)ko Azkoitiko datuekin konpara daitezke:

(41) Azpeitia/Urrestilla			
sg	pl	sg	pl
<i>lagúne</i>	<i>lagúnek</i>	<i>alkatíe</i>	<i>alkátiek</i>
<i>laguné da</i>	<i>lagúnek die</i>	<i>alkatíe da</i>	<i>alkátiek die</i>
<i>lagunéi</i>	<i>lagúnei</i>	<i>alkatíei</i>	<i>alkátiei</i>
<i>lagunéna</i>	<i>lagúnena</i>	<i>alkatíena</i>	<i>alkátiena</i>
<i>lagunéntzako</i>	<i>lagúmentzako</i>	<i>alkatíentzako</i>	<i>alkátientzako</i>

Azkoitian bezala, arau orokorra [+3] da, azentua hirugarren silaban, azken silabaren estrametrikalitatea errespetatzen den bitartean. Pluralean, azentua silaba bat ezkeralderago kokatzen da oinarria «laburra» bada, (42a-c). Oinarriak lau silaba edo gehiago baditu (edo hitz osoak bost silaba edo gehiago baditu absolutiboan), aldiz, azentuera berbera dugu singularrean eta pluralean, (42d):

(42) Azkoitia/Urrestilla		
	sg	pl
a. /on/	<i>oná da</i>	<i>ónak die</i>
/lurr/	<i>lurré da</i>	<i>lúrrek die</i>
b. /etxe/	<i>etxié da</i>	<i>etxiék die</i>
/mendi/	<i>mendiyé da</i>	<i>mendiyék die</i>
/gezurr/	<i>gezurré da</i>	<i>gezúrrek die</i>
/biotz/	<i>bíyotzá da</i>	<i>bíyótzak die</i>
/lepo/	<i>lepúe da</i>	<i>lepúek die</i>
/gizon/	<i>gizóná da</i>	<i>gizónak die</i>
c. /zamorro/	<i>zamorrié da</i>	<i>zamorruék die</i>
/alkate/	<i>alkatíe da</i>	<i>alkátiek die</i>
/elixa/	<i>elixié da</i>	<i>elixek die</i>
/pekatu/	<i>pekatúe da</i>	<i>pekatúek die</i>
/patata/	<i>patatíe da</i>	<i>patátak die</i>

d. /ieltsero/	<i>ieltsérue da</i>	<i>ieltséruek die</i>
/emakume/	<i>emakúmie da</i>	<i>emakúmie^k die</i>
/korrikalai/	<i>korrikálaye da</i>	<i>korrikálayek die</i>

6.3.5. Hitz markatuak

Orain arte deskribatu dugun azentuera hitz gehienei dagokie. Hala ere, beste hizkera askotan bezala, azentuera berezia duten hitzak aurkitzen ditugu. Urolako hizkeretan, hitz berezi edo markatuak azentua lehen edo bigarren silaban dute eta azentua silaba berean doa singularrean eta pluralean. Hitz markatu gehienetan, azentua lehen silaban kokatzen da:

- (43) Azkoitia: azentua lehen silaban duten hitz markatuak

<i>óllarra</i>	<i>óllarrak</i>
<i>árbolie</i>	<i>árbolak</i>
<i>báserrixe</i>	<i>báserrixek</i>
<i>bélarrixe</i>	<i>bélarrixek</i>
<i>bilbotarra</i>	<i>bilbotarrak</i>
<i>éuskerie</i>	
<i>léngusue</i>	<i>léngusu(e)k</i>
<i>éuskeixe</i>	

Beste markatu batzuetan (hirusilabadunak edo luzeagoak) azentua bigarren silaban doa:

- (44) Azkoitia: azentua bigarren silaban duten hitz markatuak

<i>xagúxarra</i>	<i>xagúxarrak</i>
<i>ujéldie</i>	<i>ujéldi(e)k</i> 'uholde'
<i>ikástolie</i>	<i>ikástolak</i>

Antza denez, Azkoitian azentua lehen silaban duten hitz markatu askok, bigarren silaban dute Azpeitian.

Azentua hirugarren silaban duten mailegu luze berriek markatugabeak izan behar-ko lukete, printzipioz. Hala ere, mailegu hauetan azentua bigarren silabara mugitzen da, gehienetan, azentuera markatua emanez:

- (45) Azkoitia: [+3] > [+2] hitz mailegatueta

<i>presidén^{te}</i>	>	<i>presidén^{tie}</i>	<i>presidén^{ti(e)k}</i>
<i>biciclét^a</i>	>	<i>bizí^kletie</i>	<i>bizí^kletak</i>
<i>calendá^{rio}</i>	>	<i>kalénd^aixue</i>	<i>kalénd^aixu(e)k</i>
baina:			
<i>importán^{te}</i>	>	<i>inportán^{tie}</i>	<i>inportán^{ti(e)k}</i>
<i>futbolíst^a</i>	>	<i>fubolíst^{ie}</i>	<i>fubolíst^{ek}</i>

Era berean, azentua azkenaurreko silaban daukaten mailegu hirusilabadun batzuetan ere azentua silaba bat ezkerraldera mugitu da, (46a). Beste batzuetan azentua ez da mugitzen, baina azentuera markatua dugu flexiozko atzizkiekin, (46b). Azkenik, bukaera jakin batzuk dauzkaten maileguk, hala nola *-ero* atzizkidunek, azentuera markatugabea hartzen dute, hirusilabadunak badira, (46c):

- (46) Azkoitia: mailegu paroxitono hirusilabadunen egokitzea
- | | | | | |
|----|-----------------|---|------------------|------------------|
| a. | <i>anténa</i> | > | <i>ántenie</i> | <i>ántenak</i> |
| | <i>artista</i> | > | <i>ártistie</i> | <i>ártistek</i> |
| b. | <i>dentista</i> | > | <i>dentístie</i> | <i>dentístak</i> |
| c. | <i>frutéro</i> | > | <i>fruterúe</i> | <i>fruterúek</i> |

6.3.6. Aditz partizipioen azentuera

Aditz partizipioen azentueran patroï desberdinak aurkitzen ditugu Azpeitia/Urrestillan eta Azkoitian. Azpeitian eta Urrestillan, partizipio perfektiboen eta geroaldiko partizipioen azentueran [+3] araua dugu:

- (47) Azpeitia/Urrestilla: partizipio perfektiboak
- | | |
|---------------------|-----------------------|
| <i>esan-du</i> | <i>esangó-du</i> |
| <i>ikusí-du</i> | <i>ikusíko-du</i> |
| <i>etorri-die</i> | <i>etorriko-die</i> |
| <i>mekanizau-da</i> | <i>mekanizauko-da</i> |
| <i>esamiñau-du</i> | <i>esamiñauko-da</i> |
| <i>organizau-du</i> | <i>organizauko-da</i> |

Ikusten denez, mailegu berrien moldaketan ere [+3] araua erabiltzen da, jatorrizko azentuera aldatuz:

- (48) Urrestilla
mecanizádo > *mekanizau*, *examinádo* > *esamiñau*, *organizádo* > *organizau*

Partizipio inperfektiboekin dugun azentuera desberdina da:

- (49) Azpeitia: partizipio inperfektiboak
- | | |
|------------------------|-------------------------|
| <i>ikústen-du</i> | <i>konprenditzen-du</i> |
| <i>etórtzen-die</i> | <i>mekanizatzen-du</i> |
| <i>esáten-du</i> | <i>esamiñatzen-du</i> |
| <i>organizatzen-du</i> | |

Forma hauek honelaxe azal daitezke: azentua hirugarren silaban jartzen da, baina /-t(z)en/ morfema eremutik at gelditzen da beti:

- (50) Azpeitia/Urrestilla
 [ikús] ten du, [konprendí] tzen du, [mekaniza] tzen du

Esan bezala, Azkoitian azentuzko datu desberdinak aurkitzen ditugu aditz partizipioetan. Azkoitian patroï berbera aurkitzen dugu hiru partizipioekin:

- (51) Azkoitia: aditz partizipioak
- | | | |
|--------------------|-------------------|--------------------|
| <i>jan-dézu</i> | <i>jaté-zu</i> | <i>jangó-zu</i> |
| <i>galdú dezu</i> | <i>galizé-zu</i> | <i>galdúko-zu</i> |
| <i>ekárrí-dezu</i> | <i>ekártze-zu</i> | <i>ekárríko-zu</i> |
| <i>ipíñi dezu</i> | <i>ipíntze-zu</i> | <i>ipíñíko-zu</i> |

Ikusten denez, izenkietan azentu arau nagusia [+3] den bitartean, partizipioetan araua [+2] da Azkoitian. Beraz, eta Azpeitia/Urrestillan ez bezala, arau desberdinak ditugu klase morfologetikoen arabera.

6.4. Zeberio eta Arratia⁴

6.4.1. Singularraren eta pluralaren azentuera

Zeberion (eta Arratian), ikusi ditugun beste hizkera batzuetan bezala, talde prosodikoaren azken silaba estrametrikoa da. Hitz batzuekin, hala nola *gixona* edo *emon*, azentua azkenaurreko silaban doa hitza talde prosodikoaren bukaeran dagoenean, baina azken silaban bestela:

(52) Zeberio: azken silabaren estrametrikalitatea

- | | |
|-------------------------|-----------------|
| a. <i>gixóna</i> | b. <i>émon</i> |
| <i>gixoná da</i> | <i>emón dau</i> |
| <i>gixoná dator</i> | |
| <i>gixoná etorri da</i> | |

Beste hitz batzuk, hala nola *gixónak* plurala edo *bóta*, azentu paroxitonoarekin agertzen dira ingurune guztietan:

(53) Zeberio: berezko azentu paroxitonoa

- | | |
|----------------------------|-----------------|
| a. <i>gixónak</i> | b. <i>bóta</i> |
| <i>gixónak dire</i> | <i>bóta dau</i> |
| <i>gixónak etorri dire</i> | |

Garbi dago taldearen erdiko azentuera hartu behar dugula oinarritzotzat, eta ez bukaerakoa; bestela ez genituzke bi hitz motak bereiztuko. Hau da, *gixónak* eta *bóta* bezalako adibideek azentua azkenaurreko silaban duten bitartean, *gixona* edo *emon* bezalakoak hitz oxitonoak dira funtsean, nahiz eta talde prosodiko baten bukaeran azentua silaba bat atzeratuta agertu. Arau batez, azentua azken silabatik azkenaurrekorra mugitzen da talde prosodikoaren bukaeran. Fenomeno hau talde prosodikoaren azken silabaren estrametrikalitatea bezala interpreta dezakegu.

Paradigmatan emango dugun azentuera hitzak taldearen erdian erakusten duena da. Diferentzia bakarra zera da: azken silaban markatzen ditugun azentuak beti atzeratzen direla hitza bukaeran dagoenean.

(54) Zeberio

- | | | | |
|---------------------|----------|-------------------------|-----------|
| <i>au gixoná da</i> | | <i>iru mamárrro</i> | /mamarró/ |
| <i>au da gixóna</i> | /gixoná/ | <i>iru mamarró dire</i> | |
| <i>etzerá noa</i> | /etzerá/ | | |
| <i>etzerá</i> | | | |

⁴ Atal hau Hualde (1992) artikuluan oinarritzen da. Nire orduko berri-emale nagusia Manu Etxebarria izan zen. Alfontso Irigoien zenak ere bere laguntza eskaini zidan lan hori idazteko. Eskerrik asko orain Gotzon Aurrekoetxeari datuak baieztatzeagatik. Zeberioko azentueraz beste iturri bat Etxebarria (1991) da.

Hurrengo paradigmek silababakarreko, bisilabadun, hirusilabadun eta lausilabadun oinarri markatugabeen azentuera erakusten dute:

(55) Zeberio

/lurr/

sg	pl	mg
<i>lurré (da)</i>	<i>lúrrek</i>	<i>lúr</i>
<i>lurrék (dau)</i>	<i>lúrrek</i>	<i>lurrék</i>
<i>lurréri</i>	<i>lúrreri</i>	<i>lurréri</i>
<i>lurréna</i>	<i>lúrrena</i>	<i>lurréna</i>
<i>lurrénari</i>	<i>lúrrenari</i>	<i>lurrénari</i>

/gixon/

sg	pl	mg
<i>gixoná (da)</i>	<i>gixónak</i>	<i>gixón</i>
<i>gixonák</i>	<i>gixónak</i>	<i>gixonék</i>
<i>gixonári</i>	<i>gixónari</i>	<i>gixonéri</i>
<i>gixonána</i>	<i>gixónana</i>	<i>gixonéna</i>
<i>gixonánari</i>	<i>gixónanari</i>	<i>gixonénari</i>
<i>gixonántzat</i>	<i>gixónantzat</i>	<i>gixonéntzat</i>
<i>gixonágas</i>	<i>gixónakas</i>	<i>gixonégas</i>

/etze/

sg	pl	mg
<i>etzéá (da)</i>	<i>etzéak</i>	<i>etzé (dire)</i>
<i>etzéak</i>	<i>etzéak</i>	<i>etzéék</i>
<i>etzéari</i>	<i>etzéari</i>	<i>etzéeri</i>
<i>etzéana</i>	<i>etzéana</i>	<i>etzééna</i>
<i>etzéanari</i>	<i>etzéanari</i>	<i>etzéénari</i>

/mamarro/

sg	pl	mg
<i>mamarróa (da)</i>	<i>mamárroak</i>	<i>mamarró (dire)</i>
<i>mamarróak</i>	<i>mamárroak</i>	<i>mamarrók</i>
<i>mamarróari</i>	<i>mamárroari</i>	<i>mamarróri</i>
<i>mamarróana</i>	<i>mamárroana</i>	<i>mamarróna</i>
<i>mamarróanari</i>	<i>mamárroanari</i>	<i>mamarrónari</i>

/bertzolari/

sg	pl	mg
<i>bertzolaríe (da)</i>	<i>bertzolaríek</i>	<i>bertzolari (dire)</i>
<i>bertzolaríek</i>	<i>bertzolaríek</i>	<i>bertzolaríék</i>
<i>bertzolaríeri</i>	<i>bertzolaríeri</i>	<i>bertzolarírri</i>
<i>bertzolaríena</i>	<i>bertzolaríena</i>	<i>bertzolarína</i>
<i>bertzolaríenari</i>	<i>bertzolaríenari</i>	<i>bertzolarínari</i>
<i>bertzolaríentzat</i>	<i>bertzolaríentzat</i>	<i>bertzolaríintzat</i>
<i>bertzolaríegas</i>	<i>bertzolaríekas</i>	<i>bertzolarígás</i>

Ikusten denez, jeneralizazio desberdinak ditugu oinarriaren silaba kopuruaren araber. Singularrean, oinarriak silaba bat (*lur*) edo bi (*gixon*, *etze*) baditu, azentua mugatzailearen silaban doa: *gixon-ári*; aldiz, oinarria luzeagoa bada, azentua oinarriaren az-

- (59) Zeberio: sg eta pl atzizkien konbinaketak
gixónánari 'al del hombre' / 'a los del hombre'
gixónanari 'al de los hombres' / 'a los de los hombres'

(59)ko adibideetan oinarria bisilabaduna da. Lehen mugatzailea singularra den formetan, azentua mugatzailearen gainean ezartzen da, nahiz eta bigarrena pluralekoa izan. Aldiz, lehen mugatzailea pluralekoa bada, azentua oinarriaren azken silaban doa, nahiz eta bigarren mugatzailea singularra edo plurala izan.

6.4.2. *Lekuzko formak*

Azter ditzagun hurrengo adibideak orain:

(60) Zeberio

sg	pl	mg
<i>etzera (doa)</i>	<i>etzéatara</i>	<i>etzétara</i>
<i>lurrera</i>	<i>lúrretara</i>	<i>lurrétara</i>
<i>iturrire</i>	<i>itúrrietara</i>	<i>iturritara</i>
<i>etzéti (dator)</i>	<i>etzéatati</i>	<i>etzétati</i>
<i>lurréti</i>	<i>lúrretati</i>	<i>lurrétati</i>
<i>iturriti</i>	<i>itúrrietati</i>	<i>iturritati</i>

Ikusten denez, /-ti/ eta /-ra/ atzizkiek azentu portaera desberdinak erakusten dituzte. Adlatiboaren /-ra/ atzizkia mugatzaile singularra bezala portatzen da eta silaba kopuruaren arabera azentu unitatean sartzen da edo ez. Aldiz, ablatiboaren /-ti/ atzizkia unitatek kanpo gelditzen da beti. Ikusiko dugunez, /-ti(k)/ atzizkia markatua da Bizkaiko beste hizkera askotan ere.

- (61) Zeberio: /-ra/ vs. /-ti/
 [etze-rá] [etzé]-ti
 [iturri]-re [iturri]-ti

Azaldu dugunez, kontraste hau galdu egiten da talde prosodikoaren bukaeran, *etzera (doa)* bezalako formetan azentua atzeratu egiten delarik, *etzéra* emanez.

Lekuzko kasuen pluralean, azentuak hitz bakoitzaren pluralaren paradigmari eusten dio:

- (62) Zeberio: /-ata-/
lurrek *etzéak* *itúrriek*
lurretara *etzéatara* *itúrrietara*
lurretati *etzéatati* *itúrrietati*

6.4.3. *Oinarri markatuak*

Zeberion eta Arratian ere, kapitulu honetan eta aurrekoetan ikusitako beste hizkeretan bezala, hitz batzuek azentua oinarriaren silaba berean daramate paradigmaz zehar, singularrean, pluralean eta mugagabeen. Adibide bat /léku/ hitza da:

(63) Zeberio: hitz markatuak, /léku/

sg	pl	mg
<i>lékue</i>	<i>lékuek</i>	<i>léku</i>
<i>lékuek</i>	<i>lékuek</i>	<i>lékuk</i>
<i>lékueri</i>	<i>lékueri</i>	<i>lékuri</i>
<i>lékure</i>	<i>lékuetara</i>	<i>lékutara</i>

Mailegu berrietan azentua jatorrizko silaban geratzen da askotan eta, printzipioz, edozein silabatan egon daiteke, adib. /presidén-te/. Hauetaz gain, eta normala den bezala, hitz markatuen artean badaude mailegu zaharrak, adib. /dén-pora/; sarri postposizio bezala erabiltzen diren hitz batzuk, hala nola /áurre/; konposatuak, adib. /bás-erri/ eta azalpen zailagoko beste batzuk, adib. /belárri/. Bestaldetik, eratorpen atzizki batzuek (/-'garren/, /-'en/ superlatiboa, /-'tarr/ etab.) azentua aurreko silaba ezartzen dute paradigmaaren forma guztietan:

(64) Zeberio: atzizki aurreazentuatzaileak

<i>bígarr-enari</i>	'sg = pl'
<i>saspígarr-ena</i>	
<i>saspígarr-enak</i>	'sg = pl'
<i>ón-ena</i>	
<i>báltz-enari</i>	'sg = pl'

Ikusitako beste hizkeretan bezala, erroa markatua bada, edo eratorpen atzizki batak azentua sartzen badu, singularraren eta pluralaren arteko ezberdintasuna neutral-tzen da. Honek esan nahi du gauzatzen dena lehendabiziko azentua dela. Gauza bera gertatzen da bai erroa eta baita eratorpen atzizkia ere markatuak direnean:

(65) Zeberio: morfema azentudun bat baino gehiagoko hitzen azentuera

/kánpo-'tarr-a/	<i>kánpotarra</i>
/basérr-i-'tarr-a/	<i>basérritarra</i>
/bedrátzi-'garren-a/	<i>bedrátzigarrena</i>

Gernikaldeko azentu sisteman arau bera aurkitzen dugu, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez.

6.4.4. Aditz partizipioak

Partizipioen azentuera zertxobait desberdina da Zeberion eta Arratian. Hemen Zeberion aurkitzen ditugun azentu patroiak aurkeztuko ditugu:

(66) Zeberio: partizipioen azentuera

a.	<i>ikusí (dau)</i>	<i>ikúst-en (dau)</i>	<i>ikusiko (dau)</i>
	<i>ibilí</i>	<i>ibilten</i>	<i>ibiliko</i>
	<i>emón</i>	<i>emóten</i>	<i>emóngo</i>
	<i>eroán</i>	<i>eroáten</i>	<i>eroángo</i>
	<i>esán</i>	<i>esáten</i>	<i>esángo</i>

<i>erré</i>	<i>erréten</i>	<i>erréko</i>
<i>apurtú</i>	<i>apúrtuten</i>	<i>apurtúko</i>
<i>konpondú</i>	<i>konpónduten</i>	<i>konpondúko</i>
<i>makaldú</i>	<i>makálduten</i>	<i>makaldúko</i>
<i>kendú</i>	<i>kénduten</i>	<i>kendúko</i>
b. <i>bóta (dau)</i>	<i>bótaten</i>	<i>bótako</i>
<i>yáusi</i>	<i>yáusten</i>	<i>yáusiko</i>

Partizipio perfektibo gehienak markatugabeak dira eta azentua azken silaban jasotzen dute. Dena den, batzuk, hala nola *bóta* eta *yáusi*, markatuak dira. Bestalde, /-'ten/ eta /-'ko/ atzizkiak, eratorpen atzizkiak bezala edo /-ti/ ablatiboa bezala, aurreazentuatzaileak dira; hau da, azentua aurreko silaban jartzen dute. Gainera, partizipio imperfektiboetan /-tu/ (edo /-du/) atzizkia duten aditzekin, azentua silaba bat aurrerago ezartzen da; hau da, /-'ten/ silaba baino bi silaba ezkerrelderago. Argi dago, /-tu-ten/ morfema konbinaketa dugunean, arau berezi bat behar dugula. Talde hau aurreazentuatzaile bezala portatzen da. Arratiko zenbait herritan, Diman adibidez, gauza bera aurkitzen dugu geroaldiko partizipioan ere: *apúrtuko*.

6.4.5. Hitz azentudunak eta azentugabeak

Zeberion hitz guztiak ez dute azentua hartzen. Hitz markatugabeek osatutako talde prosodikoetan azken hitzak baizik ez du azentua jasotzen:

- (67) Zeberio: talde prosodiko markatugabeak

bertzolari gasteári
mamarro andiéri
gixon ederrá da
gure lagumen etzeá da

Hau da, azentu araua talde prosodikoaren mailan aplikatzen da. Hitz markatuek, aldiz, azentua dute ingurune guztietan. Hitz hauek azentu lexikoa, hitz-mailakoa, dute. Adibidez, *báserri* hitzak azentua lehen silaban dauka beti:

- (68) Zeberio: hitz markatuak

báserri andiéri

Hitz azentudun eta azentugabeen arteko desberdintasun hau garrantzitsua da. Itzuliko gara gai honetara hurrengo kapituluan, kapitulu horretan ikusiko ditugun azentu sistema guztietan betetzen baita bereizkuntza hau.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

BIZKAIKO KOSTALDEKO DOINU-AZENTU SISTEMAK

7.1. Ezaugarriak eta hedadura

Bizkaiko kostaldean doinu-azentu sistemak aurkitzen ditugu. Sistema hauek sistema morfologikoak dira, morfema azentudun [+am] eta azentugabeen [-am] arteko bereizkuntza lexikoa egiten dutelarik. Azaleko mailan, hitz batzuek azentu fixoa duten bitartean, beste batzuek ez dute silaba azentudun edo prominenterik.

Hurrengo ataletan Bizkaiko kostaldeko doinu-azentu sistemen ezaugarri nagusiak ikusiko ditugu. Funtsean azentu sistema bera aurkitzen dugu Gernikaldetik Getxoraino (nahiz eta desberdintasun batzuk egon). Aldiz, Lekeition, Ondarroan eta Markinaldean, bilakaera berezi batzuen ondorioz, sistema berregituratu egin da neurri batean. Hemen, lehenik sistemarik hedatu eta, nire ustez, zaharrena ikusiko dugu; hots, Gernikaldekoa. Gero, Lekeitio, Ondarroa eta Markinaldeko aldaerak hartuko ditugu kontuan.

Gernikaldeko sisteman azentu-fixodun hitzek (markatuek) edozein silabatan izan dezakete azentua; eta hitz azentugabeek azken silaban jasotzen dute azentua, talde prosodikoaren mailan. Lekeition, hitz azentugabeen azentuera Gernikaldean bezala egiten da. Hitz markatueta, aldiz, azentua ez da edozein silabatan agertzen. Hitz hauetan azentua azkenurreko silaban kokatzen da beti. Markinaldean aldatu dena hitz azentugabeen azentuera da batik bat. Hemen azentua talde prosodikoaren azken silaban ezarri beharrean, azkenurrekoan ezartzen da. Agian honen ondorioz edo nolabait honi lotuta, beste aldaketa batzuk ere gertatu dira. Azkenik, Ondarroan bi aldaketa nagusi hauek gertatu dira: Lekeition bezala, hitz markatueta azentua hitzaren azkenurreko silaban ezartzen da; eta Markinaldean bezala, hitz markatugabeekin azentua talde prosodikoaren azkenurreko silaban agertzen da. Honek konplexutasun berezia ematen dio Ondarroako azentu sistemari.

7.2. Gernikaldea

7.2.1. *Azentu patrioiak: morfema azentudun eta azentugabeak*

Atal honetan Gernikaldean erabiltzen den sistema ikusiko dugu (Uribe-Kostako hizkeretan ageri diren berezitasun batzuk ere aipatuko ditugularik). Euskal hizkera hauen datuak aztertzen ditugunean, hitz gehienekin singularra eta plurala azentuaren aldetik bereizten direla nabari da:

- (1) Gernikaldea: sg vs. pl
lagúnék esan deu vs. *lagúnek esan dabe*
laguneri 'lagunari' vs. *lagúneri* 'lagunei'

Bereizketa hau izen eta adjektibo gehienekin betetzen da. Hala ere, hitz batzuekin ez da gertatzen:

- (2) Gernikaldea: sg = pl (hitz markatuak)
gusúr^{ti}žek esan deu = *gusúr^{ti}žek esan dábe*
gusúr^{ti}žeri 'gezurtiari edo gezurtiei'

Singularrean eta pluralean azentuera berdina duten oinarriei oinarri markatuak deitu ohi zaie. Izen eta adjektibo markatuak (singular eta pluralean azentuera berbera dutenak) guttiengo bat dira. Besteak markatugabeak dira.

Oinarri markatugabeko hitzak, singularrean, bigarren silabatik azken silabaraino hedatzen den goiko tonu batekin ahoskatzen dira normalean. Azken silaban baizik ez du egiten tonuak behera, kontorno bat sortuz silaba honetan. Pluralean, aldiz, tonuak beherakada handi bat egiten du erroaren azken silaban, flexiozko atzizkia daraman silaba (edo silabak) beheko tonuarekin ahoskatzen d(ir)elarik. Hona hemen adibide batzuk absolutiboan eta datiboan:

- (3) Gernikaldea: doinu-azentuzko patroiak
- | | | | |
|----------------------------|------------------------------------|-------------------------------|--------------------------------------|
| sg | pl | sg | pl |
| <u>la</u> <u>gu né</u> \ | <u>la</u> <u>gú</u> <u>nek</u> | <u>la</u> <u>gu ne rí</u> \ | <u>la</u> <u>gú</u> <u>ne ri</u> |

Oinarri markatuek, aldiz, tonu beharakada erakusten dute oinarriaren silaba jakin batean eta patroï berbera erakusten dute forma guztietan deklinabidean zehar:

- (4) Gernikaldea: hitz markatuak
- | | | |
|--|---|---|
| <u>kán</u> <u>po ta rra</u> | <u>kán</u> <u>po ta rrak</u> | <u>kán</u> <u>po ta rra ri</u> 'sg = pl' |
| <u>ger</u> <u>ní</u> <u>ka rra</u> | <u>ger</u> <u>ní</u> <u>ka rrak</u> | <u>ger</u> <u>ní</u> <u>ka rra ri</u> 'sg = pl' |
| <u>lí</u> <u>bru e</u> | <u>lí</u> <u>bru tik</u> | |
| <u>i</u> <u>ka rá</u> <u>ti že</u> | <u>i</u> <u>ka rá</u> <u>ti žek</u> | <u>i</u> <u>ka rá</u> <u>ti že ri</u> 'sg = pl' |

Orain arte, hitz isolatuak hartu ditugu kontuan. Hitzak sintagma baten erdian jartzen baditugu, markatugabeak, flexiozko atzizkirik gabe agertzen direnean tonu beharakadarik ez dutela erakusten ikus daiteke. Hau da, hitz hauek ez dute inolako prominentziarik inongo silabatan. Silaba guztiak berdinak dira azentuaren aldetik:

- (5) Gernikaldea: talde prosodiko markatugabeak

<u>gu</u> <u>re lagun aundiže dá</u> \	<u>gu</u> <u>re txistulari oná</u> \
--	--

Testuinguru berean, hitz markatuek goian emandako patroï prosodikoa jarraitzen dute:

- (6) Gernikaldea: hitz markatuak talde prosodikoaren barnean

gu | re lí | bru aun | diže dá \ gu | re ger ní | kar o | ná \

Tonu beherakadaren aurrean dagoen silabak beste silabek baino prominentzia handiagoa du hiztunentzat eta azentuduntzat har dezakegu. Hemendik aurrera *kánpotarra*, *gerní-karra*, *líbrue*, *gusúrtiže*, *lagúneri* 'p' idatziko dugu normalean, besterik gabe, silaba azentuduna azentu marka batez adieraziz. Azentuen gauzatze tonalaz 7.2.6. atalean arituko gara.

Tonu beherakada hitzaren bukaeran gertatzen denean ere, azken silabak nolabaitko prominentzia hartzen du eta kasu honetan azentua azken silaban ipin dezakegu. Hala ere, azken silabaren azentu hau talde prosodiko mailako azentutzat hartuko dugu, eta ez hitz-mailakotzat, (5)ean ikusi dugun bezala, sintagmaren erdian desager-tzen baita. (5)ean flexiozko atzizkirik gabeko hitz markatugabeen portaera ikusi dugu, baina gauza bera gertatzen da forma flexiodunekin talde prosodikoaren erdian sar daitezkeen neurrian: azken silabaren azentua ez dagokio hitzari, talde prosodikoari baizik. Hau erakusteko kopula erabil dezakegu, aditz jokatuak aditzaren aurrean da-goen hitzaren talde prosodikoan sartzen baitira oro har:

- (7) Gernikaldea: talde prosodiko markatugabeak

gu | re la gu né \ gu | re la gu ne dá \


Pluralean, aldiz, ondoko patroia dugu:

- (8) Gernikaldea: plurala


gu | re la gú | nek gu | re la gú | nek di res

18-19 irudietan *ori lagunena da* 'hori lagunarena da' eta *ori lagúnena da* 'hori lagunena da' esaldien oinarritzko maiztasun kurbak ematen dira. Hitzuna Getxokoa da. Ikusten denez, singularrean tonu maila mantentzen den bitartean, pluralean beherakada nabarmena dugu azentudun ostekoan. 20-21 irudietan *ori gure erriko abade da* eta *ori gure lékuko abade da* esaldiak erkatzen dira. Lehen esaldian hitz guztiak azentugabeak diren bitartean, bigarreanean *lékuko* azentuduna da, *léku* oinarri markatua baita, eta tonu beherakada eragiten du. Lau esaldietako azken silaban agertzen den gailurtxoa (*da* kopulan) Getxoko intonazioaren ezaugarri bat da eta ez da aurkitzen Gernikaldean.


Datu hauek guztiok ikusita, hitz batzuek azentu lexikoa dutela eta besteek ez dutela holakorik esan dezakegu. Zehazkiago, bai oinarriak eta baita atzizkiak ere azentudunak edo azentugabeak izan daitezke. Hitz markatuen kasuan, oinarriak azentu lexikoa du silaba jakin batean. Oinarri markatugabeek ez dute horrelako marka lexikorik.




18. irud. ori lagunena da



19. irud. ori lagúnena da



20. irud. ori gure herriko abade da.



21. irud. ori gure lékuko abade da

Ikusi dugunez, pluralaren atzizkiak azentu bat sartzen du hitzean. Puraleko formez gain, singularrean (eta mugagabeen), /-²tik/ ablatiboa eta /-²gas/ komitatiboa ere azentudunak dira (Getxoaldeko hizkeretan, /-²tzat/ benefaktiboa ere bai).¹ Oinarria markatugabea bada, flexiozko atzizki hauek azentu lexiko bat ezartzen dute oinarriaren azken silaban. Atzizki hauek aurreazentuatzailak direla esango dugu, aurreko silabari ematen baitiote azentua:

- (9) Gernikaldea: oinarri markatugabeen singularra eta plurala
- | | | | |
|-------------------|-------------------|-----------------|---------------------------|
| <i>burue</i> | <i>burúek</i> | <i>burúegas</i> | <i>burúekas, burúekiñ</i> |
| <i>buruek</i> | <i>burúek</i> | <i>burure</i> | <i>burúetara</i> |
| <i>burueri</i> | <i>burúeri</i> | <i>burúetik</i> | <i>burúetatik</i> |
| <i>buruen</i> | <i>burúen</i> | <i>buruko</i> | <i>burúetako</i> |
| <i>buruentzat</i> | <i>burúentzat</i> | | |

Esan bezala, (9)an azentu markarik gabe agertzen diren formek ez daukate azentu lexikalik eta azken silaban hartzen dute azentua talde prosodikoaren bukaeran daudenean. Era berean, oinarria markatua bada, azentua silaba berean agertzen da kasu guztietan:

- (10) Gernikaldea: oinarri markatuen singularra eta plurala
- | | | | |
|-------------------|-------------------|-----------------|---------------------------|
| <i>lékue</i> | <i>lékuek</i> | <i>lékuegas</i> | <i>lékuekas, lékuekiñ</i> |
| <i>lékueri</i> | <i>lékueri</i> | <i>lékure</i> | <i>lékuetara</i> |
| <i>lékuen</i> | <i>lékuen</i> | <i>lékutik</i> | <i>lékuetatik</i> |
| <i>lékuentzat</i> | <i>lékuentzat</i> | <i>lékuko</i> | <i>lékuetako</i> |

Honek hauxe esan nahi du: oinarriaren azentu lexikoa nagusitzen dela, flexiozko atzizkiek sartzen dituzten beste azentuak ezabatuz.

Oinarria markatugabea izanik, hitzak atzizki aurreazentuatzaila bat baino gehiago badauzka, lehendabizikoa baizik ez da gauzatzen:

- (11) Gernikaldea: atzizki azentudun eta azentugabeen konbinaketak
- | | | |
|------------------|-------------------|-----------------------------------|
| /gixon-an-ari/ | <i>gixonanari</i> | 'gizonarenari, al del hombre' |
| sg sg | | |
| /gixon-an-'ari/ | <i>gixonánari</i> | 'gizonarenei, a los del hombre' |
| sg pl | | |
| /gixon-'an-ari/ | <i>gixonanari</i> | 'gizonenari, al de los hombres' |
| pl sg | | |
| /gixon-'an-'ari/ | <i>gixonánari</i> | 'gizonenei, a los de los hombres' |
| pl pl | | |

¹ Gamindek (1995d, 1996b) jasotako datuen arabera /-²tzat/, /-²tzako/ atzizkia aurreazentuatzaila da hurrengo herrietan: Getxo, Berango, Sopela, Lemoiz, Urduliz, Gatika, Mungia, Larrauri, Fruiz, Meñaka, Bermeo eta Elantxobe; Foruan /-tzáko/ atzizkiak lehen silaban du azentua; eta /-tzat/, /-tzako/ azentugabea hurrengo herrietan aurkitzen dugu: Busturia, Nabarriz, Muxika (eta Arratzu gehi dezaket nik).

Beraz, azentu morfologikozko sistema da hau. Morfemak, erroak zein atzizkiak, azentudunak edo azentugabeak izan daitezke eta unitatean azentu lexiko bat baino gehiago baldin badaude, lehen azentuak irabazten du:

- (12) Gernikaldea: azentu sistema
- Bereizketa lexikoa: Morfemak (erroak eta atzizkiak) [+am] edo [-am] izan daitezke, [+am] atzizkiek azentua aurreko silaban ezartzen dutelarik.
 - Hitzak [+am] morfema bat baino gehiago badauzka, lehendabizikoak erabakitzen du azaleko azentuaren kokagunea.
 - [+am] morfemarik ez badago, talde prosodikoaren azken silabak jasotzen du azentua.

Aditz partizipioetan egoera bera aurkitzen dugu. Partizipio perfektibo gehienak azentugabeak dira, (13a), baina badira markatu batzuk, (13b). Markatuak maileguak edo forma eratorriak dira (kausatibo zaharrak). Partizipio inperfektibo eta geroaldiko guztiak azentudunak dira, /-'t(z)e-/ eta /-'ko/ atzizkiek aurreko silaban ezartzen baitute azentua:

- (13) Gernikaldea: aditz partizipioen azentuera
- | | | |
|----------------|--------------------------|-----------------|
| a. perfektiboa | inperfektiboa | geroaldikoa |
| <i>galdu</i> | <i>gáltzen, galdúten</i> | <i>galdúko</i> |
| <i>sartun</i> | <i>sártzen</i> | <i>sartúngo</i> |
| <i>etorri</i> | <i>etórtzen</i> | <i>etorriko</i> |
| b. bóta | <i>bótaten</i> | <i>bótako</i> |
| <i>éroan</i> | <i>érotaten</i> | <i>éroango</i> |

/-'t(z)e-/ atzizkiaren bidez eraturako beste forma guztiak ere azentudunak dira eta azentua erroaren azken silaban daramate: *sártzie, sártzeko, ikústie, ikústeko*.

7.2.2. Hitz eratorriak eta elkartuak

Eratorpeneko atzizkiekin, flexiozko atzizkientzako ikusi dugun azentu banaketa bera dugu. Eratorpen atzizki batzuk aurreazentuatzaileak dira, beraien artean /-'txu/, /-'ti/, /-'tar/, /-'en/ superlatiboa, eta /-'ao/ gonbaratzailea:

- (14) Gernikaldea: eratorpen atzizki aurreazentuatzaileak
- | | |
|---------|---|
| /-'txu/ | <i>katútxue, katútxueri</i> |
| /-'tar/ | <i>gernikarra, gernikarrari, getxótarra, getxótarrari</i> |
| /-'ti/ | <i>negártiže, negártižeri, ikaráti, ikarátiže, ikarátižeri</i> |
| /-'en/ | <i>ónena, ónenari, báltzena, báltzenari, gorrižena, gorriženari</i> |
| /-'ao/ | <i>báltzawa, gorrižawa</i> |

Silababakarreko atzizki markatu guztiak aurreazentuatzaileak dira, baina atzizkia bisilabaduna bada, azentua atzizkiaren lehen silaban joan daiteke. Beraz /-gárren/ atzizkiak lehen silaban darama azentua Arratzun eta Gernikaldeko beste herri batzuetan: *bigárrena, irugárrena, saspigárrena* (beste leku batzuetan, Getxon adibidez, aurreazentuatzailea da: *bigárrena, irugárrena, saspigárrena*).

Bestaldetik, badira eratorpeneko atzizki azentugabeak ere, hala nola /-garri/, /-tasun/, /-keri/:

- (15) Gernikaldea: eratorpen atzizki azentugabeak
 /-garri/ *ikusgarrižé, ikusgarrižék* 'pl', *ikusgarrižeri* 'sg', *ikusgarrižeri* 'pl'
 /-tasun/ *argittasuné, argittasunék* 'pl'
 /-keri/ *astokerižé, astokerižék* 'pl'

Erroa eta atzizkia azentudunak badira, erroaren azentua nagusitzen da, goian ikusitako lehen azentuaren erregelaren arabera:

- (16) Gernikaldea: [+am] erroa + [+am] eratorpen atzizkia
 /ondárru-ʹtarr-a/ *ondárrutarra* (ez **ondarrútarra*)
 /kánpo-ʹtarr-a/ *kánpotarra*
 /líbru-ʹtxu-a/ *líbrutxue*

Postposizio batzuek ere azentua aurreko silaban ezartzen dute hitza azentugabea bada eta, beraz, [+am] atzizkiek bezala jokutzen dute:

- (17) Gernikaldea: postposizioak
laguné be
lagúnék pe

Hitz elkartu gehienak markatuak dira, bi osagaiak markatugabeak badira ere. Gehienetan, azentua lehen osagaiaren azken silaban kokatzen da:

- (18) Gernikaldea: hitz elkartuak
begi-gorri *burú-aundi* *sagú-sar*
begi-gorrižé *burú-aundižé* *sagú-sarra*
begi-gorrižeri *burú-aundižeri* *sagú-sarrari*

Arau berezi bat behar dugu, beraz, hitz elkartuetan azentua ezartzeko:

- (19) Gernikaldea: hitz elkartuen araua
 Hitz elkartuetan, lehen osagaiaren azken silaban ezarri azentua.

Arau honek salbuespen lexikoak ditu. Hitz elkartu batzuetan, azentua lehen osagaiaren azken silaban egon beharrean, bigarren osagaiaren lehen silaban agertzen da. Zenbait hitz elkartu, gainera, markatugabeak izan daitezke.

7.2.3. Azentu ezabaketa: atzizki bortitzak

Orohar, erroa azentuduna bada, bere azentua nagusitzen da, ikusi dugun erregelaren arabera, hitzaren lehena izango baita beti. Atzizkien azentuerak ez du garrantzirik kasu honetan. Adibidez, /bílbo/ azentuduna da eta erro honekin eratutako hitz eratorri edo-eta flexiodunek azentua *bíl-* silaban eramango dute:

- (20) Gernikaldea: [+am] erroa
- | | | | |
|--------------|-----------------|-------------------|--------------------|
| /bilbo-ra/ | <i>Bilbora</i> | /bilbo-'tarr-a/ | <i>Bilbotarra</i> |
| /bilbo-'tik/ | <i>Bilbotik</i> | /bilbo-'tarr-'ak/ | <i>Bilbotarrak</i> |

Eratorpen atzizki batzuekin, hala ere, galdu egiten da erroaren azentua. Hauen artean /-lari/, /-(k)alde/ eta /-kada/ atzizkiak aipa ditzakegu:

- (21) Gernikaldea: azentu ezabaketa
- | | | | |
|-----------------|---------------------|----------------|--------------------|
| <i>pelótie</i> | <i>pelotariže</i> | <i>éurrien</i> | <i>eurrelariže</i> |
| <i>txístue</i> | <i>txistulariže</i> | | <i>eurrekaldie</i> |
| <i>aískórie</i> | <i>aískolariže</i> | <i>kárroa</i> | <i>karrokadie</i> |

Nolabait ere, /-lari/ bezalako atzizki batek sanskritoaren atzizki bortitzek bezala jokutzen du, bere tasun prosodikoa nagusitzen baita. Beraz, /-lari/ atzizki bortitz azentugabetzat har dezakegu. Atzizki honek, azentugabea izanik, oinarri azentugabe bat osatzen du eta, erroa azentuduna bada, bere azentua galtzen du. Beste aldetik, atzizki honen ondorengo azentuak ez dira galtzen: *txistulariže* baina *txistularižek*.

Galde dezakegu ea atzizki bortitz azentudunik ba ote den. Getxoko ondorengo adibideek erakusten dutenez, hizkera honetan /-'ti/ eta /-'sto/ atzizkiak azentudunak (22a), eta bortitzak dira, (22b), erro azentudun bati lotuta agertzen direnean beraien azentua nagusitzen baita (Hualde & Bilbao 1992: 74-75):

- (22) Getxo: atzizki bortitz azentudunak
- | | | | |
|-----------------|-----------------|-----------------|--|
| a. <i>berba</i> | <i>berbáti</i> | b. <i>bárre</i> | <i>barréti</i> (eta ez <i>*bárreti</i>) |
| <i>bildur</i> | <i>bildúrti</i> | <i>péka</i> | <i>pekásto</i> (eta ez <i>*pékasto</i>) |
| <i>lotza</i> | <i>lotzáti</i> | | |
| <i>sorri</i> | <i>sorrísto</i> | | |
| <i>koipe</i> | <i>koipésto</i> | | |

Era berean, Arratzun *mókoa* baina *mokótiže* (eta ez **mókotiže*) aurkitzen dugu, adibidez. Datu hauek ikusita, azentu lexikoaren araua honelaxe birformula dezakegu:

- (23) Gernikaldea/Uribe-Kosta: azentu lexikoa
- Arau orokorra: lehen azentu lexikoak irabazten du.
 - Salbuespena: Hitzean eratorpen atzizki bortitz bat badago, atzizki honek oinarri osoaren azentuera erabakitzen du.

7.2.4. Ezkerralderako eta eskuinalderako azentu lerraketak zenbait hizkeratan

Eskualde honetako hizkera batzuetan, azentu lexikoa silaba bat ezkerralderantz mugitu da. Aldaketa hau ez da inoiz orokorra izan. Azentu lerraketa jaso duena erroaren azentua denean (adib.: *tomáte* > *tómate*) aldaketak ez du ondorio handirik. Baina zenbait hizkeratan atzizki batek ezarritako azentua lekuz aldatu da. Honek konplikazio bat sortzen du azentu sisteman. Arteagan, adibidez, honako datu hauek aurkitzen ditugu (Gaminde 1996b):

(24) Arteaga (Gaminde 1996b)

	sg	sg	pl	pl
a.	<i>gixoná</i>	<i>alarguné</i>	<i>gixonak</i>	<i>alárgunek</i>
	<i>sagarrá</i>	<i>itxurrižé</i>	<i>ságarra</i>	<i>itxúrrižek</i>
	<i>txorižé</i>	<i>txórižek</i>		
b.	<i>alabié</i>		<i>alábak</i>	

Ikusten denez, pluralean azentua oinarriaren azkenurreko silaban kokatzen da; hau da, atzizkia baino bi silaba ezkerralderago. Ondorioz, pluralaren atzizkia aurreazentuatzailea da hizkera honetan. Bestaldetik, *alábak* adibidea azaltzeko Arteagan diakronikoki azentu atzerapena bokalen kontrazioa baino lehen gertatu zela onetsi behar dugu: *alabáak* > *alábaak* > *alábak*. Dena den, hau ez da interpretazio posible bakarra. Edo, historikoki hola izan bada ere, hiztun batzuek beste modu batean berrinterpretatu dute araua. Nik neuk beste plural hauek jaso ditut Arteagako hiztun gazte batengandik:²

(25) Arteaga: plurala

a. ABS:	<i>gixonak, lágunek, étxi(e)k, kátu(e)k, méndižek</i>
DAT:	<i>gixonari, láguneri, étxi(e)ri, kátu(e)ri</i>
b. ABS:	<i>guntzurúnnek, txistuláižek</i>
DAT:	<i>guntzurúnneri, txistuláižeri</i>

Hiztun honentzat behintzat, azentu atzerapena edo ezkerralderako lerraketa, oinarri bisilabadunekin gertatzen da, baina ez oinarria luzeagoa denean.³ Beraz, pluraleko atzizkien oinarritzko ezaugarria ez da aldatu: azentua aurreko silaban jartzen dute. Osera, testuinguru jakin batean, hots, oinarria bisilabaduna denean, azentu hau silaba bat ezkerralderago mugitzen da. Lerraketa bera beste flexiozko atzizki azentudunekin ere aurkitzen dugu, (26):

(26) Arratzu vs. Arteaga: ezkerralderanzko lerraketa

	Arratzu	Arteaga
lekuzko pluralak:	<i>basóatan</i>	<i>básutan</i>
	<i>méndižetan</i>	<i>méndižetan</i>
	<i>etziatan</i>	<i>étxiatan</i>
	<i>basóatara</i>	<i>básutara</i>
ABL sg:	<i>basótik</i>	<i>básotik</i>
	<i>ménditik</i>	<i>méndittik</i>
geroaldia:	<i>galdúko</i>	<i>gálduko</i>
	<i>sartúko</i>	<i>sártuko</i>
	<i>etorríko</i>	<i>etórriko</i>

² Nire esker ona Juan Jose Iribar-i.

³ Gamindek (1995d, 1996b) jasotako adibideen arabera, atzerapena orokorra da Nabarrizen ere oinarri bisilabadunekin: *sagarrá, ságarra*; *eskué, éskuek*, etab. Erro hirusilabadunekin, aldiz, ez dago kontsistentziarik. Alde batetik, *itxurrižé, itxúrrižek* ematen du, azentu atzerapenarekin pluralean; baina bestetik *alabié, alábak* eta *alarguné, alárgunek* ditu, atzerapenik gabe.

Adibide hauetan, Arratzun azentua atzizkiaren aurreko silaban agertzen den bitartean, Arteagan atzizkia baino bi silaba lehenago kokatzen da. Antza denez, Basterrecheak (1974, 1975) deskribatzen duen azentuera funtsean Arteagan aurkitzen dugun berbera da.

Atzerapenaren ondorio bat erro markatuen eta markatugabeen arteko desberdintasunaren neutralizazioa da. Beraz, Arratzun, adibidez, /baso/ 'oihan' eta /báso/ 'edalontzi' flexiozko atzizki markatugabe eta markatuekin bereizten dira, singularrean eta pluralean. Aldiz, Arteagan kontrastea galdu egiten da atzerapen araua ezartzen denean (pluralean eta ablatiboan):

(27) Arratzu vs. Arteaga: [+/- am] erroak eta [+am] flexiozko atzizkiak

a. Arratzu					
/baso/ 'oihan'				/báso/ 'edalontzi'	
sg	pl	sg	pl	sg	pl
<i>basóá</i>	<i>basóak</i>	<i>básoa</i>	<i>básoak</i>	<i>básoa</i>	<i>básoak</i>
<i>basótik</i>	<i>basóatitik</i>	<i>básotik</i>	<i>básoatitik</i>	<i>básotik</i>	<i>básoatitik</i>
b. Arteaga					
<i>basué</i>	<i>básuek</i>	<i>básue</i>	<i>básuek</i>	<i>básue</i>	<i>básuek</i>
<i>básotik</i>	<i>básutatik</i>	<i>básotik</i>	<i>básutatik</i>	<i>básotik</i>	<i>básutatik</i>

Hauxe da azentu atzerapena berrikuntzat hartzeko arrazoi bat: azentu markatuen kokagunearen bidez kontraste batzuk galdu egiten direla. Hizkera batean, *basótik* ([-am], [+am] atzizkia) eta *básotik* ([+am] erroa, [+am] atzizkia) azentuaren bidez desberdintzen badira eta beste hizkera batean azentuera bera badugu bi kasuetan, bigarren egoera honek berriagoa izan behar du nahitaez.

Eratorpen atzizkiekin azentua ez da mugitu Arteagan; edo, behintzat, ez atzizki gutzietekin. Adibidez, /-(t)arr/ atzizkiak aurreko silaban jartzen du azentua:

(28) Arteaga
/-(t)arr/ *Gernikarra* (ez **Gérmikarra*)
 Artiarra 'Arteagarra'

Azkenik, azentua ez da atzeratzen, atzizkia erroaren ondo-ondoan ez badago:

(29) Arteaga

a. GEN sg + ABS sg	<i>gixonaná</i>	<i>arraná</i>
b. GEN sg + ABS pl	<i>gixonának</i>	<i>arrának</i>
c. GEN pl + ABS sg	<i>gixonana</i>	<i>árrana</i>
d. GEN pl + ABS pl	<i>gixonanak</i>	<i>árranak</i>

Azentua (29c) eta (29d) adibideetan atzeratu egiten da (cf. *gixónana*, *gixónanak*, Gernikaldeko beste hizkeretan), baina ez (29b) adibidean. Azken adibide honetan, absolutibo pluralak ezarritako azentua aurreko silaban agertzen da, atzerapen araua ez duten hizkeretan bezala. Arteagako azentu atzerapen araua, beraz, gutti gorabehera honelaxe formula dezakegu:

(30) Arteaga: atzerapen araua
[o ó -o → ó o - o
[+am]
flex

Hau da, flexiozko atzizki markatu (= aurre-azentuatzaile) baten azentua silaba bat ezkerralderantz mugitzen da erro bisilabadun baten ondoren.

Azentu atzerapena eragiten duten atzizkiak ez dira beti berdinak horrelako arau bat duten hizkera guztietan. Getxon (eta Gaminde 1995ko datuen arabera baita eskualde bereko beste hizkera askotan ere, hala nola Sopelan, Gatian eta Larraurin), plurala aurre-azentuatzailea da, Gernikaldean bezala, baina partizipioetako /-²ten/ eta /-²ko/ atzizkiak aurre-aurreazentuatzaileak dira:⁴

(31) Getxo: atzizki aurreazentuatzaile eta aurre-aurreazentuatzaileak

a. sg	pl		
<i>gisoná</i>	<i>gisonak</i>		
<i>gisonarí</i>	<i>gisonari</i>		
<i>gisonaná</i>	<i>gisonanak</i>		
<i>gisonáas</i>	<i>gisonakas</i>		
b. Aditz-erro [-am]			
perf	inperf	geroald	
<i>sartú</i>	<i>sártzen, sártuten</i>	<i>sártuko</i>	
<i>ekarri</i>	<i>ékarten, ekárriten</i>	<i>ekárriko, ékarko</i>	
<i>esán</i>	<i>ésaten</i>	<i>ésango</i>	
<i>apurtú</i>	<i>ápurtzen, apúrtuten</i>	<i>apúrtuko</i>	
c. Aditz-erro [+am]			
<i>bóta</i>	<i>bótaten</i>	<i>bótako</i>	
<i>éron</i>	<i>éroten</i>	<i>érongo</i>	
<i>érein</i>	<i>éreiten</i>	<i>éreingo</i>	

Adibideetan ikusten denez, zenbait aditzekin bi bide daude partizipio inperfektibo eta geroaldikoa eratzeko. Baina kasu guztietan azentua bi silaba lehenago agertzen da atzizki hauekin. Bestaldetik, aditz jokatugabeen atzizki azentudun guztiek ez dute atzerapen araua eragiten. Adibidez, /-ta/ atzizkia aurreazentuatzailea da, baina atzerapenik gabe:

(32) Getxo: /-²ta/

a. Aditz-erro [-am]:	<i>erosí</i>	<i>erosíte</i>
	<i>egón</i>	<i>egónta</i>
	<i>kendú</i>	<i>kendúte</i>
	<i>apurtú</i>	<i>apurtúte</i>
b. Aditz-erro [+am]:	<i>bóta</i>	<i>bótata</i>
	<i>éron</i>	<i>éronta</i>
	<i>érein</i>	<i>éreinte</i>

Beraz, atzerapen arauaren ezarpena atzizki markatu bakoitzerako lexikoian espezifikatu behar den ezaugarria da, [+atz], eta hizkera desberdinetan hainbat atzizki egongo dira hala zehazturik. Getxon, adibidez, hurrengo informazioa sartu behar dugu lexikoian:

⁴ Xehetasun gehiagorako, ikus Hualde & Bilbao (1992, 1993).

- (33) Getxo: azentuzko ezaugarri lexikalak
- | | | |
|------------------|-------|--------|
| /-ari/ DAT sg | [-am] | |
| /-(g)as/ KOM | [+am] | [-atz] |
| /-ak/ ABS/ERG pl | [+am] | [-atz] |
| /-ari/ DAT pl | [+am] | [-atz] |
| /-ta/ | [+am] | [-atz] |
| /-t(z)e-/ | [+am] | [+atz] |
| /-ko/ GERO | [+am] | [+atz] |

Arteagan, zehaztopen lexikoak desberdinak izango lirateke. Alegia, pluraleko atzizkiek [+atz] ezaugarria dute hizkera honetan. Beste hizkera batzuetan, Arratzun adibidez, [+atz] ezaugarria ez da erabiltzen.

Batzuetan, azentu atzerapena kontrazioaren ondorioz gertatu da. Uribe-Kostako hizkeretan (Getxo, Berango, Sopela, BARRIKA, GORLIZ, LEMOIZ, URDULIZ, GATIKA) bokal taldeetako bigarren bokala galdu egin da. Kontrazioa gertatu denean, hau da, bokalez bukatutako oinarriekin, azentua oinarriaren azkenaurreko silaban agertzen da pluralean. Bestela, ikusi dugun bezala, ez dago azentu atzerapenik pluralean (adib.: *laguné, lagunéke*):

- (34) Getxo (Uribe-Kosta): kontrazioak eragindako azentu atzerapena
- | | | | | | |
|---------------|-----------------|----------------|-------------------|---------------|-----------------|
| sg | pl | sg | pl | sg | pl |
| <i>etxé</i> | <i>étxek</i> | <i>iturri</i> | <i>itúrrik</i> | <i>besó</i> | <i>bésok</i> |
| <i>etxék</i> | <i>étxek</i> | <i>iturrik</i> | <i>itúrrik</i> | <i>besók</i> | <i>bésok</i> |
| <i>etzerí</i> | <i>étxeri</i> | <i>iturri</i> | <i>itúrriri</i> | <i>besorí</i> | <i>bésori</i> |
| <i>etzerá</i> | <i>étxetara</i> | <i>iturri</i> | <i>itúrritera</i> | <i>besorá</i> | <i>bésotara</i> |

Singularreko formetan ipini dugun azentua talde prosodiko mailakoa da, noski. Hau ez da mugitu, kontrazioa singularrean ere gertatu arren. Azentu lexikoa mugitu da bakarrik. Garai batean, kontrazio araua sortu baino lehen, pentsa daiteke pluralaren azentua oinarriaren azken silaban kokatzen zela hitz guztietan. Kontrazioarekin batera, azentuaren mugimendua aurkitzen dugu:

- (35) Uribe-Kosta: bilakaera diakronikoa pluralean
- | | | | |
|--------------------|------------------|---------------------|-------------------|
| <i>sagárrak</i> | <i>besóak</i> | > * <i>besók</i> | > <i>bésok</i> |
| <i>sagárrari</i> | <i>besóari</i> | > * <i>besóri</i> | > <i>bésori</i> |
| <i>sagárratara</i> | <i>besóatara</i> | > * <i>besótara</i> | > <i>bésotara</i> |

Elantxoben ere fenomeno berbera aurkitzen dugu (eta Ondarroan ere bai). Hemen galdu den bokalak aurreko bokalaren kalitatea aldatu du erori baino lehen eta /-i/-z bukatzen diren oinarriekin ez dago kontraziorik, frikari epentetiko bat sartzen delako ingurune honetan (datuen iturria: Gaminde 1994a):

- (36) Elantxobe
- | | | | |
|-----------------|------------------|-------------|--------------|
| sg | pl | sg | pl |
| <i>gixoná</i> | <i>gixónak</i> | <i>ollú</i> | <i>ólluk</i> |
| <i>txarrižé</i> | <i>txarrižek</i> | <i>semí</i> | <i>sémik</i> |

Ipasterren, bokal erorketa hautazko araua da, baina azentu atzerapena beharrezko bihurtu da kontrazioa jaso dezaketean pluraleko formetan (Rosa Gandarias, a.e.):

(37) Ipaster	
sg	pl
<i>gixonák</i>	<i>gixónak</i>
<i>etxié</i>	<i>étxiek, étxik</i>

Egia esan, nahikoa harrigarria da hainbeste hizkeratan azentu atzerapena kontrazioarekin batera doala aurkitzea: Uribe-Kostan, Elantxoben, Ondarroan, Ipasterren (Arteagan eta Markinaldean ere bai, baina hemen atzerapena kontsonantez bukatutako oinarriekin ere gertatzen da). Badirudi, beraz, kontrazioa eta azentu atzerapena bata bestearekin lotuta daudela. Ipasterko datuek erakusten duten bezala, azentu atzerapena kontrazioa erabat finkatu baino lehen gerta daiteke. Nahikoa da kontrazioa posible izatearekin. Ikuspegi funtzionalista batetik, azentu atzerapenarekin singularren eta pluralaren arteko desberdintasun prosodikoa mantentzen da: *semék*, ergatibo singularra vs. *seméak* > *sémek*, plurala, adibidez. Hala ere, singularra *semeri* baldin bada datiboan, pluralean ez genuke atzerapenik izan behar kontrastea mantentzeko: *seméari* > **seméri*. Eta, noski, lekuzko formetan morfologia guztiz desberdina da singularrean eta pluralean. Dena den, behin absolutibo/ergatibo pluralean azentu atzerapena gertatuz gero, azentua pluraleko paradigmaz zehar silaba berean mantentzeko joera izan behar dugu kontuan.

Beste herri batzuetan, aurkako norabideko mugimenduak ere aurkitzen ditugu azentu lexikoekin. Hau da, azentu lexikoa silaba bat eskuinalderantz mugitu da, azentuera markatua duten zenbait mailegutuan oso garbi ikusten den bezala: *número* > *numéroa*, *música* > *musikie*, *látigo* > *latígoa* (hauek Arratzuko adibideak dira). Ezkerralderako lerraketak ez bezala, eskuinalderako mugimenduak ez du ondorio garrantzitsurik izan azentu-sisteman. Dena den, honen ondorioz atzizki bisilabadun markatu batzuek azentua lehen silaban hartzen dute Arratzun eta inguruko hizkeretan, aurreazentuatzaile izan beharrean. Horrela, hizkera hauetan, adibidez, /-gárren/ atzizkiak lehen silaban darama azentua, goian aipatu dugun bezala. Beraz, atzizki markatu aurreazentuatzailez gainera, atzizki azentudunak aurkitzen ditugu (baina ez silababakarreko atzizkiekin). Ikusiko dugunez, eskuinalderako lerraketa orokorragoa izan da Lekeition eta Ondarroan, azentu-sistema erabat aldatuz.

7.2.5. Galdegaiaren azentua

Jakina denez, esaldi gehienetan aditzaren aurre-aurretik datorren sintagma galdegaitzat hartzen da (Altube 1929). Galdegaiaren parentesi artean jarriko dugu adibideetan:

- (38) Gernikaldea: galdegai
 a. *gure lagunek [etze barri bet] erosi den*
 b. *etze barri bet [gure lagunek] erosi den*

Galdegaiaren sintaktikoki bere kokaguneaz markatzen da eta fonologikoki azentuaren bidez. Galdegaiari azentu marka bat ematen zaio. Galdegaitzat hartzen den sintagma hitz markatugabeaz osatuta baldin badago, azentua azken silaban kokatzen da:

- (39) Gernikaldea: galdegaiaren azentua
- a. *gure lagunek [etxe barri bét] erosi deu*
 - b. *etxe barri bet [gure lagunék] erosi deu*
 - c. *gure lagunék [etxe barri bét] erosi dábe*

Aldiz, galdegai sintagman hitz markatu bat badago hitz honek hartuko du galdegaiaren azentua (Getxon, aldiz, sintagmaren azken silabak beste azentu bat jasotzen du kasu honetan ere):

- (40) Gernikaldea: galdegaiaren azentua hitz markatuetan
- a. *gure lagunek [líbru barri bet] ekarri deu*
 - b. *Górkak [líbru barri bet] ekarri deu*

Beraz, esaldi guztietan guttienez azentu bat izango dugu, galdegaiarena. Eskualde honetako hizkeretan, doinu-azentuzko sistema aurkitzen dugu; azentuek H*L tonu melodia baten bidez gauzatzen direlarik. Goian esan dugu hitz markatugabe bez osatutako talde prosodikoetan azken silabak duela azentua. Baina, zehazkiago, talde markatugabeetan sintagma galdegaian dagoenean baizik ez da H*L melodia ezartzen (baita hitza edo hitz taldea isolatuta ahozkatzen denean ere, kasu honetan galdegaitzat hartzen baita). Aldiz, azentu lexikoa duten hitzek H*L melodia jasotzen dute esaldiaren edozein lekutan.

(39a-b)ko esaldietan azentu bakarra dugu. Aldiz, (39c) esaldian, bi azentu ditugu azalean: *lagúnék* daukan azentu lexikoa (pluralaren atzizkiak daramana) eta galdegaiaren azken silaban agertzen dena. (40a) esaldian, azentu bakarra bat dugu, *líbru* hitz azentuduna galdegaian baitago; eta (40b) esaldian, bi azentu, bat galdegaiaren aurrean, *Górkak* hitzak azentu lexikala baitu, eta beste bat galdegaian, hau ere hitz azentudun batean.

Azentuek tonu melodia jakin batez gauzatzen badira ere, azentu guztiek ez dute prominentzia bera. Batez ere, galdegaiaren azentua da prominenteena. Galdegaian bertan edo galdegaiak kanpo azentu lexiko bat baino gehiago badago, azentu maila desberdinak nabari ditzakegu.

Tonu melodia eta prominentzia erlatiboa ondo bereiztu behar diren gaiak dira. Hurrengo ataletan azentuaren bi alderdi hauek hartuko ditugu kontuan.

7.2.6. Prominentzia mailak

Mitxeleneri jarraituz (Mítxelena 1981), galdegaiaren ezker aldean egon daitekeen sintagma adierazteko *mintzagai* deitura erabiliz, hiru prominentzia eremu edo talde prosodiko bereiz ditzakegu: *mintzagaia*, galdegaia eta galdegai-ondorengoa. *Mintzagaian* eta galdegaian, ezkerretatik hasita, azentuek gero eta prominentzia guttiago dute. Hau da, prominenteena eremuko lehen azentua da, eta prominentzia guttien duena, azkena. Galdegaiaren ondoren agertzen diren azentu lexiko guztiek oso prominentzia txikia dute. Azentu ahul hauei izartxo bat emanez, eta prominentzia maila erlatiboak lehen izartxoaren gainean izartxo gehiago ipintzen adierazten baditugu, honelako egitura prosodikoak proposa ditzakegu (ikus, adibidez, Selkirk 1995). Esaldien prominentziarik handiena galdegaiaren lehen azentuari ematen zaio:

(41) Gernikaldea: prominentzia mailak

- | | | | | | | | | |
|--|---|---|---|--|--|---|--|---|
| | | x | | | | | | |
| | x | x | | | | | | |
| | x | x | x | | | | | |
| | x | x | x | | | x | | x |
- a. aitúttén líbrue [Górkak] ekarri deu lagúnen etzétik
- | | | | | | | | | |
|--|---|---|---|--|--|---|--|---|
| | | x | | | | | | |
| | x | x | x | | | | | |
| | x | x | x | | | x | | x |
- b. Górkak [aitúttén líbrue] ekarri deu lagúnen etzétik

Maila hauek erlatiboak dira. Maila gehiago bereiztu behar baditugu, zutabe altuagoak eraiki ditzakegu, hurrengo adibidean bezala:

(42) Gernikaldea: prominentzia mailak

- | | | | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|--|---|---|
| | | | x | | | | | |
| | x | | x | | | | | |
| | x | x | x | x | | | | |
| | x | x | x | x | x | | | |
| | x | x | x | x | x | | x | x |
- aitúttén líbru sarra [súen lékuko lagúnek] ekarri dábe etzétik

Esaldi honetan, *súen* hitzak dauka azenturik indartsuena (galdegai sintagmaren lehen azentua izaki). Kasu honetan bost prominentzia maila bereiztu behar ditugunez gero, bost izartxo daramazki. Baina ez dago esaldien artean konparatzerik. Hau da, izartxoek kopuruak ez du balio absoluturik. Esaldiko prominentzia mailarik gorena zeinek daukan da kontua. (41a) esaldian *Górkak* hitzak du prominentziarik gorena, (41b)-n *aitúttén* hitzak eta (42)-n *súen* hitzak. *Súen* hitzak ez du (41a-b) esaldietako galdegaiek baino prominentzia gehiago, bost izartxo eman badizkiogu ere. Izartxo kopuruak esaldiko prominentzia mailen arteko erlazio sintagmatikoa adierazten du, ez erlazio paradigmaticoa.

Hurrengo adibidean ez dago azentu lexikorik eta ez dugu azentu mailarik bereiztu behar:

(43) Gernikaldea: azentu bakarreko esaldiak

- | | | | | | | | | |
|--|--|---|--|--|--|--|--|--|
| | | x | | | | | | |
|--|--|---|--|--|--|--|--|--|
- ume txikiže [sure erriko lagunék] ekarri deu gure etzera

Esan bezala, azentu guztiek H*L melodia batekin elkartzen dira, baina tonu gorakada eta beherakada azentu horri emandako prominentzia mailaren ondorio dira. Beherakadarik handiena galdegaiaren azentuaren ondoren gertatzen da. Handik aurrera tonu maila oso apala izan ohi da. Bestaldetik, tontorrik garaiena zenbaki absolutuetan ez da nahitaez galdegaiarena. Deklinazioa deitzen den fenomeno baten ondorioz, tonu maila jaitsi egiten da esaldiaren hasieratik bukaeraraino eta, normalean, lehen tontorra izango da altuena. Oinarrizko maiztasuneko kurbetan galdegaiak mintzagaiak baino maiztasun guttiago izan dezake, hertzetan neurtuta. Hala eta guztiz, galdegaia prominentzia handiagorekin entzuten da. Prominentzia maila erabakitzeke deklinazio eta beste fenomeno batzuen ondorioak hartu behar dira kontuan.

Esaldiko azentu nagusia galdegaiarena da. Galdegaia azentu lexikorik gabeko hitzez osatuta badago, azentua galdegaiaren azken silaban doa, (43)-n bezala. Galdegai sintagman hitz azentudun bat badago, hitz honek hartzen du galdegaiaren azentua, (41b), (42). Baina galdegaian azentu lexikoa duen hitz bat baino gehiago izaki, lehena da prominenteena normalean. Dena den, galdegaiaren barneko prominentzia mailak aldatu egin daitezke, hitz bati enfasi berezia ematen bazaio:

(44) Gernikaldea: enfasi berezia

x
x x x
x x x x x x

Górkak [aittitten líbrue] ekárriko deu lagúnen etzétik (eta ez aittitten txapela)

Euskaraz, edo euskalki honetan behintzat, enfasiaren erabilpena oso mugatua da. Soilik eta bakarrik galdegaian dauden eta azentua duten hitzek har dezakete enfasia. Enfasia hitz larriz adieraziz, (45)ko esaldian, enfasia *líbru* edo *sarra* hitzetan ipin dezakegu. Bi hitz hauek galdegaian daude eta azentu lexikoa daramate. Aldiz, (45c) eta (45d) gaizki daude, enfasia galdegaian ez dagoen hitz batean ipini dugulako:

(45) Gernikaldea: galdegaia eta enfasia

x
x x x

a. gure aitttitten lagunek [LÍBRU sárrak] ekarri dittu etzétik
(eta ez txakurra)

x

x x x x

b. gure aitttitten lagunek [líbru SÁRRAK] ekarri dittu etzétik
(eta ez berriak)

x

x x x x

c. * gure AITTÍTITEN lagunek [líbru sárrak] ekarri dittu etzétik

x

x x x x

d. * gure aitttitten lagunek [líbru sárrak] ekarri dittu ETZÉTİK

Hurrengo esaldian ez dago batere aukerarik. Hemen, *etzé* hitzak, nahiz eta galdegaian egon, ez du azenturik. Arrazoi honegatik ezin du enfasia eraman. Testuinguruan *etzé* hitzari enfasia eman nahi badiogu ere (adierazteko etxe zahar bat erosi duela, eta ez barku zahar bat, adibidez), ezin dugu prominentziarik silaba honetan jarri:

(46) Gernikaldea: galdegaia eta enfasia

x

a. gure lagunek [etze SARRÁ] erosi deu

x

b. * gure lagunek [ETZE sarra] erosi deu

Enfasia, beraz, galdegaian dagoen azentu bati eman diezaiokegun prominentzia berezia da. Azenturik ez badago (lexikoa edo galdegaiarena) ezin zaio enfasirik eman

hitzari eta hitza azentuduna bada baina galdegaian ez badago, ezta ere. Enfasiaren bidez, galdegaiaren barneko azentuen artean prominentzia mailak bereizteko erabiltzen den araua bortxa daiteke, azentu lexiko bati ezkerrean dauden azentuei baino prominentzia gehiago emanez. Baina hitza galdegaian ez badago, ezin da enfatizatu. Eta galdegaian egonik ere, beste baldintza bat bete behar du; hots, azentua jaso behar du.

Ikusitako guztia kontuan hartuz eta galdegaiaren azentua esaldiko azentu nagusi bezala definituz, galdegaiaren azentuaren ezarketa honelaxe laburbil dezakegu:

- (47) Gernikaldea: galdegaiaren azentuaren ezarketa
- Galdegai sintagman azentu lexikoa duen hitzik ez badago, azentua azken silaban ezartzen da.
 - Galdegai sintagman azentu lexikoa duen hitz bakar bat badago, hitz honek hartzen du galdegaiaren azentua.
 - Galdegai sintagman azentu lexikoa duen hitz bat baino gehiago badaude, normalean lehendabizikoak hartzen du galdegaiaren azentua; baina beste hitz batek ere har dezake, enfasi kontrastiboaren eraginez.

Honek guztiak suposatzen du «galdegai sintagma» zein den jakin dezakegula. Hiztunak bi aukera ditu. Ikusitako adibide guztietan aditzaren aurretik doan sintagma galdegaitzat hartzen da. Beste aukera aditza galdegaia izatea da. Zehazkiago, aditz perifrastikoekin aditzaren esanahia galdegai egiteko galdegaiaren azentua partizipioan ezartzen da eta *eiñ* 'egin' sartzen da partizipioaren ondoren. Partizipioan azentua ipiniz baina *eiñ* erabili gabe, enfasia daramana baieztapena bera da:

- (48) Gernikaldea: aditza galdegaia
- lagunék ekarri deu* 'lo ha traído EL AMIGO'
 - lagunek ekarri deu* 'el amigo sí que lo ha traído'
 - lagunek ekarri eiñ ddeu* 'el amigo lo ha TRAÍDO' (y no llevado a otra parte)

Aditz trinkoekin egitura sintaktiko eta prosodikoen arteko desadostasun bat aurkitzen dugu. Galdegaian azentu lexikorik ez badago eta aditza ere azentugabea bada, aditza galdegaiaren talde prosodikoan sartzen da, (49a,b):

- (49) Gernikaldea: galdegaia aditz trinkoekin
- | | | | |
|----|---|----|-----------------------------|
| a | <i>gixon ederra dá</i> (ez * <i>gixon ederrá da</i>) | c. | <i>gixon edérrak dire</i> |
| b. | <i>gure lagune datór</i> (ez * <i>gure laguné dator</i>) | d. | <i>gixon ederrá dakárre</i> |

(49a-b) adibideetan galdegaia eta aditz trinkoa azentugabeak dira eta aipatu fenomeno gertatzen da. (49c-d) esaldietan, aldiz, ez dugu horrelakorik; (49c)-n galdegaian azentu lexiko bat dagoelako eta (49d)-n aditza azentuduna delako.

Galdegaiarena oso gai konplexua da euskalki honetan eta ziur asko beste euskalki askotan ere bai. Analisisian, egitura prosodikoaz gain, egitura sintaktikoa eta pragmatikoa ere hartu behar dira kontuan. Gai korapilotsu honetako ñabarduretan ez gara barneratuko hemen, baina xehetasun gehiagorako ikus Hualde, Elordieta & Elordieta (1993, 1994).

7.2.7. *Esaldien melodiak*

Lehen esan bezala, hitz azentugabeak isolaturik edo galdegaian ahoskatzen direnean, lehen silaban beheko tonu bat dago eta beste silaba guztiak goiko tonu mailan ahoskatzen dira azken silabaraino. Jaitsiera azken silaban gertatzen da. Hitz azentudunek ere, azentua lehen silaban ez badute, goiko tonu bat erakusten dute bigarren silabatik silaba azentudunerraino. Silaba azentudunaren ondoren tonu beherakada bat gertatzen da:

(50) Gernikaldea: tonu melodiak

a. Azentu lexikorik gabeko hitzak

$\underline{\text{la}} \mid \overline{\text{gu ne}} \setminus$ $\underline{\text{la}} \mid \overline{\text{gu ne na ri}} \setminus$ $\underline{\text{txis}} \mid \overline{\text{tu la ri že ri}} \setminus$
 ‘laguna’ ‘lagunarenari’ ‘txistulariari’

b. Azentu lexikoa duten hitzak

$\overline{\text{bál}} \mid \underline{\text{tza wa}}$ $\underline{\text{la}} \mid \overline{\text{gu né}} \mid \underline{\text{na ri}}$ $\underline{\text{la}} \mid \overline{\text{gú}} \mid \underline{\text{ne nar i}}$ $\underline{\text{txis}} \mid \overline{\text{tu la rí}} \mid \underline{\text{že ri}}$
 ‘beltzagoa’ ‘lagunarenei’ ‘lagunenei’ ‘txistulariei’

Kasu guztietan tonu beherakada azentu bati dagokio, lexikoari edo, (50a)ko adibideetan, galdegaiarenari (hitz isolatuak esaldi baten galdegaia izango balira bezala ahoskatzen baitira). Azentuak, beraz, H*L melodiaren bidez gauzatzen dira, H tonua silaba azentudunari lotzen zaiolarik. Lehen silabaren beheko tonua argi eta garbi %L muga tonu bezala interpreta dezakegu:

(51) Gernikaldea: tonuzko azentuak eta muga tonuak

<p>a. $\begin{array}{c} \text{x} \\ [\text{la gu né}] \\ / \quad \setminus \\ \%L \quad H*L \\ \text{‘laguna’} \end{array}$</p>	<p>$\begin{array}{c} \text{x} \\ [\text{la gu ne na rí}] \\ / \quad \setminus \\ \%L \quad H*L \\ \text{‘lagunarenari’} \end{array}$</p>	<p>$\begin{array}{c} \text{x} \\ [\text{txis tu la ri že rí}] \\ / \quad \setminus \\ \%L \quad H*L \\ \text{‘txistulariari’} \end{array}$</p>
<p>b. $\begin{array}{c} \text{x} \\ [\text{la gu né na ri}] \\ / \quad \quad \\ \%L \quad H* L \\ \text{‘lagunarenei’} \end{array}$</p>	<p>$\begin{array}{c} \text{x} \\ [\text{la gú ne na ri}] \\ / \quad \quad \\ \%L \quad H* L \\ \text{‘lagunenari’} \end{array}$</p>	<p>$\begin{array}{c} \text{x} \\ [\text{txis tu la rí že ri}] \\ / \quad \quad \\ \%L \quad H*L \\ \text{‘txistulariei’} \end{array}$</p>

Azentua lehen silaban dagoenean ez dago lekurik hasierako muga tonua gauzatzeko. Kasu honetan gorakada izango dugu lehen silaban:

(52) Gernikaldea: azentua lehen silaban duten hitzak

$\begin{array}{c} \text{x} \\ [\text{bál tza wa}] \\ | \quad | \quad | \\ \%L \quad H* L \\ \text{‘beltzagoa’} \end{array}$

Silaba azentudunaren ezker aldeko silaben goiko tonua azaltzeko tonu hedapen arau bat proposa dezakegu:

(53) Gernikaldea: Tonu hedapena:

Azentuaren H tonua ezker aldeko tonurik gabeko silaba guztietara hedatzen da.



- | | | |
|-----------------|--------------------|-------------------------|
| x | x | x |
| a. [la gu né] | [la gu ne na rí] | [txis tu la ri že rí] |
| / \ \ | / \ \ \ \ \ | / \ \ \ \ \ \ \ |
| %L H*L | %L H*L | %L H*L |
| 'laguna' | 'lagunarenari' | 'txistulariari' |
-
- | | |
|-----------------------|-------------------------|
| x | x |
| b. [la gu né na ri] | [txis tu la rí že ri] |
| / \ | / \ \ |
| %L H* L | %L H* L |
| 'lagunarenari' | 'txistulariei' |

Modu honetan lortzen ditugu azaleko tonu kontornuak.⁵

Gelditzen zaiguna da %L muga tonua zein eremurekin asoziatzen den argitzea. Adibidez, *lagune* bezalako hitz baten lehen silaba ez da beti agertzen beheko tonuarekin. Lehen silaban beheko tonu bat dugu hitza hasiera absolutuan dagoenean (54a), eta azentu baten ondoren (eremu berean edo ez) (54b); baina ez bestela, (54c):

(54) Gernikaldea: %L muga tonua

- a. la | gu né \ etorri de
- b. sú | en la | gu né \ etorri de c. gu | re la gu né \ etorri de
- men | dí | ttik la | gu né \ etorri de men | dí re la gu né \ jun de

Esan genezake %L muga tonua esaldiaren hasieran besterik ez dela agertzen eta azentu baten ondoren hitzaren lehen silabak beheko tonua duela azentuaren L tonua hartzen duelako. Elordietak (1996) erakusten duen moduan, hala ere, analisi honek zenbait arazo ditu. (54b)ko adibideetan *la*-silabari tonua emateko zergatik ematen zaio lehentasuna ezker aldeko L tonuari eta ez eskuinaldeko H tonuari? Arazo hau konpon genezake *lagune* hitzaren ezker aldeko muga %L bat dugula proposatzen badugu. %L tonua esaldiaren hasieran eta azentuak jartzeko eraikitzen diren azentu

⁵ Gorka Elordietak (a.e.) gogora ekarri dit mintzagai azentugabeetan ere goiko tonu bat gauzatzen dela, bigarren silabatik hasita. Nik, agian, arau berezi bat proposatuko nuke azenturik gabeko unitate hauetan H bat sartzeko. Gorka Elordietaren proposamena azentu unitate guztien bigarren silaban H tonu bat sartzea da.

unitateen bukaeran sartzen dela (hau da, azentua duten hitzen bukaeran) proposa daiteke. Beraz, bukaerako L% tonu hau hurrengo silabari erantsiko litzaioke (Elordietak 1996 proposamen desberdin bat egiten du):

(55) Gernikaldea: muga tonuak

x		x		x									
[[sú	en]	la	gu	né]	[gu	re	la	gu	né]		
				/		\				/		\	
%L	H*L	L%			H*LL%		%L				H*L	L%	

7.3. Lekeitio


7.3.1. *Hitz markatu eta markatugabeen azentuera*

Lekeition, Gernikan bezala, erroak eta atzizkiak azentudunak edo azentugabeak izan daitezke. Azentuen gauzatzeko tonala ere, aurreko atalean ikusitakoa da. Adibidez, *nire laguna dator* (22 irud.) eta *nire lagunen liburua ra* 'lagunen, pl' (23 irud.). Lehen adibidean ez dago azentu lexikorik eta goiko tonu maila mantentzen da bigarren silabatik bukaeraraino. Bigarren adibidean *lagunen* hitzean pluraleko atzizkiak beharakada eragiten du eta *liburua* hitzak ere beste azentu bat darama (adibide gehiagorako, ikus Hualde, Elordietak & Elordietak 1994 eta Elordietak 1996). Hala ere, azaleko patroi prosodikoak Gernikan baino sinpleagoak dira. Bi patroi besterik ez ditugu aurkitzen (geroago ikusiko ditugun kasu berezi batzuk albo batera utziz momentuz). Azentu lexikorik gabeko hitzek, Gernikan bezala, ez dute hitz mailako azenturik eta isolatuak edo galdegaigunearen bukaeran daudenean azken silaban hartzen dute azentua (56):⁶

(56) Lekeitio: hitz eta talde markatugabeak


lau		sagár	\	
sa		garrá	\	
sa		garrarí	\	'sg'
sa		garrentzát	\	'sg'
sa		garrentzakó	\	'sg'
su		re sagar barriřentzakó	\	'zure sagar berriarentzako'
sa		garrera	\	

⁶ Lekeitioko azentubidea Hualde, Elordietak & Elordietak (1994) liburuan aztertzen da hemen baino zehazkiago. Orain han esandakoa Elordietak (1996) artikulu bikainarekin osatu behar da. Gernikaldeko eta Lekeitioko azentu sistemak Hualde (1990, 1994) lanetan erkatzen dira. Bigarreanean, inprentan egindako akatsengatik datuak ez dira beti behar bezain argi agertzen.



nire laguna datôr

22. irud. nire laguna dator



nire lagûnen liburúa ra

23. irud. nire lagûnen liburúa ra

Beste azentu patroia (57)ko hitzek erakusten dutena da. Gernikan ez bezala, azentu lexikoa duten hitz guztiek azaleko azentuzko prominentzia azkenurreko silaban daramate. Markaduna, atzizkia (57a) edo erroa (57b) izan daiteke. Hurrengo adibideok erakusten dutenez, azentua azkenurreko silabara mugitzen da:

(57) Lekeitio: hitz markatuak

a. Erroa [-am] + atzizkia [+am]

/sagarr- 'ak/	sa gá rrak
/sagarr-'ari/	sa garrá ri 'pl'
/sagarr-'en-tzat/	sa garrén tzat 'pl'
/sagarr-'en-tzat-ko/	sa garrentzá ko 'pl'
	su re sagar barižentzá ko 'zure sagar berrientzako'

/sagarr-'tik/
b. Erroa [+am]

/liburu/	lau li bú ru
/liburu-a/	li bur ú a
/liburu-ari/, /liburu-'ari/	li bu ru á ri 'sg/pl'
/liburu-en-tzat/, /liburu-'en-tzat/	li bu ruén tzat 'sg/pl'
	li buruentzá ko 'sg/pl'
	su re libú ru ba rrižentzako 'sg'
/liburu-ra/	li burú ra
/liburu-'tik/	li bu rú tik

Hitz mailako azentua erabakitzen duen erregela ez da, beraz, Gernikan aurkitzen duguna. Aldiz, [+am] morfemek, hitzaren azkenurreko silabari ematen diote azentua. Azpiko egituran azentua erroarena ala atzizki batena izateak ez du garrantzirik; azalean hitzaren azkenurreko silaban kokatuko da beti, Azkuek (1931-32) ohartarazi zuenez.

Lekeitioko azentu sistema, Gernikakoa ez bezala, ertzetiko sistema bat dela esan behar dugu; azentua eskuinaldeko muga oin trokaiko bat eraikiz ezartzen delarik. Ohiko ertzetiko sistemetan ez bezala, Lekeition arau hau unitatean azentu marka lezikoren bat dagoenean baizik ez da erabiltzen. Azentu araua honelaxe formula deza-kegu:

- (58) Lekeitioko azentu lexikoaren araua: hitzaren eskuinaldeko mugatik oin trokaiko bat ezartzen da, hitzaren barnean marka lexiko bat (edo gehiago) baldin badago.

(x .)

li bu ru en tza ko
[+am]

Esan bezala, unitateak azentu lexikorik ez badauka, arau metriko hau ez da aplikatzen. [+am] morfemarik gabeko hitz andanetan Gernikako azentuera berbera dugu.

Zenbait tonu hizkuntzatan antzeko arauak aurkitzen ditugu. Morfema batek eragindako H tonu bat hitzaren silaba jakin batekin bat daiteke. Chizigula izeneko hizkuntza bantuan, adibidez, H tonua azkenaurreko silaban agertzen da, nahiz eta beste morfema baten ezaugarria izan, Lekeition bezala (Odden 1995: 471, datuen jatorriko iturria Kisseberth 1991 delarik). (59a)ko adibideetan, H tonu lexikoa duena /lómbez/ morfema da, erroa beraz; eta (59b)ko adibidean, /wá/ aurrizkiak sartzen du hitzaren azkenaurreko silaban agertzen den H tonua:

- (59) Chizigula: H tonuaren lerraketa

a. /ku-lómbez-a/	<i>kulombéza</i>	‘eskatu’
/ku-lómbez-ez-a/	<i>kulombežéza</i>	‘norbaitentzat eskatu’
/ku-lómbez-ez-an-a/	<i>kulombežéžána</i>	‘batak bestearentzat eskatu’
b. /n-a-wá-tohol-a/	<i>nawatohóla</i>	‘haiek askatzen ari naiz’

3.7.2 atalean fenomeno berbera ikusi genuen digo hizkuntzaren adibideekin. Zulu eta nguni taldeko Hegoafrikako beste hizkuntza bantuetan H tonua azkenhigarren silabara mugitzen da. Antzeko tonu lerraketak beste hizkuntza batzuetan ere gertatzen dira. Aldiz, indar-azentuzko hizkuntzetan ez dugu horrelakorik aurkitzen.

7.3.2. Hitz elkartuak

Gernikan bezala, hitz konposatu gehienak azentudunak dira. Azentuera hau emankorra den neurrian, konposaketa prozesuak [+am] ezaugarria sartzen duela esan dezakegu. Azentu lexikoak bezala, konposatuaren azentua azkenaurreko silabara mugitzen da:

- (60) Lekeitio: hitz elkartuak
begi-górri, begi-gorriža, begi-gorrižári

(60)ko adibidean hitz elkartuaren bi osagaiak, /begi/ eta /gorri/, azentugabeak direnez gero, azkenaurreko silaban agertzen den azentua hitz-elkarketa operazio morfologikoaren ondoriotzat hartu behar dugu. Beraz, Gernikan bezala, azentua morfema jakin baten ezaugarri lexikoa izateaz gain, elkarketa operazio morfologikoaz ere sar daiteke azentu unitatean. Horrezaz gain, testuinguru morfo-sintaktiko jakin batzuetan sartzen dira azentuak, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

7.3.3. *Azentu 'sintaktikoa'*

Egitura sintaktiko batzuetan azentu bat sartzen da, nahiz eta bestela hitzak azentugabeak izan. Adibidez, aginduzko formak azentudunak dira fokalizatuak daudenean: *etórri ona!* Kasu honetan azentua arrazoi morfosintaktikoengatik sartzen da. Azentua partizipioaren azkenurreko silaban ezartzeko, agindu bezala erabili behar da eta galdegaia izan behar du. Bestela ez dago azenturik forma hauetan: *oná etorri!*

Gauza bera aurkitzen dugu egitura superlatiboan. Azkuek aipatzen duen bezala, partitiboa azentuduna da superlatiboarekin erabiltzen denean, baina bestela ez: *gixónik ederréna* baina *estot gixonik ikusi*. Egitura hauetan, azentuak ez dira, beraz, morfema batzuen ezaugarri lexikoak. Fenomeno hau Gernikaldean ere topatzen dugu: *gixónik edérrena*.

7.3.4. *Hitz eratorriak*

Eratorpen atzizkiak, flexiozko atzizkiak eta erroak bezala, azentudunak edo azentugabeak izan daitezke. Atzizkia [+am] bada, hitzak azkenurreko silaban eramango du azentua, hurrengo adibideetan bezala:

- (61) Lekeitio: eratorpen atzizki azentudunak, erroa [-am], atzizkia [+am]

<i>alkate</i>	<i>alkatétza, alkatetzía</i>	<i>gusur</i>	<i>gusúrri, gusurtíza</i>
<i>soldau</i>	<i>soldántza, soldautzía</i>	<i>ikara</i>	<i>ikarári, ikaratíza</i>
<i>abade</i>	<i>abadétza, abadetzía</i>	<i>adur</i>	<i>adúrri, adurtíza</i>
<i>katu</i>	<i>katútxu, katutxúa</i>	<i>sarata</i>	<i>saratáka</i>
<i>lora</i>	<i>lorátxu, loratxúa</i>	<i>mosu</i>	<i>mosúka</i>

Bai erroa eta bai atzizkia ere [-am] badira, hitz azentugabea izango dugu:

- (62) Lekeitio: erroa [-am] atzizkia [-am]

<i>estu</i>	<i>estutasun</i>	<i>arro</i>	<i>arrokeri</i>
<i>illun</i>	<i>illuntasun</i>	<i>oker</i>	<i>okerkeri</i>
<i>gixon</i>	<i>gixontasun</i>	<i>gaixto</i>	<i>gaixtokeri</i>

Orain arte ez dago ezustekorik. Flexiozko atzizkiekin ikusi ditugun azentu arauak dauzkagu eratorpen atzizkiekin ere. Bestaldetik, erroak azentu morfologikoa daramanean eta atzizkia azentugabea denean, desberdintasun bat aurkitzen dugu. Kasu honetan erroaren azentua galdu egiten da eta hitza azentugabea da:

- (63) Lekeitio: erroa [+am], atzizkia [-am]

<i>txotxólo</i>	<i>txotxolúa</i>	<i>txotxolokeri</i>	<i>txokolokeriža</i> (eta ez <i>*txotxolokéri, txotxolokeriža</i>)
-----------------	------------------	---------------------	---

/-tasun/		/-oso/	
<i>básto, bastúa</i>	<i>bastotasun, bastotasuna</i>	<i>móko, mokúa</i>	<i>mokoso, mokosua</i>
/-kada/		<i>drúga, drogía</i>	<i>drogoso, drogosua</i>
<i>kárrro, karrúa</i>	<i>karrokada, karrokadia</i>	/-ero/ 'lanbide'	
/-tzu/		<i>txúrro, txurrúa</i>	<i>txurrero, txurrerua</i>
<i>egúski, eguskířa</i>	<i>eguskitzu, eguskitzua</i>	/-(\emptyset)ari/	
		<i>pelóta, pelotía</i>	<i>pelotari, pelotariřa</i>
		<i>áurre, aurria</i>	<i>aurrelari, aurrelariřa</i>

Erakutsitako [-am] atzizki hauek atzizki bortitz bezala zerrenda genitzake, noski, baina badirudi fenomenoaren orokorragoa dela; alegia, [-am] eratorpen atzizki guztiek erroaren [+am] markak desagertarazten dituzte⁷. Beraz, atzizki batzuen ezaugarritzat hartu gabe, operazio morfologikoaren ezaugarri bezala uler dezakegu. Eratorpenean, atzizkiak irabazten du, azentuduna edo azentugabea izan; hau da, hitzaren ezaugarri prosodikoa atzizkiarena da. Beraz, arau desberdinak ditugu flexioan, hitz elkarketan eta eratorketan:

- (64) Lekeitio: [+am] eta [-am] morfemen konbinaketak flexioan
 Erroak edo-ta atzizkiak [+am] marka badu, hitza azentuduna da
- Erroa [-am], atzizkia [-am] → hitz azentugabea
 /buru-ra/ *burura*
 - Erroa [-am], atzizkia [+am] → hitz azentuduna
 /buru-²tik/ *burútik*
 - Erroa [+am], atzizkia [-am] → hitz azentuduna
 /¹liburu-ra/ *liburúra*
 - Erroa [+am], atzizkia [+am] → hitz azentuduna
 /¹liburu-²tik/ *liburútik*
- (65) Lekeitio: hitz elkarketa
 Hitz elkartuak azentudunak dira normalean, nahiz eta bi osagaiak [-am] izan:
 /buru-andi/ *buruándi, buruandířa*
- (66) Lekeitio: [+am] eta [-am] morfemen konbinaketak eratorpenean
 Atzizkiak irabazten du
- Erroa [-am], atzizkia [-am] → oinarri azentugabea
 /estu-tasun/ *estutasun*
 - Erroa [-am], atzizkia [+am] → oinarri azentuduna
 /gusur-²ti/ *gusúrti*
 - Erroa [+am], atzizkia [-am] → oinarri azentugabea
 /¹txotxolo-keri/ *txotxolokeri*
 - Erroa [+am], atzizkia [+am] → oinarri azentuduna
 /¹salto-²ka/ *saltóka*

(64) eta (66)ko (c) kasuan emaitza desberdinak ditugu. Arauak, beraz, ez dira berdinak flexioan eta eratorpenean.

⁷ Eskerrik asko Jon Elordi-ri datuengatik.

7.3.5. *Azentu lexikoaren arau orokorrerako salbuespenak*

7.3.5.1. *Zeharkako aginduak*

Lekeition azentu lexikoak hitzaren azkenaurreko silaban ezartzen direla ikusi dugu. Hala ere, salbuespeneko kasu batzuetan, azentua azkenaurreko silaba baino ezkerralderago agertzen da. Hau da, hain zuzen, zeharkako aginteretan aurkitzen duguna, bai forma jokatueta (aditz trinkoetan) eta baita aditz partizipioetan ere. Kontsidera ditzagun hurrengo esaldiak:

- (67) Lekeitio: zeharkako aginduak (aditz trinkoak)
 - a. *dátorrela esan dot* (zeharkako agindua)
 - b. *bižár datorrela díño*
- (68) Lekeitio: zeharkako aginduak (partizipioak)
 - a. *patátak erósteko esan dotzat* (zeharkako agindua)
 - b. *au diruan patátak erostéko da*

Adibideok bikote minimoak erakusten dituzte. Ikusten den moduan, zeharkako aginduetan, agindu zuzenetan bezala (cf. 7.3.3) azentu bat sartzen da; baina azentua aditz formaren azkenaurreko silaba baino ezkerralderago agertzen da. Erabiltzen ari garen eredu teorikoak bi aukera ematen dizkigu honelako datuak aztertzeko. Aukera bat estrametrikalitatea erabiltzea da. Baina, konturatzen bagara, azentua silaba ezberdinetan kokatzen da forma jokatuan eta partizipioan. *Erósteko* forman azentua azkenhirugarren silaban dagoen bitartean, *dátorrela* adibidean azkenlaugarren silaban doa. Beraz estrametrikalitatea eremu ezberdinetan erabili beharko genuke. Kasu batean azken silaba estrametrikoa izango litzateke eta beste kasuan azken bi silabak, edo azken oin metrikoa.

Analisirako bigarren aukera litzateke azentu unitatea hitz morfologikoa baino txikiagoa dela pentsatzea. Agian, egokiena forma jokatu eta partizipioetarako proposamen desberdinak egitea da. *Dátorrela* adibidearen kasuan /-ela/ atzizkia ez dela azentu-unitatean sartzen proposa dezakegu. *Dátorrela* agindua eta *datorrela* deklaratioa erkatzen baditugu, argi dago aginteretan azentu bat sartzen dela, arrazoi morfologikoengatik. Azentu hau, beste azentu guztiak bezala, azkenaurreko silaban kokatzen da, baina /dator/ unitatearen azkenaurreko silaban, eta ez /datorr-ela/ hitz morfologikoarenean. Hau da, /-ela/-k, atzizkia bada ere, prosodiaren aldetik klitiko gisa jokatzen du, eta, hortaz, ez da azentu unitatean sartzen. Beste hizkuntza batzuetan ere aurkitzen ditugu antzeko egoerak. Adibidez, italieraz, gaztelaniaz bezala, azentua hitzaren azken hiru silabetariko batean doa ia beti. Salbuespen bakarra /-no/ atzizkia daramaten aditz forma batzuetan agertzen da. Gaztelaniaz ez bezala, italieraz aditz guztiak ez dute azentuera berbera; batzuk paroxitonoak dira orainaldian, hala nola, *arrívo*, *arrívi*, *arríva* 'heldzen naiz, haiz, da', eta beste batzuk proparoxitonoak dira: *ábító*, *ábíti*, *ábíta* 'bizi naiz, haiz, da' (cf. gaz. *habito*, *habitas*, *habita*). Pluralaren hirugarren pertsona singularrari /-no/ erantsiz eratzen da eta honek azentua azkenlaugarren silaban duten hitzak sortzen ditu: *arrívano* baina *ábitano*. Aditz forma hauek dira hiru silabako murriztapena bortxatzen duten salbuespen bakarrak italieraz. Patroi proparoxitonoa lortzeko oin trokaikoa gehi azken silabaren estrametrikalitatea erabiltzen badugu, *ábitano* bezalako formak azaltzeko /-no/ unitatetik kanpo utzi behar dugu,

klitikoak bezala, cf. *cómpramelo*. Gauza bera proposa dezakegu /-ela/ konplementa-tzailerako Lekeitioko euskaraz.

Bestaldetik, /-teko/ formen kasuan, ez dago hain garbi analisirik egokiena zein den, forma hauek ez baitute hiru silabako murriztapena bortxatzen. Edozein kasutan *-te* silaba oin metrikoan sartu behar da, azentua /eroste/ unitatearen azkenurreko silaban kokatzen baita eta ez soilik erroaren azkenurrekoan. Beheraxeago atzizki honek sartzen duen azentua interpretatzeko beste posibilitate bat ere badagoela ikusiko dugu.

7.3.5.2. Postposizioen azentuera

Beste salbuespenezko kasu batzuetan hitzaren azken silaban agertzen da azentu bat, talde fonologikoaren bukaeran egon gabe. Postposizio batzuek, hala nola *be*, *barik* eta *bako*, azentu bat jartzen dute aurreko silaban:

(69) Lekeitio: postposizioak

laguná be
aittä barik
aittä bako umia
aittä bakua
aittä bakuari

Ikusten denez, ohiko azentu lexikoa ez bezala, postposizio hauek sartutako azentua ez da mugitzen unitatearen azkenurreko silabara.

/-tako/ eta /-niko/ atzizkiek portaera berbera erakusten dute, nahiz eta morfologikoki atzizkiak izan. Konpara ditzagun hurrengo adibideak

(70) Lekeitio: /#’tako/

a. *apurtútako*
apurtútakua
apurtútakuari

b. *lagunentzákó* (plurala)
lagunentzakúá
lagunentzakuári

Eskuinaldeko zutabeko adibideetan, Lekeitioko ohiko azentu mota dugu. Azentu lexikoa /-en*/ genitibo pluralak darama lexikoian eta hitzaren azkenurreko silaban agertzen da. Ezkerraldeko zutabeko adibideetan, aldiz, ez dago azentu lerraketarik. Hiru adibideetan azentua /-tu-/ silaban agertzen da; hau da, /-tako/ atzizkiaren ezkerraldean dagoen silaban. /-tako/ atzizkiak Gernikako atzizki aurreazentuatzailiek bezala jokutzen du. Gernikan guztiz normala da azentuera hau, baina Lekeitioko azentu sisteman arau orokorraren aurka doan salbuespenzat hartu behar da.

Lekeitioko azentu sisteman mota honetako salbuespenak badirela ikusita, aginduetako /-teko/ atzizkiak ezkerraldeko silaban ezartzen duen azentua ere modu berean interpreta dezakegu: /eros#’teko/ *erósteko* (agindua) vs. /eros-’teko/ *erostíeko* (deklaratzailea).

7.3.6. Hitz prosodiko eta morfologikoak

Esan bezala, Lekeition azentu lexikoak hitzaren azkenurreko silaban kokatzen dira (ikusit ditugun salbuespenak gorabehera). Hau hola izanik, azentua kokatzeko

«hitz prosodikoa» zer den erabaki behar da. Kasu gehienetan hitz prosodikoa hitz morfologikoa da. Ultzameraz edo zubereraz ez bezala, *bat* ez da sartzen hitz prosodikoan: *libúru bat* (eta ez **liburú bat*). Bestaldetik, beraien azentuzko portaerak erakusten du /'ba-/ 'baldintza', /'ei-/ eta /'ete-/ partikulak aurrizki azentudunak direla, aditzaren azkenaurreko silaban ipintzen baitute azentua: *lagúnak etorri dira* baina *lagúnak etorri ei-dira*, adibidez.

Aditza ez bada galdegaia, partizipioak eta laguntzaileak hitz prosodiko bakarra osatzen dute. Beraz unitate osoaren azkenaurreko silaban jartzen da /-'t(z)en/ eta /-'ko/ atzizkiek sartutako azentua. Aldiz, aditza galdegaia bada, partizipioa eta laguntzailea azentu unitate desberdinak dira:

(71) Lekeitio

- a. *lagúnak etorriko-dira* 'LAGUNAK etorriko dira'
 b. *lagúnak etorriko dira* 'lagunak ETORRIKO dira'

Honetaz gain, 7.3.5.1 atalean ikusi dugu atzizki batzuk azentu unitatetik at gelditzen direla. Hitz prosodikoak eta morfologikoak ez dira, beraz, beti berdinak. Honelako paralelismorik eza eremu handiagoetan ere agertzen zaigu. 7.2.6 atalean ikusi dugunez, aditza aurreko galdegai sintagmaren unitate prosodikoan sar daiteke, galdegaiaren azentua hartuz (adib.: *gixona datór*). Alderantziz, adverbio batzuk (hala nola, *beintzat*, *beinipein*, *gixiènes*) ez dira galdegaiaren unitate prosodikoan sartzen, nahiz eta sintaktikoki galdegaiari lotuta egon (ikus Hualde, Elordieta & Elordieta 1993).

7.4. Ondarroa⁸

7.4.1. Hitz markatu eta markatugabeak

Ondarroako hizkeran, beren aipamen forman, hots, absolutibo singularrean, hitz gehienek patroiz prosodiko berbera erakusten dute: tonua bigarren silaban goratzen da (edo lehen silaban hitza bisilabaduna bada) eta azkenaurrekoan beheratzen, (72a)n erakusten den legez. Hitz batzuekin, aldiz, goiko tonua azken silabaraino mantentzen da, (72b)ko adibideetan bezala:

(72) Ondarroa: aipamen formak

- a.
- | | | | |
|-------------------------------------|---------|-------------------------------------|------------|
| <u>in</u> <u>dda</u> <u>rra</u> | 'indar' | <u>in</u> <u>dda</u> <u>rra</u> | 'babarrun' |
| <u>gi</u> <u>xo</u> <u>na</u> | | <u>u</u> <u>sa</u> <u>ba</u> | |
| <u>men</u> <u>di</u> <u>xe</u> | | <u>e</u> <u>gi</u> <u>xe</u> | |

⁸ Atal hau Hualde (1995b) artikularen euskarazko bertsio laburtua da. Xehetasun gehiago nahi duen irakurleak jo beza artikulua horretara. Eskerrik asko Amaia Iparragirre eta Jose Mari Arriolari. Ondarroako azentueraren beste interpretapen bat Rotaetxe (1978a, 1978b) lanetan aurki daiteke.

<u>mu</u> <u>ti</u> lle	<u>ar</u> <u>bo</u> <u>li</u>	b. <u>ba</u> <u>su</u> ‘oihan’
<u>i</u> <u>purdi</u> <u>xe</u>	<u>be</u> <u>larri</u> <u>xe</u>	<u>txis</u> <u>tu</u> ‘tu’
<u>txis</u> <u>tulai</u> <u>xe</u>	<u>gu</u> <u>surti</u> <u>xe</u>	<u>e</u> <u>txi</u>
<u>ar</u> <u>gitxasu</u> <u>ne</u>	<u>ba</u> <u>serritxa</u> <u>rra</u>	<u>nes</u> <u>ki</u>
	<u>ba</u> <u>su</u> ‘edalontzi’	<u>a</u> <u>labi</u>
	<u>txist</u> <u>tu</u> ‘txistu’	
	<u>le</u> <u>ku</u>	
	<u>kei</u> <u>xi</u>	

Izen eta adjektibo hauek kopularen aurrean kokatzen baditugu, beste bi azentuera aurkitzen ditugu, baina lortzen dugun hitz banaketa zeharo desberdina da. (73)n erakusten den moduan, (72a)ko ezkerreko zutabeko hitzek eta (72b)koek goiko tonua mantentzen dute hitzaren azken silabaraino. (72a)ko eskuinaldeko zutabean emandakoek, aldiz, beheakada bat erakusten dute azkenaurreko silaban. Goiko tonuan dauden silabak azentu-marka batekin adierazten ditugu, marrak erabili orde, eta (72)n emandako adibideen ondoren beste adibide batzuk eskaintzen ditugu bi azentu patroiak erakusteko:

(73) Ondarroa: ABS sg + kopula

<i>inddárá ra</i>	‘indar’	<i>inddárra ra</i>	‘babarrun’
<i>gixóná ra</i>		<i>usába ra</i>	
<i>mendíxé ra</i>		<i>egíxe ra</i>	
<i>mutillé ra</i>		<i>arbóli re</i>	
<i>ipúrdíxé ra</i>		<i>belárríxe ra</i>	
<i>txistúláixé ra</i>		<i>gusúrtíxe ra</i>	
<i>argítxásúné ra</i>		<i>basérrítxárra ra</i>	
<i>basú re</i>	‘oihan’	<i>básu re</i>	‘edalontzi’
<i>txistú re</i>	‘tu’	<i>txistu re</i>	‘txistu’
<i>etxí re</i>		<i>léku re</i>	
<i>neské re</i>		<i>kéixi re</i>	
<i>alábí re</i>			

Adibide gehiago:

<i>jentí re</i>	<i>tási re</i>
<i>burú re</i>	<i>pópi re</i>
<i>eskú re</i>	<i>ámu re</i>
<i>sagárrá ra</i>	<i>orrátza ra</i>
<i>gorríxé ra</i>	<i>urdáixe ra</i>

<i>edérrá ra</i>	<i>katillu re</i>	
<i>abári re</i>	<i>a(i)x:kóri re</i>	
<i>Mutrikú re</i>	<i>Ondárru re</i>	
<i>elíxi re</i>	<i>eskóli re</i>	
<i>argálá ra</i>	<i>ollárra ra</i>	
<i>dendéru re</i>	<i>doméki re</i>	
<i>armósú re</i>	<i>espillu re</i>	
<i>arimi re</i>	<i>isári re</i>	
<i>gorrótú re</i>	<i>apá(i)xu re</i>	‘aparejo de pesca’
<i>ardúri re</i>	<i>denpóri re</i>	
<i>arrébi re</i>	<i>ganbári re</i>	
<i>kartéru re</i>	<i>ingúru re</i>	
<i>asálá ra</i>	<i>kaxóli re</i>	
<i>bandéri re</i>	<i>puxiki re</i>	
<i>barbéri re</i>	<i>lengúsú re</i>	
<i>barbá(r)inē ra</i>	<i>lengusiñi re</i>	
<i>osásuné ra</i>	<i>arkóndári re</i>	
<i>umórétzú re</i>	<i>errégálu re</i>	
<i>osásuntzú re</i>	<i>errósáxu re</i>	
<i>pelótáixé ra</i>	<i>bilddúrtíxe ra</i>	
<i>sagú sarrá ra</i>	<i>sagúsarra ra</i>	
<i>bei górríxe ra</i>	<i>beigórríxe ra</i>	‘ojirrojo’

Sistema fonologikoaren aldetik, (73)ko banaketa (72)koa baino askoz garrantzi-tsuagoa da. (73)ko ezkeraldeko zutabeko hitzak hitz markatugabeak dira, eta eskui-naldekoak, markatuak (hau da, erroa [+am] da edo oinarriak [+am] eratorpen atzizki bat darama). Eten baten aurrean, (72)ko adibideetan bezala, hitz markatu eta markatugabeen arteko bereizketa lexikoa iluntzen da neurri handi batean. Honek zailtasun berezi bat ematen dio azentu sistema honi.⁹

Kapitulu honetako beste doinu-azentu sistemetan egin dugun bezalaxe, azentu fonologikoa azken goiko tonua daraman silaban koka dezakegu. Ez dugu beste azentu-markarik erabili behar. Hau da, azentua H*L melodiaren bidez gauzatzen da; behera-kada baino lehen dagoen silabak daramalarik azentua:

(74) Ondarroa: hitz markatugabeak eta markatuak					
a.	<i>basú re</i>	‘oihan’	b.	<i>básu re</i>	‘edalontzi’
	<i>etsí re</i>			<i>pópi re</i>	
	<i>inddarrá ra</i>	‘indar’		<i>inddárra ra</i>	‘babarrun’
	<i>gixoná ra</i>			<i>usába ra</i>	‘ugazaba’
	<i>mendixé ra</i>			<i>egíxe ra</i>	
	<i>alarguné ra</i>			<i>belarríxe ra</i>	
	<i>barbariñé ra</i>			<i>lengusiñi re</i>	
	<i>sagu sarrá ra</i>	‘ratón viejo’		<i>sagusarra ra</i>	‘murciélago’

⁹ Amaia Olabarriak esan dit (73)ko banaketa, hiru salbuespenekin, Antzuolako hizkerarako ere balio duela. Hau da, nahiz eta bi azentu sistemak oso desberdinak izan, Ondarroan markatuak diren hitzak markatuak dira Antzuolan ere, ia beti. Honek Bizkai-Gipuzkoetako azentu sistemen funtsezko batasun historikoa erakusten du.

Esan dugu ezker aldeko adibideak hitz markatugabeak direla, hau da, lexikoki azentugabeak; eta eskuinaldekoak, aldiz, markatuak edo lexikoki azentudunak. Bereizkuntza hau argi eta garbi agertzen da hitza talde prosodiko baten erdian jartzen denean:

(75) Ondarroa: hitz markatugabeak eta markatuak talde prosodikoaren erdian

- a. [-am] *geure elixí re*
geure elixa ederrá ra
- (= geu | re elixa ederrá | ra)
- b. [+am] *geure eskóli re*
geure eskóla ederrá ra
- (= geu | re eskó | la e | derrá | ra)

(76) Ondarroa

- a. [-am] *geure laguné ra*
geure lagun andixé ra
geure lagun andixe rátor
- (= geu | re lagun andixe rá | tor)
- b. [+am] *geure usába ra*
geure usába andixé ra
geure usába andixe rátor
- (= geu | re usá | ba an | dixe rá | tor)

(77) Ondarroa

- a. [-am] *geure basú re* 'oihan'
geure baso ederrá ra
- (= geu | re baso ederrá | ra)
- b. [+am] *geure básu re* 'edalontzi'
geure báso ederrá ra
- (= geu | re bá | so e | derrá | ra)

Ikusten denez, hitz markatugabeek ez dute tonu beherakadarik eragiten. Talde prosodikoaren erdian daudenean, goiko maila lau batean ahoskatzen dira, prominenziarik gabe inongo silabatan. Aldiz, hitz markatuek tonu beherakada bat erakusten dute azken silaban ingurune guztietan. Gerta daiteke, noski, sintagma batean hitz markatu bat baino gehiago izatea, eta kasu honetan hitz markatu guztiak aipatutako tonu patroiarekin ahoskatuko dira:

(78) Ondarroa: hitz markatu bat baino gehiagoko taldeak

sú | en ar | bó | li re sú | en len | gú | so gu | surtí | xe ra

Hitz markatugabeek ez dute berez azenturik. (73)ko ezkerraldeko adibideen azentua talde prosodikoaren mailako azentua da, galdegaiaren azentua, hain zuzen, eta ez azentu lexikoa. Aldiz, hitz markatuak azentu batekin agertzen dira beti, esan bezala, ingurune guztietan. Lekeition bezalaxe, azentu lexikoa hitzaren azkenaurreko silabara mugitzen da. Hurrengo adibidean, esate baterako, azentua /-ʔi/ atzizkiarena da lexikoki, baina morfema honen ezkerraldera zein eskuinaldera gauza daiteke, hitzak di-tuen siláben arabera:

- (79) Ondarroa
gusurtixe ra (cf. *abari re*)
gusúrti ba(t) ta (cf. *abare bá(t) ta*)
gusurtixantzáko ra ‘gezurtiarentzako da’
 (cf. *abarintzakó ra* ‘abadearentzako da’)

(= gu | surtixantzá | ko ra vs. a | barintzakó | ra)

Beste adibide hauetan, /’egi/ ‘verdad’ eta /inddar/ ‘alubia’ erroek azentu lexikoa dute. Ikusten denez, azentu lexiko hau beti kokatzen da hitzaren azkenaurreko silaban eta ez da ezartzen erroaren silaba jakin batean (Gernikaldean ez bezala):

- (80) Ondarroa
égi xe ra (cf. *mendixé ra*) *índdarr bat*
égi andixé ra (cf. *mendi andixé ra*) *índdarra*
índdarra ra
índdarrantzáko ra

Kapitulu honetan eta aurrekoan aztertutako beste hizkeretan bezalaxe, oinarri markatugabeekin singularra eta plurala bereizten dira azentuaren aldetik, pluralezko morfemak azentudunak baitira. Oinarri markatuekin, aldiz, ez dago bereizketarik:

- (81) Ondarroa: oinarri markatugabeak ABS sg/pl
- | | | | | |
|--------------------|---------------------|----------|-----------------------|-------------------------|
| singular | plural | | | |
| <i>basú re</i> | <i>básu(k) tis</i> | ‘oihan’ | <i>mutillé ra</i> | <i>mutillak tis</i> |
| <i>txístu re</i> | <i>txístuk tis</i> | ‘saliva’ | <i>laguné ra</i> | <i>lagúnak tis</i> |
| <i>etxi re</i> | <i>étxik tis</i> | | <i>abari re</i> | <i>abárik tis</i> |
| <i>burú re</i> | <i>búruk tis</i> | | <i>alabí re</i> | <i>alábak tis</i> |
| <i>eskú re</i> | <i>éskuk tis</i> | | <i>elixí re</i> | <i>elíxak tis</i> |
| <i>neskí re</i> | <i>néskak tis</i> | | <i>alarguné ra</i> | <i>alargúnak tis</i> |
| <i>mendixé ra</i> | <i>mendíxak tis</i> | | <i>barbaríñe ra</i> | <i>barbaríñak tis</i> |
| <i>gorrixé ra</i> | <i>gorríxak tis</i> | | <i>pelotaixé ra</i> | <i>pelotáixak tis</i> |
| <i>inddarrá ra</i> | <i>índdárak tis</i> | | <i>kuntzurruné ra</i> | <i>kuntzurrunak tis</i> |
| <i>gixoná ra</i> | <i>gixónak tis</i> | | <i>sagu sarrá ra</i> | <i>sagu sárrak tis</i> |
| <i>sagarrá ra</i> | <i>sagárrak tis</i> | | | |

- (82) Ondarroa: oinarri markatuak, ABS sg/pl
- | | | | | |
|------------------|--------------------|-------------|-------------------|---------------------|
| <i>básu re</i> | <i>básuk tis</i> | ‘edalontzi’ | <i>eskóli re</i> | <i>eskólak tis</i> |
| <i>txístu re</i> | <i>txístuk tis</i> | ‘txistu’ | <i>espillu re</i> | <i>espilluk tis</i> |
| <i>pópi re</i> | <i>pópak tis</i> | | <i>isári re</i> | <i>isárák tis</i> |

<i>tási re</i>	<i>tásak tis</i>	<i>ganbári re</i>	<i>ganbáarak tis</i>
<i>léku re</i>	<i>lékuk tis</i>	<i>ingúru re</i>	<i>ingúruk tis</i>
<i>ámu re</i>	<i>ámuk tis</i>	<i>kaxóli re</i>	<i>kaxólak tis</i>
<i>kéixi re</i>	<i>kéixak tis</i> ‘gerezi’	<i>lengúsu re</i>	<i>lengúsuk tis</i>
<i>inddárta ra</i>	<i>inddárarak tis</i> ‘babarrun’	<i>belarríxe ra</i>	<i>belarríxak tis</i>
<i>usába ra</i>	<i>usábak tis</i>	<i>lengusíni re</i>	<i>lengusínak tis</i>
<i>orrátza ra</i>	<i>orrátzak tis</i>	<i>gusurtíxe ra</i>	<i>gusurtíxak tis</i>
<i>egíxe ra</i>	<i>egíxak tis</i>	<i>sagusárra ra</i>	<i>sagusárrak tis</i>
<i>urdáixe ra</i>	<i>urdáixak tis</i>	<i>beigorríxe ra</i>	<i>beigorríxak tis</i>
<i>katillu re</i>	<i>katilluk tis</i>	<i>baserrítzárra ra</i>	<i>baserrítzárrak tis</i>
<i>arbóli re</i>	<i>arbólak tis</i>		

7.4.2. Talde markatugabeen azentua

Azentu lexikalari xehetasun gehiagorekin begiratu baino lehen, hitz azentugabeek erakusten duten talde prosodiko mailako azentua aztertzea komeni zaigu, Ondarroako sisteman nahiko fenomeno bereziekin topatzen baikara kasu honetan.

Normalean, hitz edo talde markatugabeek, isolaturik edo galdegaietan doazenean, azentua azkenurreko silaban daramate, eta ez azken silaban, Gernikaldeko eta Lekei-tioko sistemetan bezala:

- (83) Ondarroa
- | | |
|-----------------------|-----------------------------------|
| <i>gixóna</i> | <i>gixon andíxe ra</i> |
| <i>gixóna ra</i> | <i>gure gixonarentzákó</i> |
| <i>gixona rátor</i> | <i>gure gixonarentzákó ra</i> |
| <i>lau gixon ándi</i> | <i>gure gixon ederrantzákó ra</i> |
| <i>gixon andíxe</i> | |

(84) Ondarroa: Talde markatugabeen azentu araua: ezarri azentu bat talde prosodikoaren azkenurreko silaban (hau da: ezarri oin trokaiko bat galdegaiaren eskuinaldeko ertzetik).

Lehentxoago esan bezala, eta Lekeition ere gertatzen den moduan, hitz markatuek *hitzaren* azkenurreko silaban daramate azentua. Hitz edo hitz andana markatugabeetan, aldiz, azentua *talde prosodikoaren* azkenurreko silaban doa.

Beraz, hitz azentudunen eta azentugabeen arteko bereizketa talde prosodikoaren bukaeran galtzen da, baina ez bestela:

- (85) Ondarroa: hitz azentudun eta azentugabeen arteko kontrastea
- | | | |
|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| <i>gixóna ra</i> | ≠ | <i>gixóna(k) tis</i> |
| <i>gixóna</i> | = | <i>gixónak</i> |
| <i>inddarrá ra</i> ‘es la fuerza’ | ≠ | <i>inddárta ra</i> ‘es la alubia’ |
| <i>inddárta</i> ‘la fuerza’ | = | <i>inddárta</i> ‘la alubia’ |
| <i>inddár bat</i> ‘una fuerza’ | ≠ | <i>inddar bat</i> ‘una alubia’ |
| <i>mendíxe ra</i> | ≠ | <i>egíxe ra</i> |
| <i>mendíxe</i> | = | <i>egíxe</i> |

Arrazoi honegatik eman ditugu (73)ko adibideak kopularekin. Bestaldetik, (72a)ko hitzak isolatuak daudenez gero, hitzaren azkenaurreko silaba eta talde prosodikoarena silaba bera da. Horregatik han hitz markatuen eta markatugabeen arteko kontrastea neutraldua agertzen zaigu.

7.4.3. Azentu oxitonoa

(72b)n ikusi genuenez, hitz markatugabe batzuek azken silaban jasotzen dute azentua, isolatuak edo galdegaian daudelarik. Beraz, hitz markatugabeen artean bi talde bereiz ditzakegu (cf. Hualde 1996):

(86) Ondarroa: azentu markatugabea talde prosodikoaren azken/azkenaurreko silaban

a.	<i>lau gíxon</i>	<i>gixoná ra</i>	<i>gixóna</i>
	<i>lau lágun</i>	<i>laguné ra</i>	<i>lagúne</i>
	<i>lau méndi</i>	<i>mendixé ra</i>	<i>mendíxe</i>
b.	<i>lau búru</i>	<i>burú re</i>	<i>burú</i>
	<i>lau básu</i>	<i>basú re</i>	<i>basú</i>
	<i>lau étxe</i>	<i>etxí re</i>	<i>etxí</i>
	<i>lau alába</i>	<i>alabí re</i>	<i>alabí</i>

Ikusten denez, (86b)n hirugarren zutabeko formek azken silaban daramate azentua. Azentu hau talde-mailakoa da eta ez hitz-mailakoa. Azentu oxitono hau hitza taldearen amaieran dagoenean agertzen da, baina ez bestela. Hurrengo adibideek erakusten dutenez, (86b)ko hitzak markatugabeak dira:

(87) Ondarroa: /alaba/

<i>alabí</i>	<i>gure alaba edérra</i>
<i>alabí re</i>	<i>gure alaba ederrá ra</i>
<i>gure alabintzáko</i>	<i>gure alaba ederrentzáko ra</i>
<i>gure alabintzáko ra</i>	

Galdera da, beraz, zergatik talde-mailako azentua azken silaban jartzen ote den *alabí* bezalako adibideetan eta ez azkenaurreko silaban, normala den bezalaxe. Forma oxitono hauetan, noski, kontrazio bat gertatu da historikoki:

(88) Ondarroa

<i>burúe</i>	>	<i>burú</i>	<i>etxíe</i>	>	<i>etxí</i>
<i>basúe</i>	>	<i>basú</i>	<i>alabíe</i>	>	<i>alabí</i>

Forma osoak oraindik erabiltzen dira Markinan. Hobe esan, kontrazio edo azken bokalaren galera Markinaldean ere hedatzen ari da, eta aukerako araua da eskualde honetako hiztun askorentzat. Ondarroan, aldiz, eskuinaldeko aldaerak baizik ez dira erabiltzen; hau da, bokalaren galera prozesua bukatutzat hartu behar dugu herri honetan. Guri interesatzen zaiguna da azentua ez dela mugitu bokal galeraren ondoren.

Esan bezala, hitz hauen azentua talde prosodiko mailakoa da, eta ez hitz mailakoa, taldearen erdian desagertzen baita. Galdegaiaren azentuaren arauak taldearen azkenau-reko silaban ezartzen badu azentua —eta hori da arau orokorra— ikusten ari garen sekuentzietan diakronikoki galdu diren bokalak kontatu behar direla esan beharko dugu. Hau da, mugatzaile singularrak silaba bat gehitzen du, ahoskatzen ez bada ere. Beste modu batean esateko, azalean galdu den bokala azpiko egituran mantentzen da:

(89) Ondarroa: isilpeko bokalak eta azentua

/gixon-a/	<i>gixóna</i>
/mendi-a/	<i>mendíxe</i>
/eskú-a/	<i>eskúV</i>

/-a/-z bukatzen diren oinarrien adlatiboan ere, beste kontrazio baten ondorioz, azentua azken silaban aurkitzen dugu. Ondarroan /r/-a galdu da bi bokalen artean ezkerreko bokala [-goi] denean, (90a). Prozesu hau dela-eta, adlatiboan nahiko forma ezberdinak aurkitzen ditugu oinarriaren azken segmentuaren arabera, (90b).

(90) Ondarroa: adlatibo singularra

a. /r/ → Ø / V _____ V
[-goi]

b. abs mugagab	abs sg	adl sg
<i>lau elíxa</i>	<i>elíxi</i>	<i>elíxá</i>
<i>lau étxe</i>	<i>etxi</i>	<i>etxéa</i>
<i>lau básó</i>	<i>basú</i>	<i>basúre</i> ~ <i>basóa</i>
<i>lau bíuru</i>	<i>burú</i>	<i>burúre</i>
<i>lau méndi</i>	<i>mendíxe</i>	<i>mendíre</i>
<i>lau ságar</i>	<i>sagárra</i>	<i>sagárréa</i>

Fonologia sinkronikoan, noski, ez da zaila hirugarren zutabeko forma guztiak batzea. Nahikoa da (90a) erregela arau sinkronikotzat hartzea eta adlatibo singularra- ren atzizkiaren azpiko forma bezala /-ra/ postulatzea. Azaltzeko zaila den kasu ba- karra /baso/ eta /-o/-z bukatzen diren beste oinarriena da. Hemen baldintza fonolo- gikorik gabeko bokal igoera arau bat proposatu behar dugu: /baso-ra/ → /basura/ → *basúre*. Gertatzen dena da /-o/-z eta /-u/-z bukatutako oinarriak nahas- tu egin direla neurri batean.

(90b)-n ikusten denez, oinarria beheko bokalarekin bukatzen bada, adlatibo singu- larrean azentua azken silaban agertzen da. Dударik gabe, diakronikoki azentuera hau honelaxe sortu da:

(91) Ondarroa: azentua oxitonoa adl sg-ean

elíxara > *elíxáa* > *elíxá*

Hemen ere, azentua talde prosodiko mailakoa denez gero, azentua azken silaban agertzen dela azaltzeko, isilpeko bokal bat dagoela pentsatu behar dugu. Hau da /eli- xa-ra/ bezalako azpiko formak proposatzeko ohiko sistematasun arrazoiez gain azen- tueraren ebidentzia ere badugu.

/r/-aren galeraren ondorioz ere, datibo singularrean behearazko diptongoa sortu da. Hemen ere, azentuaren kokagunea mantendu egin da eta diptongoak sekuentzia

bisilabadun bezala jokatzen du galdegaiaren azentuaren araurako, (92a). Datiboan ez ezik, gauza bera gertatzen da antzeko beste adibideetan ere, /r/ bat galdu denean, (92b). Orokorkiago, diptongoz bukatzen diren oinarri askeek azken silaban hartzen dute azentua, (92c)

- (92) Ondarroa: azentu oxitonoa diptongoz bukatutako hitzekin
- gixoná[j]* (< *gixonári*)
 - lau txistulá[j]* (< *txistulári*)
 - lau melokotó[j]*

(92)ko adibideak diptongoz bukatzen direnez gero, azentua azken silaban hartzen dute. Diptongo hauek, beraz, azpiko sekuentzia heterosilabikoak bezala interpretatu behar dira: /txis.tu.la.i/.

Laburbilduz, galdegaiaren azentua talde prosodikoaren azkenaurreko silaban ezartzen da, baina konputazio honetan azpiko egituran dauden silabak hartzen dira kontuan, eta ez kontraioaren edo diptongizazioaren ondorioz azaleko egituran agertzen direnak.

Bestaldetik, aditz forma jokatu batzuek ere azentu oxitonoa daukate: *dakarré*, *dabé*, *dotzé*, *ebén*. Antzuolan bezala, salbuespenezko forma hauetan subjektua 3. pl da. Ez dakit salbuespen oxitono hauen azalpena zein izan ote daitekeen. Agian hauetako forma batzuetan bokal sekuentzia bat zegoen; adib.: *dabée* > *dabé*, eta azentuera hau analogiaz hedatu da.

7.4.4. Beheko bokalaren asimilazioa eta isilpeko bokalak

Azentu oxitonoa azaltzeko proposatu ditugun bokalek, azentuaz gain, beste arau fonologiko bat baldintzatzen dute. Kontuan har ditzagun hurrengo adibideak:

- (93) Ondarroa: *da/ dago*
- | | | | | |
|----------------------|---------------|---|----------------------|----------------|
| <i>argalá ra</i> | 'argala da' | ≠ | <i>argala rá</i> | 'argala dago' |
| (<i>argálá ra</i>) | | | (<i>argálá rá</i>) | |
| <i>totú re</i> | 'lodia da' | ≠ | <i>totu rá</i> | 'lodia dago' |
| | | | (<i>totú rá</i>) | |
| <i>tótu(k) tis</i> | 'lodiak dira' | = | <i>tótu(k) tas</i> | 'lodiak daude' |

Ikusten denez, 'dago' kopularekin bi gauza berezi gertatzen dira: azentua taldearen azken silaban dugu eta beheko bokala ez da [e] bihurtzen goiko bokal baten atzean. Bizkaiko hizkera gehienak bezala (eta baita Gipuzkoa eta Nafarroako beste hizkera askotan bezala ere), Ondarroan /a/ bokala [e] bihurtzen da aurreko bokala [+goi] denean. Ondarroan /da/ aditzak aldaketa hau jasotzen du:

- (94) Ondarroa: beheko bokalaren asimilazioa
- | | |
|-----------------|------------------|
| <i>gixon-a</i> | <i>ixan da</i> |
| <i>ederr-a</i> | <i>etorri re</i> |
| <i>asal-a</i> | <i>Kóldo ra</i> |
| <i>lagun-e</i> | <i>Péru re</i> |
| <i>mutill-e</i> | |

Baina leku gehienetan ez bezala, Ondarroan /a/ bokala hitzaren azken segmen-
tua denean baizik ez da gertatzen asimilazio araua (Rotaetxe 1978b: 579, Hualde
1991a: 63-74):

- (95) Ondarroa
- | | | |
|----------------|--------------|------------------|
| <i>lagune</i> | | <i>mendire</i> |
| <i>lagunak</i> | ‘erg sg’ | <i>mendirako</i> |
| <i>lagúnak</i> | ‘abs/erg pl’ | <i>mendixan</i> |
| | | <i>mendixe</i> |

Ondarroako beheko bokalaren asimilazio arauak honako formulazio hau izan be-
har du:

- (96) Ondarroa: Beheko bokalaren asimilazioa
- $$V \rightarrow [-\text{behe}] / V \quad C_0 \text{ ______ }]$$
- [+goi]

Formulazio honetan hitz ertza aipatu beharra ohargarria da. Asimilazioa ez da
gertatzen beheko bokala ertz-ertzean ez badago. Beraz, ‘dago’ formak isilpeko bokal
bat daramala proposatzen badugu, azal dezakegu zergatik ez den araua betetzen. Hau
da, egitura fonologikoan /daV/ baldin badugu bai azentuera irregularrerako eta baita
bokalaren portaerarako ere azalpen posible bat dugu.

Ikus dezagun, orain, hurrengo azentu bereizketa hirukoitza:

- (97) Ondarroa
- | | |
|--|-------------------|
| <i>basure rú</i> (= <i>basúre rú</i>) | ‘basora doa’ |
| <i>basúre rú</i> | ‘edalontzira doa’ |
| <i>basuréru</i> | ‘zakarrontzia’ |

Proposatutako analisiari jarraiturik, ‘doa’ aditza /duV/ da Ondarroan. Lehen adi-
bidea talde markatugabea da eta azentua azkenaurreko silaban ezartzen da, azken isil-
peko bokala kontatuz. Bigarren adibidean, aldiz, /’baso/ ‘edalontzi’ erro markatua da
eta, ondorioz, azentua hitzaren azkenaurreko silaban ezartzen da. Hirugarren adibi-
dean /’basurero/ ‘zakarrontzi’ ere azentu lexikoduna da.

7.4.5. *Azentu lexikoa*

Lehen erakutsi bezala, eta Lekeition gertatzen den legez, azentu lexiko guztiak
hitzaren azkenaurreko silaban kokatzen dira.

- (98) Ondarroa eta Lekeitioko azentu lexikoen araua: hitzaren eskuinaldeko mu-
gatik oin trokaiko bat ezartzen da, hitzaren barnean marka lexiko bat (edo
gehiago) badago.

Arau honetarako, galdegaiaren azentuaren arauarekin gertatzen denaren aurka,
kontuan hartzen diren silabak azaleko egituran agertzen direnak dira. Hau /i/-z beste

bokalez bukatzen diren oinarri markatuekin ikus dezakegu kontrazio bat gertatzen den kasuetan, (99a), edo oinarria markatugabea bada ere, pluralak sartzen duen azentu lexikoarekin, (99b):

- (99) Ondarroa: azentu lexikoa eta isilpeko bokalak
- a. oinarri markatuak
- | | | |
|--------------|----------------|-------------------------|
| /ˈlenguso-a/ | <i>lengúsu</i> | (ez * <i>lengusúV</i>) |
| /ˈeskola-a/ | <i>eskóli</i> | (ez * <i>eskoliV</i>) |
| /ˈleku-a/ | <i>léku</i> | (ez * <i>lekúV</i>) |
- b. pluralaren azentua
- | | | |
|-------------|---------------|------------------------|
| /esku-ˈak/ | <i>ískuk</i> | (ez * <i>eskuVé</i>) |
| /alaba-ˈak/ | <i>alábak</i> | (ez * <i>alabáVé</i>) |

Era berean, eta lehen ikusi dugunaren aurka, azaleko diptongoak diptongotzat hartzen dira azentu lexikoak ezartzeko orduan eta ez sekuentzia silababiduntzat. Hau argiro ikusten da genitibo pluralean, singularrekin konparatzen badugu:

- (100) Ondarroa: bukaerako diptongoak eta azentua
- | | | |
|------------|---------------------------------------|-------------------------------|
| gen sg | | gen pl |
| /gixon-ai/ | <i>gi xo ná i</i> → <i>gixon</i> [áj] | /gixon-ˈai/ <i>gixon</i> [aj] |

Singularrean, eta talde markatugabeen azentua azkenurreko silaban kokatzeko, /ai/ bisilababiduntzat hartzen da, nahiz eta azalean diptongo bezala ahoskatu. Pluralean aldiz, atzizki honek sartzen duen azentu lexikala ezartzeko, sekuentzia bera diptongotzat, silababakartzat, hartzen da.

Gauza bera gertatzen da bukaeran ez dauden diptongoekin. Adibidez, /ˈkeixa-a/ ‘geresia’ markatuak *keíxi* ematen digu eta ez **keíxi*. Normalean euskaraz diptongotzat hartzen ez diren beste bokal sekuentzia batzuk ere silababakar bezala konputatzen dira azentu lexikoa kokatzerakoan Ondarroan. Har ditzagun, esaterako, hurrengo adibideak:

- (101) Ondarroa
Bilbo, Bílboa, Bilbótik

Adlatibozko forma *Bilboa* denez gero, eta ez **Bilbóa*, argi dago /oa/ sekuentzia silaba bakar bat bezala kontatzen dela. Aldiz, markatugabeekin *besóa* ‘besora’ eta antzekoak ditugu.

Beraz, nahiz eta hitz markatuen azentu arauak eta hitz markatugabeenak azkenurreko silabari azentua eman, hitz markatu eta markatugabeen arteko kontrastea ez da galdu Ondarroan. Hau bi arrazoiengatik izan da. Lehenik eta behin, bi arauon eremua desberdina delako: hitza azentu lexikorako eta talde prosodikoa hitz markatugabeentzat. Bigarrenik, talde prosodiko markatugabeen azentu arauak isilpeko bokalak eta azpiko sekuentziak kontuan hartzen dituen bitartean, azentu lexikoa ezartzeko ahoskatzen diren bokalak baizik ez dira kontatzen.

Bokal sekuentzien tratamendu desberdina alhora utziz, hitz markatu eta markatugabeen arteko diferentzia nagusia, kasu bakoitzean erabiltzen den azentu unitatea da. Konpara ditzagun hurrengo datuak:

(102) Ondarroa

a.	gen sg		gen pl	
	<i>katun etxi re</i>	'katuaren etxea da'	<i>kátun etxi re</i>	'katuen etxea da'
	(<i>katún etxi re</i>)			
	<i>katuné ra</i>	'katuarena da'	<i>katúne ra</i>	'katuena da'
	<i>katuntzakó ra</i>	'katuarentzat da'	<i>katuntzáko ra</i>	'katuentzat da'
b.	/jon/		/jone/	
	<i>Jonen etxi re</i>	'es la casa de Jon'	<i>Jónen etxi re</i>	'es la casa de Jone'
	<i>Jonená ra</i>	'es de Jon'	<i>Jonéna ra</i>	'es de Jone'
	<i>Jonentzakó ra</i>	'es para Jon'	<i>Jonentzáko ra</i>	'es para Jone'

Ezkerreko zutabeko adibideetan ez dago azentu lexikorik. Beraz azentu unitate bakarra dugu kasu guztietan. Aldiz, eskuineko zutabean [+am] morfema bat dugu, genitibo plurala (102a)ko adibideetan, eta /'jone/ (102b)ko adibideetan. Azentu lexikoa dugunean, azentu unitatea hitza da. Talde prosodikoak giltzekin {} markatuz, eta hitz-mailako azentu unitateak parentesi zuzenekin [], azentua ezartzeko honako unitateak eraikitzen dira emandako adibideetan:

(103) Ondarroa: azentu unitateak

{katun etxi re}	[kátun] {etxi re}
{katuné ra}	[katúne] ra
{katuntzakó ra}	[katuntzáko] ra
{Jonen etxi re}	[Jónen] {etxi re}
{Jonená ra}	[Jonéna] ra
{Jonentzakó ra}	[Jonentzáko] ra

(103)ko adibide guztietan azentua unitatearen azkenaurreko silaban kokatzen den arren, unitate haiek desberdinak dira ezker eta eskuinaldeko zutabeetan eta, ondorioz, azentuera desberdinak ditugu. Ikus ditzagun orain beste adibide hauek:

(104) Ondarroa

<i>basú re</i>	'es el bosque'	≠	<i>básu re</i>	'es el vaso'
<i>basú</i>	'el bosque'	≠	<i>básu</i>	'el vaso'
<i>alabí re</i>		≠	<i>arbóli re</i>	
<i>alabí</i>		≠	<i>arbóli</i>	

Adibide hauek ulertzeko bi gauza hartu behar ditugu kontuan: azentu unitate desberdinak eta isilpeko bokalen tratamendua unitate mota bakoitzean. Unitatea talde prosodikoa denean bokal hauek kontuan hartzen diren bitartean, unitatea hitza denean (hitz markatuekin) ez dira kontatzen azkenaurreko silaba konputatzeko:

(105) Ondarroa

{basuV' re}	[básu] re
{basúV}	[básu]
{alabiV' re}	[arbóli] re
{alabíV}	[arbóli]

7.4.6. Morfema markatu eta markatugabeak

Eskualde honetako beste hizkeretan bezala, [+/- am] bereizketa lexikoa erro, eratorpen atzizki eta flexiozko atzizkiekin gertatzen da. Flexiozko atzizkiekin hasiz, pluraleko forma guztiak [+am] dira. Hau oinarri markatugabeetako singularra eta plurala konparatuz ikus daiteke. Komitatiboan bi atzizki desberdin erabiltzen dira, biak [+am]: singularrean /-as/ eta pluralean /-kin/ (absolutiboari erantsita). Lekuzko kasuetan /-eta/ pluralgilea eta /-tik/ ablatiboarena markatuak dira:

(106) Ondarroa: flexiozko atzizkiak		
	Singularra	Plurala
abs:	<i>gixoná ra</i>	<i>gixonák tis</i>
erg:	<i>gixonak tákar</i>	<i>gixonák takarré</i>
dat:	<i>gixonái emótsat</i>	<i>gixonái emotsét</i>
gen:	<i>gixonan etxi re</i>	<i>gixonan etxi re</i>
gen+abs:	<i>gixonaná ra</i>	<i>gixonána ra</i>
ben:	<i>gixonantzakó ra</i>	<i>gixonantzáko ra</i>
kom:	<i>gixonás dator</i>	<i>gixonákin dator</i>
adl:	<i>mendire, mendire rú</i>	<i>mendixéta ru</i>
abl:	<i>menditxik, menditxi tátor</i>	<i>mendixetáti(k) tátor</i>
ines:	<i>mendixan dá</i>	<i>mendixétan dás</i>

Eratorpen atzizkietan, Lekeitioan edo Gernikaldean dugun bereizketa berbera dugu Ondarroan ere:

- (107) Ondarroa: [+am] eratorpen atzizkiak
 /-²ti/
gusúr²ti bat, gusurtixe ra, gusurtixa(k) tis
bilddúr²ti bat, bilddutixe ra, bildurtixa(k) tis
 /-²tarr/
lekát²xar bat, lekatxarra ra, lekatxarra(k) tis 'lekeitiar'
baserrít²xar bat, baserritxarra ra, baserritxarra(k) tis
 /-²en/
onéna ra, onénak tis
baltzéna ra, baltzéna(k) tis
 /-²garren/
bigarréna ra, bigarréna(k) tis
saspigarréna ra, saspigarréna(k) tis
- (108) Ondarroa: [-am] eratorpen atzizkiak
 /-garri/
ikusgarrixé ra, ikusgarrixa(k) tis /-(t)asun/
argitxasuné ra, argitxasúna(k) tis
osasuné ra

Eratorpen atzizki bat [+am] ala [-am] den jakiteko, [-am] erro bati zer gertatzen zaion ikusi behar dugu. Azentuera berdina da hitzak [+am] morfema bat, bi edo gehiago dituenean. Esate baterako, *Ondarrutarra ra* adibidean bi azentu lexiko di-

tugu, /'ondarru/ [+am] baita, cf. *Ondarru re*, *Ondarrure nû* eta /-'tarrx/ ere azentuduna baita. Eta *Ondarrutárrak* pluralean hiru [+am] morfema ditugu: /'ondarru-'tarr-'ak/.

Gaztelaniaren *-ero* atzizkitik, bi atzizki sortu dira: bata [-am] da eta ogibidea adierazten du (109a); bestea, aldiz, [+am] eta ontzi edo leku bat adierazteko erabiltzen da, (109b):

- (109) Ondarroa /-ero/ 'ogibide'; /-'ero/ 'leku, ontzi'
- | | | | |
|-----------------------|--------------------|-----------------------|----------------|
| a. <i>basurerú re</i> | 'zabor-biltzailea' | b. <i>basureru re</i> | 'zabor-ontzia' |
| <i>autobuserú re</i> | | <i>gallineru re</i> | |
| <i>fontanerú re</i> | | <i>asukarérú re</i> | |
| <i>barberú re</i> | | <i>fruterú re</i> | 'fruta-ontzia' |
| <i>karterú re</i> | | | |
| <i>fruterú re</i> | 'fruta-saltzailea' | | |
| <i>panaderú re</i> | | | |
| <i>karniserú re</i> | | | |

Bereizketa hau Bizkaiko iparraldeko beste hizkeretan ere egiten da. Gernikaldean, bokala desberdina da, /-eru/ vs. /-'ero/:

- (110) Lekeitio/Gernika
- | | | |
|--------------------|--------------------|--------------------|
| | Lekeitio | Gernika |
| 'fruta-saltzailea' | <i>fruterua rá</i> | <i>fruterne dá</i> |
| 'fruta-ontzia' | <i>fruterúa ra</i> | <i>frutéroa da</i> |

Normala den bezala, hitz elkartuak azentudunak izan ohi dira:

- (111) Ondarroa: hitz elkartuak
- /sagu-sar/ *sagúsar bat*, *sagusárra ra*, *sagusárrak tis*
 /be(g)i-gorri/ *beigórri bat*, *beigorríxe ra*, *beigorríxak tis*
 /bas-erri/ *basérrí bat*, *baserríxe ra*, *baserríxak tis*

Beti bezala, erro markatu gehienak maileguak dira, batzuk zaharrak eta beste batzuk berriagoak:

- (112) Ondarroa: mailegu markatuak
- | | | |
|------------|--------------------|-------------------|
| /'aixkora/ | <i>aixkóra bat</i> | <i>aixkóri re</i> |
| /'denpora/ | <i>denpóra bat</i> | <i>denpóri re</i> |
| /'espillo/ | <i>espíllu bat</i> | <i>espíllu re</i> |
| /'inguro/ | <i>ingúro bat</i> | <i>ingúru re</i> |
| /'ganbara/ | <i>ganbára bat</i> | <i>ganbári re</i> |
| /'kaxola/ | <i>kaxóla bat</i> | <i>kaxóli re</i> |
| /'keixa/ | <i>kéixa bat</i> | <i>kéixi re</i> |
| /'liburo/ | <i>libúro bat</i> | <i>libúru re</i> |
| /'lenguso/ | <i>lengúso bat</i> | <i>lengúsu re</i> |

7.4.7. Galdegaiaren azentua

Kapitulu honetan aztertutako beste hizkeretan ez bezala, Ondarroan hitz markatu eta markatugabeen arteko bereizkuntza galdu egiten da askotan galdegaigunean (ísilpeko bokalik ez daukaten formekin), hurrengo adibideetan bezala:

- (113) Ondarroa: galdegaia
gixónak ekarri rau
gixónak ekarri rabé

Adibideotan, singularraren eta pluralaren arteko bereizkuntza neutraldu egiten da. Aldiz, beste adibide hauetan, partizipioak jasotzen du galdegaiaren azentua eta bereizkuntza agertzen da:

- (114) Ondarroa
gixonak, ekárrri rau 'el hombre, sí lo ha traído'
gixónak, ekárrri rabé 'los hombres, sí lo han traído'

Pluralean azentu lexikoa dugu eta hitza edozein lekutan egonik ere haren azentua agertzen da. Aldiz, singularraren azentua talde prosodikoarena da eta azentu hau taldea galdegaigunean dagoenean baizik ez da gauzatzen.

Aldiz, aditz trinkoekin desberdintasun prosodikoa ez da neutraltzen, talde osoa markatugabea denean aditza galdegaiaren taldean sartzen baita, Lekeitiarako ikusi genuenez:

- (115) Ondarroa
 {gixoná ra} gixóna(k) tis
 {gixona rátor} gixóna(k) tátos

Laburtzeko, hitz markatuek, hau da [+am] morfema bat edo gehiago daukaten hitzek (edo arau berezi baten bidez azentu lexikoa hartzen dutenek, adib. hitz elkartuek), azentu paroxitonoa dute beti. Hitz markatugabeak, aldiz, talde prosodikoetan biltzen dira. Galdegaigunean, talde prosodiko hauek azentua jasotzen dute (azkenaurreko silaban), baina, bestela, ez dute prominentziarik. Orain arte esan dugu hitz markatu eta markatugabeen arteko kontrastea ezabatu egiten dela bukaeran edo eten baten aurrean (kontrazioaren ondorio desberdinak alhora utziz) eta ikusi dugu hau hitz isolatuak jasotzen ditugunean gertatzen dela. Baina, zehazkiago, neutraltze hori galdegaigunean besterik ez da gertatzen. Beste adibide bat emateko, (116)n /mendi'tik/ hitzak azentu lexikoa dauka, /-'tik/ atzizkia [+am] baita. Azentu hau hitza bai galdegaigunean eta baita mintzagaigunean dagoenean ere gauzatzen da. Aldiz, /txakurr-a/ eta /mendi-ra/ hitzek ez daukate azentu lexikorik. Galdegaigunean azentua jasotzen dute (azkenaurreko silaban), baina mintzagaigunean daudenean ez dute prominentziarik erakusten:

- (116) Ondarroa: hitz markatuak eta markatugabeak galdegaigunean eta mintzagaigunean
 a. *mendítzik txakúrre ekarri rot* c. *txakurre mendítzik ekarri rot*
 b. *mendire txakúrre ekarri rot* d. *txakurre mendire ekarri rot*

7.4.8. Hitz prosodikoak

Hitz prosodikoak definitzeko, Lekeitioko hizkerarako aipatutako arazo berberak ditugu Ondarroan ere. (117)ko adibideek zeharkako aginduetan atzizkia unitatetik at

gelditzen dela erakusten dute. (118) adibideetan ikus daitekeenez, galdegaia non dagoen, partizipioak eta laguntzaileak hitz bat edo bi osatuko dute. Lekeitionako esandakoak Ondarroarako ere balio du datuak berdin-berdinak baitira.

- (117) Ondarroa
 a. *dátorrela esatzat*
 b. *patátak erósteko esatzat* cf. *au diruan patátak erósteko ra*
- (118) Ondarroa
 a. *lagúne etorrikó-ra* ‘vendrá EL AMIGO’
 b. *lagune etorriko ra* ‘sí que vendrá el amigo’

7.5. Markinaldea (Markina, Etxebarria)

7.5.1. Azentuera nagusiak

Markinaldean, Ondarroan bezala, talde markatugabeen azentua azkenurreko silaban ezartzen da.¹⁰

- (119) Markinaldea
gixóna *mendíxe*
gixoná da *mendíxe da*

Ondarroan bezala, talde bukaeran neutraltzen diren kontrasteak erdian agertzen dira:

- (120) Markinaldea
- | | |
|--|---|
| <p>[-am]</p> <p><i>mendíxe da</i> (= <u>men</u> <u>di xé</u> <u>da</u>)
 <i>fruterú da</i> ‘fruta saltzailea’
 <i>karterú da</i></p> <p><u>gu</u> <u>re elixa edarrá</u> <u>da</u></p> | <p>[+am]</p> <p><i>egíxe da</i>
 <i>frutérn da</i> ‘fruta-ontzia’
 <i>lengósu da</i></p> <p><u>gu</u> <u>re eskó</u> <u>la e</u> <u>darrá</u> <u>da</u></p> |
|--|---|

Hala ere, hitz markatueta berezitasun nabariak aurkitzen ditugu. Ondarroan edo Lekeition ez bezala, azentu markatua ez da nahitaez hitzaren azkenurreko silaban agertzen. Guztiz alderantziz, kasu batzuetan azentua ezkeralderantz mugitu da. Atzizki markatu batzuk, hain zuzen, aurre-aurreazentuatzaile bihurtu dira; hau da, azentua bi silaba lehenago ipintzen dute. Hau /-’ak/ absolutibo/ergatibo plural eta /-’tik/ ablatiboarekin aurkitzen dugu, atzizki markatu hauek oinarri bisilabadunei eranstean zaizkienean, (121a); baina ez oinarria luzeago denean, (121b):

¹⁰ Atal honetan aztertzen diren fenomeno gehienak (baina ez guztiak) Hualde (1991: 154-157) lanean ere ikertzen dira, nahiz eta datuen interpretazioa guztiz berdina ez izan. Nire orduko berriemailek Luzi Etxabe, Myriam Etxabe eta Aintzane Arrieta ziren; hirurak Etxebarrikoak. Orain datuak Myriam Etxaberekin berriro baiezteko aukera izan dut. Gainera, Ane Agirregomezkortak Markinako Barinaga auzoko datuak eskaini dizkit. Nire esker ona guztioi.

- (121) Markinaldea: atzizki aurre-aurreazentuatzailak
- | | | | |
|----------------|------------------|----------------|------------------|
| a. /gixon-'ak/ | <i>gixonak</i> | b. /alaba-'ak/ | <i>alábak</i> |
| /oskol-'ak/ | <i>óskolak</i> | /alargun-'ak/ | <i>alargúnek</i> |
| /mendi-'tik/ | <i>ménditxik</i> | | |
- c. Atzerapen araua
- o ó -ak → ó o -ak
o ó -tik → ó o -tik

(121a)ko hitzekin, beraz, absolutibo/ergatibo singularra eta plurala eten edo muga prosodiko baten aurrean ere bereizten dira, Ondarroan ez bezala:

- (122) Markinaldea:
- | | |
|------------------|----------------------|
| sg | pl |
| <i>gixóna</i> | <i>gixonak</i> |
| <i>gixoná da</i> | <i>gixonak dí(e)</i> |

Beharbada, azentu atzerapen araua arrazoi edo motibazio funtzional honegatik sortu zen; alegia, singular eta pluralaren arteko diferentzia mantentzeko. Deklinabideko beste kasuetan, datiboan edo genitiboan adibidez, ez dago azentu atzerapenik, baina singularraren eta pluralaren azentu-patroiak desberdinak dira atzerapenik gabe ere. Gainera, bokalak desberdinak dira, /-ai/, /-an/ datibo eta genitibo singularrean eta /-ei/, /-en/ pluralean. Are gehiago, atzizki hauekin beheko bokalaren asimilazio araua ez da betetzen Markinaldeko hizkeran:

- (123) Markina/Etxebarria
- | | |
|--------------------|--------------------|
| sg | pl |
| <i>gixonái</i> | <i>gixónei</i> |
| <i>lagunái</i> | <i>lagúnei</i> |
| <i>lagunaná da</i> | <i>lagúmena da</i> |

Aldiz, Ondarroan, Lekeition eta Gernikaldean bokal bera dugu singularrean eta pluralean:

- (124) Datiboa eta genitiboa Bizkaiko kostaldean
- | | | | |
|----------|------|-------|---|
| | sg | pl | |
| Gernika | -ari | -'ari | <i>gixonari / gixónari; laguneri / lagúneri</i> |
| Lekeitio | -ari | -'ari | <i>gixonari / gixónari; lagunari / lagunári</i> |
| Ondarroa | -ai | -'ai | <i>gixonái / gixónai; lagunái / lagunái</i> |
| Markina | -ai | -'ei | <i>gixonái / gixónei; lagunái / lagúnei</i> |
| Gernika | -an | -'an | <i>gixonaná / gixónana; lagunená / lagúnena</i> |
| Lekeitio | -en | -'en | <i>gixonená / gixónéna; lagunená / lagunéna</i> |
| Ondarroa | -an | -'an | <i>gixonána 'sg = pl'; lagunána 'sg = pl'</i>
<i>gixonaná ra / gixónána ra</i>
<i>lagunaná ra / lagunána ra</i> |
| Markina | -an | -'en | <i>gixonána / gixónéna; lagunána / lagúnéna</i>
<i>gixonaná da / gixónéna da</i>
<i>lagunaná da / lagúnéna da</i> |

Honek guztiak erakusten du Markinan singularraren eta pluralaren arteko desberdintasun morfoloģikoa mantentzeko joerak oso indar handia duela. Euskalki honetan, kasu gehienetan bai azentuerak eta baita segmentuak ere desberdinak dira singularrean eta pluralean.

Azentu sistema honi buruz orain arte ikusi duguna laburbilduz, kapitulu honetan aztertutako beste hizkeretan bezala, [+am] / [-am] bereizketa bat dugu erro eta atzizkiekin. [-am] morfemarik gabeko talde prosodikoetan, azentua azkenaurreko silaban doa, Ondarroan bezala. Azentu lexikoa duten flexiozko atzizkiek gehienetan aurreko silaban jartzen dute azentua, Gernikaldean bezala. Hala ere, azentua atzizkia baino bi silaba lehenago agertzen da batzuetan. Atzerapen arau hau atzizki batzuekin baizik ez da aplikatzen. Adibidez, /-'ak/ eta /-'tik/ atzizkiekin aplikatzen da, baina ez /-'ei/ edo /-'en/ atzizkiekin. Gainera, atzerapena oinarria bisilabaduna denean baizik ez da gertatzen.

Munitibarren azentu atzerapena pluraleko forma guztietara hedatu da. Konpara ditza-gun Markinako eta Munitibarko paradigmok (Gaminde 1995d lanetik jaso ditut datuok):

(125) Markina/Munitibar: azentu atzerapena pluralean

a. Markina

sg	pl
<i>lagúne</i>	<i>lágunek</i>
<i>lagúnek</i>	<i>lágunek</i>
<i>lagunái</i>	<i>lagúnei</i>
<i>lagunána</i>	<i>lagúnena</i>
<i>lagúnas</i>	<i>lagúnekin</i>
<i>lagunantzako</i>	<i>lagúnantzako</i>
<i>lagunéna</i>	<i>lágunena</i>
<i>lagúnas</i>	<i>lágunekin</i>
<i>lagunéntzat</i>	<i>lágunentzat</i>
<i>érritik</i>	<i>érrizetatik</i>
<i>érrikú</i>	<i>érrizetaku</i>

b. Munitibar

sg	pl
<i>lagúne</i>	<i>lágunek</i>
<i>lagúnek</i>	<i>lágunek</i>
<i>agunéi</i>	<i>lágunei</i>
<i>errixén</i>	<i>errixétan</i>
<i>errire</i>	<i>errixéta</i>
<i>érritxik</i>	<i>errixétatik</i>
<i>errikúe</i>	<i>errixétakue</i>
<i>errixén</i>	<i>érrizetan</i>
<i>errire</i>	<i>érrizetara</i>

Ikusten denez, Munitibarren, Markinan ez bezala, azentua silaba berean agertzen da pluraleko paradigmaman zehar. Gainera, antza denez, oinarri luzeagoekin ere badago azentu atzerapena pluralean: *alárgúne*, *alárgunek* (Gaminde 1995d). Beraz, azentu atzerapen arauaren ezarpen eremua Markinan baino zabalagoa da Munitibarren. Agian honi lotuta, Munitibarren bereizketa guttiago dago singularraren eta pluralaren artean maila segmentalean eta, bestaldetik, kontrazioa (bigarren bokalaren erorketa) Markinan baino orokorragoa da (Markinan oraindik ere aukerakoa da: *etxíe* ~ *etxi*).

Hala ere, Munitibarren ere azentu atzerapenaren ezarketa lexikoian espezifikatu behar da atzizki azentudun bakoitzerako, atzizki azentudun guztiek ez baitute atzerapena eragiten. Aditzetan, Gamindek (1995d) honelako adibideak ematen ditu Markina eta Munitibarko hizkeretarako:

(126) Markina / Munitibar: aditzak

a. Markina

<i>ibillí nas</i>	<i>ibiltze saa</i>	<i>ibillíko saa</i>
<i>eskatú ot</i>	<i>eskatzосу</i>	<i>eskatúko su</i>
<i>ikusí ot</i>	<i>ikústosu</i>	<i>ikusíkosu</i>

b. Munitibar

<i>ibilli nas</i>	<i>ibillte sa</i>	<i>ibilliko sa</i>
<i>agertu sa</i>	<i>agertzze sa</i>	<i>agertuko sa</i>
<i>eskatu ot</i>	<i>eskatzosu</i>	<i>eskátuko su</i>
<i>ikasi ósu</i>	<i>ikústosu</i>	<i>ikúsikosu</i>

Partizipio inperfektiboan atzizkia [+am] da bi hizkeretan eta azentua silaba be-rean kokatzen da konparatutako bi hizkeretan. Geroaldiko partizipioan, aldiz, azentua silaba bat lehenago agertzen da Munitibarren. Hau da, Munitibarren azentu atzerapena /³-ko/ atzizkiarekin aplikatzen da, baina ez /-³t(z)e-/ atzizkiarekin; eta Markinan ez batarekin, ez bestarekin. Aipatzekoa da [+/- am] bereizketan oso adostasun handia aurkitzen dugun bitartean, azentu atzerapenarekin adostasuna askoz murriztagoa dela. Azentu atzerapen araua duten hizkeretan, [+am] atzizki batzuekin betetzen da, eta beste batzuekin ez; baina bi talde hauek desberdinak dira hizkera bakoitzean.

7.5.2. *Azentu lexikoen eskuinalderanzko lerraketa*

Atzizki azentudun batzuek eragindako ezkeralderako azentu lerraketa fenomenoaz gain, beste kasu batzuetan azentua silaba bat eskuinaldera mugitzen da Markina eta Etxebarriko hizkeran. Eskuinalderanzko lerraketa hau erro markatuekin aurkitzen dugu. Har dezagun, esaterako, /³beste/ erro azentudunaren paradigma (/mendi/ erro markatugabeko formak ematen dira konparaketarako):

(127) Etxebarria: /béste/

sg	pl	sg	pl
<i>bésti(e)</i>	<i>bésti(e)k</i>	<i>mendixe</i>	<i>méndixek</i>
<i>bésti(e)k</i>	<i>bésti(e)k</i>	<i>mendixek</i>	<i>méndixek</i>
<i>bestiai *</i>	<i>bestiei *</i>	<i>mendixái</i>	<i>méndixei</i>
<i>bestiana *</i>	<i>bestiena *</i>	<i>mendixána</i>	<i>méndixena</i>
<i>bestias *</i>	<i>besti(e)kin ¹¹</i>		
<i>bésti(e)n</i>	<i>bésti(e)tan *</i>	<i>mendixen</i>	<i>méndixétan</i>
<i>béstera</i>	<i>bésti(e)ta *</i>	<i>mendire</i>	<i>méndixéta</i>
<i>bésetik</i>	<i>bésti(e)tatik *</i>	<i>ménditxik</i>	<i>méndixétatik</i>

Izartxo batekin markatutako formetan, erroaren azentua bigarren silabara mugitu da. Beste arau berezi bat behar dugu, beraz, [+am] erroekiko azentueraren berri emateko:

(128) Markina/Etxebarria: eskuinalderako lerraketa erro markatuekin

[ó o → o ó. Ingurune morfologikoak: DAT, GEN, KOM, LOK pl]

/báso/ 'edalontzi' eta /baso/ 'oihan' hitzak erkatzen baditugu, zenbait kasutan kontrastea galdu egiten dela ikusten dugu; batzuetan atzerapen arauagatik eta beste batzuetan erro markatuaren azentuaren eskuinalderanzko mugimenduaren ondorioz. Beste batzuetan, aldiz, desberdintasuna mantendu egiten da, nahiz eta azentua

¹¹ Ane Agirregomezkortak, berriz, *béstikin* eman dit.

silaba bat ezkeralderantz edo eskuinalderantz mugitu. Mugitzen dena erroaren azentua denean [e] jartzen dugu alboan, eta atzizkiaren azentua atzeratzen denean, [a]:

(129) Markina/Etxebarria: /báso/ vs. /baso/		
	‘edalontzi’	‘oihan’
	<i>báso bat</i>	<i>basó bat</i>
ABS sg	<i>básue</i>	<i>basúe</i>
ABS pl	<i>básuek</i>	= <i>básuek</i> [a]
DAT sg	<i>basúai</i> [e]	<i>basuái</i>
DAT pl	<i>basúei</i> [e]	= <i>basúei</i>
ABL sg	<i>básotik</i>	= <i>básotik</i> [a]
GEN sg	<i>basúana da</i> [e]	<i>basuaná da</i>
	<i>basókue</i> [e]	<i>basokúe</i>

Fenomenoa beste erro markatu bisilabadun batzuekin frogatu dut: *lékure* baina *lekúana da*, *lekúku(e) da*; *intxaur bat*, *intxaurre da*, baina *intxáurrai*, *intxáurrei*, *intxáurrana da*. Baina ez daukat daturik erro luzeagoekin. Ez dakit, beraz, erro markatuak bi silaba baino gehiago dituenen ere lerraketa gertatzen ote den. Oro har, sistema honek Gernikaldekoa baino konplexutasun handiagoa du, morfema markatuek eragindako azentuak bi norabideetan mugitzen baitira: azentua erroarena bada, silaba bat eskuinalderantz mugitzen da zenbait ingurune morfologikotan, eta atzizkiarena bada, silaba bat ezkeralderantz mugitzen da beste zenbait ingururutan.

Azkenik, aipa dezakegu lekuzko kasuetan agertzen den /-éta-/ pluralgileak azentua bere lehen silaban hartzen duela (ez da, beraz, aurreazentuatzailea): *mendixétan* (cf. Gern. *mendižetan*).

Kapitulu honetan aztertutako hizkeren artean hauxe da kasu morfologiko desberdinetan kontrako azentu lerraketak erakusten dituen bakarra.

7.6. Akabukoa

Kapitulu honetan, Bizkaiko iparraldeko edo kostaldeko hizkeren azentuera aztertu dugu. Azentuera mota honek ezaugarri bereziak ditu. Ikusi dugunez, hizkera hauetan hitz batzuek azentu lexikoa daramaten bitartean, hitz gehienek esaldi mailako azentua baizik ez dute jasotzen. Azentuen gautzatze fonetiko delata, eskualde honetakoa doinu-azentuzko sistema da, argi eta garbi. Azentuek H*L tonu melodiaz adierazten dira eta, japonieraz bezala, tonu hauek azentugabeko silabetara hedatzen dira. Tonu beherakadaren aurre-aurrean dagoen silaba azentuduntzat hartzen da beti.

Tonua azentuaren izari fidagarri eta iraunkorra bada ere hizkera hauetan, oraindik ez dakigu tonuaz gain beste izaririk ba ote dagoen, behar bezain beste datu fonetikorik ez baitugu. Beckman-ek (1986) erakusten du japoniera bezalako hizkuntza batean oinarritzko maiztasuna azentuaren izari akustiko bakarra dela, ingelesez ez bezala. Gure kasuan ere, baliteke gauza bera gertatzea. Froga gisa, har ditzagun (130)ean eskaintzen diren Ondarroako datuak:

(130) Ondarroa: bokal azentudun eta azentugabeen iraupena

<i>totú re</i>	o = 159.64,	ú = 157.91 ms.
<i>tótu(k) tis</i>	ó = 121.90,	u = 145.85 ms.
<i>totu rá</i>	o = 109.57,	u = 132.06 ms.
<i>tótu(k) tas</i>	ó = 100.23,	u = 105.94 ms.

Emandako lau adibideetan /o/ eta /u/ bokalen iraupena neurtu dut. Datu hauek ez dute erakusten inolako korrelaziorik azentuaren eta iraupenaren artean. Edonola ere, begibistakoa da zerbait zehatz jakiteko azterketak askoz sakonagoa izan beharko lukeela.

Azentubide hauek oso konplexuak izan daitezke, morfema bakoitzak ezaugarri lexiko bereziak izan baititzake. Azentuak ez dira beti sartzen dituzten morfemekin elkartzen. Honetan gardentasun edo iluntasun maila desberdinak aurkitzen ditugu. Uribe-Kostako eta Gernikaldeko hizkeretan morfemen propietate lexikoen eta azaleko azentuaren arteko erlazioa Lekeition, Ondarroan edo Markinan baino gardenagoa da. Hurrengo kapituluan sistema hauen jatorriaz eta bilakaera historikoaz arituko gara. Aspaldi ez dela, antzeko sistemak eskualde askoz zabalago batean erabiltzen zirela saiaturiko gara erakusten.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

BIZKAI-GIPUZKOETAKO AZENTUBIDEEN BILAKAERA DIAKRONIKOA

8.1. Sarrera gisa

Bizkaiera eta gipuzkeraren eremuko hizkeretan, gaurregun nahikoa azentu sistema desberdinak aurkitzen ditugu. Leku batzuetan azentua ezkerraldetik hasita ezartzen da, beste batzuetan eskuinaldetik hasita; eta beste desberdintasun asko ere baditugu, azken hiru kapituluetan erakusten den bezala. Hala ere, sistema hauek guztiok jatorri historiko bakarra duten susmoa dugu. Hitz markatu eta markatugabeen artean bereizten den neurrian, hitz markatuak (azentuera berezia dutenak) berdinak izan ohi dira eremuan barrena. Plurala markatua ohi da, baita geroko partizipioa eta inperfektiboa ere. Erro markatuetan ere adostasun handia aurkitzen dugu. Hurrengoak, adibidez, markatuak dira bereizketa hau duten hizkera gehienetan:

- (1) Hitz markatuak Bizkai-Gipuzkoetako hizkeretan
eguzki, euskera, erdera, ollarra, le(e)ngusu, intxaur, bazkari, gosari (baina ez *afari*),
beste, leku, aurre, belarri, atze, etab.

Hau guztiau kointzidentzia hutsa ezin daiteke izan. Hauxe da, hain zuzen, hemen erakusten saiatutako naizena: gaurregungo Bizkaiko kostaldeko sistema oinarritzat harturik, Bizkai-Gipuzkoetako beste azentu-sistemen garapena azal dezakegula. Badira arrazoi onak pentsatzeko azentu kontuetan eskualderik euskor edo kontserbakorra Bizkaiko kostaldea dela (Lekeitio eta Ondarroa alde batera utziz). Hasteko, alboko hizkuntzen azentueratik gehien aldentzen den azentu sistema da, bai azentu arauen aldetik eta baita azentuaren gauzatze fisikoaren aldetik ere. Hau ez da aski zaharrena dela esateko, baina badago gehiago. Sistema hau beste euskal azentu sistema guztiak baino aberatsagoa da, bereizketa gehiago ditu. Gainera, atzizki markatuen portaera askoz errazago azaltzen da sistema honen barnean. Azkenik, Larramendiren lekukotasuna dugu. Larramendiren deskribapenaren arabera, bere garaiko Gipuzkoako azentuera orokorra, funtsean gaurregun Bizkaiko kostaldean aurkitzen duguna da (Larramendi 1729, cf. Hualde 1991b):

- (2) Larramendi (1729: 351-352)
- | | |
|-------------------|--------------------|
| sg | pl |
| <i>guizoná</i> | <i>guizónac</i> |
| <i>guizonác</i> | <i>guizónac</i> |
| <i>guizonari</i> | <i>guizónai</i> |
| <i>guizonarén</i> | <i>guizónen(a)</i> |

8.2. [+am] markaren jatorri historikoa Bizkaiko kostaldeko azentu-sisteman

Uribe-kostan eta Gernikaldean erabiltzen den sistemarekin hasiz eta aurreko kapi-tuluan ikusitakoa laburbilduz, hizkera hauetan kasu markatugabeen azentua talde pro-dikoaren azken silaban jartzen da:

- (3) Uribe-kosta/Gernika

gizóná
gizón ederrá
gizón ederrari

Hala ere, postposizio klitikoekin, azentua aurreko silaban doa:

- (4) Uribe-kosta/Gernika: postposizio klitikoak

laguná # be
laguná # gaitik

Nolabait, azentuak klitikoaren muga adierazten du.

Azentuera bera aurkitzen dugu orain atzizki diren baina lehen klitiko ziren morfe-ma batzuekin; hala nola pluralean:

- (5) Uribe-kosta/Gernika: plurala

gizónak < *gizón # (h)ak*
gizónari 'gizonei' < *gizón # (h)aiei*

Bai singularreko eta baita pluraleko atzizkiak ere erakusle askeak ziren garai ba-tean; baina, antza denez, singularrekoak pluralekoak baino lehenago bihurtu ziren atzizki. Hau da, momentu historiko jakin batean, egitura morfologiko desberdinak genituen singularrean eta pluralean. Bereziki, pluraleko morfemak klitikoak ziren eta klitikoen azentuera eragiten zuten. Azentuera honi orain arte eutsi zaio, nahiz eta gaurregun singularra eta plurala atzizkiak izan. Oinarriari mugatzaile singularra plura-larena baino lehen lotu zitzaiola garbi ikusten da /-a/-z bukatutako oinarriekin:

- (6) Bizkaiera: sg/pl /-a/-z bukatutako oinarriekin
 /neska-a/ *neskea* (> *neskia* > *neskie* > *neski*)
 /neska-ak/ *neskaak* > *néskak*

Mitxelenak (1981) proposatzen duen bezala, egoera honen azalpenak ondokoa izan behar du: disimilazio arau hau (*aa* → *ea*) sortu zenean plurala ez zegoela singu-larra bezain lotuta aurreko hitzari. Hau da, *neska+a* → *neskea* aldaketa sortu zenean, pluralean ez zen ezarri muga morfosintaktikoa gogorragoa zelako: *neska # ak*. Bes-tela esan, guri interesatzen zaigun garaian, erakusle plurala klitiko bat zen, nahiz eta singularra atzizkia izan. Gaurregun ez dago desberdintasun morfologikorik eta au-rreazentuatzailetasuna pluraleko atzizkien ezaugarri lexikotzat hartu behar dugu.

Komitatiboarekin, oraindik zeharo atzizki bihurtu ez den morfema bat dugu. /gaz/ absolutiboari eransten zaio eta azentua mugan agertzen da:

- (7) Uribe-kosta/Gernika: komitatibo singularra

gizónágaz
alabeágaz

Nolabait, komitatiboak klitiko eta atzizkien arteko aldaketa prozesua erakusten du. Komitatibo pluralean bi azentu espero genituzke, bata /-ak/ atzizkiak sartzen duena, eta bestea /gaz/ morfemak sartutakoa. Gauzatzen den bakarra lehena da:

- (8) Uribe-kosta/Gernika: komitatibo plurala
 /gizon-ak-gaz/ *gizónakaz*
 (cf. *gizónak* #*be* → *gizónape*, klitiko taldea)

Ikusi bezala, Uribe-kostan (baina ez Gernikaldean), benefaktiboa ere markatua da. Arrazoia bera izan daiteke /-'tzat/ atzizkia genitiboari lotzen bazaio benefaktiboan.

Bizkaiko kostaldean, eta baita Arratian ere, badago beste deklinabide atzizki markatu bat: ablatiboaren atzizkia, /-'ti(k)/, hain zuzen. Atzizki hau zergatik den markatua ez da hain begi bistakoa. Atzizki honen jatorria bera ere iluna da. Jakina denez, bizkaiera zaharrean, ablatiboan *-rean* atzizkia erabiltzen zen eta *-tik* berria da esanahi honekin. Bestaldek, zenbait hizkeratan *-ti* erabiltzen da eta baliteke *-tik* < *ti* + *ka* izatea, edo *-ti* + (*r*)*ik*, bigarren morfema partitiboaren atzizkia delarik. Honi lotuta, agian (cf. Mitxelena 1985: 236), *lóti*, *bildúr*t*i* eta antzeko hitzetan agertzen den eratorpen atzizkia ere markatua da.

Klitizazioaren bidez azal daitezkeen kasuetaz gainera, hitz elkartuek, normalean, azentu berezia edo markatua dute; gehienetan, lehen osagaiaren azken silaban:

- (9) Hitz elkartuak
- | | |
|--|---|
| <i>aitázulo</i> | <i>óllar</i> < <i>oilo</i> + <i>ar</i> |
| <i>burúhandi</i> | <i>báserr<i>i</i></i> < <i>baso</i> + <i>erri</i> |
| <i>begígorri</i> | <i>úrdai</i> < <i>urde</i> + <i>gai</i> |
| <i>seméalabak</i> | <i>elízondo</i> |
| <i>sagúzar</i> | <i>gibélurdin</i> |
| <i>léngusu</i> < <i>leben</i> + Lat. <i>cusinu</i> | |

Talde klitiko eta hitz elkartuen azentuerak batu egin daitezke, noski. Eratorpen atzizki azentudunak era batean zein bestean azal daitezke; adib.: *bi* # *garren* (hitz konposatu zein talde klitiko) > *bígarren*. Hitz markatu askoren jatorri historikoa nahikoa garbi dago, beraz: azentuak talde morfo-sintaktiko batzuen barneko muga adierazten du. Gure hipotesian, antzina ez zegoen hitz markaturik. Frantsesez bezala, azentua talde prosodikoaren azken silaban ezartzen zen beti. Baina beranduago, eta beste hizkuntza askotan bezala, hitz elkartuetan eta talde klitikoetan azentu-arau berezi bat sortu zen. Egitura morfo-sintaktiko hauetan azentua lehen hitzaren azken silaban hasi zen ezartzen. Arau honek, neurri batean, bizirik dirau. Geroago, klitiko batzuk atzizki bihurtu ziren eta konposatu askoren egitura ilundu egin zen. Ondorioz, atzizki aurreazentuatzaileak sortu ziren (Hualde 1993). Printzipioz, eratorpen atzizki guztiek azentudunak (h.d. aurreazentuatzaileak) izan beharko lukete. Baina badira azentugabeak: /-tasun/, /-garri/ eta /-(l)ari/, esate baterako. Ez dakit azentugabetasunaren arrazoia zein ote den.

Hala ere, talde klitiko eta hitz elkartuen azentua ez da hitz markatuen iturri bakarra izan. Horrela izango balitz hitz markatu guztiak polimorfemikoak izango lirateke (jatorriz, behintzat). Kasu askotan (baina ez beti) jatorriko azentuera mantendu egin da mailegutan, morfemabakarreko hitz markatuak emanik. Batzuetan oso mailegu

zaharrak aurkitzen ditugu hitz markatuen artean. Getxon, adibidez, hurrengo mailegu zaharrak markatuak dira:

- (10) Getxo: mailegu zahar azentudunak
akúllu < lat. *aculeu*, *alkóndara* < gazt. zaharra < arab. *qandûra*, *ántzar* < lat. *anser*, *apóstolu* < lat. *apostolu*, *autóno* < lat. *autumnu*, *dénda* < errom. *tenda*, *dénpora* < lat. *tempora*, *doméka* < lat. *dominica*, *erregiña* < lat. *regina*, *eskóla* < lat. *schola*, *espillu* < errom. naf. **espillo*, *estárta* < lat. (*via*) *strata*, *gaztélú* < lat. *castellu*, *géla* < lat. *cella*, *górta* < lat. *cobors*, *gúra* < lat. *gula*, *iséra* < arab. *izáre*, *keriza* < lat. **ceresia*, *kinpúla* < lat. *caepulla*, *kollára* < lat. *coc(h)lear(e)*, *léku* < errom. *lucco*, *makilla* < lat. *baccilla*, *puçika* < lat. *uessica*, *sékula* < lat. *saecula*, *txásta* < lat. **tastare*, *titéra* < lat. *digitalis*

(10)ean aipatu Getxoko hitzak markatuak dira beste hizkera askotan ere. Beste adibide batzuk emateko, honakoak ere markatuak izan ohi dira: *aizkóra* < lat. *asceola*, *ámu* < lat. *hamu*, *góna* < errom., cf. ital. *gonna*.

Alabaina, aurreko kapituluan ikusi dugunez, maileguez ez diote beti jatorriko azen-tuerari eusten. Aldiz, maileguak egokitzeko joerak eta arau bereziak sortu dira. Abididez, Gernikaldean *-ero* bukaera duten hitz guztiak ez dira modu berean egokitzen. Esanahia 'ontzia, lekua' baldin bada, /-'ero/ bukaera azentudunarekin hartzen dira: *frútero* > *frutéroa*, baina esanahia 'ogibidea' bada, /-eru/ bukaera azentugabea dute: *to-rero* > *torerue*. Patroi hau guztiz emankorra da, dirudienez. Beste adibide bat emateko, bostgarren kapituluan ikusi genuenez, Beasainen mailegu batzuetan azentua lehen silabara mugitzen da, hitzaren egituraren arabera (ikus 5.6.3 atala). Batzuetan, Basterrecheak (1974-75) ere esaten duen moduan, erdal jatorri berberetik bi hitz sortu dira, bata azentuduna eta bestea azentugabea, esanahi desberdinekin. Adibidez, Getxon *posture* azentugabeak 'apostu' esanahia du, eta *postúre* azentudunak gaurko gaztelaniaren esanahi arrunta du. Egoera, beraz, nahikoa korapilatsua izan daiteke, leku desberdinetan eta garai desberdinetan azentu-egokitze arau eta joera desberdinak erabili baitira. Hala eta guztiz, argi dago hitz askoren markatutasunaren zergatia erdal jatorria dela.

Oinarri markatuen azentuera berezia azaltzeko bi hipotesi nagusi ditugu: (a) oinarria markatua da garai batean talde klitiko edo elkartua zelako, eta (b) oinarria markatua da erdaratiko hitza delako.

Azter ditzagun adibide batzuk:

1. Kasu batzuetan atzizki erdi-fosilduak ditugu. Adibidez, 'euskerá eta 'erdera hitzak markatuak ohi dira (azentua hasieran jartzen dut lehen edo bigarren silaban egon daitekeelako). Hitz hauetan *-era* atzizkia identifika dezakegu. Atzizki bera dugu 'galdera hitzean ere: *galde* + *era*. Era berean 'bazkari < *barazkari*, 'gosari hitzek *-ari* atzizkia izango lukete. Dena den, *afari* (< *aubari*) azentugabea da leku gehienetan. Dударик gabe, 'bakarrik < *bat* + *garr* + *ik*.

2. Kasu batean aurrizki zaharkitu bat aurkitzen dugu. Euskara zaharrean, kausati-boak sortzeko *-ra-* aurrizkia erabiltzen zen. Aurrizki fosilizatu hau daukaten aditz guztiak markatuak dira:

- (11) Aditz kausati-boak (Getxo)

<i>erábilli</i>	< <i>e-ra-bil-i</i>	<i>éro(a)n</i>	< <i>e-ra-oa-n</i>
<i>erákatzji</i>	< <i>e-ra-ka(t)s-i</i>	<i>ére(g)in</i>	< <i>e-ra-gi-n</i>
<i>erákuizji</i>	< <i>e-ra-ku(t)s-i</i>	<i>érontzi</i>	< <i>e-ra-antz-i</i>

Larramendik (1729) ere *eráman, eróan, erázo, eráci* ematen dizkigu. Lekeition, aldiz, aditz hauek ez dira markatuak, hizkera honetan aditz guztiek azentuera markatugabea hartzen dutelako (hau da, aditzetan bereizkuntza galdu egin da Lekeition)

3. Hirugarren talde batean hitz elkartu ilunduak ditugu. Adibidez, *intxaur* markatua da leku gehienetan. Ziur asko bigarren morfema (*h*)ur hitza da. Beste adibide bat emateko, *eguzki* hitzak azentu markatua duenez gero, *egu(n)* hitzaren konposatua izan behar du. Agian bigarren osagaia ekialdeko euskalkien *eki* hitza da, eta *-z* instrumentala izan daiteke: **egu-z-eki*. Bizkaierazko egunen izen guztiak markatuak dira. Getxon, adibidez, asteko zazpi egunen izenak hauexek dira: *astélena (illéna), martítzena, egústena, éguena, baríku, sapátu* eta *doméke*. Azken bi hitzen azentu markatua, *sapátu* eta *doméke*, beren kanpoko jatorriagatik azaltzen da; nahiz eta agian **sápatu* espero genukeen. Lehen lau egunak direla eta, Mitxelenak (1971), azentua batere kontuan hartu gabe, hitz hauek konposatuak direla eta bigarren osagaia *egun* hitza dela proposatu zuen. *Illéna*, Mitxelenarentzat, *dies lunae* latinezko izenaren itzulpen literala da: **il-eguna*. Hau hola bada, azentua lehen silaban egotea espero genuke. Baina hau ez da arazo larria, hitz markatuetan azentu aldaketak ez baitira arraroak. Adibide garbi bat emateko, Getxon *pátata* esaten da, jatorrizko *patáta*-ren azentua lekuz aldatuz. Hitza markatua izatea da garrantzia duena. Egun honek daukan beste izena, *astélena*, hitz elkartu gardena da. *Martítzena* hitzak azalpen berbera dauka Mitxelenaren aburuz: *dies Martis* latinezko deitura **Martí(t)z-eguna* bezala itzuli zen, hitzez hitz, eta handik *martítzena*. Hemen azentua guk espero genukeen lekuan agertzen da: lehen osagaiaren azken silaban. Jauzi bat eginik, laugarren egunaren izenean Mitxelenak jatorrizko **egu-eguna* ikusten du; hortik **egúena* lortuko genuke hitz elkartuen araua ezarri ondoren eta, azentua atzeratuz, gaurko Getxoko *éguena* (Arratzun *egúena*). *Egústena* izenaren etimologiaz Mitxelenak ez digu ezer esaten. Nik **egu-aztjena* proposatuko nuke, hedatua goa den *asteazkena*-ren parekoa (**azjen* hitza *azken* hitzaren kidea omen zen, ikus Agud & Tovar-en hiztegi etimologikoa 1989: 463-532, *azken* eta *azjen* hitzen sarrere-tan). Dena den, *egústena*-aren lehen osagaia *egu(n)* hitza da, zalantzarik gabe. Beraz, azentua hitzaren bigarren silaban espero genuke, eta hortxe aurkitzen dugu: *egústena*. *Baríku* azaltzeko Mitxelenak latinezko *dies sine cena* esapiderearen itzulpena dela proposatzen du; hau da, **abari bagako eguna*. Horrela bada, gure hipotesiaren arabera azentuak lehen osagaiaren azken silaban erori beharko luke. Eta hala da. Mitxelenak proposatutako deribazioa hauxe izango litzateke (azentuak neuk ipintzen ditut): **abari bagako egun* > **(a)bari-bako-eun* > **bari-(b)ako-un* > **bariakun* > *baríaku* > *baríku*. Hemen azentuaren kokagunea Mitxelenak proposatzen duen etimologiarekin bat dator zehazki. Honekin, asteko egun guztien azentu markatua azaldu dugu.

4. Beste talde batean, *áurre, átze* eta beste lekuzko hitz batzuk ditugu. Mitxelenak (1972) esaten digun bezala, hitz hauek postposizio bezala erabiltzen dira. Gainera, azken bokala epentetikoa izan daiteke.

5. Azkenik, asko ez badira ere, azalpen argirik gabeko hitz markatu batzuk aurkitzen ditugu. Hurrengo hiru hitzak markatuak izan ohi dira: *béste, 'belarri, égi(a)*. Hitz hauek markatuak izanik, azalpen etimologiko bat behar dute. Hasteko, *béste* hitzaren aldaera zaharrago bat *bertze* izango litzateke, gaurregun Lapurdin eta Nafarroan aurkitzen dena, cf. *mertzéde* > *mesede*, **sagartzza* > *sagasta* (Azkue), etab. Forma honetan *ber-* morfema identifika dezakegu. J. Lakarrak (a.e.) **ber-eze* proposatzen du.

Belarri hitza bokal luzearekin dago dokumentatuta: *belaarri* eta baditu beste aldaera batzuk: *bebarri*, *begarri*. Agian bi morfema ditugu, baina jatorrizko egitura zein den ez dago batere garbi.

8.3. Bizkai-Gipuzkoetako beste azentubideen garapen historikoa

Orain arte ikusi duguna mendebaldeko azentuerarik zaharrentzat har dezakeguna da. Hemendik, Bizkai-Gipuzkoetan aurkitzen ditugun hainbat azentuera berezi sortu dira bide desberdinetan; hau da, aldaketa historiko desberdinen ondorioz.

Eskualde askotan, talde markatugabeen azentua azkenaurreko silabara mugitu da. Agian, desberdintasuna mantentzeko, pluralaren azentua ere, silaba bat ezkerraldera mugitu da:

- (12) Markina: ezkerralderanzko lerraketa

gizóna > *gizóna*
gizónak > *gizónak*

Hauxe da, adibidez, Antzuolan edo Markinan aurkitzen dugun egoera.

Baina bi mugimenduak ez dira beti batera gertatu. Ondarroan, adibidez, azentua mugitu egin da singularrean edo talde markatugabeetan, baina ez pluralcan:

- (13) Ondarroa

gixóna (baina: *gixoná ra*)
gixónak (*gixónak dis*)

Aldiz, Gernikaldeko leku batzuetan, ezkerralderanzko mugimendua azentu markatuekin gertatu da, baina ez markatugabeekin:

- (14) Arteaga, etab.

gixoná
gixonak

Dena den, gehienetan batera joan ohi dira bi aldaketa hauek.

Antzuolako [-2] sistematik Urolaldean dugun [+3] sistemara erraz pasatzen da, hitz gehienak anbiguoak baitira arauaren norabidearen aldetik:

- (15) [-2] > [+3]

[-2]	[+3] & estrametrikalitatea
<i>gizóna</i>	<i>gizóna</i>
<i>alkatía</i>	<i>alkatía</i>
<i>igeltserúa</i> ≠	<i>igeltserúa</i>

Urolaldean, hitzunek maiztasun handiena duen azentuera (*gizóna*, *alkatía* etab.) [+3] bezala berrinterpretatu dute eta ondorioz azentuera berria sortu da hitz luzeagoetan.

Gipuzkoako [+2] hizkera askok ere jatorri historiko berbera dute argi ta garbi. Sistema hau modu bat baino gehiagotan sortua izan daiteke.

Bizkaiko kostaldeko sistemetan azentua doinu-azentuzko motakoa da. Tonua talde prosodikoaren bigarren silaban gora doa eta silaba azentuduneraraino mantentzen da goiko mailan, silaba azentudunaren hurrengoan beherakada gogor bat dugularik:

(16) Uribe-kosta/Gernika: doinuera

g̃i zó ná	g̃i zó nak
a lar gu ná	a lar gú nak

Singularrean eta pluralean azentu atzerapena jaso duten hizkeretan, aldiz, honako patroiak ditugu

(17) Markinaldea

g̃i zó na	g̃í zo nak
a lar gú na	a lár gu nak

Honelako doinu-azentuzko sistema batean, goiko tonuan doan lehen silabak prominentzia akustikoa dauka eta erraz interpreta daiteke azentudun bezala. Hau da, azentuaren ezaugarri akustikotzat tonu gorakada hartzen badugu, beherakada hartu beharrean, honako berrinterpretazioa dugu:

(18) > [+2] markatugabea, [+1] markatua

<i>g̃ižóna</i>	<i>g̃ižonak</i>
<i>alárguna</i>	<i>alárgunak</i>

(18)an ikusten denez, berrinterpretazio honen ondorio bat hauxe da: orain singularra eta plurala oinarri laburrekin besterik ez direla bereizten. Noski, hauxe da hain zuzen [+2] azentuera duten hizkeretan ikusten dena. Bizkaiko kostaldeko hizkeretan, singularra eta plurala oinarri markatugabe guztiakin bereizten dira, silaba kopurua gorabehera; [+2] sistemetan, aldiz, oinarri luzeekin ez dago bereizketarik. Hemen emandako bilakaera diakronikoak adierazten du honen zergatia.

Badira, dena den, beste bide batzuk [+2] sistema bat lortzeko. Gure begien bistan [+3] > [+2] aldaketa gertatzen ari da zenbait lekutan, Getarian eta agian Azpeitian ere, adibidez.

Ez dago dudarik Bizkai-Gipuzkoetako azentu sistema hauek guztiok jatorri historiko bakar bat dutela. Har ditzagun, adibidez, Gernika, Lekeitio, Antzuola eta Beasaingo hizkerak. Lau azentu sistema hauek nahiko desberdinak dira dauzkaten azentu arauen aldetik. Baina lau hizkerotan, azentuera markatugabe edo orokorraz gain, hitz batzuek azentuera markatua edo berezia erakusten dute. Zehazkiago atzizki batzuek azentuera markatua eragiten dute. Azentuera markatu hau desberdina da aipatutako hizkera bakoitzean, baina neurri handi batean azentuera markatua duten atzizkiak berdinak dira:

(19) Azentueren konparaketa

a. Gernika

Azentuera markatugabea:

Talde prosodikorearen azken silaban

adib.: *g̃ižóna*, *g̃ižon ederra*, *g̃ižon ederrari*

- Atzizki markatuen azentuera:
 Atzizki markatuek azentua aurreko silaban ezartzen dute
 adib.: *gixónak*, *gixon ederrari*, *txakúrtxu*, *txakúrtxue*,
txakúrtxueri 'sg = pl'
- b. Lekeitio
 Azentuera markatugabea:
 Talde prosodikoaren azken silaban
 adib.: *gixoná*, *gixon ederrá*, *gixon ederrarí*
 Atzizki markatuen azentuera:
 Atzizki markatuek azentua hitzaren azkenurreko silaban ezartzen dute;
 adib.: *gixónak*, *gixon ederrári*, *txakúrtxu*, *txakúrtxúa*,
txakúrtxuári 'sg = pl'
- c. Antzuola
 Azentuera markatugabea:
 Hitzaren azkenurreko silaban
 adib.: *gixóna*, *gixonái*, *gixonandáko*, *gixonandakúa*
 Atzizki markatuen azentuera:
 Oinarriaren azkenurreko silaban (h.d. atzizkia baino bi silaba lehenago)
 adib.: *gixonak*, *gíxonei*, *gixonendako*
- d. Beasain
 Azentuera markatugabea:
 Bigarren silaban
 adib.: *gízóna*, *gízónai*
 Atzizki markatuen azentuera:
 Atzizki markatuek azentua lehen silaban ezartzen dute, oinarria laburra bada
 adib.: *gízona*, *gízonai*

Azentuera markatua eragiten duten atzizkiak zeintzuk diren aztertzen dugunean, adostasun handia aurkitzen dugu. Orohar, atzizki markatu gehiago ditugu Bizkaiko kostaldean Gipuzkoan baino, baina horko [+2] hizkeretan markatu diren atzizki guztiak markatuak dira Bizkaiko kostaldean ere. Hau nahikoa argi ikusten da flexiozko atzizkiekin:

(20) Flexiozko atzizki markatuak

	Gernikaldea	Lekeitio	Antzuola	Beasain
a. Izen sintagma	plurala	plurala	plurala	plurala
	<i>-tik</i>	<i>-tik</i>		
	<i>-gaz</i>	<i>-gaz</i>		
b. Aditz partizipioak	<i>-t(z)e</i>	<i>-t(z)e</i>	<i>-t(z)e</i>	<i>-t(z)e</i>
	<i>-ko</i>	<i>-ko</i>	<i>-ko</i>	<i>-ko</i>
c. Adjektiboak	<i>-ago</i>	<i>-ago</i>	<i>-ago</i>	
	<i>-en</i>	<i>-en</i>	<i>-en</i>	<i>-en</i>
	<i>-egi</i>	<i>-egi</i>	<i>-egi</i>	<i>-egi</i>

Bat etortze hau harrigarria da «markatua» izateak oso gauza ezberdinak esan nahi baititu sistema bakoitzean. Esan bezala, atzizki hauek aurrezentuatzailerak dira Gernikaldean, azentua hitzaren azkenurreko silaban ezartzen dute Lekeition, bi silaba lehenago ezartzen dute Antzuolan eta hitzaren lehen silaban Beasainen. Azentu sistema hauek jatorri berbera edukitzeak izan behar du honen arrazoa. Historian zehar azentu arauak aldatu egin dira, goian erakutsitako moduan, baina atzizki markatuen berezitasuna, [+am] ezaugarri lexikoa, mantendu egin da. Eratorpen atzizki markatuetan ere adostasun handia aurkitzen dugu, eta baita hitz elkartuen azentueran eta azentu markatua duten erro markatuetan ere (Gaminde & Hualde 1995).

8.4. Mitxelenaren Erreterriako azentua

Nik elkarrizketatu ditudan erreteriarrek [+2] azentuera orokorra erabiltzen dute, oso bereizkuntza lexiko guttirik edo batere bereizkuntza lexikorik gabe. Ordea, Mitxelenak bere Erreterriako azentuera deskribatu zuen zenbait lekutan, eta Mitxelenaren deskribapena oso bestelakoa da. Mitxelenak esan zigunez, bi hitz mota zen deskribatu zuen Erreterriako sisteman: alde batetik *txoriya*, *galera* motakoak, eta bestetik *galderà*, *tokià*. Lehen taldea bigarrena baino askoz handiagoa dela ere esan zigun. Bestela esanda, lehen taldekoak hitz markatugabeak dira eta bigarren taldekoak markatuak. Bere deskribapenaren arabera, argi dago *galderà*, *tokià* hitzek azentua lehen silaban dutela. Hitz hauek «gain-behera doaz lehen silabatik aurrera» (Mitxelena 1988b [1958b]: 103, c oh.). Gauza bera aurkitu zuen Alarcos-ek Mitxelenak grabatutako *galerà* hitzaren azterketa akustikoan egin zuenean: «la mayor altura se alcanza en la *a* primera y luego va descendiendo paulatinamente hasta el final» (Mitxelena 1987: 480). Beraz: *gàlera*, *tókíya* dugu.¹ Honetan ez dago arazorik. Erdialdeko beste hizkera askotan gauza bera gertatzen da, alegia, hitz markatuek [+1] azentuera dute. Interes handikoa dena hauxe da: beste taldeko hitzek, hitz markatugabeek, ez dutela azentua bigarren silaban. Hau Mitxelenak esplizitoki esaten digu. Hain zuzen, Bortzirietako eta [+2] araua duten beste hizkera batzuekin egiten du konparaketa eta berea desberdina dela esaten digu. Mitxelenaren deskribapenean, hitz markatugabeetan azentua (=tonu maila) mantendu egiten da hasieratik bukaeraraino. Eta hauxe da, era berean, Alarcos-ek aurkitu zuena: «Se ve bien claro que *galera* tiene las tres vocales bien acentuadas y algo más la *-a*». Are gehiago, hitz markatuek azentua lehen silaban ez ezik, bigarrenean ere izan dezakete: *eróriya*, *leámiya* hitz markatuak dira, eta *egosiya*, *erosiya*, aldiz, markatugabeak. Argi dago azentu mota honek zerikusi gehiago duela Gernikaldean erabiltzen denarekin, Gipuzkoako hizkeretarako deskribatu dugunarekin baino. Hitz markatugabeetan azentuera ez da [+2], baizik eta [-1], Gernikan eta Uribe-kostan bezala. Azentua taldearena da: *mutil zintzuá*. Zer ondorio atera behar dugu honetatik? Dударik gabe, [+2] azentuera ez dela bakarrik «berria» Gipuzkoako eskualde batzuetan, «berri-berria» baizik; azken belaunaldietan gertatutako berrikuntza.

¹ Alarcos-ek egindako espektrogramak eta oinarizko maiztasun kurbak Echenique (1988) lanean argitaratu ziren.

Mitxelena (1988b: 102-103; 1985: 577-582) azentuera orokorraren eta markatua-
ren arteko kontrastea honako adibideekin erakusten du:

(21) Mitxelena azentuera	
Markatugabeak	Markatuak
<i>arrantza</i> (astoarena)	<i>arrantza</i> (arrainena)
<i>basua</i> 'oihana'	<i>básua</i> 'edalontzia'
<i>iltzia</i> 'iltzea (iltzatzekoa)'	<i>iltzia</i> 'hiltzea'
<i>eltzia</i> 'lapikoa'	<i>éltzia</i> 'heltzea'
<i>eliza, alaba</i>	<i>mákina, káyola</i>
<i>estia, itxia, artia</i>	<i>béstia, átzia, tártia</i>
<i>loriya, txoriya, gariya, berriya</i>	<i>lóiya, tókíya, kábíya, périya</i>
<i>pixtiya, txuriya, guriya</i>	<i>prémiya, lípiya, múkiya</i>
<i>lepua, zokua, jokua</i>	<i>léyua, mókua</i>
<i>mandua, kolkua</i>	<i>málkua, ttánttua</i>
<i>soñua, doñua</i>	<i>xátua, xántua</i>
<i>trikua, modua, zakua</i>	<i>lékua, ámua, mállua, káikua</i>
<i>ixtua, pixtua</i>	<i>txíxtua</i>
<i>egosiya, erosiya</i>	<i>eróriya, leámiya</i>
<i>onena</i> 'honena'	<i>ónena</i> 'hobea'
<i>zuena</i> 'que había'	<i>zúena</i> 'vuestro'
<i>ayena</i> 'tallo leñoso'	<i>áyena</i> 'haiena'
<i>datorrela</i> 'viniendo él'	<i>dátorrela</i> 'que venga él'

Datu hauek ikusita, argi dago /-'tze/ eta /-'ti/ eratorpen atzizkiak [+am] direla, beste hizkera askotan bezala, azentuera markatua sortzen baitute: *iltzia* 'hiltzea, heriotza' (cf. *iltzia* 'iltzea'), *éltzia* 'heltzea' (cf. *eltzia* 'lapikoa'), *lóiya* (cf. *loriya*). Lehen parearen azalpena ere morfologikoa da, hots, hitz markatuak /-'tza/ atzizkia darama. Hitz markatuen zerrendan emandako beste adibide asko ere markatu izan ohi dira Bizkai-Gipuzkoetako hizkera gehienetan eta baita Bidasaldekoetan ere: *básua* 'edalontzia', *átzia*, *béstia*, *lékua*, *tókíya*, *txístua*, *ámua*. Azkenik, *datorrela* / *dátorrela* oposaketa Bizkaiko kostaldean ere aurkitzen dugu.

Bere azken urteetan berriro arduratu zen gai honetaz Mitxelena eta Erreterriako hitz markatuen eta markatugabeen zerrenda luze bat prestatu zuen (Echenique 1988 argitaratua). Zerrenda honetan hitz markatuak espero genituzkeenak dira; hots, maileguak, hitz elkartuak eta eratorriak, eta mendebaldeko beste hizkera askotan ere markatuak diren euskal hitz batzuk. Hona hemen adibide batzuk:

- (22) Mitxelena (Echenique 1988): hitz markatuak
- mailegu berriak:
bankuà, barkuà, botuà, gustuà, jefià, kotxià, kafìà, moruà, kojua
 - mailegu zaharrak:
lekuà, kabíya, kanpuàn, maixuà, ganbaràn, katilluà, denborà, tipulà
 - hitz elkartuak:
urdayà, galbayà, lengusuà, suarriya
 - hitz eratorriak (oinarri morfemaniztunak):

onenà ‘hobea’, *txarrenà*, *zarrenà*, *zallenà*, *gorrenà*, *jatorrenà*, *ederrenà*, *lotiyà*, *lotsaiyà*, *mastiyà*, *arrikà*, *korrikà*, *ojukà*, *gutarrà*, *aurtxuà*, *galderà*, *ollaxkuà*, *ken-tzekò*, *astekò*, *euskaldunà*

e. morfemabakarreko euskal hitzak:

atzian, *aurrian*, *bestia*, *taldia*, *talua*, *malkua*, *tokiya*, *belarriya*, *eztarriya*, *egiyà*

Neurri handi batean, bereizketa berbera dugu Gernikan, Lekeition, Ondarroan edo Antzuola, esate baterako. Hau da, Mitxelenak azentuera markatuarekin ematen dituen hitz gehienak markatuak dira beste hizkera horietan ere. Bestaldetik, badirudi Mitxelenak deskribatu zuen sisteman silababakarreko izenak ere markatuak direla: *urian*, *urekuà*, *uretik*, *lurrian*, *lurrekuà*, *lurretik*, *surtakuà*, *surtatik*. Puntu honetan Errenteriako azentuera Bortziritakora hurbiltzen da.

Pluralaren azentua dela-ta, Mitxelenak esaten digu singularra eta plurala bereiztu egiten direla oinarri markatugabeekin; adib: *gizonakiñ* ‘sg’ vs. *gizonakiñ* ‘pl’, baina ez dago oso garbi azentua zein silabatan kokatzen den pluralean. Badirudi, dena den, hitz hirusilabadunetan azentua lehen silaban dagoela. Esaten duenez, azentuera bat dugu *galera* hitzean, eta beste bat haren pluralean, *galera*k. Bigarren hitz honen azentuera, *galdera* hitz markatuak duena dela dio. Hau, dakigunez, *gáldera* denez gero, hau-xe izango genuke:

(23) Mitxelena sg/pl

<i>galera</i>	<i>gálerak</i>
	<i>gáldera, gálderak</i>

Noski, oinarria markatua denean, azentuera berdina dugu singularrean eta pluralean: *txixtuak esnatu du*, *txixtuak esnatu dute*. Echeniquek (1988: 508) argitaratutako langaietan hauxe esaten digu Mitxelenak: «mientras *pixtiyak* (*jan du*) se distingue por el acento de *pixtiyàk* (*jan dute*), *bestiak* (*esan du*) ‘el otro lo ha dicho’ no se distingue así de *bestiak* (*esan dute*) ‘los otros lo han dicho’».

Mitxelenaren lekukotasunak izugarritzko garrantzia du, antza denez, azentu sistema guztiz itxuraldatu baita azken belaunaldietan Errenteriako eskualdean eta agian baita Gipuzkoako beste eskualde askotan ere.

Esan dodan berbiaz urten biar dot nik.

AIPAMENAK

Laburpenak

- ASJU* = *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'. International Journal of Basque Linguistic and Philology.*
- BAP* = *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*
- BLS* = *Berkeley Linguistic Society*
- BSL* = *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*
- FLV* = *Fontes Linguae Vasconum*
- NLLT* = *Natural Language & Linguistic Theory*
- Lg* = *Language*
- LI* = *Linguistic Inquiry*
- RIEV* = *Revista Internacional de Estudios Vascos*

- Alastuey, Jesús & Artola, Koldo, 1990, «Uztarroze (Erronkari)». In Arantzadi Zientzia Elkartea, arg., *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa* (lehen atala, bigarren zatia) 292. Donostia: Muni-be.
- Altube, Seber, 1934, *Observaciones al tratado de 'Morfología vasca' de don R. M. de Azkue*. Bermeo: Gaubeka [Berrarg. Azkueren *Morfología vasca*-rekin, 3. lib., Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969].
- , 1929, *Erderismos* [= Euskera 1-4]. Bilbo: Euskaltzaindia. [Berrarg. Bilbo: Indauchu Editorial, Orain Sorta 1, 1975].
- Amunarriz, Arantza & Josu Tellabide, 1990, «1967.eko lur-ikara Zuberoan». In Arantzadi Zientzia Elkartea, arg., *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa* (lehen atala, bigarren zatia) 289. Donostia: Munibe.
- Artola, Koldo, 1977, «Erronkariko uskararen azken hatsak... eino'rel», *FLV* 25: 75-107.
- , 1980, «Erronkariko 'uskara'ren azken hatsak... oraino'rel», *FLV* 35: 49-85.
- , 1991, «Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra», *FLV* 58: 247-279.
- , 1992, «Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)», *FLV* 60: 187-228.
- Aske, Jon, 1990, «Disembodied rules versus patterns in the lexicon: Testing the psychological reality of Spanish stress rules», *BSL* 16, 30-45.
- Azkue, Resurrección M., 1923, *Morfología vasca*. Bilbo: Euskaltzaindia [Berrarg. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 3 lib., 1969].
- , 1931-32, «Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos», *Euskera* 4: 282-318 & 6: 3-50].

- Basterrechea, José, 1974-75, «Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica». *FLV* 18: 353-393 & 21: 289-338.
- Beckman, Mary, 1986, *Stress and non-stress accent*. Dordrecht: Foris.
- & Jan Edwards, 1994, «Articulatory evidences for differentiating stress categories». In Patricia Keating, arg., *Phonological structure and phonetic form: Papers in Laboratory Phonology III*, 7-33. Cambridge: Cambridge Univ. Press.
- & Janet Pierrehumbert, 1986, «Intonational structure in English and Japanese», *Phonology* 3: 255-309.
- Beloqui, Juan José, Jesús Elosegui, Pilar Sansinenea de Elosegui & Luis Michelena, 1953, «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», *BAP* 9: 499-536. [Berrarg. Mitzelena 1988, I: 246-272].
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1869, *Le verbe basque en tableaux*. Londres: Strangeways & Walden [Berrarg. in Bonaparte 1991, I. 175-442. Bilbo: Euskaltzaindia.]
- , 1877, «Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc.», *Actes de la Société de Philologie*, 149-191.
- , 1991, *Opera Omnia Vasconice*, 4 lib. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Bruce, Gösta, 1995, «Scandinavian languages». Eskuizkribua, Lund Univ. In Harry van der Hulst, arg., *Word prosodic systems in the languages of Europe*. Berlin: Mouton de Gruyter. Agertzeko.
- Buckley, Eugene, 1994, «Persistent and cumulative extrametricality in Kashaya», *NLLT* 12: 423-464.
- Camino, Iñaki, 1997, *Aezkera: dialektologi azterketa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Chomsky, Noam & Morris Halle, 1968, *The sound pattern of English*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- De Jong, Kenneth, Mary Beckman & Jan Edwards, 1993, «The interplay between prosodic structure and coarticulation», *Language and Speech* 36, 197-212.
- Downing, Laura, 1990, *Problems in Jita tonology*. Doktoradutza tesia. Univ. of Illinois.
- Echenique, María Teresa, 1988, «Stress and pitch (Luis Mitzelena zenak utzitako langaia)», *Euskera* 23: 495-521.
- Elordieta, Gorka, 1996, «Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque». In Fernando Martínez-Gil & Alfonso Morales-Front. *Issues in the phonology and morphology of the major Iberian languages*, 1-78. Washington, DC: Georgetown Univ. Press.
- Etxebarria, José María, 1985, «Gaintzako euskeraren alderdi fonetiko batzuko», *Eusko-Ikaskuntza. Cuadernos de sección, Hizkuntza eta literatura* 4: 127-142.
- Etxebarria, Juan Manuel, 1991, «Zeberioko euskararen azentuaz». In Joseba A. Lakarra, arg., *Memoriae L. Mitzelena magistri sacrum*, 677-708. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. [AS]Uren Gehigarriak, 14].
- Euskalerría Irratía & Matías Múgica, 1990, *Nafarroako euskaldunen mintzoak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- , Mikel Bujanda & Enrike Díez de Ulzurrun, 1993, *Nafarroako Euskaldunen mintzoak II*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Gaminde, Iñaki, 1993, «Bizkaiko azentu-motei buruz», *Uztfaro* 7: 111-140.
- , 1994a, «Elantxobeko azentuaz», *Ele* 14: 7-41.
- , 1994b, «Urduliz eta Gatikako azentu ereduaz», *Uztfaro* 11: 55-110.
- , 1994c, «Munitibar eta inguruko azentuaz», *FLV* 65: 81-120.
- , 1994d, «Bizkaieraren geografia eta bizkaieraren azentua». *II Jardunaldiak Soziolinguistikaz*, 45-56. Bilbo: Bilboko Udala.
- , 1995a, «Los tipos de acento del dialecto vizcaíno del euskara: aproximación acústica». In Ana Elejabeitia & Alexander Iribar, arg., *Phonetica*, 11-42. Bilbo: Deustuko Unib.
- , 1995b, «Zubereraren azentuaz», *Uztfaro* 13: 107-128.
- , 1995c, «Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa», *FLV* 69: 297-321.

- , 1995d, «Euskal herriko azentu moldeez (bizkaiera eta gipuzkera)». Eskuizkribua.
- , 1995e, «Larraungo Alli herriko azentu ereduez», *FLV* 68: 23-35.
- , 1996a, «Esteribarko euskararen azentuz», *Uztaro* 16: 109-123.
- , 1996b, «Datu-basea». Eskuizkribua.
- & José I. Hualde, 1995, «Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa». *ASJU* 29: 175-179.
- & J. Salaberria, 1997, «Ezpeleta, Lekorne eta Makeako azentu ereduez», *Uztaro* 20: 93-103.
- Garde, Paul, 1968, *L'accent*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Gavel, Henri, 1920, *Éléments de phonétique basque*. Paris: Édouard Champion.
- , 1960, «Réponses souletines à un questionnaire linguistique», *Euskera* 5: 293-316.
- Gómez, Ricardo, 1991, «Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa». In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz, arg., *Memoriae L. Mitzelena Magistri Sacrum I*, 375-426. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (*ASJU*-ren gehigarriak 14)
- Halle, Morris & Jean-Roger Vergnaud, 1987, *An essay on stress*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Harris, James, 1983, *Syllable structure and stress in Spanish: A non-linear analysis*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- , 1991a, «The exponence of gender in Spanish», *LI* 22: 27-62.
- , 1991b, «With respect to metrical constituents in Spanish». In Héctor Campos & Fernando Martínez-Gil, arg., *Current studies in Spanish linguistics*, 447-473. Washington, DC: Georgetown Univ. Press.
- , 1995, «Projection and edge marking in the computation of stress in Spanish». In John Goldsmith, arg., *The handbook of phonological theory*, 867-887. Oxford & Cambridge, Mass.: Blackwell.
- Hayes, Bruce, 1980, *A metrical theory of stress rules*. Doktoradutza tesia, MIT.
- , 1995, *Metrical stress theory: principles and case studies*. Chicago: Univ. of Chicago Press.
- Holmer, Nils, 1964, *El idioma vasco hablado*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (*ASJU*-ren gehigarriak 5).
- Hualde, José I., 1989, «Acentos vizcaínos», *ASJU* 23: 275-325.
- , 1990, «Euskal azentuaren inguruan», *ASJU* 24: 699-720.
- , 1991a, *Basque phonology*. London: Routledge.
- , 1991b, «Manuel de Larramendi y el acento vasco», *ASJU* 25: 737-749.
- , 1992, «Notas sobre el sistema acentual de Zeberio», *ASJU* 26: 767-776.
- , 1993a, «On the historical origin of Basque accentuation», *Diachronica* 10: 13-50.
- , 1993b, «Observaciones acerca de los sistemas acentuales de la zona occidental de Gipuzkoa», *ASJU* 27: 241-263.
- , 1994, «Euskal azentuak eta euskara batua», *Euskera* 39: 1549-1568.
- , 1995a, «Euskal azentuen sailkapenaz eta historiaz». In Ricardo Gómez & Joseba Lakarra, arg., *Euskal dialektologiako kongresua*, 189-208. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (*ASJU*-ren gehigarriak 28).
- , 1995b, «Análisis del sistema acentual de Ondarroa», *ASJU* 29: 319-343.
- , 1995c, «Sobre el acento roncalés», *ASJU* 29.
- , 1996a, «Accentuation and empty vowels in Ondarroa Basque», *Lingua* 99: 197-206.
- , 1996b, «Basque accentuation». In Harry van der Hulst, arg., *Word Prosodic systems in the languages of Europe*. Berlin: Mouton de Gruyter. Agertzeko.
- & Xabier Bilbao, 1992, «A phonological study of the Basque dialect of Getxo», *ASJU* 26: 1-117.
- & —, 1993, «The prosodic system of the Basque dialect of Getxo: a metrical analysis», *Linguistics* 31: 59-85.
- , Gorka Elordieta & Arantzazu Elordieta, 1993, «Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno», *ASJU* 17: 731-749.

- , — & —, 1994, *The Basque Dialect of Lekeitio*. Bilbo & Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea & Gipuzkoako Foru Aldundia [ASJU-ren gehigarriak 34].
- & Txomin Sagarzazu, 1991, «Acentos del Bidasoa: Hondarribia», *ASJU* 25: 139-152.
- Hulst, Harry van der, 1996, «Word accent». In Harry van der Hulst, arg., *Word prosodic systems in the languages of Europe*. Berlin: Mouton de Gruyter. (Agertzeko).
- Hyman, Larry, 1978, «Tone and/or accent». In Donna Jo Napoli, arg., *Elements of tone, stress, and intonation*, 1-20. Washington, DC: Georgetown Univ. Press.
- Ibarra, Orreaga, 1994, *Ultzamako euskararen azterketa*. Doktoradutza tesia, Euskal Herriko Unib.
- Inkelas, Sharon & Draga Zec, 1988, «Serbo-Croatian pitch accent», *Lg* 64: 277-248.
- Intxauspe, Emmanuel, 1856, *Le Saint Évangile de Jésus-Christ selon Saint Mathieu / Jesus-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiuren arauera*. Baiona: Lamaignère. [Berrarg. in Louis-Lucien Bonaparte, *Opera Omnia Vasconice* II. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991, 161-270].
- Izagirre, Kandido, 1966, «Ultzamako euskeraren gai batzuk», *BAP* 22: 403-467.
- , 1959-61, «Erronkariko euskal-ondakin batzuk», *BAP* 15: 280-314 & 17: 391-407.
- , 1968, «Notas lexicográficas», *ASJU* 2: 49-72.
- , 1970, «El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes», *ASJU* 4: 1-248.
- Jansen, Wim, 1992, «Acento y entonación en Elorrio», *ASJU* 26: 391-440.
- Kenstowicz, Michael, 1994, *Phonology in generative grammar*. Oxford & Cambridge, Mass.: Blackwell.
- Kiparsky, Paul & Morris Halle, 1977, «Towards a reconstruction of the Indo-European accent». In Larry Hyman, arg., *Studies in stress and accent. Southern California occasional papers in Linguistics* 4: 209-238. Dept. of Linguistics, Univ. of Southern California, Los Angeles.
- Kisseberth, Charles, 1984, «Digo tonology». In G. N. Clements & John Goldsmith, arg., *Autosegmental studies in Bantu tone*, 105-182. Dordrecht: Foris.
- , 1991, «Metrical structure in Chizugula tonology». Eskuizkribua, Univ. of Illinois, Urbana-Champaign.
- Lafon, René, 1935, «Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins». In *Mélanges de littérature, d'histoire et de philologie offerts à Paul Laumonier*, 635-643. Paris: Librairie E. Droz.
- , 1958, «Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)». In Diego Catalán, arg., *Estructuralismo e historia: Miscelánea homenaje a André Martinet*, II, 77-106. Tenerife: Univ. de La Laguna.
- Larramendi, Manuel, 1729, *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio J. Villagordo Alcaraz. [Berrarg. Donostia: Hordago, 1979].
- , 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latin*. Donostia.
- , 1969, *Coreografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. José Ignacio Tellechea Idígoras, arg. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Larrasquet, Jean, 1931, «Beñát, Larrajáko behagilii», *RIEV* 22: 229-240.
- , 1934, *Le basque souletin nord-oriental*. Paris: Maisonneuve.
- , 1939, *Le basque de la Basse-Soule orientale*. (Collection Linguistique, 46). Paris: Société de Linguistique de Paris.
- Laspiur, Imanol, 1979, «Azentu diakritikoa Eibarko euskarán», *Euskera* 24: 175-268.
- Lehiste, Ilse, 1970, *Suprasegmentals*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- & Pavle Ivić, 1978, «Interrelationship between word tone and sentence intonation in Serbocroatian». In Donna Jo Napoli, arg., *Elements of tone, stress, and intonation*, 100-128. Washington, DC: Georgetown Univ. Press.
- Lieberman, Philip, 1972, *Speech acoustics and perception*. Indianapolis & New York: Bobbs-Merrill.
- Martinet, André, 1955, *Économie des changements phonétiques*. Bern: A. Franck [3. arg., 1970].
- , 1981, «La phonologie synchronique et diachronique du basque», *Iker-1: Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*, 59-74. Bilbo: Euskaltzaindia.
- McCawley, James, 1978, «What is a tone language?». In Victoria Fromkin, arg., *Tone: A linguistic survey*, 113-132. New York: Academic Press.

- Mitxelena, Koldo [Michelena, Luis], 1954, «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal». *Via Domitia* 1: 123-157. [Berrarg. Mitxelena 1988, I: 273-297].
- , 1958, «Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte», *BAP* 14: 335-367. [Berrarg. Mitxelena 1988, I: 298-319].
- , 1958a, «À propos de l'accent basque», *BSL* 53: 204-220 [Berrarg. Mitxelena 1988, I: 220-239].
- , 1958b, «Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean», *Euskera*, 2. aldia, 3: 36-43. [Berrarg. Mitxelena 1988b: 97-106].
- , 1967, «Notas fonológicas sobre el salacenco», *ASJU* 1: 163-177. [Berrarg. Mitxelena 1987: 221-234].
- , 1971, «Egunak eta egun-izenak», *Munibe* 23: 583-591. [Berrarg. Mitxelena 1987: 269-282].
- , 1972, «A note on old Labourdin accentuation», *ASJU* 6: 110-120 [Berrarg. Mitxelena 1987: 235-344].
- , 1976, «Acentuación alto-navarra», *FLV* 23, 147-162. [Berrarg. Mitxelena 1987: 245-260].
- , 1981, «Galdegai eta mintzagaia euskaraz». In *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 57-81. Bilbo: Deustuko Unib. [Berrarg. Mitxelena 1988, I: 273-297].
- , 1985, *Fonética histórica vasca*, 3. arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [ASJU-ren gehigarriak, 4].
- , 1987, *Palabras y textos*. Leioa: Euskal Herriko Unib.
- , 1988a, *Sobre historia de la lengua vasca*, 2 lib. Donostia: Gipuzkoako Aldundia [ASJU-ren gehigarriak, 10].
- , 1988b, *Euskal idazlan guztiak VI: Hizkuntzalaritzaz I*. Zarautz: Euskal Editoreen Elkarte.
- NEM = *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak*, ikus Euskalerrria Irratia eta beste, 1990, 1993.
- Nespor, Marina & Irene Vogel, 1986, *Prosodic phonology*. Dordrecht: Foris.
- Odden, David, 1981, *Problems in tone assignment in Shona*. Doktoradutza tesia, Univ. of Illinois.
- , 1985, «An accentual approach to tone in Kimatumbi». In Didier L. Goyvaerts, arg., *African Linguistics: Essays in Memory of M. W. K. Semikenke*, 345-420. Amsterdam: Benjamins.
- , 1988, «Predictable tone systems in Bantu». In Harry van der Hulst & Norval Smith, arg., *Autosegmental studies on pitch accent*, 225-252. Dordrecht: Foris.
- , 1995, «Tone: African languages». In John A. Goldsmith, arg., *The handbook of phonological theory*, 444-475. Oxford: Blackwell.
- Olabarria, Amaia, 1995, «Antzuolako euseria». Eskuizkribua, Euskal Herriko Unib., Gasteiz.
- Ormaetxea, Nikolas, 1919, «Acento vasco», *RIEV* 9: 1-15.
- , 1958, «Leitza'ko mintza-doiñua», *Euskera* 3: 29-36.
- Pagola, Rosa Miren, 1984, *Euskalkiz euskalki*. Gasteiz: Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritza.
- Pierrehumbert, Janet, 1980, *The phonetics and phonology of English intonation*. Doktorego tesia, MIT.
- , & Mary Beckman, 1988, *Japanese tone structure*. Cambridge, Mass: MIT Press.
- Pompeius, «Commentum artis Donati». In Heinrich Keil, 1868, *Grammatici Latini*, V. Leipzig: B.G. Teubner.
- Prieto, Pilar & Jan van Santen, 1996, «Secondary stress in Spanish: some experimental evidence». In Claudia Parodi, Carlos Quicoli, Mario Saltarelli & María Luisa Zubizarreta, arg., *Aspects of Romance Linguistics*, 336-356. Washington, DC: Georgetown Univ. Press.
- Quilis, Antonio, 1981, *Fonética acústica de la lengua española*. Madrid: Gredos.
- Roca, Iggy, 1986, «Secondary stress and metrical rhythm». *Phonology* 3: 341-370.
- , 1989, «The organisation of grammatical gender», *Transactions of Philological Society* 87: 1-32.
- , 1990, «Diachrony and synchrony in Spanish stress», *Journal of Linguistics* 26: 133-164.
- Rollo, William, 1925, *The Basque dialect of Marquina*. Amsterdam: H.J. Paris.
- Rotaetxe, Karmele, 1978a, «L'accent basque: observations et hypothèses». *La Linguistique* 14: 55-77.

- , 1978b, *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. Durango: L. Zugaza.
- Sagarzazu, Txomin, 1994, «Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak: Larramendi, Bonaparte, Azkue». In Ricardo Gómez & Joseba Lakarra, arg., *Euskal Dialektologiako kongresua*, 589-631. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (*ASJU*-ren gehigarriak 28).
- Salaburu, Pello, 1984, *Arau fonologikoak*. Bilbo: Euskal Herriko Unib.
- Schuchardt, Hugo, 1922, *Zur Kenntnis der Baskischen von Sara (Labourd)*. *Abhandlungen der Preussischen Akademie der Wissenschaften, Philosophisch-historische Klasse, Nr. 1*. Berlin: Akademie der Wissenschaften.
- Selkirk, Elisabeth, 1995, «Sentence prosody: intonation, stress, and phrasing». In John Goldsmith, arg., *The handbook of phonological theory*, 550-569. Oxford: Blackwell.
- Sosa, Juan Manuel, 1991, *Fonética y fonología de la entonación del español hispano-americano*. Doktorego tesia. Univ. of Massachusetts, Amherst.
- Txillardegi, 1984, *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.
- UNED-Bergara, Euskal Kultur Departamentua, 1988, *Bergarako euskera*. Bergara: UNED.
- Urkijo Orueta, Jon Iñaki, 1996, «Laudioko euskaldunberrien azentuaz (hurbilpen modukoa)». Eskuizkribua, Euskal Herriko Unib.
- Yip, Moira, 1980, *The tonal phonology of Chinese*. Doktoradutza tesia, MIT. Indiana University Linguistic Club-ek banatua.

- XXIV. MANUEL AGUD † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, III. *Beule-Egileor, Babarraso-Bazur*, 1991. Agotado.
- XXV. JOSÉ M^a SÁNCHEZ CARRIÓN, *Un futuro para nuestro pasado*, 1991. 2.500 pta. (2.000).
- XXVI. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, IV. *Egiluma-Galanga*, 1991. 1.000 pta. (800).
- XXVII. JOSEBA A. LAKARRA - JON ORTIZ DE URBINA (eds.), *Syntactic theory and Basque syntax*, 1992. 3.000 pta. (2.500).
- XXVIII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991-ko irailaren 2-6)*, 1994. 3.500 pta. (3.000).
- XXIX. JOSÉ I. HUALDE - XABIER BILBAO, *A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo*, 1992. 1.000 pta. (800).
- XXX. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, V. *Galani-Iloza*, 1992. 1.000 pta. (800).
- XXXI. KARLOS OTEGI, *Lizardi: lectura semiótica de Biotz-begietan*, 1993. 3.000 pta. (2.500).
- XXXII. AURELIA ARKOTXA, *Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti (1933-1975)*, 1993. 1.500 pta. (1.200).
- XXXIII. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, VI. *Ilpiztu-Korotz*, 1993. 1.000 pta. (800).
- XXXIV. JOSÉ I. HUALDE - GORKA ELORDIETA - ARANTZAZU ELORDIETA, *The Basque dialect of Lekeitio*, 1994. 3.000 pta. (2.500).
- XXXV. GEORGES REBUSCHI, *Essais de linguistique basque*, 1997. 3.000 pta. (2.500).
- XXXVI. XABIER ARTIAGOITIA, *Verbal projections in Basque and minimal structure*, 1994. 2.000 pta. (1.600).
- XXXVII. MANUEL AGUD - † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco*, VII. *Korpa Orloi*, 1994. 1.000 pta. (800).
- XXXVIII. PATXI GOENAGA (ed.). *De grammatica generativa*, 1995. 3.000 pta. (2.500).
- XXXIX. ANTONIO CID, *Romancero y balada oral vasca (literatura, historia, significado)*. En preparación.
- XL. AMAYA MENDIKOETXEA - MYRIAM URIBEETXEBARRIA (eds.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*, 1997. 3.500 pta. (3.000).
- XLI. BERNHARD HURCH - M^a JOSÉ KEREJETA, *Hugo Schuchardt - Julio de Urquijo: Correspondencia (1906-1927)*, 1997. 3.500 pta. (3.000).
- XLII. JOSE I. HUALDE, *Euskararen azentuerak*, 1997. 2.500 pta. (2.000).

